# KISTO'ren ANTZ-BIDEA

M. 29320 ATV12-158
R. 16750

Kempis'tař Toma aguřgařia

FUNDACION SANCHO EL SABIO · VITORIA ·

# KISTO'ren ANTZ-BIDEA

Terese Deuna'ren Pi Aba
Kařmeldař Oñotsak
euskeraldutа.

Zořnotza'n –Jaungoiko-Zale'ren Irařkolan
1926

Imprimi potest.
*Marquina 23 Augusti 1925.*
Fr. Ezechiel a S. P. Jesu
Provalis.

*Victoriæ 27 Augusti 1925*
Nihil obstat.
*Lic. Petrus de Anasagasti.*
Censor.

IMPRIMATUR
*Victoriæ 27 Augusti 1925*
VICARIUS GENERALIS
*Dr. Assumptio Gurruchaga*

# KISTOREN ANTZ-BIDEA

## Gogo-bizitzarako oarpen onuratsuak

## LENÈNGO ZATIA

## Jaungoikoak guretzat ipiñiriko elburua

### I ATZALBURUA

### Kistoren antz-bidea ta lur̄eko uzkeri guztien ezespena

1. *Niri jar̄aitzen daustana, ez dabil ilunpean*, diño Jaunak. (1) Kistorenak dira itz oneik; eurokaz bere bizikerea ta oiturak geugandu daiguzala eragiten gaitu, egiz argituak izan eta biotz-itsukeria ur̄indu gura ba-dogu.

---

(1) Jon. VIII, 12.

Gure zereginik arduragarfiena, Josu Kistoren bizitzea gogoan erabiltea izan bedi ba.

Kistok irakatsia deunen ikasgintza baño gorago dago, ta ostendutako mana idoroko leukee Kisto'ren gogoz dabiltzenak.

Baña askok, Kistoren gogorik eztaukielako, Baŕi-ona, goizparkia saŕitan entzun aŕen, gurari motelak eukitea yazo oi da.

Baña Kistoren itzak ondo ta gozaro uleŕtu gura dituanari, bere bizitzea Kistoren bizitzaren antzeko egitea egoki yako.

3. Onik zer egiten dautzu Irutasunatzaz gai zakonak eztabaidaka erabilteak, apaltasunik euki ezta, oŕetantxe be Irutasuna iraintzen ba-dozu?

Egiz, itz gurenak ez dabe deun edo zindo egiten; bizikera onoimentsuak, ostera, Jaungoikoarentzat maitagaŕi egiten dau.

Damua zer dan yakin baño, damudun izan gurago dot.

Idazti deunak lenengotik azkeneraño, ta yakitun guztien esakunak ba-zenkiz

be, Jaungoikoaren eskař eta maitasun barik, onik egin daiketzue?

*Uskeri ta ezerez utsak gauza gustiak*, Jaungoikoa bakařik maitatu ta berari otsein egitea izan ezik.

Luřekoen ezespenaren bidez zerurantza igotea, yakituri zakona da.

4. Ondasun igezkořak bil̄atzea ta euretan ustea ipintea uskeria da.

Aundikeriak gura izatea ta ezer-ezagaitik ařotzea, uskeria da.

Gero gustiz gogoř zigořkatu beařa ekařiko dauana gura izatea ta aragiaren zalekeriari yařaitzea be, uskeria da.

Gero zer etořiko dan begiratu barik, oraingo bizitzeagaz bakařik arduratzea, uskeria da.

Aiñ ariñ iges egiten dauna maitatzea ta betiko atsegiña arduraz ez bil̄atzea, uskeria da. Gomutau egizu sařitan Idazti deuneko esakun au: «begia ikustez ez da asetzen, ezta belařia be entzutez (1).

Zeure biotza ikusten diran gauzeta-

---

(1) Ecl. I-8.

tik aldentzen eta ikusi eziñ diranetara biuŕtzen alegindu zaite; aragikeriari yaŕaitzen dautsienak euren baŕua loitu ta Jaungoikoaren eskaŕa galdu egiten dabe-ta.

## II ATZALBURUA

### Norberazko eritxi apala

1. Gizon guztiak berez dira jakinzaleak, baña ¿zer onik dakaŕ Jaungoikoaren bilduŕ bako yakiteak?

Bere buruaz aizturik, izaŕen ibilketak azteŕtzen dauzan yakitun aŕoa baño, Jaungoikoaren yopu (moŕoi) dan baseŕitaŕ apala obea da. Bere burua ondo ezagutzen dauana ezetsi egiten da, eta gizonengandiko txaloak ez dauz atsegin.

Luŕeko guztiak ba-nenkiz be, maitasunean ezpanengo, zer lagunduko leuskit neure egitadeai dagokienez epaituko nauan Jaungoikoaren auŕean!

2. Jakin-gura laŕegiak ezi egizuz, euroetan eragozpen eta iruzuŕ aundia aurkitzen da-ta. Jakituntzat agiri daite-

zala ta yakitun direala entzutea, pozik aŕtu daroe yakinzaleak.

Jakingai mueta askok onura gitxi, ezer bada, damotsie gogoari.

Zentzunbakoa da, benetan, norberaren gaizkabide direan gauzak laga-ta, edozelangoetara biuŕtzen dana.

Itz askogaz ezta asetzen gogoa; bizikera onak, ostera, sendatzen dau gogoa, ta baŕu garbiak Jaungoikoagazko itxaropen ugaria soŕtzen dau.

3 Geyago ta obeto yakin, gogoŕago epaitua izango zara, deunago biziten ezpazara. Ez zaite, ba, puztu azkaŕ edo jakintsu zaralako, emon dautzuen yakiteagaitik bildur izan bai.

Asko dakizula ta ondo ulertzen dozula baderitxazu, ez dakizuna asko geyago dala ziñetsi egikezu.

*Gauza aundiak ez egizuz yakin gura* (1) zeure ezyakitea aitoŕtu baño; ¿zergaitik ba zeure buru ori geyagotzat euki gura dozu, zeu baño yakitunago ta legea ezagutzean argiagoak ba-dira?

Onuraz ezer yakin eta ikasi gura ba

---

(1) Rom XI-20.

-dozu, aztu ta ezetsi zagiezala autu bear dozu.

4. Ikaspenik gorengoa ta onuratsuena, norbera af́tez ezagutzea ta ezestea da.

Norbera ezereztzat ta geideak on eta aunditzat epaitu, yakite zindoalda orixe.

Iñok agirian oben edo uts aundiak egiten dituala ikusiko ba-zendu, alan eta guzti be zeure burua ez dozu obetsi bear̃; onbidean noz ar̃te iraun zengikenik ez dakizu-ta.

Yauskoŕak gara gustiok; baña zeu baño yauskoŕagotzat iñor be ez egizu begiratu.

## III ATZALBURUA

### Egiaren ikasbidea

1. Egiak berak, berez, ta ez irudien ala itz igeskoŕen bidez, erakusten dautsan gizona, zorionekoa da.

Gure buru-eretxi ta senak saŕitan iruzuŕ egiten dauskue ta gitxitxo ikusten dabe.

Gai eskutu ta il̄unak ondo yakiteak zer on egiten dau, olakorik yakiñ ez

aŕen Jaungoikoaren auŕean salatuko ezpagaitue?

Gauza onuratsuak itxi, ta kaltegaŕizkoetara gogoa itzuli, zorakeri aundia da.

Begiak euki ta ez dogu ikusten.

2. Eta yakintzarien zirto zoŕotzakaz ¿zer daukogu zer ikusirik?

Auti edo Jaungoiko-Semeak ĩtz egiten dautsona, eritxi askotatik yarei gelditzen da.

Gauza gustiak Jaungoiko - Semeagandik datoŕz ta gustiak auxe bakaŕa diñoe: *ta asiera berauxe da, guri itz egiten dauskuna.* (1)

Berau barik eztau iñork ez uleŕtzen ez aŕtez ebazten.

Guztiak bat yakozana ta guztiak batera dakaŕzana ta guztiak batean ikusten dauzana, orixe biotz aldatu-eziña ta Jaungoikoagan baketsu izan leiteke.

Egia zarean Jaungoiko-oŕek, betiko maitasunez zeugaz bat egin nagizu.

Saŕi-askotan asko irakuŕi ta entzuteak gogait eragiten deust; zeugan dago nai ta gura dodan gustia.

---

(1) Joan VIII-25.

Ixildu beitez irakasle gustiak, izaki gustiak zure auŕean ixiĺik begoz; zeuk bakaŕik itz-egidazu

3. Iñoz zuri geyago batu ta biotz garbidunago egin, ta geyago ta gorengoak aditzen ditu, neke barik adimen-argia goitik aŕtzen daualako.

Gogo gaŕbi, lau ta aldagaitza ezta arazo askotan naztuten, guztia Jaungoikoaren aintzarako egin eta buru-eritxitik alde egiteko arduratzen dalako.

¿Zerk, zeure biotzeko ezibako zalekeriak baño geyago eragotzi ta nekatzen zaitu?

On eta yaungoiko-zalea danak bere eginbeaŕak baŕuan atondu daroaz, agirian egin baño lenago.

Egin-beaŕ oŕeik giŕiña okeŕetara eztaroe; berak, ostera, bide onerantza biuŕtzen dauz.

Nork dauko bere burua aspiratzen ekiten dauanak baño buŕukaldi gogoŕagoa? ta gure zeregiña auxe izan beaŕ litzake: burua aspiratzea, egunero sendoagotzea ta bide onean zerbait auŕeratzea.

4. Bizitza onetako edozein osota-

sunek utsunen bat euki oi dau ta gure asmakuntzak iluntasun bakoak ez dira. Jaungoikoaganako bide zuzenagoa dozu buru-ezagutze apala, azteŕpen sakona baño.

Edozelako jakite edo ezagutze, berez ona ta Jaungoikoagana zuzendua izanik, ez da txaŕtzat euki beaŕ; baña gogo zintzoa ta bizikera onoimentsua obagotzat euki beaŕ dira.

Baña askok ondo bizi baño yakin gurago dabelako, askotan okeŕ egiten dabe ta irabazte gitxi edo ezebe eztabe aŕtzen.

5. Jakitun-gayak azteŕtzeko dauken ardurea ekandu txaŕak sustaŕetik atara ta onoimenak eurakantzeko eukiko ba-lebe, ezlitzakez eŕietan ainbeste gaiztakeri ta yauspide izango; ezta lekaide etxetan ainbeste nasaikeri be!

Eztauskue egiz itanduko azken egunean zer irakuŕi dogun, zer egin dogun baño; ezta ze ederto itz egin gendun be, ondo bizi izan garean baño.

Esan egidazu, aŕen, bizi zireanean ondo ezagutu zinduzan arako jaun eta

Irakasleak eta irakas-lanetan nagusi zireanak ¿nun ete-dira?

Orain euren ondasunak beste batzuk daukiez, eta euretzaz baten bat gomutetan bada be eztakit. Bizi zirean artean zeozer ete ziran zirudien; orain, bariz, iñork aitatu be eztauz egiten.

6. Ben-benetan emengo ospeak beingoan iges egiten dau! Jakituria lakoa izan ba-litz euren bizitza! Orduan bai ondo ikasi ta irakuriko ebela! Jaungoikoari yopu izateko ardura gitxi dauken amaikatxo galduko dira yakituri utsalagaitik!

Ta apal baño aundi izatea obagotzat daukielako, euren asmokeriakaz arotu egiten dira.

Maitasun bizi-bizia daukona, auxe bai dala benetan aundia!

Bere eritxiz txikia dana ta aundikeri gorengo mala ezesten dauana, egiz aundia da!

Kisto irabaztearen lureko gauzak satzatzat daukozana, auxe bai-dala benetan zura!

Bere buru-eritxia itxi ta Jaungoikoak nai dauana egiten dauna, bene-benetako yakituna da.

# BIGAŔEN ZATIA

## Azpiratu beaŕ direan eragozpenak

## IV ATZALBURUA

### Egin-beaŕetazko zuŕtasuna

1. Ezta edozein itz edo burukeri siñistu beaŕ Jaungoiko arauz zuŕ ta astirc-astiro azteŕtu baño.

¡Au da samiña! urko lagunaz saŕitan ona baño txaŕa eŕezago ziñestu oi da, ¡onen makalak gara!

Baña gizon onak ez ditu edonoren esamesak eŕez siñisten, gizatasunak txaŕerako daukan makuŕkeria ta izketan labana dala badakialako.

2. Egin-beaŕetan ariñegi ez ibiltea ta norberen eritxiai eten barik gogor ez eustea, jakituri aundia da.

Edonoren esamesak ez siñistea, ta entzun eta siñestutakoa beingoan beste batzuei ez esatea, yakituri oŕexek egiten dau.

Erantzun-eske zoaz yakitun eta bařu zintzodunagana, eta zure asmoai yařaitu ordez, obea danaren irakaspenak zeugandu egikezuz.

Bizikera onak gizona Jaungoiko arauz yakituna ta gauza askotarako zuřago egin daroa.

Norbere eritxiz apalago eta Jaungoikoaren menpekoago dan giñoan, gauza guztietan yakitunago ta baketsuago izango da.

## V ATZALBURUA

### Idazti deunaren irakuřpena

1. Egia, ez izkortasuna, bil̃atu beař da idazti deunetan.

Edozein Idazti deun, egin zan gogoagaz irakuři beař da.

Esakera zořotza baño, onurea lenago bil̃atu beař dogu Idazti deunetan.

Idazti gorengo ta sakonak baizen gogo onaz irakuři beař doguz idazti txiki oneraspentsuak be.

Etzaite irakuřtera yoan Idazlearen aunditasunagatik, jakituna edo ez jaki-

tuna izateagaitik, egi utsaren egaŕiak eraginda baño.

Begiratu egizu, ez nork esan dauan, zer esan dauan baño.

2. Gizasemeak igaroten dira *baña Jaungoikoaren egiak betiko irauten dau.* (1)

Jaungoikoak, nor nor dan begiratu barik, era askotara itz egiten dausku.

Gure jakin-gura laŕegia, Idazti deunak irakuŕtean, irakuŕi ta beste baŕik siñeztu beaŕ geunkena, uleŕtu ta eztabaidakatu gura dogunean, eragozpen yaku.

Onurarik atara gura ba-dozu, gogo apal, garbi ta zintzoagaz irakuŕi egikezu: ta bein be ez egikezu yakitun izena eukiterik gura.

Gogo onaz iȓandu egizu ta deunen esanak ixiȋik entzun egizuz, eta zaŕen esanak ez egizuz gogaikaŕitzat aŕtu, alpeŕik ez ditue esaten-eta.

---

(1) Ps. CXVI. 2.

# VI ATZALBURUA

## Gurari okeŕak

1. *Iñork gauzen bat okeŕ* gura dauan bakotxean, ber-bertatik artegatzen da.

Aŕoak eta zekenak eztauke iñoz be atsedenik; ez-eukia ta gogoz apalesten dana, bake aundian bizi da.

Ondo ilduratuta ez dagoan gizona, lasteŕ gauza txiki ta txatxaŕetan zirikatu ta azpiratua izango da.

Gogo makal eta zerbait oraindiño aragikoi ta mundu-zale dana, gustiz nekez gurari mundutaŕ gabetu leiteke.

Ta gabetzen danean iŕun gelditzen da; ta baten batek aurka egiten ba'dautso, beingoan asaŕatzen da.

2. Baña gura izan dauana beragantzen ba-dau, bertatik bere baŕua kezkaz laŕitzen yako, berak gura eban egiazko atsedena jadesteko egokia ez dan giriñari jaŕaitu eutsalako.

Giriñai gogoŕ egiteaz lortzen da egiazko biotz-atsedena, ta ez eurak gura dabena egiteaz.

Aragikoyaren biotzean ez dago

atsedenik, ezta atetikoetan saŕtuta dabiĺen iñogan be, gori-gartsu ta gogo-zaleagan baño.

## VII ATZALBURUA

### Alpeŕiko itxaropen eta aŕokeritik iges egin beaŕ da

1. Gizonakan edo beste irazakien ba-tegan itxarobidea ipinten dauena eŕgela da. Josu-ren maitasunaŕen iñori otsein-egiteagaitik ez zaite lotsatu; ezta txiro antzera bizitzeagaitik be.

Zeugan ustea ez egizu ipiñi; ipiñi egizu, ostera, zeure itxarobidea Jaun-goikoagan, al dozuna egizu ta Jaun-goikuak lagunduko dautso zeure gurari onari.

Ez zaite entzindu zeure jakituri edo bezte iñoren zurtasunetik, apalak goratu ta aŕoak beratzen dituan Jaungoikuaren eskaŕetik baño.

2. Ondasunak euki aŕen, eurokaz etzaite aŕotu, ta adiskideakaitik bez, asko al dabenak izan aŕen; gauza gustien emoĺe dan, ta batez bere, gur

berbera emotea gura dauan Jaungoikuagan baño.

Gor̃putzaren ler̃dentasun eta yokera eder̃agaitik ez ar̃otu, gaxo txiki bategaz itsusi ta austuten da-ta.

Zeure antze nai zurtasunagaitik ez puztu, Jaungoikoa aspertu ez daizun, yator̃izko on guztia beragandik ar̃tu dozu-ta.

3. Zeure burua bestiena baño obetzat ez egizu euki, gizona zelakoa ta zer dan dakian Jaungoikoaren aur̃ean gaiztoagotzat ar̃tua ez zaitezan izan.

Zeure egitade onakaitik ez ar̃otu, Jaungoikoaren eta gizonen eritxiak bardiñak ez dira-ta; ta gizonak ontzat daukiena Jaungoikoak sar̃itan txar̃tzat eukiten dau-ta.

Zerbait onik ba-daukazu, besteak obeak direala uste egizu; onan apal yar̃aitu daikezun. Beste guztiak baño atzerago yar̃itetik ez yatzu kalterik etor̃iko; baña bateri bakar̃ik aur̃eratzen ba-zayakoz, kaltegar̃i yatzu.

Apalak poz iraunkor̃a euki daroa; baña ar̃oaren biotzean, ordez, iñar̃tzi ta asar̃ea dago sar̃itan.

## VIII ATZALBURUA

### Adizketasun lařegitik iges egin beař da.

1. *Ez egiozu zeure biotza edonori zabaldu* (1), zeure zereginak ostera yakitun eta Jaungcikoaren bildurti danagaz atondu egizuz.

Gazteakaz eta ařotzakaz gitxitan egon zaite.

Ez zaite aberatzen zurikatzalea izan, ezta aundikien auřean arpegi onaz agertu be.

Apal eta biotz gařbidun, gogozale ta bizitza onekoakaz batu zaite; ta eurakaz bizikera onerako direan gauzazko autuak erabilkezuz.

Emakume bategaz be adizkidetasun lařegi ez egizu euki; baña emakume on gustien alde Jaungoikoari otoitz egiozu.

Jaungoikoaren eta bere aingeruen adizkide izatea autu egizu; eta gizonak ezagutzetik uřindu zaite.

2. Maitasuna guztiekaz euki biar

---

(1) Prov. XXV, 9.

da; baña adizkidetasun lařegi ezta egoki. Ezagutzen ez dan norbaitek bere izen onez argi egitea be nozik bein yazoten da; bera ikusteak, bařiz, begiak lausotzen ditu.

Batzuetan bestiak geure adizkidetasuna atsegin dabela uste dogu, eta gugan ekandu ezibakoak ikusten dabezalako, iguingaři izaten gayakez.

## IX ATZALBURUA

### Agintza ta menpetasuna

1. Agindupean egon, nagusiaren menpean bizi ta norberaren yaube ez izatea, gauza aundia da. Nagusi baño menpeko bizitea, askozaz be eskieřago (seguruago) da.

Gogoz baño geyago, bezterik ezinda bizi doaz asko mendean, baña ořetaikoak nekez eta mařmařka dabiz.

Jaungoikoařen burua ezpa-dabe biotz-biotzez menperatzen, ez dabe iñoz gogo-azkatasunik yadetsiko.

Ořa nai ara ibiľi zindekez, baña nagusiaren aspian bizi ezik, ez dozu atsedenik aurkituko.

Irudimenak eta toki aldatzeak askori iruzuŕ egin dautse.

2. Nork bere eritxiz pozago diaŕdu ta bere eritxikoakana etzanago dago. Baña gure aŕtean Jaungoikoa ba-dago, geure eritxia nozik-bein itxi egin beaŕ dogu, bakea izateaŕen.

Gauza guztiak oso yakiteko laingo yakituria ¿nork ete-dau?

Zeure eritxian ez egizu uste laŕegirik izan; besteen eritxia gogo onaz entzun baño. Zure eritxia ona ba-da ta besteenari yaŕaitzeko, Jaungoikoaŕen izten ba-dozu, oŕtixe irabazi yoriagoa atarako dozu.

3. Iñoren onua entzun eta aŕtzea, emotea baño eskieŕagoa (seguruagoa) dala, askotan entzun dot.

Norbere eritxia ona izatea be yazo leiteke; baña besteen eritxiagaz bat ez egitea, sentzunak eta bear izanak alan ezkatzen dauanean, aŕokeri ta buru-gogoŕ-ezaugaŕia da.

# X ATZALBURUA

## Alpeŕ itzak uxatu beaŕ dira

1. Gizonen zer esanetatik al-bait geyen uŕindu zaite; luŕeko zeregiñak erabiltea, asmu zintzoagaz ibiĩi aŕen be, eragozpen aundia izan doa-ta, uskeriak ba baingoan zikindu ta lotzen gaitu-ta.

Ixiĩik egon eta gizonen aŕtean ez ibiltea gura neunke askotan.

Baña ¿zergaitik aiñ pozik itz egiten dogu ta alkaŕegaz autuka gabilz, ain banaka-banaketan biuŕtzen ba-gara ixil-aldira, baŕua zikindu barik?

Alkaŕ-autuetan atsegiña biĩatzen dogulako ta biotza asmakeri askogaz naigabetuta daukagulako, pozaŕen goaz itz egitera.

Asko maite ta gurari biziaz nai doguzanak, naita geure kaltegaŕi izan, gogoan ta autuan pozik darabilguz.

2. Baña¡ au da samiña! saŕitan ezer yadetsi barik eta alpeŕik. Azaletiko atsegin oneik Jaungoikozko ta baŕutiko atsegiñaren kalte aundirako izaten dira.

Oŕegaitik itxaŕik egon eta otoitz

egin beaŕ da, alpeŕerian aldia igaro ez daiten. Bidezko ta egoki ba-da itz egitea, onerakoak izan bediz zure itzak.

Miña ondo ez zaintzen, ekandu okeŕak eta bide onean auŕeratzeko ardura ezak laguntzen dauskue.

Gogo-auŕekuntzarako, ostera, gogoari dagokiozan gauzak autuan erabiltea laguntasun sendoa yaku: batezbere gogo ta biotz-idekoak Jaungoikoagan alkartzen diranean.

## IRUGAŔEN ZATIA

## Donekuntzarako aŕtu beaŕ direan bideak.

### XI ATZALBURUA

### Bake-bidea ta bide onean auŕeratzeko yorana

—1. Guri ardura eztauzkuezan iñoren zer-esan eta zeregiñetan nastu gura ezpagendu, bake guria eukiko geunke.

Iñoren zeregiñetan nastu, alboetan yauspideak bilatu, ta bere baŕuan gi-

txitan edo belu gogo-biltzen danak. ¿luzaroko bakerik zelan izan leike? Zoriontsuak lauak, bake guria eukiko dabe ta.

2. ¿Zegaitik izan ete-zirean aiñ oso onak eta gogozaleak deun batzuk?

Lur̃eko zalekeri guztiekanako euren burua ilduratzen (mortificau) ekin ebelako ta alan biotz - mami - mamitik Jaungoikoagaz batu ta eurekoetan yardun al izan ebelako.

Guri geure gir̃iñak zeregin lar̃egi emoten dauskue ta gauza igezkor̃akaitik ar̃dura lar̃egi artzen dogu.

Ekandu txar̃ batxo bat be ondo gutxitan aspiratzen dogu, ta egunoro bide onean aur̃eratzeko ez garealako ixiotzen, otz eta epel geratzen gara.

Geuretzako il̃-il̃ik eta geure bar̃uan nasai ba'gengoz, orduan Jaungoikoarenak be muxtatuko geunkez eta zerutiko apur̃txo bat ikasterañо be elduko gintzakez.

Eragozpen oso ta andiena gu gir̃iña ta aragikeriaren menpekoak izatea, ta deunen bide onean sar̃tzeko gogor̃ ez egitea da. Naigabetxo bat yator̃kunean

be beingoan makaldu ta aragi-atsegiñetara biuŕtzen gara.

3. Biotz sendodunak lez buŕuka ekingo ba-gendu, zerutik geugana Jaungoikoaren laguntasuna yatsiko litzakela ikusiko geunke.

Bera, buŕukari ta bere eskaŕean itxaroten dabenai laguntzeko beti gertu dago, ta geuretzako buŕuka bil̄a dabil, geuk irabazi daigun.

Agiriko egin beaŕ oneitan bakaŕik bizitza onaren auŕerakuntzea ipinten ba-dogu, gure oneraspena laster amaituko yaku.

Aizkoreagaz zustaŕa yo daigun, giŕiñetatik azkatuta gogo bakea eukiteko.

4. Urte bakoitxean ekandu txaŕ bat zustaŕetik atarako ba-geunke, guztiz onak izango gintzakez lasteŕ.

Baña oraiñ, ostera, bide onetik gabilzala urte asko yoanda gero, asieran obe eta gogo-garbiagoak giñala, saŕitan ikusten dogu.

Gure baŕuko bero ta auŕerakuntzeak egunero geituaz yoan beaŕ leuke, baña oraiñ lelengoetako berotasunaren

apurtxo bateri be iraun erazotea gauza aunditzat daukagu.

Lenengoan indaŕka bat egingo bageunke, gero oso arin eta pozik egin al-izango geunkez guztiak.

6. Oiturea iztea zaĪa da; baña norbere eritxiaren auŕka ekitea zaiĪago da.

Baña gauza txatxaŕ ta eŕazak aspiratzen ezpa-dozuz ¿zelan gauza zaĪak aspiratuko dozuz?

Zure zalekeriari lenengotik gogoŕ egiozu, ta itxi ekandu txaŕa, apuŕka-apuŕka zailtasun-andiagora eroan ezzagizan.

Zeu zintzo biziaz zeuretzako zeinbesteko bakea ta besteentzako zeinbesteko atsegiña ekaŕiko zeunkela bazenki, gogoaren auŕera-bidean aŕduratsuagoa izango zintzakela, uste dot.

## XII ATZALBURUA

### Zoritxaŕen onurea

1. Batzuetan naigabe ta zoritxaŕak eukitea ondo yatoŕku; gizonari, eŕbestean bizi dala oaŕtu dayan eta bere us-

tea luŕeko gauzen baten ipiñi ez dayan, bere biotzera saŕitan biuŕtu eragiten dautselako.

Nozik-bein naigabeak eukitea, ta guk ondo eta gogo onaz egin aŕen be, bestiak okeŕ eta txaŕtzat aŕtzea ondo da.

Onelako gauzak apalak izaten laguntzen dauskue ta aŕokeritik zaintzen gaitue.

Gizonak yaramonik egin ez eta zinesten ez dauskuenean, orduantxe gabiz geure baŕutiko ikusle Jaungoikoaren bil̄a.

2. Oŕegaitik, gizakumeak aragi-atsegin asko bil̄atu beaŕik ez izateraño sendotu beaŕ leuke Jaungoikoagan. Asmo oneko gizonak, atsekabetu, zirikatu ta oldozkun (pentsamentu) txaŕez naigabetua danean, iñoz baño Jaungoikoaren beaŕ izan geyago daukala igaŕten dau; Jaungoikoa barik ezeŕtxu be onik ezin izan daitekela ezagutzen daualako.

Orduan, yazoten yakozan zoritxaŕakaitik itundu egil̄en da, ta zotin ta otoitz egiten dau.

Orduan, bizitza luzea gogaitgaŕi egiten yako, ta gorputz onetatik azkatu ta Kistogaz egoteaŕen, eriotzea etoŕtea gura leuke.

Orduan, benetako eskieŕtasunik (segurutasun) ta egiazko bakerik be luŕean ezin leitekela izan, aŕgiro ezagutzen dau.

## XIII ATZALBURUA

### Ziltzaldiei gogoŕ egin beaŕ dautsegula

1. Luŕean bizi garean aŕtean naibage ta ziltzaldi barik ezin izan geintekez. Oŕegaitik Jobgaz idatzita dago *gizonaren luŕgañeko bizitzea, ziltza*.(1)

Oŕegaitik bakotxak bere ziltzaldiaren aŕdurea euki bei ta otoitz egitean itsaŕik bego, iruzuŕ-biderik izan eztayan txeŕenak; gaizto ori, ba, eztago iñoiz lo, beti ostera inguruka noz iruntsiko dabil. (2)

Ziltzaldirik iñoz be ez izateko duin

(1) Job. VII-1.

(2) 1 Pet. V-8.

FUNDACION ... DEL SABIO · VITORIA ·

on eta deunik iñor be ez dago, ta gustiz ziltzaldi barik ezin bizi geintekez.

2. Baña ziltzaldiak nekegaŕi ta aztunak izan aŕen, gizonentzako saŕi-askotan gustiz onuratsuak dira; ziltzaldietan gizona apal, garbi ta yakituna dalako.

Neke ta ziltzaldi askoren aŕtetik igarota bide onean auŕeratu zirean deun guztiak. Ta ziltzaldirik eroan ezin ebenak, gaitzetsiak izan zirean eta galdu zirean.

Ziltzaldi ta loŕik bako lekaidirik ez da, albait deunena izanda be; toki ta bazteŕik bez, eskutuena bada be.

3. Bizi dan aŕtean ziltzaldietatik oso eskier (seguru) dagoan gizakumerik ez dago; obenera makuŕtuta yayo giñean eskero, euren zustaŕa ta yatoŕia geugan daukagu-ta. Ziltzaldi bat yoaten daneko, beste bat dator, eta beti zeozer jasan-beaŕa eukiko dogu, gure zoriontasun-ondasuna galdu gendun-eta.

Ziltzaldietatik iges egin gura dabe askok, eta ziltzaldi gogoŕagoetara yausten dira.

Iges egiñaz bakaŕik ezin izan geintekez garaile; eroapen eta egiazko apaltasunagaz, ostera, geure arerioak baño indartsuagoak egiten gara.

4. Zustaŕa atara barik, agirian bakaŕik gaitzetik aldentzen danak, gitxi auŕeratuko dau; ostera be ziltzaldiak onegana ariñago itzuliko dira ta len baño txartoago izango yako.

Apuŕka - apuŕka eroapenagaz eta biotz-zabalagaz (Jaungoikoa lagun dala) obeto eziko dozuz, zeure indar eta nekeakaz bakaŕik baño.

Ziltzaldian besteak diñotzuena ontzat aŕtu ta egikezu, ta ziltzaldian dagoanentzat ez zaite izan latza, zeuk zeu poztutea gurako zeunken erara poztu baño.

5. Ziltzaldi guztien jatoŕia gogo-aldakoŕtasuna ta Jaungoikoaganako itxaropen uŕia da.

Lema bako itxasontzia uren indaŕak batera ta bestera daroan antzera, bere asmoa izten dauan ardurabako ta nagia era askotara zirikatua izan oi da.

Suak buŕdiñea ta ziltzaldiak gizon

zintzoa egiztuten dau. Askotan zer al dogun ez dakigu, baña zer garean ziltzaldiak erakusten dausku.

Zuŕ egon beaŕ dogu, batez be ziltzaldia lenengoz agertzen danean; gogoko atetik baŕurantza sartzen ezetara be itxi barik, atea yo ordukoxe gogoŕ egiten bayako eŕazago uxatzen da-ta. Oŕegaitik batek esan eban «lenengoetan gogoŕ eyozu, aspaldian gatxa sendotuta badago, osakaia (remedio) beluegi izango dalako».

Lenengoan ba gogoari oldozki (pentsamentu) utza etoŕten yako; gero irudi bizia, ta onen ondoren aragi-atsegiña, igikun zantaŕa ta bayetza. Ta lenengoetan gogoŕ egin etxakolako, arerio gaiztoa apuŕka-apuŕka osoan saŕtzen da.

Ta gogoŕ egiteko iñor luzaroago nagitu dan giñoan, egunoro makalago geratzen da, ta arerioa indaŕtsuago bere auŕka.

6. Batzuk bide onera datozanean euki daroez ziltzaldirik gogoŕenak; beste batzuk, baŕiz azken aldian. Beste batzuk iya bizitza gustian dira zirikatuak.

Batzuk ziltzaldi ariñak daukiez, gizonen bizikerea ta irabazteak ondo dakizan eta bere autuen onerako gauza guztiak aŕtezten dituan Jaungoikoaren asmo jakintsu ta zuzena alan dalako.

7. Oŕegaitik ez dogu itxaropena galdu beaŕ zirikatuak gareanean be, Jaungoikoari naigabe guztietan lagundu daiskula beroago eskatu baño, berak, Paul Deunak diñoanez ba, *ziltzaldiagaz batera, ziltzaldian gogoŕ egiteko laguntasuna emongo dausku.* (1)

Jaungoikoaren eskupean geure buruak opaldu daiguzan ziltzaldi ta naigabe gustietan; biotz apalak Berak gaizkatu (salbau) ta yasoko ditu-ta.

8. Naigabe ta ziltzaldietan ezagutzen da zeinbat iñork bide onean auŕeratu dauan; irabazte ugariena ziltzaldietan dago, ta onoimena obeto agertzen da.

Ezta gauza aundia neke-aztunik ez dagoanean eraspentsu ta gogo beroaz egotea; baña naigabe orduan eroapentsu badirau, auŕerakuntza aundiaren itxaropena izango da.

---

(1) 1. Cor. X, 13.

Batsuk ziltzaldi aundietan ez yausteko euren burua zaintzen dabe; baña egunoroko txikietan sařitan yausten dira, onen gauza txatxařetan ain indařbakoak direalako lotsatuta, gauza aundietarako eurekan itxaropenik ez dayen euki iñoz.

## XIV ATZALBURUA

### Eritxi ariñegiak uxatu beař dira.

1. Zeugana begiok biuřtu egizuz ta besteen asi-ořaziak ez epaitzeko alegin egizu. Besteak epaitzen dauzanak alpeřik daragoyo; sařitan okeř epaitzen dau ta eřez oben egiten dau; bere burua epaitu ta aztertzeari bařiz, beti onuraz daragoyo.

Gauzea, geure biotzentzat dan letxe epaitzen dogu, geyenetan eritxi zuzena geure burukoikeriagaitik eřaz galtzen dogu-ta.

Geure gurari guztien elburu bakařa Jaungoikoa balitz, aragikeriak auřka egin ařen, ez gintzakez ain arin ařtegatuko.

2. Baña sařitan geure bařuan zeo-

zer ostenduta dago edo atetik (kanpotik) yatoŕku, bere atzean geu be garoazana.

Asko ixil̄ean euren buruen bil̄a dabiz egikizun guztietan, baña ez dabe igarten.

Eztitan dagozala be badirudi, gauzak eurak gura ta atsegin dabezan erara datozenean; baña beste erabatera zerbait yazoten ba-da, lasteŕ aŕtegatu ta ituntzen dira.

Asmo ta eritxiak baŕdiñak ez direala -ta adizkide ta auzokoen aŕtean, Jaungoiko ta gogozaleen aŕtean be, saŕi askotan ezta-baida gogoŕak soŕtzen dira.

3. Antxiñako ekandua nekez izten da; ta norbere eritxia iztera iñor be ez doa gogoz.

Josukistoren indaŕ aspiragaŕiari baño zeure sentzun eta antzeari geyago itzasten bazayakoz, gitxitan eta belutxu argitua izango zara; Jaungoikoak gu bere menpean oso-osorik egon, eta bere maitasun gaŕtsu bidez eritxi guztiak baño gorago igotea gura dau-ta.

# XV ATZALBURUA

## Maitasunetiko egiñenak.

1. Ez luŕeko edozergaitik ez iñoren maitasunagaitik, egin leiteke txaŕa danik ezer; baña beaŕizana daukanaren onerako noizbait egiñen ona, kezka barik atzeratu edo beste egiñen obean aldatu be egin leiteke.

Onan ondo egiteari ez yako izten, beste obeagoaz ordeztu baño.

Azaletiko egiñenak, maitasun barik, ez dau onik egiten; baña maitasunagaitik egiten dana, txiki ta ziztriña izan aŕen, guztiz onuratsua da.

Egiz, Jaungoikoak egiñenari baño egiḹearen asmoari geyago begiratzen dautso-ta.

2. Asko egiten dau, asko maite dauanak.

Asko egiten dau, egiten dauan guztia ondo egiten dauanak.

Bakotxaren onerako baño, gustien onerako egiten dauanak obeto egiten dau.

Saŕitan maitasuna dirudiana ara-

gikeria baño ez da; yatoŕizko makuŕkeriak, geure zalekeriak eta sari-itxaropenak nekez itxi gura gaituelako.

3. Maitasun zintzo ta egiazkoa daukona, ezertan be ez dabil bere eritxiz; guztietan Jaungoikoa goratua izan daitela baño ez dau gura izaten-eta.

Bere atsedenik ez daualako maite, ez dautso iñori iñartzirik; beragan ez dau poztu gura; gauza guztien gañetik Jaungoikoagan auŕkitu gura dau atsegiña.

Iñori ez dautso ezertxu onik ezaŕten, guztiak, ostera, Jaungoikoari ezaŕten dautsoz. Berak ituŕi batek lez oro dariozalako, ta deun gustiak Beragan, azkenez, egiazko zorionagaz, atsedena daukielako.

Benetako maitasun-txinpart bat ¡nok leukaken! benetan luŕeko gauzak ezerez utsak direala ikusiko leuke.

## XVI ATZALBURUA

### Besteen utsak eroan beaŕa.

1. Gizakumea, beragan edo besteakan ondu ezin leikena, eroapenaz

eroan beaŕ dau, Jaugoikoak beste era batera atondu aŕtean.

Zure sayo ta eroapenerako ori oba edo izango dala uste egizu, eroapen barik ez dira gauza aunditzat aŕtu beaŕ gure irabazteak-eta.

Alan da gusti be, Jaungoikoari eskatu bear dautsazu lagundu daizula olako eragozpenak arin eroan daikezuzan.

2. Norbait baten edo biŕitan esanda ezpada ontzen, beragaz ezta-baidaka ez ibiḹi; dana Jaungoikoaren eskuetan ezaŕi egizu ostera, bere yopu guztietan txaŕak ontzen dakian Jaungoikoaren guraria ta aintza bete dedin.

Ekin egizu ba besteen utsok eta edozelako makaltasunak eroaten, zeuk be bestientzako eroan-bear asko dakozuz -eta.

Ta zeuk gura dozun erakoa egin ezin bazara ¿zelan besteak zeure gogokoak al izan litzakezuz?

Besteak onak izatea gogoz gura dogu. baña geure utsak ez doguz betetan.

3. Besteai neuŕi estuak artu dayoezala gura dogu, baña geuretzako ez dogu neuŕirik gura.

Besteai eskubide luzea emoten bayakie, txaŕtzat daukogu, ta geuk eskatzen dogunik ukatzerik ez dogu gura. Besteak agindu-pean lotuak izatea gura dogu, baña geuri ezer galazoterik ez dogu ezetara be eroaten.

Onan, besteak geure burua baño gitxiagotan maite doguzala agertzen da.

Guztiak on-onak izango ba-lira ¿zer eroan-beaŕ izango geunke Jaungoikoaŕen, besteakandik?

4. Baña Jaungoikoak onan erabagi eban (1) «alkaŕen utzak eroaten ikasi daigun, uts eta loŕ bakorik, beretzat naikoa danik eta naikoa dakianik eztagoalako; baña bata-bestea eroatea, alkaŕ poztutea, alkaŕi laguntzea, bata-besteari erakutsi ta onu onak emotea, egoki da.

Onoimenetan bakotxa noraño eltzen dan, zoritxar-garayan argiroago ikusten da. Garayak, ba, eztau gizona yauskoŕa egiten, zelakoa dan agertu baño.

---

(1) Galat VI, 2.

# XVII ATZALBURUA

## Lekaideen bizitzea

1. Zeure buru-eritxia sařitan austea egoki yatzu, besteakaz bake ta adizkidetasunean bizi gura badozu. Lekaidetxe ta lekaide ařtean bizi, asaře bařik yařaitu ta eriotzarano zintzo irautea, ezta gauza txikia. Antxe ondo bizi ta ondo ilten dana zorionekoa da. Beař dozun lez egon eta auřeratu gura badozu, ařotz ta bidaztitzat etsi zaite luř gañean.

Josu Kistogaitik tenteldu egin beař zara, lekaide antzean bizi gura badozu.

2. Jantziak eta ule-motsak gitxi emon oi dabe; ekanduen aldakuntzak eta giřiñen benetako ildureak egin oi dabe benetako lekaidea.

Jaungoikoa bakařik eta bere gogoaren deuntasuna baño besterik bilatzen eztauanak, naibage ta neke-miña baño eztau auřkituko.

Luzaroan baketsu ezin egon leiteke txikiena ta guztien menpeko izaten alegintzen ez dana.

Otsein izatera etoŕi ziñean eta ez nagusi izatera; (yasateko) egari ta lan egiteko etoŕi ziñeala yakin egikezu ta ez alpeŕerian eta baŕiketan ibilteko.

Uŕea laban lez, gizonak emen egiztauten dira. Iñor emen ezin egon leiteke, Jaungoikoaŕen apaldua ta ezetsia izatea gura ezpadau.

## XVIII ATZALBURUA

### Asaba deunen ereduak

1. Benetako deuntasun eta Jaungoiko-zaletasunez argi egin eben asaba deunen eredu-ikusgaŕiai begiratu eyezu, ta guk egiten doguna gitxi edo ezertxu be eztala ikusiko dozu.

¡Gu bai eŕukaŕiak! ¿Zer da gure bizitzea aen bizikereaeren ondoan?

Gose ta egaŕiz, otz eta biĺostasunez, lán eta nekez, lo gitxi ta barauz, otoitz eta gogarketa deunez, yasaŕpen eta irain ugariz, Kistoren adizkideak izanik, Jaungoikoaren otsein izateari ekiten eutsen.

2. Bidalduak (apostoluak), ziñopeak (martiriak), autorleak, gizkar-

biak eta Kistoren oñatzetatik ibiḷi gura izan eben beste enparau guztiak ¡bai naibage asko ta aundiak eroan zituela!

Bizitza onetan euren gogoak goŕotau ebezan, betiko bizitzean eukiteko.

Asaba deunak basamortuan eroan eben bizikerea, bai, bazan bizitza estu ta ixiḷekoa! Aenak, bai, bazirean ziltzaldi luze ta aztunak! Aek bai saŕi askotan arerioak ostikopean erabiḷi ebezan. Aek Jaungoikoari eskiñi eutsezan otoitzak bai bazirean otoitz saŕiko ta gaŕtsuak! Aen barau gogoŕak! Aen ardura ta gurari biziak gogo-auŕerakuntzarako! Aen buŕukaldi gogoŕak giŕiña zantaŕak eziteko! Aek bai baeuken Jaungoikoaganako asmo garbi ta aŕteza!

Egunez lanari ta gabaz luzaroko otoitzari ekiten eutsen; eta lanean egozan aŕtean be ez eutsen izten gogo-otoitzari.

3. Aldi osoa onuraz emoten eben, Jaungoikoagaz yarduteko orduak laburak eritxezan eta sokun-ezti gozoagaitik gorputza yanaritu beaŕa be aiz-

tu egiten eben. Ondasun, aundikeri, ospe, adizkide ta senideak izten ebezan! lurekorik ezer ezeben euki gura; biziteko bear dana be nekez artzen eben; gorputzari bear zanean be begiratzea, nekegari yakoen.

Lureko ondasunez ez-eukiak zirean, baña eskar eta onoimenez oso aberatzak.

Azalez bear-izana eukien, baña buruz eskar eta Jaungoikozko atsegiñez poztuak zirean.

4. Munduarentzat arotzak, Jaungoikoarentzat, bariz, eldu ta adizkide barukoak.

Euren buruak ezereztzat eukezan eta gizadiarentzat ezetsiak zirean, baña Jaungoikoarentzat ederak eta kutunak.

Benetako apaltasunean egozan; menpetasun zintzoan bizi zirean, maitasun eta eroapenaz ebizan, eta olantxe, egunoro, gogo-bidean aureratzen eben, eta Jaungoikoaren aurean eskar yoria yadesten eben.

Lekaide guztien eredutzat ipiñiak izan dira ta bide onean aureratzeko

geyago eragin bear gaitue, epel-piloak nasaikerirako baño.

5. Euren Lekaidi guren asierean, lekaide guztien gogoa bai bazan beroa! ¡A zan oneraspena otoitzean! ¡a onoimenerako leya! Aek erabilen zeaztasun eta begirunea! A zan lotsea ta esanekotasuna Irakaslearen agintzapean..! Ta oraindiño itxi zituen oñatzak, benetako deun eta on-onak zireala argiro dirauskue, ain gogor buruka ekinda gizakeria (mundua) aspiratu ebenak.

Orain, bariz, iñok legea austen ezpadau ta bere gurariz artu ebana, ezin-bestean, eroapenaz badaroa, aunditzat eristen da.

¡Au da geure izakerearen epeltasun eta alperkeria! onen ariñ itzuliten gara lenengo-berotasunetik, eta geure nagikeri ta epeltasunagaitik bizitzea gogaikari egiten yaku!

Onoimen-aurerakuntzea ezpedi, aren, zugan lozoroan egon, sari askotan yaungoiko-zaleen eredu asko ikusi dozuzan ezkero.

# XIX ATZALBURUA

## Lekaide zintzoaren iñarkunak

1. Onoimen guztiakaz apaindu beaŕ dau lekaide onaren bizikereak, azaletik agertzen dan lakoa baŕutik be izan dedin.

Eta azaletik ikusten dan baño geyago baŕutik izan beaŕ dau, alde guztietan lotsa aundia euki beaŕ dautsegun Jaungoikoa ikusletzat daukagulako, ta bere auŕean aingeruak baizen garbi ibiĺi beaŕ dogulako.

Gure asmoa egunoro baŕiztau beaŕ dogu ta gauŕtxe lenengoz bide onera eldu baigiñean, baŕuko beroa bizkoŕtu ta esan: Lagundu egidazu, neure Jaun eta Jaungoiko oŕek, neure asmo zindoan eta zuri otsein-egitean, eta gauŕdanik asiera on-ona emon egidazu; gauŕ aŕte egin dodana ezer be ezta-ta.

2. Gure asmoa dan bestekoa, gure auŕerakuntzea; ta ondo auŕeratu gura dauanak oso zoli ibiĺi beaŕ dau.

Asmo sendoa aŕtu dauana be askotan yausten bada; banaketan ido asmo

epelak aŕtzen dabezanakaz ¿zer izango da?

Era askotara izten yako gure asmoari; ta iñaŕkuṇak eŕaz iztea, guztiz gitxitan yazoten da kalte barik.

Zintzoen asmoa norbere yakituritik baño geyago Jaungoikoaren eskaŕetik dago eskegita, ta zerbaiteri ekitoŕduan beragan dauke beti ustea.

Gizasemeak asmoa aŕtu egiten dau, baña Jaungoikoak ebazten dau, ta eztago gizonaren eskuan bere bidea.

3. Eŕukiagaitik ala anayearen onuragaitik oizko iñarkuna noizbait itxi badadi, gero eŕaz ordaindu daiteke.

Baña biotzeko epeltasun eta alpeŕeriagaitik eŕaz itxi badadi, naiko eŕudun egiten da ta kaltea izango dau. Ekin dayogun lanari al dogun giñoan; alan eta guzti be uts askotan eŕaz yausiko gara-ta.

Baña zerbait egiteko beti erabagi beaŕ da, ta batez be, geyen eragozten dauskuen auŕka, gogoŕ ekin. Gure azaletiko ta baŕutiko gauzak baŕdin aztertu ta atondu beaŕ doguz, gure go-

go auŕerakuntzarako bitsuak onak dira-ta.

4. Beti gogobilduta (recojerse) ezin bazara egon, nozik-bein gogobildu zaite, ta gitxienez egunoro biŕitan, au da, goxean eta aŕatsean.

Goxean asmoa artu egizu ta aŕatsean zeure ekanduak azteŕtu egikezuz; itzez, egitez eta asmoz zelakoa izan zarean; olakoetan, zuk, Jaungoikoa ta uŕko laguna saŕitan iraintzea izan leiteke ta.

Txeŕenaren azerikerien auŕka gogoŕ egiteko gizon antzera gertu zaite; yangure laŕegia ezi egizu ta aragiaren giŕin guztiak eŕezago (balaztatuko) eziko dozuz.

Ez zaite alpeŕeri osoan iñoz bere egon, ala irakuŕten, ala idazten, ala otoitz-egiten da gogaŕtetzen, ala guztien onerako dan gauzen bat egiten eragoyozu.

Baña goŕputz-iñaŕkunak zuŕ egin beaŕ dira ta guztiak eztiŕue baŕdiñak aŕtu beaŕ.

5. Bakotxarenak eztira oroen auŕean egin beaŕ, norbere-norberenak

ixiĺean eskieŕago egiten dira-ta.

Ez zaite, aŕen, guztientzakoetan alpeŕa ta zeuretzakoetan zolia izan; ostera, aginduak eta egin-beaŕak oso ta zintzo-zintzo bete ezkero, astirik badaukazu, zeure eraspenari dagokionez, zeugan gogobildu zaite.

Ezin leie guztiak iñaŕkun bardiña euki; bateri, ordea, gauza bat eta besteari beste bat yako onuragaŕiago.

Aldia dan lez iñarkun oneik edo aek atsegingaŕiago; batzuk yai-egunetan, eta beste batzuk astegunetan atsegingaŕiagoak direalako.

Batzuen beaŕ-izana ziltzaldian daukagu ta beste batzuena bake ta bare-aldian.

Batzuk iŕunduten gareanean gogoratu beaŕ doguz, eta beste batzuk Jaungoikoagan pozik gagozanean.

6. Jai-egunik andienen inguruan iñaŕkun onak baŕiztau egin beaŕ dira, ta deunen bitaŕtekotasuna gogotsuago eskatu.

Jai baten uŕengo yairako asmoa artu beaŕ dogu, mundu onetatik orduantxe urtenda betiko yaira eltzeko bai-

gengozan. Ořegaitik aldi erazpentsuetan zoli geřtu beař gara ta onerazpen aundiagoaz yařdun eta eginbeař guztiak zeatzago bete, gure neke-saria Jaungoikoagandik lasteř ařtu beař baigenduan.

7. Ta sari ori luzatzen ba'yaku, oraindiño ez gagozala ondo gerturik ta bizitz onen ondoren gugan agertuko dan aintza edeřerako ezkareala gai uzte daigun, eta urten-aldirako obeto geřtatzeari ekin dayogun.

«Zorionekoa (diño Luka goizpařlariak) Jauna datořkenean itzařik idoroko dauan bere otseña. Bene-benetan dirautzuet, ondasun guztien yaube egingo dodala. (1)

## XX ATZALBURUA

### Bakař eta ixiltasun-zaletasuna

1. Zeurekikoetan yarduteko asti egokia biļatu egizu, ta Jaungoikoagandiko bezuzak sařitan gogoan erabiļi egikezuz.

---

(1) Matth. XXIV, 46-76.

Bařikeriak itxi egizuz. Arazoa baño geyago biotz-gařbaya dakařen irakuřkizunak irakuři egizuz.

Alpeřiko bařiketa ta ibilkeretatik, bai ta baři ta suřumuřu entzutetik be uřinduko baziña, gogařketa onetan ekiteko asti naikoa ta egokia idoroko zeunke.

Deunik aundienak gizonen batzařetatik al ebenean uřintzen zirean, eta Jaungoikoari ixilean otsein-egitea obetzat euken.

2. Norbaitek esan eban «Gizon artean egon nintzan bakotxean, gizon-ezago biuřtu nintzan» (Seneka'k). Ta au sařitan geugan oařtzen dogu, itz asko egiten dogunean.

Itz egitean utsik ez izatea baño ixilik egotea eřazago da.

Etxean geratzea eřazago da, kanpoan beař dan bestean burua zaintzea baño.

Ořegaitik bařutiko ta gogokoetara eltzeko alegin egiten dauanari, Josu'gaz gizon artetik uřintzea, egoki yako.

Iñor eskieř ezta agertzen, gogoz ostenduta egoten dana baño.

Gogoz ixiĺik dagoanak izan ezik, ez dau iñok eskieŕ itz egiten.

Ezta iñor eskieŕ naguzi, gogoz menpeko dana baño.

Eztau iñork ondo agintzen, agindua ondo egiten ikasi dauanak baño.

3. Eskieŕ iñor be ezin poztu leiteke, baŕu onaren ziñalpena beragan ezpadauko.

Baña deunen eskieŕtasuna beti Jaungoikoaren bilduŕez beterik izan zan.

Onoimen aundi ta eskaŕ ugariakaz argi egin aŕen, oŕaitio euren ardura ta apaltasuna etzan gitxiagotu.

Gaiztoen eskieŕtasuna aŕokeri ta aundikeritik datoŕ; eta azkenean euren iruzuŕbide biuŕtzen da.

Bein be ez uste izan bizitza onetan ezkieŕ zagozanik, lekaide on eta padaŕ Jaungoiko-zalea badirudizu be.

4. Saŕi-askotan gizonen eritxiz onenak dirudienak, euren uste laŕegiagaitik, yauspide txaŕagoetara yoan oi dira.

Oŕegaitik askorentzat ziltzaldi barik ez izatea ta saŕitan zirikatuak izatea oba da, eskieŕegi bizi eztaitezan, ala

burua afokeriz yaso eztayen, ala azaletiko atsegiñetara nasai makurtu eztaitezan.

Alaitasun igeskofaren bila iñoz eztabilanak, lufeko gauzakaz arduratzen eztanak ¡ofek bai baru ona eukiko leukela!

Norberagandik ardura utsal guztiak iñausi ta gauza onurakor eta yaungoikozkoetan bakarik oldoztu (pentzau) ta bakar-bakarik Jaungoikoagan bere itxaropen osoa ipiñiko baleu, ¡olan bai bake ta baretasuna eukiko leukela!

5. Biotz-garbai deunean marats diarduanak baño, eztauz irabazi zerutiko pozaldiak.

Biotz-biotzez damutzea gura ba'dozu, zeure baru-tokian sartu zaite, ta ludiko zarata guztiak aldendu egizuz eta, idatzita dagoan lez «zeuon etzatokietan damutu zaiteze» (1).

Gelan idoroko dozu, saritan kanpoan galduko dozuna.

Betiko-gelea, atsegingari; nozean-beingoa, gogaikari.

---

Ps. IV-5.

On-bidearen asieratik sařitan euki ta ondo zaindu ba-zendu, gero adizkide zintso ta atsegin oso pozkařia izango litzakizu.

6. Gogo Jaungoiko-zaleak ixil-barealdian auřeratzen dau ta Idazti deunetako egi eskutuak ikasi oi ditu.

Gau bakotxean ikuzi ta garbitzeko negař - malko - ibayak idoroten ditu, luřeko zařapařatik uřintzen dan bestean, bere Egiľearentzat bařukoago egin daiten.

Ezaun eta adizkide ařtetik uřintzen danari, Jaungoikoa ta aingeru deunak uřeratuko yakoz.

Norbera aiztuta gauza ařigařiak egitea baño, ostenduta egon eta norbere buruaren ardurea eukitea, oba da.

Gitxitan urten, besteen begirakunetatik iges egin eta gizasemerik ikusterik gura be ez izatea, lekaideentzat gauza txalogařia da.

7. Eukitea egoki ez yatzuna ¿zergaitik ikusi gura dozu? «Ludia (mundua) ta bere atseginkeriak igaro egiten dira» (1).

(1) Joan. II-17.

Aragikeriak nasaitzera daroa, baña ordu ori igaro ezkero, gogo-kezkak eta biotz-zabarkeria izan ezik ¿zer ataraten dozu?.

Joate pozkaŕiak saŕitan biuŕtze negaŕgaŕia dakaŕ, eta aŕatsalde alayari biaramon itunak yaŕaitu oi dautso.

Alantxe aragi-atsegiña guztiz bigun sartu oi da, baña azkenean aginka ta il egiten dau.

Emen ikusi ezin zengikenik beste tokietan ¿zer ikusi zeinke? Oŕa oŕ oŕtzea (zerua), oŕa oŕ luŕa, ta izagai oro, guztiak oŕeixetatik egin dira.

8. Eguzki aspian luzaroan iraun daikenik ¿non ikusi zeinke? Guztiz asetzea-edo uste dozu, baña oŕaño ezingo zara eldu.

Guztiak begien auŕean ba-zeunkoz be ¿ez ete litzake izango alpeŕiko ikuskizuna?

Goiko Jaunagana begiok yaso egikezuz, eta zeure oben eta nagikeriakaitik otoitz egiozu.

Gauza utsalak utsalentzako itxi egizuz, eta zuk Jaungoikoak agindu dautzuzanai eragoyezu.

Atea itxi zeure ostean, eta Josu laztanari zeugana deitu egiozu.

Zagoz Beragaz gelan, ainbeste bake eztozu iñon aurkituko-ta.

Urten ezpazendu ta suŕu-muŕuai bape yaramonik egin ezpazeuntse, bake onean obeto iraungo zeunkean.

Nozik-bein baŕiak entzutea atsegin dozulako, oŕexegaitik biotz - laŕiak eroan beaŕko dozuz.

## XXI ATZALBURUA

### Biotz-garbaya

1. Zerbait auŕeratu gura badozu Jaungoikoarenilduŕ izan zaite ta nasayegi bizitea ez egikezu gura, zeure asmen (sentidu) guztiak legepean ezi egizuz, eta poz tentelari etsakioz emon.

Biotz-garbayan ekin egizu, ta oneraspena idoroko dozu.

Nasaikeriak lasteŕ galdu oi dituan ondasun asko, garbayak ekaŕi oi dauz.

Aŕigaŕia da, bere aŕoztasuna ta gogo-aŕizkuak gogoratu ta auznartzen dituana bizitza onetan oso pozik egon al-izatea.

2. Biotz-ariñagaitik eta geure u-tsen ardura-ezagaitik, geure gogoaren miñak eztoguz asmetan; baña askotan zorakeriz bare egiten dogu, benetan negar egin bear geunkenean.

Baru garbiagaz Jaungoikoaren bildurean izan ezik, eztago benetako azkatasunik, ezta alaitasun onik be.

Zorionekoa sabar-eragozpen guztietatik urindu daitekena, ta bere baruan garbai deunaz bildu daitekena.

Zorionekoa bere barua loitu nai aztundu leiskeon edozer yaurtiten dauana.

Gizon-arauz gogor ekizu, ekandua ekanduagaz aspiratzen da-ta.

Gizonak izten badakizu, eurok be zeure egin-bearak betetan itxiko dautzue.

3. Besteen arazorik ez egikezu leporatu, ezta naguzien zereginetan be ezaite nastu.

Lenengo zeuri begiratu egiozu, ta laztan-dozuzanentzako baño zeuretzako onu (contseju) obeak artu egizuz.

Gizonen laguntasuna ezpa-daukazu be, ez oregaitik itundu; baña Jaungoi-

koaren otseñari ta lekaide eraspentsuari dagokion lez ondo ta arduratsu etzagozalako, onexegaz, bai, atsekabetu zaite.

Bizitza onetan atsegin ugariak, aragi aldekoak batez be, ez eukitea, oba ta eskieŕago yako saŕitan gizonari.

Oŕaitio yaungoikozko atsegiñak bein be edo nozik-bein baño ezpadaukaguz, geu gara eŕudun; biotz gaŕbai bil̄a ezkabizalako ta utsal eta azaletiko atseginkeriak uŕintzen eztoguzalako.

4. Jaungoikozko atsegiña aŕtzea eztozula irabazi uste egizu; baña bai, naigabe asko aŕtzea.

Gizasemea guztiz damututa dagoanean, orduan, ludi osoa nekegaŕi ta gaŕatza izaten yako.

Gizon onak beti zegaitik garbaitu ta negaŕ-egin naikoa auŕkitzen dau.

Naiz norberari, naiz iñori begiratu; badaki loŕ barik iñor eztala emen bizi.

Ta bere burua zeatzago begiratu, ta saminduago gelditzen da.

Geure oben eta ekandu gaiztoak dira bidezko gaŕbai ta biotz damu-eragil̄eak; oŕek inguratuta, goitiko gauzak

gitxitan auznařtu al-izaterano lurean etsanda gagoz.

5. Bizitza luzearen ordez eriotzea gogoan erabiliko ba'zendu, ezpaibarik, berotsuago onduko zintzakez.

Baita gaiztokiko (inpernu) ta garbitokiko oñazeak biotzez gogoratuko ba-zeunduz be, neke ta samintasunak pozik eroango zeunkezala eta laztasunari bildurik etzeunskiola izango uste dot.

Baña oneik gauzok biotzerano etxakuzalako sartzen eta oraindino bigunkeri-zaleak garealako, oregaitik otzik eta nagi geratzen gara.

6. Sari askotan gogoaren makaltasuna dala-ta, gorputz gaxoa ain eraz uluka dabil.

Gogo-garbaya emon daitzun Jaunari apal eskatu egiozu ba, ta Igarleagaz esan egiozu: *negarezko ogiaz yanaritu nagizu, Jauna, ta negar malkoak, edaritzat neurtuta emon egidazuz* (1).

---

(1) Ps. LXXIX, 6.

# XXII ATZALBURUA

## Zein gaxo dan gizona

1. Edonon egon, naiz edonora yoan, Jaungoikoagana biuŕtzen ezpazara, gaxoa zara. Nai ta gura dozun erara etxatoŕtzuzalako gauzak ¿zegaitik laŕitzen zara?

Nork daukoz gauza guztiak bere gurariaren neuŕiz? Ez nik, ez zuk, ez luŕeko gizon batek bez,

Atsekabe ta laŕitasun barik iñoŕ be eztago luŕean, eŕegea nai Aita santua izanda be.

¿Nor da ondoen dagoana? Benetan Jaungoikoagaitik zeozer yasan (eroan) daikena.

2. Tentel eta makal askok esaten dabe: Begitu, urliak bai, badaroa bizitza ona! A bai, aberatza! A bai, entzute aundikoa! A bai, altsu ta garaya!

Baña zeruko ondasunetara begiratu egizu, ta oŕek gauza igeskoŕok guztiz ezpayazko ta laŕigaŕitzat eukiko dozuz; ardura ta bilduŕ barik eztirealako iñoz be eukiten.

FUNDACION SANCHO EL SABIO · VITORIA ·

Gizonaren zoriona odasun igeskoŕak eukitean eztago; beaŕezkoakaz naikoa dauko.

Benetan, luŕeko bizitzea neke goŕia.

Gizasemea arima-zaleagoa dan neuŕiz, mingotsagoa izango yako bizitzea; gizatasun ustelkeriaren utsuneak obeto ezagutu ta argiroago ikusten dauzalako.

Naiz yan, edan, itsaŕik egon, lo egin, atseden, lan egin, naiz gizatasunaren beste beaŕ-izanen aspian bizitea, gorputzatik azke ta oben barik izan gura dauan gizon arima-zalearentzat, guztiz neke ta naigabe goŕia da benetan.

3. Baŕukoya, (baŕu-zalea) goŕputz-beaŕ-izanakaitik bizitza onetan oso loŕpetuta dago.

Oŕegaitik azkatua izatea guztiz samuŕ ezkatzen dau Igaŕleak, esanaz: *neure beaŕtasunetik atara nagizu, Jauna.* (1).

Baña eŕukaŕia bere ezereza ezautzen eztauana! ta eŕukaŕiagoak bizitza eztun (eŕukaŕi) ta ustelkoŕ au maita-

(1) Ps. XXIV, 17.

tzen dabenak! Emen beti bizi al ba'litzaz, Jaungoikoaren Jaureŕiaren (eŕeñuaren) bape ardurarik eleukie izango askok; oŕen bat-bat eginda dago bizitza ustelkoŕ onegaz, lanean edo eskean ibilita gero beaŕ-beaŕekoak oso nekez euki aŕen be.

4. Aragikeriak baño atsegin ez izateraño luŕekoetan ondatuta dagozanak, bai, badira benetan zoro ta biotz-siñeste bakoak.

Baña eŕukaŕi oneik azkenean, maitatu ebena uskeria ta ezer-eza zala, laŕi igaŕiko dabe.

Baña Jaungoikoaren deunak eta Josu Kistoren adizkide zintzoak, aragiak atsegin ebazanai ta (aro) aldi onetan loratzen zireanai ezeutsen yaramonik egiten, euren itxaropen eta gogo osoak ostera betiko ondasunetarantza yoranez igoten eban.

Euren gurari guztia gorantz, iraunkoŕ eta ikusi-eziñetara igoten eban, ikusten direanen zaletasunak bekoetara eratzi etzeyezan.

Gogoko gauzetan auŕeratzeko ustea ez egikezu galdu, oraindiño garai ta aukerea daukozu-ta.

Zegaitik zeure asmoa biaramoneratu gura dozu? Jagi ta oraintxe asi zaite ta esan egizu: oraintxe da ekiteko garaya, oraintxe buŕuka ekiteko aldia, oraintxe da ni ontzeko une ona.

Txaŕto ta loŕpean zagozanean, orduantxe da irabazteko ordu egokia.

Su ta ur aŕtetik igaro beaŕ dozu, atsedenera eldu baño lenago.

Zeure buruari gogoŕ egiten ezpadautsazu, ekandu txaŕik eztozu azpiratuko.

Oben barik ezin egon geintekez, ezta iguin eta min barik bizi be, goŕputz ausikoŕ au darabilgun aŕtean.

Zoritxaŕ bape barik pozik atsedengo gintzakez, baña obenagaz eŕugabetasuna galdu gendun ezkero, benetako zoriontasuna be galdu gendun.

Oŕegaitik eroapena euki ta Jaungoikoaren eŕukia itxaron beaŕ dogu, gaiztakeria igarota, ilbeaŕ au bizitzeak iruntsi aŕtean.

6. Guztiz aundia da benetan gizonaren makaltasuna, beti ekandu gaiztoetara makuŕtuta dagoana.

Zeure obenak gauŕ autoŕtzen dozuz,

eta biaŕ, autoŕtu zenduzanetantxe baŕiro yausten zara.

Arduraz biziteko asmoa aŕtzen dozu, ta andik ordu bete baŕu, asmorik euki ezpaizenduan egiten dozu.

Onen laban eta aldakoŕak garean ezkero, badaukagu bene-benetan zergaitik burua apal erabil̄i, bein be ontzat euki barik.

Neke gogoŕagaz eta ozta-ozta ta ezkarbidez atzenean loŕtu zana, ardura-ezagaitik beingo baten galtzen da.

7. Onen goxetik epelak bagara ¿zer izango da azkenean gugaz?

Ondo eŕukaŕiak gara, onan bake ta eskieŕtasuna baigeunkean, geure bizikerean oraindiño benetako deuntasunaren oñatzik be iñon agiri eztala, atsedenera yo gura badogu.

Asibaŕi onak lez, ekandu zintzoetan oindiño baŕiro aztea ondo litzake, geroko obekuntza ta gogo-auŕerakuntza geyagoren itxaropenik beaŕ bada izango al balitz.

# XXIII ATZALBURUA

## Eriotza-gogoratzea

Lasteŕ-lasteŕtxo egingo dau emen zureak, begiratu ba zelan zabizen.

Gauŕ bada gizona ta biaŕ ezta agiri. Begien auŕetik kendu ezkero, gogotik be beingo baten doa.

Gero zer etoŕi daiteken begiratu barik, oraingo gauzakaz bakaŕik arduratzen dan gizona, bai dala tenteltzaŕa ta biotz-gogoŕekoa!

Egite ta oldozkun (pentsamentu) bakoitzean, gauŕ ilgo zarialakoan yardun (bizi) beaŕ zeunke.

Baŕu garbia ba-zeunko, eriotzaren bilduŕ-aundi ez zintzakez izango. Eriotzatik iges egitea baño obenetatik (pekatuetatik) alde egitea oba litzake.

Gauŕ ezpa-zagoz gertuta, ¿zelan egongo zara biaŕ? Biaŕko eguna bada-ezpadakoa izanik, ¿zer dakizu biaŕ goxean bizirik itxaŕtuko zarean ala ez?

2. Zer on dakarsku luzaro biziteak, onen gitxi ontzen gareanezkero?

Ene! bizitza luzeak ezkaitu beti obetzen, sařitan obenak geitu baño.

¡Ene! geure bizitzako egun bat bakařik ondo igaro ba-gendu!

Bide-oneratu zireanetiko urteak zenbatzen (kontetan) dabez askok, baña obekuntza-igaliak uřiak dira sařitan. Bilduřgařia ba'da iltea, luzaroan bizitea ařiskugařiagoa izan leiteke.

Zorionekoa bere eriotz-ordua gogoan darabil̄ena, ta ilteko egunero gertutzen dana.

Iñoz iñor ilten ikusi badozu, zeu be bide atatikxe igaroko zareala gogoratu egizu.

3. Goxean ařatsaldera eltzeko usterik ez euki; ta gabera eldu ezkero, ez asařtu biaramonera elduko zarean usterik eukiten.

Ořegaitik eriotzarako gertaera barik iñoz be ez aurkitzeko, beti gertuta bizi ta egon zaite.

Asko bat-batean eta otoz-otoan ilten dira; giza-semea (Josu kisto) uste eztan orduan etořiko da-ta.

Azken-ordua datořkizunean, zeure ordurarteko bizikerea oso beste era

batera irudiko yatsu, ta asko damutuko zara ain alpeŕ eta nagia izan zarealako.

4. Eriotz - orduan auŕkitzea gura dauan lez orain biziteari dakiona ¡bai ba-da zoriontsu ta zuŕa!

Ondo ilteko itxaropen aundia emongo dau, luŕeko gauzak oso ezesteak, onoimen - bidean auŕeratzeko gurari gaŕtsuak, lege-maitasunak, garbai-nekeak; aginduak betetako bizkoŕtasunak, norbere burua ukatzeak eta Josukistoren maitasunagaitik ez-beaŕ guztietan eroapena eukiteak.

Gauza on asko egin zeinkez osasunaz zagozan aŕtean; baña bein gexotu ezkero, eztakit zer al izango dozun.

Gexoak ontzen dituanak gitxi izan oi dira, baŕdin eleixarik-eleixa dabizanak be gitxitan deuntzen dira.

5. Adizkide ta auzokoetan ez egizu itxaropenik euki, ontzeko ordua be ez geroratu, zugaz gizonak zuk uzte dozun baño ariñago aiztuko dira-ta.

Oba dozu orain garaiz arduratu, ta zerbait on auŕetik bialdu, iñoren laguntasunean itxaron baño.

Ezpazara orain zeure buruarentzat arduratsua, ¿nork artuko dau gero zure alde ardurea? Oraingoxea da aldi edeŕ-edeŕa; orangoxeak osasun-egunak; oraingoxea aro onirizgaŕia.

Baña au negaŕgaŕia! betikotasunerako bizitzea irabazi al izan, eta aldi au alpeŕik igaroten dozu.

Ontzeko egun edo ordutxo bat gurako dozun eguna etoŕiko da; baña yadetsiko dozunik eztakit.

6. ¡Eup! ¡Kutun ori! ¡zelango aŕiskuetatik aldenduko zintzakezan eta zelango izu-ikaratik iges egingo zeunkean orain, beti bilduŕti baziña, ta eriotzea ganean dozulakoan baziñardu!

Eriotz-orduan bilduŕ baño pozik izateko erara biziteko, alegin egizu orain.

Oraindikxe luŕeko gauzentzat ilten ikasi egikezu, orduan Kistogaz zoriontsu biziten asi zaitezan. Gauza guztiak ezesten ikasi egizu orain, orduan, Kistogana yarei ta azke yoan zaitekezan.

Orain oben-nekeakaz ildnratu egizu zeure goŕputz ori, orduan itxaropen osoagaz aurkitu zaitezan.

7. ¿Zer dala ta, tentel oŕek, luza-

roan biziko zareala uste dozu, badaezpadakoa eztan eguntxo bat ezpadaukazu?

Amaikatxo, luzaro biziko zirealakoan egozala, iruzuŕ eginda gelditu dira, ta gorputzetik uste barik atereak izan dira.

¿Zeinbat bidaŕ entzungo zendun urlia espataz il zala, berendia ito egin zala, sandiari, goitik yausita burua apuŕtu yakola, emengoa yaten egoala ber-bertan il̄ik geratu zala, ta angoarentzat, yolasketan ziarduala izan zala bere azkenengo ordua?

Bat sutan il zan, bestea burdiñeagaz, emengoa izuŕitean (peste), angoa lapuŕen eskuz; ta onan guztioen azkena eriotzea da, ta gure bizitzeak, kerispeak lez beingo baten iges egiten dau.

8. Zu il ezkero, zugaz nor gomutauko da? ta zure aldez nork otoitz egingo dau?

Egin, egin maite oŕek, egin orain al dozuna, noz ilgo zarean eta eriotz ostean zer yasoko yatzun eztakizu-ta.

Erea daukozun aŕtean betiko ondasunak batu egizuz.

Zeure betiko osasuna baño besterik ez egikezu gogoan erabiḷi, ta Jaungoikoari dagokiozanetan bakaŕik ardurea euki egizu.

Egin zaite orain adizkideakaz, Jaungoikoaren deunak goretsirik ta euren egiteen antza aŕturik, bizitza onetatik urten daizunian betiko zorion-biztokietan aŕtu zayezan.

9. Luŕeko arazoetan zer ikusirik eztaukon bidazti ta aŕotzaren antzera bizi zaite.

Uri (biztoki) iraunkoŕik emen eztaukozulako, biotza azke ta Jaungoikoagana gora yasota euki egikezu.

Zeure egunoroko otoitz eta antziak negaŕ malkoakaz araxe bialdu beaŕ dozuz, eriotz ondoren zeure gogoak Jaungoikoaren atsedenera yoatea irabazi dayan. Olantxe.

## XXIV ATZALBURUA

### Obendien epai ta oñazeak (tormentuak)

1. Eginbide guztietan azkenera begiratu egizu, ta ezertxo be eztaltzen

etxakon, bezuzakaz biguntzen eztan, apukorik (atxakirik) onaŕtzen eztauan, eta gauzak zuzen-zuzen, direan letxe epaituko dituan epaikari zoŕotzaren auŕean zelan auŕkituko zarean, gogoratu egizu.

Ene obendi eŕukaŕia! zeure gaiztakeri guztiak dakiazan Jaungoikoari, ¿zer erantzungo ete dautsazu, zuk, batzuetan gizon asaŕe-arpegiari bilduŕ dautsazun oŕek?

Zergaitik etzara gertuten epai-egunerako, bakotxak norberagaz zereginik asko eukiko dauan ezkero, iñok iñor ez zuritu, ez aldeztuko eztauan egunerako?

Zure nekea oraintxe da onuragaŕia, zure negaŕa onirizgaŕia, zure zotiñak entzungaŕiak eta zure garbaya ordain eta garbigaŕia.

2. Gaŕbibide aundia ta osasungaŕia badauka irañak aŕtzean, aŕtu dauan iraiñaz baño irain egin dautsanaren asmo gaiztoagaitik geyago atsękabetzen danak; arerioen alde, gogoz, otoitz egiten dauanak; irañak (eŕuak) biotzez parkatzen dituanak; besteai parka es-

katzea luzatzen ez dauanak; asaŕatu baño eŕazago eŕukitzen danak, bere burua saŕitan indaŕpetu ta aragia gogoari guztiz menpetzeari ekiten dautsanak.

Obenak orain ordaintzea ta ekandu txaŕak sustaŕetik ebagitea oba da, gero ordaintzeko iztea baño.

Geure buruari iruzuŕ egiten dautsagu, aragiari dautsagun maitakeriagaitik

3. ¿Zer besterik arako suak iruntsiko dau, zure obenak baño?

Orain geyago buruari parkatu ta aragikeriari jaŕaitu, gogoŕago zigoŕkatua izango zara, ta zeu eŕetako eŕekin geyago batzen dozu.

Iñork geyen oben egin ebanetan, gogoŕago zigoŕkatua izango da.

An nagiak su-gaŕezko estenakaz zirikatuak izango dira; ta saloak (salobereak) gose-egaŕi itzalagaz oñazetuak izango dira.

An aragikoi ta atsegin-zaleak ui (pez) irakiñez eta kiratsaŕi atzituz igurdiak izango dira, ta iñartzitiak, txakuŕ amuŕatuak lez, oñaze aŕtean uluka egongo dira.

4. Ekandu txaŕ bat ezta egongo, berari dagokion oñaze barik.

An aŕoak lotsa-lotsatuta geratuko dira; zekenak txirotasun goŕian ikusiko dira.

Nekegaŕiago izango da ango ordu bat, emen eun urteko laztasun gogoŕena baño.

An eztago atsedenik, gaiztokikoentzat (impernukoentzat) atsegiñik bat bez, emen baŕiz nekea nozik-bein eteten da-ta adizkideengandiko pozaldiak aŕtzen dira.

Zeure obenen ardurea ta damua orain euki egizu, epai egunean deunakaz eskieŕ egon zaitezan

Egun atan *zintzoak, eurak laŕitu ta ostikopean erabili ebezanen auŕka, bape bilduŕ barik yagiko dira-ta.* (1)

Orduan epaikari egongo da, orain gizonen eritxien azpian apal yaŕiten dana.

Egun atan txiroak eta apalak uste aundia eukiko dau, aŕoari baŕiz, alde guztietatik bilduŕ ikarea sartuko yako.

---

(1) Sap. V. 1.

5. Orduan bizitza onetan Kistogaitik tentel eta matxaŕa izaten ikasi ebana, yakituna izan zala ikusiko da.

Orduan eroapenaz yasango naigabea atsegingaŕi izango da ta *gaiztotasun osoak agoa itxiko dau.* (1).

Orduan Jaungoiko-zale guztiak poztuko dira, Jaungoikoaren arerio guztiak, ostera, itunez beteko dira.

Orduau aragi ilduratua, atsegin aŕtean beti bizi izan baŕitz baño geyago poztuko da.

Orduan yantsi zataŕak argi egingo dau, yantsi mea, ostera, ilunduta geldituko da.

Orduan uŕezko yauregia baño etxetxo txatxaŕa geyago txalokatua (goraldua) izango da.

Orduan eroapen iraunkoŕak geyago lagunduko dau, luŕeko al-guztiak baño.

Orduan gizonen azerikeri (maŕu) guztiak baño, menpetasun apala geyago goretsiko da.

6. Geyago poztuko dau orduan baŕu gaŕbi ta onak, yakituri zoŕotzak baño.

---

(1) Ps. C. VI, 42.

Orduan luŕeko ondasun guztiak baño, aberastasunen ezespena obetzat eukiko da.

Orduan geyago poztuko zara eraspenaz egindako otoitzagaitik, bazkari gozoagaitik baño.

Orduan ixiĺik egotea atsegingaŕiagoa izango yatzu, baŕiketa luzea baño.

Orduan egite onak onuragaŕiagoak izango yatzuz, itz apañak baño.

Orduan bizikera estu ta laztasun gogoŕa atsegingaŕiagoa izango yatzu, luŕeko atsegin guztiak baño.

Orain apurtxo bat eroaten ikasi egikezu, orduan neke gogoŕetatik yarei izan zaitezan.

Emen lenengo aztertu zaite, an gero zer yasan ete-daikezun yakiteko.

Emen oŕen gitxi yasan al-ba-dozu; betiko oñazeak ¿zelan yasan izango daikezuz?

7. Orain neke txiki batek oŕen artega izten ba-zaitu, ¿zer egingo dautzu orduan betiko oñazeak?

Bene-benetan atsegin bikoitzik ezin euki zeinke: emen bizitza onetan eztitan bizi, ta gero an Kisto'gaz naguzi izan-

Gaur̃ ar̃te txalo eta atsegin ar̃tean beti bizi izan ba-ziña; gusti or̃ek ¿zer onik ekar̃iko leuskizu oraintxe berbertan ilgo-ba-ziña?

Benetan guztiz uzkeri utsa da, Jaungoikoa maitatu ta berari bakar̃ik otsein egitea izan ezik.

Biotz-biotzez Jaungoikoa maite dauenak ba, ez eriotziari, ez oñaziari, ez epayari, ez gaiztokiari (inpernuari) ez dautso bildur̃ik, maitasun oso-osoak Jaungoikoaganako bide ezkier̃a (segurua) zabaltzen dautsalako.

Baña oraindiño obena atsegin dauanak, eriotza eta epayaren bildur̃ izatea, ezta ar̃itzekoa.

Baña gaiztakeritik oindiño maitasunak ur̃intzen ezpa-zaitu, betiko gaiztoki (inpernu)-bildur̃ak atzeratzea ona yatzu.

Bar̃iz, Jaungoikoaren bildur̃a bastertzen dauana, onbidean luzaroan ezin egon izango da, ta txer̃enaren sareetan laster jausiko da.

# XXV ATZALBURUA

## Gure bizikera osoaren obekuntza gaftsua

1. Jaungoiko-otsein egiteko itzarik eta zoli izan zaite, ta saritan gogoratu egizu zergaitik etori ziñean eta zergaitik mundua itxi zendun.

Jaungoikoarentzat biziteko ta gogo arduratsua izateko ¿ez ete zan izan? Ekiozu, ba, sutsu aureratzeari, neke-saria laster artuko dozu-ta; andik aurerantzean ez bildurik ez miñik egundo-be ez dozu izango.

Orain zeozertxo nekatuko zara ta gero atseden aundia, baita betiko poza be idoroko dozuz.

Zeuk zintzo ta gartzu ekiten badautsazu lanari, ezbai barik, Jaungoikoa zintzo ta esku-zabala izango da saria emotean.

Gurendea (garaya) lortzeko itxaropen on eta sendoa euki bear dozu, baña ezkiertasunik eukiterik etxatzu egoki, nagitu ta arotu etzaitezan.

2. Norbait kezkaz, bildur eta itxaro-

pen aŕtean, saŕitan loka ebil̃ala, alako -baten biotz-laŕi-laŕituta eleiz baten saŕtu ta opamai (altara) auŕean otoitz egiteko auzpazturik, bere baŕuan gauza onei eragiten eutsen, esaten ebala: «azkenerano iraungo dodan ba'neki!» Eta bertatik Jaungoikoaren erantzun au entzun eban: «¿zer egingo zeunke azkenerano iraungo dozula ba'zenki? Orduan egin gura zeunkena, oraintxe egizu, ta ondo eskier (seguru) egongo zara».

Ta ber-bertatik poztu ta sendatuta Jaungoikoaren nayaren azpian yaŕi zan eta bere urduritasun laŕia baretu zan.

Aŕezkero berari zer yazoko ete-litzakion yakingura ta azteŕkatzen ibilterik ez eban nai, maitiago ebalako Jaungoikoaren gura erarako ta betea zein dan ikastea, edozein egin-beaŕ on asi ta amaitzeko.

3. *Jaungoikoagan itxaron eta onean iñaŕduzu (ekin egizu),* diño Igarleak *ta luŕean bizi zaite ta bertako aberastasunetan janarituko zara.* (1).

---

(1) Ps. XXXVI. 3.

Gauza bat da aur̃eratzetik ta obekuntza gartsutik asko atzeratzen dauzana, zailtasunaren bildur̃-ikarea edo bur̃ukearen nekea.

Benetan, iñor baño askozaz be geyago aur̃eratzen dira onoimenetan, latz eta nekegar̃ienak yakezanak gizon antzerago azpiratzen ekiten dabenak.

Gizonak antxe egiten dau aur̃erakada andiagoa ta eskar̃ yoriagoa irabazten dau, geyen bere burua azpiratu ta gogoa ilduratzen dauanean.

4. Baña ez daukiez guztiak azpiratu ta ilduratu bear̃ bar̃diñak.

Alan eta guzti-be deuntasunerako gertaera obea eukiko dau, giriña asko euki-ar̃en, bere burua ontzeko zoli ta arduratsu diarduanak, mendu on-onekoa izanda, onoimenetarako epelagoa izaten danak baño.

Gauza bik, batez be, obekuntza andirako laguntzen dabe: geure izatea oker̃ makur̃tzen danetik alde egiteak, ta bear̃en dogun ona gartsu eskatzen ekiteak.

Iñogan sar̃ien txartzat artzen dozu-

zanak zeugandik uŕindu ta azpiratzeko ardurea eukizu.

5. Naiñondik zeure onurea atera egizu; ta jaŕaibide onak ikusi ala entzuten ba'dozuz, ixetu eurok zeuganatzeko.

Baña lotsagaŕizkorik ikusi ba'dozu, arduratu zaite zeuk berbera ez egiteko: ta iñoz egin ba-dozu, ariñago ontzeko ardurea artu egizu.

Zeuk besteai begiratzen dautzezun lez, besteak be zeuri begiratzen dautzue.

¡Gauza atsegin eta gozogaŕia da, benetan, anai-biotz-gartzu ta Jaungoiko zaleak ekandu onakaz eta lege -menpean yarduten ikustea!

¡Ta gauza negaŕ ta samingaŕia da okeŕ ibilten ikustea, deituak izan ziranetan ez diarduela!

¡Benetan norbere dei-asmoan nagitzea ta agindu etxakozanetan nastea kaltegaŕia da!

6. Arturiko asmoaz gomutau zaite ta eredutzat gurutzeko yauna ipiñi egizu.

Ba-daukozu zergaitik lotsatu Josu-

kistoren bizitzea gogoratzen badozu, Jaungoiko bidean aspaldian ibiľi aŕen, oraindiño Josukistoren antzekoa izateari azkaŕago ekin eztautsazulako.

Jaunaren bizitza ta Nekauste (Pasiño) deun-deunean adi ta eraspentsu diarduan lekaideak, onuratsuak ta beaŕeko guztiak bertan eŕaz idoroko ditu, ta Josugandik ataz (kanpoan) gauza obearen biľa ibiľi beaŕik eztauko.

¡Ene! ¡gure biotzera Josu gurutzatua etoŕiko ba-litz! ¡orduan bai jakitunak beingoan eta beaŕ dan bestean egingo gintzakez!

7. Lekaide sutsuak, agintzen yakon dana ondo eroan eta aŕtu oi dau.

Lekaide alpeŕ eta epelari, baŕutiko atsegiñik eztaukalako ta azaletikoen biľa ibiltea galazo yakolako, atsekabeak atsakabeen ganera ta alde gustietatik naigabea jatoŕkoz.

Lege-pean bizi eztan lekaidea jauspide aundian dago.

Nasaikeri ta alpeŕeri biľa dabiľana, beti laŕi egongo da; bata edo bestea iguingaŕi izango yakolako.

8. Zelan burutzen ete-dira lekaide-

txeko lege-pean naikoa ezturik bizi direan ainbeste lekaide?

Gitxitan urteten dabe, bakařti bizi dira, txiro-txiro yaten dabe, soñeko lodiakaz yantziten dira, lan asko, baña itz gitxi egiten dabe, luzaroan itzařik dagoz, goxetik yagiten dira, otoitzaldia luzatzen dabe, sařitan irakuřten dabe, legea zeatz-zeatz betetan dabe.

Begitu egiezu Kartus'tař Zisteř'tař ta beste gopatzetako (erlejiñoetako) lekaide ta lekaimeai, zelan gau guztietan Jaunari onespenak abesten jagiten direan.

Beraz ainbeste lekaide Jauna gorestén asten direan aldi deun ořetan nagitzea lotsagaři izango litzakizu.

9. ¡Beste zereginik ezpageunko geure Jaun eta Jaungoikoa biotz-biotzez eta aoz gorestea baño!

¡Ene! iñoiz be ez yan, ez edan ez lo egin beařik eukiko ezpazendu, beti, ostera, Jaungoikoa goretsi ta gogozkoai bakařean ekiten bizi al-baziña, orduan askoz be zoriobekoagoa izango zintzakez ¡edozein beař-izanagaitik gorputzari otsein-egiten dautsazun orain

baño! ¡Onetaiko beaŕak ezpagenduz! ¡ba geunkoz, ostera, ain gitxitan, zoritxaŕez, muxtatzen doguzan gogoaren oturunak (jalaldiak) bakaŕik!

10. Gizasemeari, izakietiko atseginik ez biĺatzeraño eltzen danean, orduantxe lenengoz Jaungoikoa guztiz gozogaŕi izaten asten yako; baita yazoten yakozan gora-bera guztiakaitik be ondo pozik dago.

Orduan ezta ez aundiakaitik poztu ezta txikiagaitik iĺundu be egiten; guztietan guztia yakon Jaungoikoagan jaŕten da ostera, oso ta ustez beterik, Jaungoikoari ezer ez yako galtzen ez ilten; guztiak baŕiz bizi yakoz eta beti-beti otsein egiten dautse.

11. Euki beti gogoan zure azkena ta galdutako aldia eztala itzuliten.

Ardura ta zolitasun barik eztozuz onoimenak iñoz zeuretuko.

Epeltzen asten ba-zara, txaŕto auŕkitzen asiko zara.

Su ta gaŕ yoten ba-dozu, bake-atseden aundia auŕkituko dozu ta neke guztia Jaungoikoaren eskaŕ eta onoimen maitasunagaitik arinduko yatzu.

Gizon sutsu ta zolia edozertarako gertuta dago.

Gorputz - lanetan izerditzea baño gaiztakeri ta griñen aurka ekitea neke gogorakoa da.

Uts txikietatik aldentzen eztanak apurka-apurka aundiagoetara laprast egingo dau.

Aratsean poztuko zara, eguna onuratsu erabili ba-dozu.

Zaindu zaite, zirikatu zaite, aixatu zaite ta, iñori yaramonik egin barik, zeure ardurea euki egizu.

Zeure burua indarpetzen dozun beste bakarik auferatuko dozu. Alantxe.

# BIGAŔEN IDAZTIA

## LENENGO ZATIA

## Baŕuko bakeak Jaungoikoaren Jaureŕia (eŕeñua) geŕtatzen dau.

## I ATZALBURUA

### Baŕuko erauskera (autua).

1. Zuen baŕuan dago Jaungoikoaren yaureŕia (eŕeñua), diño Jaunak (1) Biotz-biotzez Jaunagana biuŕtu zaite, ta luŕeko uzkeriak itxi egizuz, ta atsedena idoroko dau zure gogoak.

Azaletikoak oinperatzen eta baŕutikoai ekiten ikasi egizu; ta Jaungoikoaren yaureŕia (eŕeñua) zeugana datoŕela ikusiko dozu.

Jaungoikoaren yaureŕia Goteunagandiko (Espiritu Santuagandiko) ba-

(1) Luk. XVII. 21.

ke ta poza da (2) ta ez yake gaiztoai emoten.

Zure bařuan beretzako laingo biztokia gertatzen ba'dautsazu, Kisto zeugana etořiko da, bere poza agertzen dautzula.

Bere aintza ta edeŕtasuna bařuan dago ta antxe dauko bere atsegiña.

Bařu-zaleekaz euki daroaz Kistok bere saři-ikustaldiak; eurakaz bere autu gozoak; eurakaz bere pozaldi atsegiñak, bere bake andia ta oso ikaragařizko bařukotasuna.

2. Ia ba, gogo zintsoa: Ezkontide (maitale) ouentzat zeure biotza atondu egizu: zugana etoři ta zugan bizi gura izan dagian.

Berak olantxe diño, ba: *Norbaitek maite ba'nau, nire esana egingo dau, ta beragana etoři ta beragaz biziko gara.* (1).

Tokia Kistori emoiozu, ba, ta beste enparau guztiai sařerea ukatu egiezu.

Kisto euki ezkero, aberatza zara ta

---

(2) Rom. XIV. 17.

(1) Jon. XIV. 23.

naikoa yatzu. Bera, gizonakan itxaron beaŕik euki eztaizun, edozetan zeure arduratsu ta ornitzaĺe zintsoa izango yatzu.

Gizonak lasteŕ aldatu ta beingo baten doaz; baña Kistok beti irauten dau, ta azkenerano, aspertu barik, egon oi da.

3. Gizon ausikor eta ilkoŕagan ezta uste andirik ipiñi beaŕ, onuragaŕi ta maitea izan aŕen; ta nozik-bein zeure auŕka yagi ala yaramonik egiten ezpadautzue be, ezta oŕegaitik biotza itundu beaŕ.

Gauŕ zeure alde dagozanak, biaŕ zeure auŕka yagi leitekez; okeŕetara saŕitan, aizea lez, aldatzen dira-ta.

Zeure itxaropen osoa Jaungoikoagan ipiñi egizu, ta bere bilduŕ izan zaite, ta bera maitatu egizu. Zure alde berak erantzun eta ondo-ondoen izango yatzunez egingo dau.

Biztoki iraunkoŕik emen ez-daukazu ta edonora yoan aŕen, aŕotza ta eŕbestekoa zara; ta Kisto'gaz oso alkaŕtuta ezpa-zagoz, iñoz be eztozu atsedenik izango.

4. Zure atseden-tokia au ezpada, ¿zer dala-ta zabiz oŕa-ta-ara begira? Zeure biztokiak zerutikoetan izan beaŕ dau; eta luŕeko gauza guztiak igeskoŕak lez begiratu beaŕ dira.

Guztiak igaroten dira ta zeu be eurokaz batera.

Etzayezan ez lotu ez galdu, ez oŕeikaz, aŕen, alkaŕtu.

Zure oldozkaya (pentzamentua) Jaungoikoagan bego, ta zure otoitzak Kistogana aspeŕtu barik igon bei.

Goitikoak eta zerutikoak so-egiten (begiesten) ezpadakizu, Kistoren nekealdian atsedendu, ta bere zauri deunetan pozik bizi zaite.

Josu-ren zauri ta zakail (herida), edeŕetara biuŕtzen ba-zara, naigabealdian sendotasun aundia nabaituko (sentiduko) dozu; ta gizonagandiko ezespenari yaramon andirik ez dautsazu egingo, ta txaŕto-esanen esamesak eŕez eroango dozuz.

Luŕean gizonak Kisto be ezetsi (oinperatu) eben, ta bere ezagun ta adizkideak beaŕ gogoŕenean, irain aŕtean bertanbera itxi eben.

Kistok beretzat neke ta ezespenak gura izan ebazan; eta zu edozegaitik zinkuŕin - minkuŕinka asten asaŕtuko ete-zara?

Kistok arerio ta txarto-esaleak euki ebazan, eta zuk, baŕiz, guztiak adizkide ta ongiĺeak euki gura ete-dozuz?

Ezetariko atsekaberik ezpa-yatzu yazoten ¿zelan yasan-saria irabaziko dozu?

Zelan izan zaitekez Kistoren adizkide naigaberik yasan (eroan) gura ezpadozu?

Kistogaz nagusi izan gura ba-dozu, Kistogaz eta Kistogaitik yasan (sufridu) egikezu.

6. Josu'ren baŕuan bein ondo saŕtuko ba'ziña ta bere maitasun gaŕtsua apuŕtxo bat gozaŕtuko ba-zendu, zeure onura edo kaltegaitik ez-zintzakez aŕduratuko; egin dautzuezan iraiñakaz, ostera, poztu egingo zintzakez; Josu'ren maitasunak norbere-burua ezesterano (despreziauterano) daroalako.

Josuren eta egiaren maitatzaĺea ta baŕu-zalea ta zalekeri okeŕetatik azke dagoan, yarain biuŕtu leiteke ta gogoaz

norbere-gañera igon eta estitan atsedendu.

7. Gauzak direan lez, eta ez esaten edo dirudien lez, aŕtzen dituena, egiazko yakituna da, ta gizonak baño geyago Jaungoikoak erakutsia.

Bere baŕuan ibiltzen eta azaletikoak gutxitzat eukiten dakiena, gogozko iñaŕkunai (egikizunai) ekiteko eztabil toki bil̄a edo garai egokiaren begira.

Baŕu-zalea lasteŕ saŕtzen da bere baŕuan, azaletiko gauzai etxake iñozbe gustiz emoten-eta.

Azaletiko lanak ez-tautsa eragozten, ezta nozik-beingo egin-beaŕak be, gauzak yazoten direan erara bera be eratzen yake-ta.

Baŕuz ondo geŕtu ta atonduta dagoanak, gizonen egitade aŕigaŕi ta txaŕen aŕdurarik ez dauko.

Gizasemea, azaletiko gauzak beragantzen dituan bestean, eragotzi ta adigabetzen da.

8. Zuzena ta biotz-gaŕbia ba-ziña, gustia on eta onuragaŕi izango litzakizu.

Zeuretzako oso il̄ik eta luŕeko gauz-

FUNDACIÓN ... EL SABIO VITORIA

etatik alde eginda etzagozalako oraindiño, gauza askok atsekabetu ta beti be aŕtegatzen zaitue.

Gizonaren biotza geyen lotu ta nastuten dauana luŕeko gauzakanako zalekeri zikiña da.

Azaletiko atsegiñak ezesten ba-dozuz, zerutikoak begiratu ta luŕeko pozaldiak saŕitan euki al-izango dozuz.

## II ATZALBURUA

### Menpetasun apala

1. Zure alde nai zure auŕka nor dagoan etzaite laŕegi aŕduratu; baña Jaungoikoa gauza guztietan zeugaz izan daiten ekin eta alegin egizu.

Baŕu ona eukikezu, ta Jaungoikoak ondo zainduko zaitu.

Jaungoikoak laguntzen dautsanai ezin leyo iñoren gaiztakeriak kalterik egin.

Ixiĺik egoten eta yasaten (sufriduten) ba-dakizu, benetan Jaungoikoaren laguntasuna zeugan ikusiko dozu.

Berak ba-daki zelan eta noz lagundu beaŕ dautzun, eta oŕegaitik berari eskiñi beaŕ zayakoz.

Lagundu ta edozein eztukuratik ataratea Jaungoikoari dagokiona da.

Apaltasun geyago eukiteko, askotan besteak gure utsegiteak yakin eta euroen aurka egitea, egoki yaku.

2. Norberen utsegiteagaitik iñor apalesten danean, besteak erez biguntzen dauz eta asare dautsenakaz be guztiz eraz baketzen da.

Jaungoikoak apala zaindu ta yagoten dau, apala maitatu ta poztuten dau; gizon apalagana yasten da, apalari esker asko damotsoz, eta apaldu ondoren, aintzara yasoten dau.

Apalari bere ixil-gauzak agertzen dautsoz ta samur beragantzen dau ta beragana eltzeko deitzen dautso.

Apala, iraña artuta bake-bakean geratzen da, ez dagoalako lurean, Jaungoikoagan baño.

Ez egizu uste izan ezertan aurreratu dozunik, beste guztiak baño beragokotzat zeure burua ezpadaukazu.

# III ATZALBURUA

## Gizon on eta baketsua.

1. Lenengo zeu bakean egon zaite, eta gero besteak bakean ipiñi al-izango dozuz.

Guztiz yakitunak baño baketsuak on geyago egin oi dau.

Giriñatsuak ona be txaŕtu egiten dau, ta txaŕa eŕaz ziñesten dau.

Gizon on eta baketsuak gauza guztiak onera biuŕtzen dauz.

Bake onean dagoanak ez dauko iñoren susmo gaiztorik.

Aŕtega ta naigabetuta dagoana, baŕiz, susmo askok eraginda dabil; bera ezta atsedentzen eta bestiai be ez dautse atsedenik izten.

Esan beaŕ eleukena, saŕitan diño; eta geyen egin beaŕ leukena, egin barik izten dau.

Besteak zer egin beaŕ daben gogoratzen dau; baña bere eginbeaŕak basteŕtu egiten dauz.

Oŕegaitik, ba, lenengo zeure aŕdurea euki egizu ta gero uŕko-lagunen-

tzako be aŕdurea zuzen euki al-izango dozu.

2. Zuk zeure egitadeak zuritu ta edeŕtzen ondo dakizu; baña besteen buru-gaŕbitzerik entzun be eztozu egin gura.

Obeto izango litzake zeu eŕuduntzat eta zeure uŕko-laguna eŕubakotzat eukitea.

Besteak zu eroatea (zuri-sufridutea) gura ba'dozu, zeuk be besteakaz beste oŕenbeste egizu.

Begitu egizu egiazko maitasun eta apaltasunetik zein uŕin zagozan; egiazko maitasun eta apaltasunak noberea-uŕka baño eztaki asaŕatu ta sumintzen-eta.

Ezta gauza andia on eta otzanagaz bizitea, ori guztioentzat berez be atsegingaŕia dalako; norbere eritxikoak edonork geyago maite eta eurokaz bakean pozik bizi oi-da-ta.

Baña biotz gogor, gaizto ta ezibakoakaz, edo gure auŕkariakaz bakean bizi al-izatea eskaŕ aundia ta egite oso txalogaŕi ta gizontsua da.

3. Euren baŕuan bakea daukenak

eta enparauekaz be bakean bizi direanak ba-dira.

Baita ba-dira beste batzuek ez eurentzako bakerik eztaukenak, ez iñori bakean izten eztautsienak be.

Besteentzako gogaitgaŕiak eta eurentzako gogaitgaŕiagoak dira oneik.

Eurak bakean egonaz, besteak bakean ipinteko alegin egiten dabenak be ba-dira.

Gure bake osoa, zoritxaŕez beteriko bizitza onetan, naigabeak ez eukitean baño, apaltasunez eroatean ipintea oba da.

Bake aundiena ondoen yasaten dakienak eukiko dau. ¡Auxe bai-dala benetan bere buruaren garaitzaĺe, luŕaren yaube, Kisto'ren adizkide ta zeruaren yaubegaya!

## IV ATZALBURUA

### Biotz garbi ta asmo laua.

1. Ego bigaz yasoten da luŕekoetatik gizasemea: lautasun eta gaŕbitasunagaz.

Lautasuna asmoari dagokio ta gaŕbitasuna zaletasunari. Lautasunak Jaungoikoagana daroa, gaŕbitasunak Jaungoikoa eutsi ta gozaŕtzen dau.

Baŕu-zalekeri okeŕetik azke ba-zengoz, egitade on batek be eleuskizu galerazoko.

Jaungoikoak nai dauana ta uŕko-lagunaren onurea baño gura ta bil̄atzen ezpa-dozuz, baŕuko azkatasunaz poztuko zara.

Zure biotza zuzena ba-litz, izaki guztiak bizi-bide-izpil̄ua ta ikaspide deunaren idaztia izango litzakizuz.

Jaungoikoaren ontasuna iruditzen eztauan añako izaki txatxaŕ eta ziztriñik eztago.

2. Baŕutik on eta garbia ba-ziña, guztia eragozpen barik ikusi ta ondo uleŕtuko zeunke.

Biotz garbiak, naiz zerua naiz gaiztokia (inpernua) baŕentzen dauz.

Bakotxa baŕuz dan erara, atetikoak direala uste izaten dau.

Luŕean atsegiñik ba-dago, biotz gaŕbidun gizonak dauko.

Ta iñun kezka ta naigaberik ba-da-

go, bańu gaiztodunak ondoen ezagutzen dau.

Buŕdiñeak sutan sartuta ugeŕa galdu ta gori-goritzen dan lez, Jaungoikoagana gustiz biuŕtzen dan gizonak be, epeltasuna erauzten dau ta gizon bańi baten aldatzen da.

3. Gizona epeltzen asten danean, neke txatxaŕ bateri be bilduŕ dautsa, ta azaletiko atsegiña pozik aŕtzen dau. Baña bańua oso menperatzen eta Jaungoikoaren bidean gizon arauz, adoretsu ibilten asi ezkero, len aztunak eritxazanak, oraiñ ariñak dirudioz.

## V ATZALBURUA

### Nońbere sokuna (ezagutzea)

1. Gugandik ezin lańegi itxaron geinke, sańi askotan eskaŕ eta senik eztaukagu-ta.

Gugan argi gitxi dago; ta argi piska ori, ardura ezagaitik, lasteŕ galtzen dogu.

Ta sańitan gogoa ain itsututa daukagunik be eztogu igeŕten.

Askotan txaŕto egiten dogu, ta txaŕago geure burua zurikatzen dogu.

Batzuetan giriñak igitzen gaitue (eraiten dauskue), eta goi-maitasuna dala uste dogu.

Besteen utsegite txikien auŕka gagoz, eta geureak, aundiagoak izan aŕen be, iruntzi egiten doguz.

Besteegandik yasaten (eroaten) doguna lasteŕ asmau ta begiratzen dogu, baña besteak gugandik yasaten dabena eztogu begiratzen.

Norbere-egitadeak ondo ta aŕtez azteŕtzen dauzanak, besteak gogoŕ epaitzeko ziorik eleuke eukiko.

2. Gizaseme baŕu-zaleak lenengo bere-buruaz dauko aŕdurea; ta norbere-buruaren benètako aŕdurea daukana, beste iñorentzaz eŕez ixil̄ik egon oi-da.

Besteen zeregiñaz ixil̄ik ezpa-zagoz, eta zeutzaz berebiziko aŕdurea ezpadaukazu, etzara bein-be baŕu-zalea ta eraspentsua izango.

Al-dozun guztiz zeutzaz eta Jaungoikoaz aŕduratzen ba-zara, kanpotik yatoŕkitzuzanak ziŕkin gitxi eragingo dautzue.

¿Nun ete-zagoz, zeugaz etzagozanean? Ta zeure ardurarik eztozula guztietara yo dozunean ¿zer irabazi dozu?

Bakea ta benetako batasuna euki gura ba-dozuz, guztiak atzeratu ta, begien auŕeaŋ zeure burua bakaŕik euki beaŕ dozu.

3. Asko auŕeratuko zara aldiko gauzen aŕdura-barik ba-diaŕduzu.

Asko galduko dozu, gauza igeskoŕen bat ontzat ba-daukazu.

Ezer ez-egikezu ez aunditzat, ez atsegingaŕitzat edo onerizkaŕitzat (egokitzat) euki, bakaŕ-bakaŕik Jaungoikoa ta Jaungoikoarekikoen bat izan ezik.

Irazakien batetik datoŕtzun edozelako atsegiña, utsal-utsaltzat euki egizu.

Jaungoikoa maite daun gogoak; luŕeko gauzak ezetsi egiten dauz.

Betiko ta neuŕibakoa dan eta gauza guztiak betetan dauzan Jaungoikoa bakaŕik da gogoaren atsegiña ta biotzaren benetako poza.

# VI ATZALBURUA

## Bafu zintzoaren poza

Gizon onaren aintza (gloria) bere bafu zintzoaren ziñalpena (egi-esana) da.

Bafu-zintzoa eukikezu ta beti poza eukiko dozu.

Bafu zintzoak guztiz asko eroan daike ta naigabeetan poz-pozik dago.

Bafu-gaiztoa beti bildufez eta afte-ga dago.

Bigun atsedengo zara, zeure biotzak keskarik emoten ezpa-dautzu.

Ondo egiten dozunean izan ezik, etzaite poztu.

Gaiztoak bein-be eztaukie egiazko pozik eta eztebe asmetan bafutiko ba-kerik; *Gaiztoentzako eztago bakerik*, diño Jaunak-eta. (1).

2. Naigabe aldian afotzea ezta gau-za zaila maitatzalearentzat; onan afo-tzea, Jaunaren gurutzean afotzea-da-ta.

---

(1) Isai. XLVII. 22.

Gizonak emoten daben eta gizonakandik datoŕen aintza (gloria) labuŕa da. Luŕeko aintza, iŕuntasunez lagunduta dabil.

Zintzoen aintza euren baŕuan dago, ta ez gizonen agotan.

Zintzoen poza Jaungoikoagandikoa da ta Jaungoikoagan dago, ta euroen atsegiña egiatikoa.

Benetan ta betiko aintza (gloria) gura dauanak, aintza-aldakoŕaren aŕdurarik eztauko, ta aintza-aldakoŕaren biŀa dabiŀanak edo biotzez ezesten eztauenak, zerukoa gitxiago maite dauela agertzen dau.

Txalo ta irañen aŕdurarik eztaukanak, biotz-baretasun aundia dauko.

3. Baŕu-gaŕbia daukana pozik eta baketsu eŕaz egongo da.

Etzara deunago goratzen zaituelako, ezta txaŕago beratzen zaituelako be.

Zareana orixe zara; ta Jaungoikoarea auŕean zarean baño aundiago zareanik, ezin zeinke esan.

Zure baŕuan nor zarean begiratzen ba-dozu, zutzaz gizasemeak esango dauenari eztautsazu yaramonik egingo.

*Gizonak aŕpegia ikusten dau, Jaungoikoak baŕiz biotza* (1); gizonak egitadeai begiratzen dautse, baña Jaungoikoak asmoari.

Beti ondo egitea ta burua gitxitzat eukitea, gogo apalaren ezaugaŕia da.

Irazaki batetik be poztasunik aŕtzerik ez gura izatea, garbitasun aundiaren eta biotzetiko itxaropenaren ezaugaŕia da.

4. Iñoren on-eritxien-bil̄a ez dabil̄enak, Jaungoikoari osoan eskiñi yakola agiri dau.

*Ez da ba onetsia*, diño Paul deunak, *bere burua goratzen dauana, Jaungoikoak goratzen dauana baño.* (1)

Baŕuan Jaungoikoagaz ibiltea, ta ezetariko zalekeriz kanpoan ez batzea, gogo-zalearen izapidea da.

---

(1) Reg. XVI. 1.

(1) 2. Cor. X. 18.

# BIGAŔEN ZATIA

## Jaungoiko yaureŕiaren (eŕeñuaren) ezaŕbideak.

## VII ATZALBURUA

### Gauza guztien gañetik Josu'ganako maitasuna

1. Zorionekoa Josu maite izatea ta norbere burua Josugaitik ezestea (utzat eukitea) zer dan uleŕtzen dauana:

Kutun bat beste kutun bategaitik itxi beaŕ da. Josuk bera bakaŕik guztien aŕtien kutunena izatea gura dau-ta.

Irazakien maitasuna ustela ta aldakoŕa da: baña Josu'ren maitasuna zintzoa ta iraunkoŕa.

Irazakiari erausten yakona, yauskoŕagaz yausi egingo da.

Josu lastantzen dauana, betiko sendatuko da.

Beste guztiak alde egin aŕen be, bertanbera itxiko etzaituana ta azkenean galtzen itxiko etzaituena maite ta adizkidetzat euki egizu.

Nai gura nai gura ez, guztietatik bein edo bein alde egin beaŕko dozu.

2. Naiz bizitzaldian naiz iltamuan Josusegaz izan zaite, ta bere zintzotasunean zeure ustea ezaŕi egizu, guztiak izten ba-zaitue be, berak bakaŕik lagundu daiketzu-ta.

Zure kutunak besterik maite daizunik eztau gura; bakaŕik berak euki gura dau zeure biotza, ta antxe bakalduna (eŕegea) bere bakalaulkian (yaŕlekuan) lez yesaŕi.

Biotza izaki guztietatik utsituko bazendu, pozik biziko litzake Josu zeure baŕuan.

Josu'gan barik gizonagan ipinten dozun geyen-geyena, galdua izango dozu.

Seska (kañabera) aŕoan ez egizu usterik ez bururik ezaŕi, *aragia guztia elbitza ta bere aintza (gloria) elbitz-lorea lez yausiko da-ta* (1).

3. Gizonan azal-irudia baño begiratzen ezpadozu, lasteŕ saŕtuko dautzue ziria.

Beste iñorgan zeure poz eta irabas-

(1) Petr. I-24

tearen biĺa ba-zabiltz, askotan kaltea aŕtuko dozu.

Guztietan Josu'ren biĺa ba-zabiltz, Josu benetan auŕkituko dozu.

Baña zeure biĺa ba-zabiltz, zeure burua auŕkituko dozu, baña zeure kalterako.

Kalteginagoa da, ba, gizona bere buruarentzat, gizadi osoa ta bere arerio gustiak baño.

## VIII ATZALBURUA

### Josu'gazko baŕu-baŕuko adizkideŕasuna

1. Geugaz Josu dagoanean ona da guztia, ta ezer-be eztirudi zail; baña geugaz Josu eztagoanean, dana da gogoŕa.

Josuk eztauskunean baŕuan itz-egiten, utsala da atsegiña; baña Josuk itz bakaŕ bat esaten ba-dau, atsegin aundia nabaitzen (asmatzen) da.

¿Ez al-zan Miren Maĺale, negaŕez egoan tokitik bereala yagi, Martak

esan eutsonean: *Ikaslea emen dago ta zure deyez daukozu?* (1).

¡Ordu zoriontsua Josuk negaŕ-malkotatik gogo-atsegiñera deitzen dauan ordua! ¡Josu barik bai zareala legoŕ eta gogoŕa! ¡Zu zarean tentela, Josu eztauen zerbait gura ba-dozu!

Ez ete-yatzu au, luŕ osoa galtzea baño kalte andiagoa?

2. Josu barik ludiak (luŕak) ¿zer emon daiketzu?

Josu barik egotea zoritxaŕ osoa da: Josugaz egotea, baŕiz, zorion utsa.

Zugaz Josu ba-lego, etsai (arerio) batek be eleuskizu kalterik egingo.

Josu auŕkitu dauanak ondasun ona auŕkitu dau, baita ondasunik edeŕ-edeŕena be.

Baña Josu galtzen dauanak, asko be -asko galtzen dau ta ludi (luŕ) osoa baño geyago.

Guztiz txiroa (ezer - eztaukena) da Josu barik bizi dana; ta aberatz-aberatza, baŕiz, Josu'ren adiskide dana.

---

(1) Jon II-28.

3. Antze (yakituri) andia da Josu'gaz yarduten yakitea; ta Josu eukiten yakitea zurtasun aundia.

Apala ta baketsua izan zaite, ta Josu zeugaz izango dozu.

Eraspentsu ta naroa izan zaite, ta Josu'k zeugaz iraungo dau.

Josu zeugandik lasteŕ uxatu zeinke ta bere eskeŕa galdu atetikoetara itsuli (egin) gura ba-dozu.

Ta Josu uxatu ta galdu ezkero, ¿nogana yoko dozu ta nor adizkidetzat bil̄atuko dozu?

Adizkide barik ezin zeintekez ondo bizi; ta adizkiderik maiteena Josu ezpa-yatzu, guztiz itun eta atsekabetuta biziko zara.

Zoro antzean, baŕiz, diarduzu, iñogan ustea ba-daukazu ta poztuten ba-zara.

Josu irainduta eukitea baño ludi (mundu) gustia nobere-aurka eukitea, obetzat euki beaŕ da.

Maite dozuzanen aŕtean kutuna Josu bakaŕik bekitzu.

4. Guztiak Josu'gaitik maite egizuz; Josu baŕiz, bera danagaitik.

Berebiziko maitasunaz Josu Kisto

bakaŕik maitatu beaŕ da, adizkiderik onena ta zintzoena bera bakaŕik da-ta.

Bai adizkidiak eta bai arerioak, Bera' gaitik eta Bera'gan maitatu egikezuz; eta gustien alde otoitz-egiozu, guztiak Bera ezagutu ta maitatu dayen.

Berariz goretsia ala maitatua izatea ez egizu iñoiz gura izan; ori, antzekorik eztaukan Jaungoikoari bakaŕik dagokio-ta.

Ez egizu gura izan zure aŕduraz iñor bizi daitenik, eta zeu be besteen maitasunaz etzaite aŕduratu; baña bai zugan, bai gizon on guztietan Josu egon beite.

5. Baŕuz garbi ta azke egon zaite, irazakien baten aŕdura barik.

Biloizik egon ta Jaungoikoagana biotz-garbia eroan beaŕ dozu, atseden ta Jauna zein gozoa dan gozaŕtu gura ba-dozu.

Ta egiz, oŕetara etzara elduko, bere eskaŕak lendik geŕtu ta beraganatzen ezpa-zaitu; onan biotzetik gauza guztiak aldendu ta yauŕtita, bakaŕik bakaŕagaz batu zaitezan.

Gizonak Jaungoikoaren eskaŕa datoŕkonean edozer al-dau; eskaŕa yoa-

konean, bariz, ezeukia ta makal geratuko da ta astiñaldietarako bakarik itxiko lez.

Onangoetan ezta kiki!du bear, ezta itxaropena galdu bear; Jaungoikoaren guraripean biotz baretsuaz egon, eta datorkozan gustiak Josukisto'ren aintzarako eroan; negu ostean udea, gau ostean eguna ta ekaitz-ostean bare -aldia dator-eta.

## IX ATZALBURUA

### Atsegin-eza

1. Gizonakandik datoren poztasuna ezestea ezta gauza zaila (gatxa) Jaungoikoagandikoa dagonean.

Aundia baño aundiagoa da Jaungoikoagandiko ta gizonakandiko atsegin barik egotea, ta Jaungoikoaren aintzeagaitik biotz-erbestetasuna gogoz yasatea (eroatea),ta ezertan be norbere -bila ez ibiltea ta norbere irabastea ez begiratzea.

Jaungoikoaren eskara yatortzunean pozik eta gogo beroaz egoten ba-zara,

ezta ori be gauza aŕigaŕia: olango ordua guztiak gura dabe ta.

Jaungoikoaren eskaŕak daroana eroso doa.

Eta zergaitik aŕitu alguztidunak daroanak eta artezkari onenagaz doanak zamarik oartzen ezpa-dau?

2. Pozik aŕtzen dogu edozer atsegingaŕi, baña nekez erantziten dau gizasemeak bere burua.

Laurentzi ziñopa (martiri) deunak gizaŕtea azpiratu eban bere yaupariagaz luŕean atsegingaŕi zirudion gustia ezetsi ebalako, eta gustiz maite eban Sixto, Jaungoikoaren Jaupari Nagusia, Kisto'ren maitasunagaitik beragandik kentzea be eroapenaz aŕtu ebalako.

Gizonaganako maitasuna Egil̄eaganako maitasunagaz azpiratu eban, eta gizonagandiko pozaren ordez, Jaungoikoaren guraria obetzat autu eban.

Zuk be onantxe, Jaungoikoaren maitasunagaitik senide ta adizkide maite maiteen bat izten ikasi egizu.

Ta adizkideak izten zaituenean, ez asaŕatu; guztiak egunen baten, bata

bestiagandik, aldendu beaŕko dogula yakiñik.

3. Gizakumeak bere buruagaz buŕuka asko ta luzeak euki beaŕ dauz, bere burua ondo aspiratu ta biotz-maitasun gustia Jaungoikoaganatzen ikasi orduko.

Norberagan ezaŕita dagoan gizonak, aragi-atsegiñetara eŕaz laprast egiten dau.

Baña Kistoren egiazko maitatzaiĺe ta bere onoimenen yaŕaitzaiĺe arduratsuak eztau atsegiñetara yoten eta olango goŕputz pozaldien-biĺa be ezta ibilten; iñarkun gogoŕak eta neke goŕiak Kisto'gaitik eroateko alegin egin baño.

4. Gogo-atsegiña Jaungoikoak emon daizunean ba, eskaŕak berari egiñaz aŕtu egizu; baña ez aiztu Jaungoikoak, zuk irabazi barik, egiten dautzun eskaŕa dala.

Ez-egizu zeure buru ori goratu, ez laŕegi poztu, ez uskeriz aŕotu; emon dautzunagaitik apalagoa izan baño, ta zeure egitade guztietan aŕduratsuago eta bildurtiago ibiĺi zaite; ordua igaro ta ziltzaldia etoŕiko da-ta.

Atsegiña kentzen dautzueneko, ez bereala itxaropena galdu, apaltasunez eta eroapenez zerutiko ikustaldia itxaron baño, Jaungoikoak atsegin aundiagoa zuri bañiro emoteko ala dauko-ta.

Au ezta gauza baŕia ta meatza Jaungoikoaren bideak ezagutzen dabezanentzat; deun ospetsu ta antxiñako Igarleetan onango goraberak saŕitan auŕkitu zirean-eta.

5. Oŕegaitik norbaitek beragan eskaŕa eukanean esaten eban *nik neure ugaritasunean esan neban: eztot nik iñoz be zirkinik egingo* (1); baña eskaŕa uŕindu yakonean, beragan zer yazo zan adierazoten dau esanik: *nigandik zure aŕpegia aldendu dozu ta aŕtega yaŕi naz* (1).

Baña onango yazoerakaz itxaropena galdu - ordez, Jaungoikoari biziago otoitz egiten eutsan, esanaz: *Zeuri, Jauna, deituko dautzut eta Jaungoikoari otoitz-egingo dautsat* (2). Bere otoitz-

(1) Psl. XXLX. 7.
(1) Ps. XXIX. 8.
(2) Psl. XXIX-9.

aren saria azkenean yadesten dau, ta entzuna izan dala erakusten dau, esanaz: *Jaunak entzun eustan eta eŕukitu zan nigaz, Jauna nire laguntzale egin da* (1).

Baña zetan? *Neure negaŕa*, diño, *atsegiñean biguŕtu zendun eta pozez inguratu ninduzun* (2).

Onan yazo ba-zan deun aundiekaz, guk, gaxo ta txiro ezeukiok, batzuetan gogo bero aundiaz eta beste batzuetan epel eta otzik ba-gara be, eztogu itxaropena galdu beaŕ.

Gogoa berak gura dauan lez etoŕi ta yoaten da-ta.

Oŕegaitik Job zoriontzuak diño: *Egun sentian ikeŕtzen dozu ta bat-batean azterkatzen dozu* (3).

6. Zer gauzatan itxaron nengike eta norgan ustea ipiñi Jaungoikoaren eŕuki aundian eta goi-eskaŕaren itxaropenean izan ezik?

Gizon onen aŕtean egon aŕen, nai

---

(1) Psl. XXIX-11.
(2) Psl. XXIX-12.
(3) Job. VI-48.

senide onak, nai adizkide zintzoak, nai idazti deunak, nai izti edeŕak, nai abesti ta eresi gozoak eukiaŕen, onek guztiok gutxi laguntzen dabe, eskaŕak itxi ta neure ez-eukitasunean gelditzen nazanean.

Orduan osakairik (eŕemediorik) onena eroapena ta burua, Jaungoikoaren naipean, ukatzea da.

7. Egundo-be eztot iñor aurkitu eskaŕ-utsunea edo biotz-beroaren uŕitasuna ez asmatzeko aña Jaungoiko-zale ta eroanpentsu danik.

Lentxoago ala gerotxoago ziltzaldua izan ez dan aiñako deun ospetsu ta goi-aŕgidunik ezta izan.

Loŕaldien bat iñoiz izan eztauana, ezta Jaungoikoari so-egiteko (begiratzeko) gai.

Geroko atsegiñaren ezaugaŕia auŕetiko ziltzaldia izan oi-da.

Ziltzaldipean erabil̃ikoai, zerutiko pozaldia eskintzen yake. *Garaitzen dauanari*, diño Jaunak, *bizitzako zugatzetik yaten emongo dautsat.* (1).

(1) Apoc II-7.

8. Zerutiko pozaldia, zoritxaŕak eroatean sendoagoa izan deiten, emoten da.

Ta ondoan yatoŕko ziltzaldia, aŕotu eztaiten.

Txeŕena (diabrua) eztago lotan, eta oraindiño aragia be-eztago il̄da; gudarako gertuteari ez iñoz itxi; eskuna ta esker aldean iñoz atseden eztirean arerioak dagoz-eta.

## X ATZALBURUA

### Jaungoikoaren eskaŕari zoŕ yakon eskaŕ-ona

1. Lanerako yayo ziñean ezkero, atseden bil̄a zergaitik zabiltz?

Jasatera yaŕi zaite, gozaŕtzera baño lenago; gurutzea eroatera, alaitasunera baño lenago.

¿Zen mundu-zalek eleukez gogo-pozaldia ta alaitasuna pozik aŕtuko, beti euki al-ba-leitekez?

Luŕeko poz gustiak eta aragi-atsegiñak baño, gogo-pozaldiak askozaz andiagoak dira-ta.

Luŕeko poz guztiak utsal eta loyak

direalako; gogoarenak, bafiz, bakafik estitsu ta gafbiak, ekandu onetatik efneak eta gogo garbietan Jaungoikoak bafenduak (edo ereiñak).

Baña onango Jaungoikozko pozaldietan ezin-leiteke iñor norberak gura dauan lez gozaftu, ziltzaldiak luzarorako izten eztaualako.

2. Goitiko ikustaldia, ostera, gogonasaikeriak eta norberagan uste andia eukiteak, asko eragosten dautso.

Jaungoikoak ondo egiten dau atsegin-eskafa emotean; baña gizonak txafto egiten dau, eskafak egiñik guztia Jaungoikoari ez ezartean.

Ofegaitik gugandik ezin erion leitekez, eskar-emaitzak, Egileaganako eskar txafekoak garealako, ta dana yatofizko itufiari ez dautsalako ezaften.

Eskafak beaf dan lez egiten dauzanari beti eskafa zof yako-ta; ta apalari emon oi yakona, afoari kenduko yako-ta.

3. Biotz-damua kenduko daustan atsegiñik eztot gura; ta afokerira daroan sokunen yoranik be eztaukat.

Garaiko guztia ba, ezta deuna,

ezta gozo guztia ona be, ezta gurari guztiak garbiak be; ezta kutun-guztiak Jaungoikoarentzat begiko-be. Apalago ta bildurtiago ta neure burua ukatzeko gertuago ipinten nauan eskaŕa pozik aŕtzen da.

Aŕturiko eskaŕaz ikasia ta kendurikoaren astiñaldiagaz irakatsia, ezta azaŕtuko bere buruari ezertxu be ezarten; txiroa ta bil̄osa dala, ostera, autoŕtuko dau.

Jaungoikoarena Jaungoikoari emon eyozu, zeuretzakotzat zeurea euki egizu; au da, Jaungoikoari eskaŕagaitik eskaŕak egiozuz; zeuretzakotzat, baŕiz, eŕua ta eŕuari dagokion oben-nekea irabazi dozula, uste egikezu.

4. Beti berengoetan yaŕi zaite, ta gorengoa emongo yatzu; gorengoa berengoa barik eztago-ta.

Jaungoikoaren auŕean deunak eta aundienak zireanak, euren eritxiz txikienak zirean; ta gorengoak zirean bestean euren ustez apalagoak.

Zerutiko egiz eta aintzaz beterik dagozanak aintza-utsalaren egaŕi eztira.

Jaungoikoagan eŕotu ta sendotuta, ezetara be ezin leitekez aŕotu.

Arturiko on guztia Jaugoikoari ezaŕten dautsienak eztabe alkaŕengandiko txalorik bil̄atzen; ostera Jaungoikoagandiko aintza bakaŕik gura dabe, ta Jaungoikoa gauza gustien gañetik, bai eurekan bai deun guztietan, aintzaldua izatea gura dabe, ta beti oŕexen atzean dabiltz.

5. Gauza txikian eskaŕ-onekoa izan zaite, ta aundiagoak aŕtzeko gai izango zara.

Txikiena andientzat euki egizu ta ezeskaŕiena berarizko bezuzatzat.

Emoil̄earen nagusitasunari begiratu ezkero, ezertxu be eztozu txatxaŕ ta utsaltzat eukiko. Jaungoiko goi-goikoak (andi-andiak) emona, ezta txikia-ta.

Nekeak eta zigoŕkadak emongo baleutzuz be, atsegingaŕi izan beaŕ litzakizuz, guri yazoten izten dauan guztia beti gure osasunerako egiten dau-ta.

Jaungoikoaren eskaŕa beragan euki gura dauana, emonikoagaitik eskaŕ-onekoa ta kendukoagaitik eroapentsua izan bedi.

Biurtu daiten otoitz-egin bedi; ta galdu ez dayan arduratsu ta apala izan bedi.

## XI ATZALBURUA

### Kisto'ren gurutz-zaleak gitxi dira.

1. Josu'k bere zeruko bakaleřiaren (eřeñuaren) maitatzaīe asko daukaz; baña gitxi bere gurutzea eroaten dabenak.

Atseden-zale asko daukaz, baña naigabe-zale gitxi.

Mairako lagun asko aurkitzen dauz, baña barau-egiten gitxi.

Guztiak beragaz poztu gura dabe, baña gutxik beragaitik zeozer yasan (eroan).

Ogia ebagi ařte askok yařaitzen dautsae Josu'ri, baña gutxik Nekausteko (pasiñoko) neke-ontzia edan ařte.

Askok bere alatzak (mirariak) guřtzen (andiesten) dabez, baña gurutze-lotseari gutxik yařaitzen dautse.

Josu askok maite dabe zori-txařik ez datořen ařtean.

Askok goratu ta onesten dabe, bera-

gandik atsegiñen batzuk ařtzen dagozan artean.

Baña Josu ostentzen ba-yake, ala apuř baten izten ba-dauz, negarka ta luřa-yota gelditzen dira.

2. Baña Josu Josugaitik eta ez norbere atsedenagaitik maite dabenak biotzeko lořaldi ta estukure guztietan, pozaldirik edeřenean lez onesten dabe.

Ta iñoz be pozaldirik emon gura ezpa-leuskioe be, beti goratu ta eskařak egin gurako leuskioez.

3. ¡Ene! norbere-onura edo maitasunaz naztu bako Josu'ren maitasun utsak egingo a! leukena!

Beti norbere atseden bila dabizanak ¿ez ete-dira bene-benetan alogerekoak?

Beti euren onura ta irabasteen atsean dabizanak, Kisto-zaleak baño euren buru-zaleak ez ete dira geyago?

Irabaste barik Jaungoikoari otsein egin gura dautson bat ¿non auřkituko da?

4. Gutxitan eta nekez auřkitu daiteke zer guztietatik biloiztuta dagoan gizon gogo-zalea.

Benetako txiro, ta irazaki guztiak

FUNDACION SANCHO EL SABIO

erantzita daukazana ¿nork aufkituko dau?

Uŕiñetatik eta ludiko (luŕeko) atzenengo basteŕetatiko ondasun bikaña da ori.

Gizasemeak bere ondasun guztiak emongo ba-leuz be, oraindiño ezta ezerbe.

Oben-neke a u n d i a eroanaŕen be, oraindiño gitxi izango litzake.

Jakituri guztia eukiaŕen be, uŕin dago oraindiño; ta onoimen sendoa ta oneraspen gustiz beroa eukiaŕen be, gauza askoren beaŕ-izana dauko; au da, beretzako guztiz beaŕ-beaŕezkoa danaren bakaŕena.

Ta ¿zein ete-da ori? Gauza guztiak itxi-ta, norbera be iztea, ta norberagandik urtetea ta norberaganako maitasun ezertxu be ez eukitea.

Ta egin beaŕ dauala ezagutu dauan guztia eginda gero, ezertxu be egin eztaualakoan egon bedi.

5. Anditzat etsi leitekena, ezpei anditzat aŕtu; baña benetan ezertarako eztan otseintzat etsi bedi, Josu-Kistok diñoan lez: *Aginduta daukazuen guztia*

*egin daizuenean, esan egizune: otsein alpeŕak gara.* (1)

Orduan bai gogo-txiro ta azke izango al dozu ta igarleagaz esan: *bakaŕa ta ezeukia naz.* (2)

Baña bere buru ta enparauak itxi ta berengo maĪan yaŕten dana baño aberatsagorik, altsuagorik ta yareyagorik eztago iñor.

## XII ATZALBURUA

### Gurutz-deunaren bide zabala.

1. Gogoŕa deritxoe askori itz au: *zeure burua ukatu egizu, zeure gurutzea aŕtu, ta yaŕaitu Josuri.* (3)

Baña askozaz be gogoŕagoa izango da azkenengo egunean entzutea: *Nigandik uŕindu zaiteze gaiztook, zoaze betiko sutara.* (4)

Orain gurutze-itza gogoz entzun eta yaŕaitzen dabenak, betiko gaitzespen

---

(1) Luk. XVII. 10
(2) Ps. XXIV. 16
(3) Math. XIX. 21.
(4) Math. XXV. 41.

-itza entzuteko bilduŕik eztabe eukiko-ta.

Jauna epaya emotera datoŕenean gurutz-irudi au agertuko da zeruan. Orduan gurutzean yosiaren antzera bizi izan diran gurutze-yopu guztiak, Kisto epaikariagana uste aundiagaz uŕeratuko dira.

2. Zerura yoateko bidea gurutzea izanda, ¿zergaitik zara bilduŕ gurutzea aŕtzeko?

Gurutzean dago osasuna; gurutzean bizitzea; gurutzean dago arerioaren auŕka egiteko laguntasuna; gurutzean goitiko atseden ituŕia; gurutzean biotz sendotasuna; gurutzean gogo-poza.

Gurutzean onoimen-ganburua; gurutzean deuntasunik gorengoena.

Gogoaren osasuna ta betiko bizitzaren itzaropena, gurutzean izan ezik eztago.

Zeure gurutzea aŕtu egizu-ba, ta yaŕaitu Josu'ri ta betiko atsedenera elduko zara.

Bera (Josu) auŕeratu zan, bere gurutzea lepoan eroyala, ta gurutzean zure

alde il zan: zuk be eroan daizun eta gurutzean iltea gura izan daizun.

Beragaz batera ilten ba-zara ba, beragaz biziko zara; ta bere neke-laguna izaten ba-zara, aintza-laguna be izango zara.

3. Gurutzean dago dana ta iltean be dana aurkitzen da; ta eztago bizitzarako ta barutiko ta egiazko bakerako beste biderik, gurutz deunaren eta egunoroko iduraren bidea baño.

Joan nai dozun tokira; bilatu gura dozuna; ta eztozu aurkituko goyan bide goyengoagorik, ezta bean be eskierragorik (seguruagorik) gurutz deunaren bidea baño.

Dana zeure gurariz eta eritxiz eratu ta atondu egizu, ta alanda gusti be, gura dozun edo gura eztozunean, yasan (sufridu) bearra baño eztozu aurkituko ta onan beti gurutzea aurkituko dozu.

Edo gurutzeko miña eukiko dozu, edo gogoan naigabea izango dozu-ta.

4. Nozik bein Jaungoikoak itxiko zaitu; ta au baño txarrago dana, zeu, zeure baruarentzat nekegarri izango zara.

Ta etzara ezetariko osabide ala pozaldiagaz azkatu edo arinduko; Jaungoikoak gura dauan aŕtean yasan beaŕ dozu.

Guztiz menpean yaŕteko ta loŕaldiagaitik apalago egin zaitezan, loŕaldia atsegin barik yasaten ikasi daizula, gura dau Jaungoikoak-eta.

Kistoren Nekaldia (Pasiñoa) iñork be eztau ain biotzez nabaitzen, gauza aen antzekoak eroan dauzanak beste.

Onelan gurutzea beti gertuta ta edonon zuri begira dago.

Edonora yoan-da be, igesik ezin zeinke egin; edonora yoan-da be, zeure burua daroazulako, ta zeure burua auŕkituko dozulako.

Zoaz gora, zoaz bera, zoaz atera, zoaz baŕura ta gurutzea edonon auŕkituko dozu.

Ta edonon eroapena euki beaŕ dozu, zeugan baŕuko bakea ta betiko burestuna (koroia) irabazi gura ba-dozu.

5. Gurutzea gogo onagaz ba-daroazu, berak eroan ta opa dozun elburura aŕteztuko zaitu; ta emen izan ezaŕen,

antxe bai amaituko yatzu neke-eroan beaŕa.

Ezin-bestean ba-daroazu, zamea leporatuta astunagoa eginten dozu: ta alan-ta guzti be yasan egin beaŕko dozu.

Gurutza bat bastertuten ba-dozu, ezbai barik, beste bategaz, beaŕ bada astunagoaz, auŕkituko zara.

6. Ilkor batek be iges egin ez ebanetik iges-egitea uste ete-dozu? ¿Deunen aŕtean nor egon zan luŕean gurutze ta loŕ barik?

Josu-kisto gure Jauna bera, bere bizitzaldian, ordu baten be etzan egon neke-barik; *Kistok* (diño) *nekea aŕtu ta il̄en aŕtetik biztu ta olan bere zeruan sartu beaŕ eban.* (1).

¿Zer dala-ta beste bide zabal baten bil̄a zabiltz, bide-zabala dan gurutz-bide au itxirik?

7. Kisto'rentzat bizitza osoa guru-

---

(1) Luk. XXIV. 46.

tzea ta nekea izan zan, eta zeuretzako ¿atseden eta pozaren biḹa ete-zabiz?

Okeŕ-okeŕ zabiz loŕ eta atsekabeen baño besteren-biḹa ba-zabiz; biztaldi ustelkoŕ au uzkeriz beteta ta alde guztietatik gurutzez inguruta dago-ta.

Ta gogozkoetan iñork gorago igoten dauan bestean, saŕitan gurutz aztunagoak auŕkituko ditu, eŕbeste-nekea maitasunak geitu egiten dau-ta.

8. Baña onenbeste ta ainbeste eratara naigabetuta dagoana, eztago pozezko atseden barik; bere gurutza eroateaz irebazterik edeŕena geitzen yakola dakialako.

Gurutzea gogoz daroanari loŕaren astuntasun guztia Jaungoikoagandiko pozaldiaren itxaropenean biurtzen yako-ta.

Ta aragia naigabeakaz indaŕtuten dan bestean, gogoa baŕutiko eskaŕez sendatzen da.

Ta batzuetan Kisto'ren gurutzeagaz bat eginda biziteko gurariz, neke ta loŕ barik egoterik ez gura izateraño sendatzen dau loŕ eta zoritxaŕ-maita-

sunak: neke geyago ta astunagoak beragaitik yasan daikezan neuŕiz, Jaungoikoak be geyago maite dauala uste dau-ta, eta egiten dauana, ezta gizonakandik datoŕen indaŕa, Kisto'ren eskaŕa baño; eskaŕ oŕek daragio gizonari, berak berez amuŕu eutsanari ta uŕintzen ebanari orain gogo beroaz eldu ta maitatzea.

9. Gurutzea eroatea, gurutzea maitatzea, gorputza ildurati ta menpetasunean eukitea; aundikerietatik iges egitea; iraiñak pozik aŕtzea, bere burua ezetsi ta besteak ezetsi dayela gura izatea, nekegaŕi ta gura eztirean gauza guztiak yasatea, ta luŕeko zoriontasunik ez gura izatea, ezta aragiarena.

Zeure buruari begiratzen ba-dautsazu, zeuk, zeure indaŕakaz oŕelako gauzarik ezingo dozu.

Baña Jaungoikoagan itxaroten badozu, berak zerutik sendotasuna bialduko dautzu, ta gizakeria (mundua) ta aragia zeure menpean izan daitezala egingo dau.

Ezta zeure etsai txeŕenari be eztautsazu bilduŕik izango, siñesmen-izkiĺuz yantzirik Kisto'ren gurutzeagaz ezaugaŕituta ba-zagoz.

10. Kistoren yopu on eta zintzo antzera, zeure maitasunagaitik gurutzetua izan zan Jaunaren gurutzea adoretsu eroateko gertau zaite.

Biztaldi eŕtun onetan zoritxaŕ eta neke asko eroateko gertau zaite; olan, edonora yoan aŕen, Josu zeugaz egongo da; ta egiz, edonon ezkutauta be, basteŕ guztietan auŕkituko dozu.

Olantxe izan beaŕ be; ta miñ eta naibageetatik iges egiteko, yasatea baño beste biderik eztago.

Jaunaren neke-ontzia gogotzu edan egikezu, bere adizkidea izan eta bere zorion-zatia euki gura ba-dozu.

Pozaldiak Jaungoikoaren eskuetan ipiñi egizuz, eurokaz berak geyen gura dauana egin beike.

Zu naigabeak yasateko gertau zaite ta atsegin aunditzat euki egizu; *aldi onetako nekeak, neke guztiak zeuk yazan al ba-zenduz-be, geroko zo-*

*riona irabazteko lain eztirealako*. (1).

11. Kisto'ren maitasunagaitik naigabea ezti ta atsegingaŕitzat eukiterańo eltzen żareanean, ondo doatzula uste zeinke; zorion-tokia luŕean auŕkitu dozu-ta.

Jasatea gatxa yatzun-artean eta yasatetik igeska zabizan aŕtean, txaŕto yoatzu, ta edonora yoan aŕen, naigabeak yaŕaituko dautzu.

12. Zeure egin-beaŕerako, au da, yasateko ta ilteko gertatzen ba-zara, ber-bertatik obeto yoango yatzu ta bakea auŕkituko dozu.

Ta irugaŕen zeruraño Paul Deunagaz yasoa izango ba-ziña-be, naigabeak eroan beaŕ barik ez zintzakez egongo: *Neuk erakutsiko dautsat*, diño Josuk, *neure izenagaitik zeinbat yasan bear dauan*. (2).

Josu maitatu ta berari otsein egiten bizi gura ba-dozu, yasatea baño eztaukazu.

13. ¡Kistoren izenagaitik zeozer

---

(1) Rom. VIII-18.

(2) Act. Apost. IX-16.

yasateko gai ba-ziña! ¡Orixe bai zuretzako aintza aundia izango litzake! ¡Norañoko poza Jaungoikoaren Deun gustientzat! Uŕko-lagunentzat zelako yaŕaibide edeŕa! Naita gitxik yasan gura, eroapena guztiak ontzat emoten dabe-ta.

Bene-benetan zeozertxu Kistogaitik yasan beaŕ zeunke; askok gizakeriagaitik astunagoak yasaten dabez-ta.

14. Ilten bizi beaŕ dozula ez aiztu; ta norberetzat geyago il, Jaungoikoarentzat geyago biziten asten da.

Zerukoak uleŕtzeko iñor ezta gauza, Kistogaitik zoritxaŕak eroateko apal gertuten ezpada.

Eztago Jaungoikoarentzat maitagaŕiagorik ta zuretzako osasungaŕiagorik bizitza onetan Kisto'gaitik pozik yasatea baño.

Ta zure eskuan ba-lego, Kisto'gaitik zoritxaŕakaz bizitea gurago izan beaŕ zeunke, pozaldi ugariakaz atsegindua izatea baño; onan Kisto'ren antzekoago ta deun guztien kideago izango zintzakez-eta.

Gure irabaste ta gure bizitzearen

auŕerakuntzea eztitza ·ta pozaldietan eztago-ta, neke ta atsekabeak yasatean (eroatean) baño.

15. Jasatea baño ezer gauza osasungaŕi ta onurakoŕagorik ba-lego, gizasemeak zerura eroateko, Kistok benetan bere irakaspen eta egiñenakaz erakutsiko euskun.

Bere ikasle ta yaŕaitu gura dautsen guztiai guztiz aŕgiro eragiten dautse gurutzea eroatera ta diño: *Norbaitek nire yaŕai etoŕi nai ba-dau, bere burua ukatu bei ta bere gurutzea aŕturik, yaŕaitu beist.* (1).

Gauza guzti oneik irakuŕi ta ondo ausnaŕtu ezkero, zure azken-erabagia auxe izan bedi: *Jaungoikoaren Bakaleŕian (eŕeñuan) sartzeko, neke askoren aŕtetik igaro beaŕ dogula.* (2).

---

(2) Act. Apost. XIV-21.

(1) Luk. IX-23.

# IRUGAŘEN IDAZTIA

## Bańuko atsegiña

# LENENGO ZATIA

## Jaungoikoak gogoaz daukazan erausketak (autuak)

# I ATZALBURUA

## Kistok gogo zintzoari bańuan diraufsana

1. *Neure Jaun eta Jaungoikoak nigan zer diñoan entzungo dot.* (1).

Norberagan Jauna itz egiten entzuten dauan eta Jaungoikoaren aotik pozezko itzak artzen dituan gogoa ¡auxe bai bada zorionekoa!

Jaungoikoagandiko sufumufa entzun eta ludian ezetariko sufumufik badago be nabaitzen eztaben belafiak ¡aixek bai badira zorionekoak! kanpotik

(1) Ps. XXXIV, 9.

datoŕen abots - zarateari yaramonik egin barik, baŕuan erakusten dauan egia entzuten daben belaŕiak, ¡aixek bai badira zorionekoak!

Azaletikoentzat itxita, baña baŕutikoentzat zoli dagozan begiak, aixek bai ba dira zorionekoak!

Baŕu-baŕukoetaraño saŕtzen direan eta zerutiko egi eskutuak yakiteko gertuten egunero ekin eta ekin daragoyoenak ¡aixek bai badira zorionekoak!

Jaungoikoarenetan ekiteko zoli dabiltzanak eta luŕeko eragozpen guztietatik uŕintzen direanak ¡aixek bai zorionekoak!

Oneik gauza guztiok, ene gogoa, begira egikezuz, eta aragi-ateak itxi egizuz, zure Jaungoikoak zugan zer diñoan entzun daikezun.

2. Auxe diño zure maiteak:

Josukistok: zure osasuna, zure bakea ta zure bizitzea neu naz.

Neugaz egon zaite ta bakea idoroko dozu.

Igeskoŕak itxi ta betikoak bil̄atu egikezuz.

¿Zer dira ba igeskoŕ guztiak iruzurbidea baño?

Eta zer on egingo dautzue izaki guztiak, Egil̃eak bertan bera izten bazaitu?

Oŕegaitik, gauza guztiak itxita, zeure Egil̃eaganako maitagaŕi ta zintzoa egin zaite, benetako zoriona yadetsi daikezun.

## II ATZALBURUA

### Egiak gogo-baŕuan itz-zarata barik itz egiten dauala

1. Gogo zintzoak-*Itz egizu, Jauna, zure otseñak entzuten dau ta* (1) *zure yopua naz ni, adimena emon egidazu zure egiak yakin daikedazan.* (2).

Zeure itzetara nire biotza makuŕtu egidazu; iñontza lez biñotso zure itza.

Bein baten Israel'go semeak Moises'eri esaten eutsen: *Zeuk itz egiguzu ta entzungo dogu; baña ez begisku Jaun-*

(1) I Reg. III, 9.

(2) Ps. CXVIII, 125.

*ak itz egin, beaŕ bada ilgo gintzakez -ta.* (1).

Nik ez oŕelan, Jauna; Samuel iragaŕleagaz, ostera, apal eta biotzez eskatzen dautzut: *Itz egizu, Jauna, zeure otseñak entzuten dau-ta.* (2).

Itz ezpeit egin Moises'ek, ez beste iragarleen batek be; zeuk, ostera, neure Jaun eta Jaungoikoa, iragarle guztien itz-eragiĺe ta argitzaĺea zarean oŕek, itz egidazu; zeuk bakaŕik erakutsi naikezulako; aek, baŕiz, zeu barik, eztira ezetarako.

2. Itz-zaratea atara daikie, baña gogorik eztabe emoten.

Ederto-ederto itz egiten dabe, baña zu ixiĺik egon ezkero, eztabe biotza ixiotzen.

Itzak badakaŕez, baña zer esan gura daben zeuk atzalţzen dozu.

Aginduak bai, baña aginduak betetako laguntasuna zuk emoten dozu.

Bidea erakusten dabe; baña zuk biotzetan irakatsi ta argitzen dituzu.

---

(1) Exod. XX, 19.
(2) I Reg. III, 9.

Azala buztiten dabe aek; baña ugaritasuna zuk emoten dozu.

Itz-zaratea egiten dabe aek; baña entzuleari zuk emoten dautsazu adimena.

3. Ezpeit, ba, Moises'ek itz-egin, zeuk baño, neure Jaun eta Jaungoikoa, betiko egia zarean oŕek, baŕuz berotua izan barik, kanpotik bakaŕik irakatsia izanda, beaŕ ba-da il eta onura barik geratu enaiten.

Itz entzuna ta egin-bakoa; ezagutua ta ez maitatua; siñestua ta bete bakoa eztagidan neure kalterako izan: *Itz egizu ba, Jauna, zure otseñak entzuten dau-ta* (1): *betiko bizitzako itzak daukazuz-ta.* (2).

Itz egidazu, aŕen, neure gogoari atsegiñen bat emoteko, ta bizikera osoa ontzeko, ta zeure betiko gorespen, aintza eta dedurako.

---

(1) I Reg. III, 9.

(2) Joan. VI, 60.

## III ATZALBURUA

### Gogo apalaz entzun beař direala Jaungoikoaren itzak, eta askok beař dan bestean eztituela auznařtzen

1. JOSUKISTOK—Neure itzak entzun egizuz, ene semea, itz eztitsu-estitsuak, luřeko yakitun eta ikastun gustien yakitea baño goragokoak.

*Nire itzak gogoa ta bizitzea dira.* (1) ta gizonen adimenaz ezin neuřtu daitekez.

Eztira alpeřiko atsegiñean erabiltekoak, ixil̃ean entzun eta apaltasun osoagaz eta gurari biziagaz artzekoak baño.

2. GOGO ZINTZOAK—Nik esan neban: *zoriontsua, Jauna, zuk irakatsi dozun gizona ta zeure legearen bařia zeuk emon dautsozuna, egun txařak biguntzeko,* (1) ta luřean bertan bera gelditu eztaiten.

3. JOSUKISTOK—Igařleai neuk iraka-

(1) Joan. VI, 64.
(1) Ps. XCIII, 12-13.

tsi dautsiet asikalditik, eta oraindiño eztautsat itxi guztiai itz egiteari. Baña neure itzetarako asko soŕ eta goŕ dagoz.

Askok gizonai neuri baño pozago entzun, eta Jaungoikoaren gurariari baño euren aragiaren yas okeŕari eŕezago yaŕaitzen dautse.

Gizaŕteak (munduak) saŕi igeskoŕak eta ziztriñak eskiñi aŕen, pozaŕen otsein egiten yako: nik, ostera, sari bikain eta betikoak eskintzen dodaz, eta gizonen biotzak nagi-nagi dagoz.

¿Nork otsein eta men egiten ete daust gizaŕte ta bertako yauntxoai otsein -egiten yaken besteko ardureagaz? *Lotsatu zaite, Sion, diño itxasoak.* (1). Zergaitik yakin gura badozu, entzun.

Sari uŕiagaitik bide luzea egiten da; betiko bizitzeagaitik, baŕiz, askok oña be nekez eragi dabe.

Sari txatxaŕen bila ibilten dira; diru bat dala-ta-eztala, batzuetan lotsagaŕizko auziak izaten dira; uskeri bategaitik eta eskintza ziztrin bategaitik, gau

(1) Isai, XX III, 4.

ta egun, loŕpean ibilteko bilduŕik eztago.

4. Auxe bai lotsagaŕi! Ondasun iraunkoŕagaitik, bardiñik eztaukan sariagaitik, gorengo dedu (honore) ta azkenbako aintzeagaitik neke apuŕ bat aŕtzeko be nagi dira.

Lotsatu zaite ba, otsein alpeŕ ta zital ori, zu bizitzarako baño aek galbiderako arduratsuagoak direalako.

Zu egiarako baño, pozago dago aek uskerirako.

Ta benetan euren itxaropenak uts urten dautse batzuetan; baña nire eskintzeak eztautso iñori utsik egin, eta neugan ustea daukana, ezer barik eztau izten.

Agindu dodana emongo dot; esan dodana beteko dot, baña ni maitatzean iñok azkeneraño zintzo irautekotan. Ni on guztien saritzaḹe ta Jaungoiko-zale guztien azteŕtzaḹe zoŕotza naz.

5. Neure itzak zeure biotzean idatzi ta zoli auznaŕtu egizuz, ziltzaldian beaŕ beaŕezkoak izango yatzuz-ta.

Irakuŕten dozunean uleŕtzen ezto-

zuna, ikustaldian (ikertaldian) ezagutuko dozu.

Neure autatuak era bitara ikeŕtu oi dodaz, ziltzaldiz ta pozaldiz.

Ta irakaskizun bi emoten dautsedaz egunoro; bata euren ekandu gaiztoakaitik agiraka egiñaz ta bestea onoimenetan auŕeratu daitezan aizkatuz.

Neure itzak entzun eta ezesten (despreciar) dituanak, epai-egunean nork epaitu ba-dauko.

*Eraspen eskaŕa eskatzeko otoitza*

7. Gogo zintzoak—Neure Jaun eta Jaungoikoa, neure ondasun guztia zeu zara-ta, ¿nor ete-naz ni zuri itz egiten asaŕtzeko? Zeure otsein txiro-txiroa ta mamaŕo txatxaŕ bat baño enaz; neuk dakidan eta esaten asaŕtzen nazan baño be ezeukiago ta ezeskaŕiagoa.

Gomutau zaite ba, Jauna, ezer enazala, ezer eztaukodala ta ezetarako enazala.

Zeu bakaŕik ona, zindoa ta deuna; zeuk dana al dozu, dana emoten dozu, dana betetan dozu, obendia izten dozula bakaŕik utsik.

Zeure eŕukitasunaz gomutau zaite, ta zeure eskaŕez biotza bete egidazu, zuk egindakorik utsik egoterik eztozu gura-ta.

7. Bizitza negaŕgaŕi onetan ¿zelan neure burua eroan al izango dot, zeure eŕuki eta eskaŕak ezpanau sendatzen? Ez egikezu, aŕen, nigandik zure arpegia aldendu; zeure ikertaldia ez egizu luzarotu; ez egidazu zeure atsegiña kendu: *neure gogoa zeure auŕean, luŕ legoŕaren antzekoa egin eztaiten.* (1). *Zeure naya egiten irakatsi egidazu, Jauna* (2); Zeure auŕean egoki ta apal itz-egiten irakatsi egidazu; neure yakituria zeu zara ta benetan ezagutzen nozuna ta egin baño lenagotik, ni luŕean yayo auŕetik ezagutu nozuna.

## IV ATZALBURUA

### Jaungoikoaren auŕean egiaz eta apalik yardun beaŕ dala

1. Josukistok—Ene semea, egiaz ibiḹi zaite neure auŕean, eta biotz

(1) Ps. CXLII 6.
(2) Ps. CXLII, 6.

zintzoaz beti neure biḻa ibiḻi zaite.

Neure auŕean egiaz dabiḻena, yazoera txaŕetatik zaindua izango da, ta iruzuŕgiḻe ta gaiztoen esamesetatik egiak yagongo dau.

Egiak yarein (azkatu) ba-zagiz, benetan yarei (azke) izango zara; ta eztozu gizonen sustaŕ bako zeresanen ardurarik izango.

GOGO ZINTZOAK – Egia da, Jauna: zuk diñozuna, aŕen, nigan egin bedi, Zure egiak irakatsi beist, azkeneraño berak zaindu ta yagongo al nau.

Berak lera txaŕ ta maitakeri okeŕak nigandik uŕindu beiz, ta zugaz biotz azkatasun andiaz ibiḻiko naz.

2. JOSUKISTOK — Neuk irakatsiko dautzut, diño Egiak, nire auŕean zuzena ta atsegingaŕi zer dan.

Gogoratu egizuz zure obenak, goŕoto ta damu aundiaz, eta egitade onakaitik ezer zareanik iñoz be ez egizu uste.

Egiz, obendia zara; ta giŕiña askoen menpekoa ta eurakaz naspildua.

Zu zeurez beti ezerezera zoaz; lasteŕ laprast egin eta lasteŕ yausten za-

ra; laster artegatu ta laster kikiltzen zara.

Eztaukazu ezer zergaitik zeure burua goratu, baña bai asko be zergaitik matxar-etsi; ulertu zeinken baño askozaz be makalagoa zarealako.

3. Egiten dozuzan guztietatik bat be ez egizu, ba, aunditzat euki.

Betikoa izan ezik, ezer be ez egikezu aunditzat, ez edertzat, ez arigaritzat, ez ontzat euki; ezer be ez egizu ez goitikotzat, ez goragaritzat ta guragaritzat artu.

Guztien artean atsegingariena betiko egia, ta gogaitgariena zeure matxartasun aundi-aundia izan bekizu.

Zeure ekandu txar eta obenai beste bildur eztautzazu ezeri izan bear; eztozu izan bear ezer eurak aña iguin, ezta ezergandik eurakandik bestean urindu be; edozein kalte baño iguiñago izan bear dozuzalako.

Batzuk eztabiltz zintzo nire aurean; yakin-gure ta arokeri zerbaitek eraginda, neure ixilekoak yakin eta Jaungoikoaren barukoak ulertu gura dabez,

euren buruaren eta euren betiko osasunari yaramonik egiten eztautsela.

Oneik, euren aŕokeri ta yakingureagaitik, ziltzaldi ta oben andietan, ni euren auŕka nagoala, yausten dira.

4. Jaungoikoaren epayaren bilduŕ izan zaite; guztia al dauanaren asaŕeak bilduŕ-ikaratu bezagiz; Jaungoikoaren egin-bideak ez egizuz eztabaidaka erabiḹi gura; zeure gaiztakeriak, ostera, arakatu egizuz ta begira, zeinbatetan uts egin dozun eta zeinbat egite on, alpeŕeriz, bete barik itxi dozuzan.

Batzuk idaztietan daukie euren eraspen osoa; beste batzuk irudietan; beste batzuk baŕiz ikuŕkin eta agerbide nabarietan.

Batzuk agoan banakaŕe, baña gitxik biotzean.

Beste batzuk, ostera, adimen argi ta biotz garbiaz betikoetara beti antziz biurtzen dira; luŕeko gora-berak entzutea nekegaŕi yakie, gorputz-bear-izanen ardurea samintasunaz dauke: euren baŕuan egi utsak zer diñoan onangoak asmetan dabe.

Egi oŕek luŕekoak ezesten eta zeru-

koak maitatzen: gizakeria (mundua) ezestu ta zerua gau ta egun gura izaten irakasten dautse.

# BIGAŔEN ZATIA

# Jaungoikozko maitasuna eta apaltasuna

## V ATZALBURUA

### Jaungoiko-maitasunaren atze ařigařiak

GOGO ZINTZOAK—Onesten zaitut, zeruko Aita, neure Jaun Josukisto'ren Aita, ni eŕukaŕi onetzaz gomutatzea nai izan dozulako.

Eskeŕik asko, ene Aita eŕukitsu ta atsegin guztien emoīea, atsegin bat eukiteko gai (digno) enazala, zeure atsegiñaz nozik-bein poztu nozulako. Zure Seme bakaŕagaz eta Goteun poztzaīeagaz amaibako egunetan beti onesten eta goresten zaitut.

Ea bada, Jaun eta Jaungoikoa, neure maitatzaīe deuna, zu neure biotzera zatozanean, neure baŕu guztia poztuko yat.

Zu zara nire aintza, ta nire biotzaren poza.

Zu zara nire itxaropena ta naigabe aldirako igestokia.

2. Baña maitatzean makala, ta onoimenetan utsune askoduna nazalako, zuk sendatu ta poztu beaŕa dot; oŕegaitik saŕiago ikustaldu nagizu ta ikasbide onak irakatsi egidazuz.

Giriña txaŕetatik aldendu nagizu, ta biotzeko zalekeri okeŕ guztiak osatu egidazuz; baŕuz osatu ta garbituta, maitatzeko gayago, yasateko sendoago, ta irauteko egonkoŕagoa izan naiten.

3. Josukistok – Maitasuna gauza ona ta benetan ondasun aundia da; aztuna dana, berak bakaŕik arintzen dau; ta gora-bera guztiak bardin daroaz.

Zamea (carga) zama barik daroalako, ta gaŕatza dana eztitsu ta gozatsua egiten daualako.

Josu'ganako maitasun zindoak egitade aundietara bultzau, ta beti onena gura izatera aizkatzen (eŕagiten) dau.

Maitasuna beti goratzalea da, ta bekoetan eztau gelditu gura.

Azke ta luŕeko zalekeri guztietatik

uŕin egon gura dau maitasunak, bere ikusmena ez daiten lausotu; aldiko onurak naspildu ala kalteak atzeratu eztayan.

Eztago maitasuna baño gozoagorik ezer, ez indartsuagorik, ez garayagorik, ez zabalagorik, ez atsegingaŕiagorik, ez beteagorik, ez obagorik, ez zeruan ezta luŕean be; maitasuna Jaungoikoa'gandik datoŕelako, ta izaki guztien gañetik, Jaungoikoagan bakaŕik atseden daitekelako.

4. Maitatzal̄ea egaz, ariñeketan eta pozik dabil; azke da, ta ez arazotua.

Guztia guztiaren ordez emoten dau ta guztia guztietan dauko, beragandik on guztia diñotsan eta darion Bakaŕ bategan, guztien ganetik, atsedeten dalako.

Eztautsa emaitzari begiratzen; emaitz guztien gañetik emol̄eagana biurtzen da.

Maitasunak saŕitan eztaki erarik; ostera, era guztien gañetik irakiten dau.

Maitasunak zamarik eztau asmatzen; nekeak ez ditu ezertzat eukiten; al dau-

an baño geyago gura dau; ezin egin daikenik eztiño; dana al daualakoan eta egoki yakolakoan dago-ta.

Edozertarako da gauza beraz; ta maite eztauana kikildu ta atzeratu daben gauza asko, bete ta egiten dauz.

5. Ernai dago maitasuna, ta lotan eztau lorik egiten.

Neketan ezta ebaintzen; estualdian ezta artegatzen; aŕiturik ezta laŕitzen; gaŕ-bizi ta zuzi-sutua lez gorantz yagi ta eskieŕ igaroten da.

Inork maite ba-dau, itz onegaz zer esan gura daben ba-daki.

Jaungoikoaren belaŕietan deadaŕ andia da, onela diñoan gogoaren gurari gaŕtsua: «Neure Jaungoikoa, neure maitasuna, zu osorik neuretzat, eta ni osorik zeuretzat».

6. Gogo zintzoak — Maitasunean zabaldu nagizu, biotz baŕuko agoz gozaŕtzen ikasi daidan, zein gozo dan maite izatea, maitasunez urtu ta maitasunean uger egitea.

Biotz beroaren-beroak eta aŕitasunak neugandik aterata, maitasunak eutsiko al daust.

Maitasun-abestia abestu gura dot, gorantz yaŕaituko dautzut, ene maite oŕi; nire gogoa zure gorespenetan igatu bedi, maitasunaz pozezko yauziak dagizala.

Neu baño maiteago izan zakidaz, eta neure burua zeugaitik bakaŕik, eta zu egiz maite zaituanak, zeugan maite dagidazala, zugandik argitsu datoŕen maitasun-legeak agintzen dauan lez.

7. JOSUKISTOK—Maitasuna bizkoŕa, yaungoikozalea, gozoa ta atsegingaŕia da; sendoa, yasankoŕa, zintzoa, zuŕa, lepo-zabala, adoretsua da, ta iñoz bez berekoya.

Iñor norbere bil̄a dabil̄anean ba, maitasunetik beriala yausten da-ta.

Arduratsua, apala ta zuzena da maitasuna: ez bupera, ez ariña, ez gauza ziztrin-zalea: eratsua, garbia, egonkoŕa, baketsua ta sentzun (somaki) guztiak zaintzen dauzana.

Nagusiakanako menpeko ta esanekoa da maitasuna; beretzat utsal eta ezesgaŕia, Jaungoikoaganako eraspentsu ta eskaŕ-onekoa, Beragan itxaropena ta ustea daukala, baita Jaungoikoa go-

VITORIA

zagaŕi etxakoneán be: maitasunean neke barik biziterik eztago-ta.

8. Edozer yasateko ta maitearen guraria dan lez egiteko gertuta eztagoanak, maitatzaīe-izenik eztau irabazi.

Maitatzaīeak maiteagaitik gogoŕak eta latzak, gogoz, eroan beaŕ ditu, ta yazo leiteken edozergaitik beragandik eztau alde egin beaŕ.

## VI ATZALBURUA

### Benetako maitatzaīearen ezaubidea

1. JOSUKISTOK—Maitatzaīe sendo ta zuŕa etzara oraindiño, ene semea.

GOGO ZINTZOAK—¿Zergaitik ez, Jauna?

JOSUKISTOK—Ez-beaŕ txikiagaitik, asi dozuna bertan bera izten dozulako, ta atsegin biīa laŕiegi zabizalako.

Maitatzaīe zintsoak ziltzaldian gogoŕ egiten dau, ta areŕioaren maltzuŕkeriak ez ditu ziñesten. Zorion-aldian atsegin nauan lez, zoritxaŕ-aldian be enau iguin.

2. Maitatzaľearen emona baño, emoľearen maitasuna geyago begiratzen dau maitatzaľe zuŕak.

Emondako gauzeari baño, zelako gogoaz emon dautsan geyago begiratzen dau, ta emon yakozan guztiak, maite dauana baño beragokotzat daukoz.

Maitatzaľe zintsoa ezta emaitzean atsedeten, emaitz guztien ganetik neugan baño.

Ezta guztia galdu, neu ala neure deunak zeuk gurako zeunken aña gozo asmetan ezpadozuz.

Zeugan nozik-bein nabaitzen dozun arako lera on eta samuŕa, zeugan dagoan eskaŕetik yatoŕtzu ta zeruko abeŕiaren auŕetiko milizkadea da; baña ez oŕetan laŕegi yaŕi, yoan eta etoŕi egiten da-ta.

Baña gogoko zirkin gaiztoen auŕka gogoŕ ekitea ta txeŕenaren (diabruaren) eragikunak basteŕtzea, onoimen eta irabazte ugariaren ezaubidea da.

3. Ezpezayez artegatu, ba, kanpotik yatoŕtzuzan irudipenak, edozetarikoak badira be.

Zeure asmoari gogor eutsi eyozu ta Jaungoikoaganako gogo zuzena euki egikezu.

Iñoz otoz-otoan gora yaso, ta bertatik oizko biotzeko tentelkerietara biuŕtzen bazara be, ezta ori ames utsa.

Oŕelakoen egiḻe baño, naigabez yasalea geyago zarealako: ta naigabetzen zaituen eta gogoŕ egiten dautzuen artean, eztago galtzerik, irabaztea baño.

4. Jakin egizu antxiñeko arerioak egiñalak egiten dauzala zuk onerako daukazun zaletasuna eragozteko ta yaungoikozko egikizun guztietatik zu aldentzeko; esate baterako: deunenganako eraspenetik, neure nekaldiaren (pasiño) gomutapen zintzotik; obenen damu onurakoŕetik; norbere biotza zaintzetik eta onoimen bidean auŕeratzeko asmo sendotik.

Oldozkai txaŕ asko bururatzen dautzuz, aspeŕtu ta bilduŕtu zaitezan eta otoitza ta irakuŕte deunak itxi daizuzan.

Iguin dau autoŕkuntza apala, ta al ba-leu, Jaun-aŕtzea izterano eroango zindukez.

Ez oŕeri siñestu; ez oŕeri yaramonik egin; iruzuŕ egiteko lakirioa saŕitan yaŕten ba-dautzu be.

Oldozkai txaŕ eta zantaŕak dakatzuzanean, berari ezaŕi eŕua ta esan egiozu: ken emendik, gogo zantaŕ ori; lotsatu adi gaizto ori; zantaŕ-zantaŕa az benetan, oŕetaikoak belaŕira dihraustakazan ori.

Uŕin nigandi, iruzuŕgil̃e gaizto-gaizto ori, eztok izango nigan zer-ikusirik; Josu, ostera, egongo dok nigaz, gudari kementsuaren antzean, eta lotsatuta egongo az.

Iltea be ta edozein neke eroan gurago yoat, iri bayetza emon baño.

Ixildu adi ta ez txitik egin: ezaut geyago entzungo, ekin eta ekin zirikatuko ba-nok be:

*Nire argia ta nire osasuna Jaungoikoa dok ¿nori izango yotsat ba bilduŕ?* (1).

*Nire auŕka gudarozteak* (*ejércitos*) *ba-yatozak be, nire biotza eztot bilduŕ*

---

(1) Ps. XXVI, 1.

*izango* (1): *Jauna dok nire laguntzaḻea ta nire gaizkatzaḻea* (2).

5 Gudari (soldadu) onen antzera buŕukatu egikezu ta, nozik-bein zeure makaltasunak yausi eragiten ba-dautzu, neure eskaŕ ugariagoan ustea ezaŕita, lengoak baño indaŕ sendoagoak aŕtu egizuz, eta atsegin utsal eta aŕokeritik uŕindu zaite.

Oŕegaitik amaikatxok bide zuzena galtzen dabe, ta batzuetan ia osatu eziñeko itsukerian yausten dira.

Tentel aŕotzen direanen yauste au, zeure betiko apaltasun eta ardura geyagorako izan bekitzu.

## VII ATZALBURUA

### Eskaŕa apaltasunagaz estaldu beaŕ da

1. Josukistok—Ene semea, eraspen-eskaŕa estaltzea, zeu ez goratzea, beraz laŕegi berba ez egitea, ta laŕegi ez andi-estea oba ta eskieŕago yatzu; baña

(1) Ps. XXVI, 3.
(2) Ps. XVIII, 15.

zeure burua, ostera, ezetsi egizu ta irabazi barik emon dautzuelako, bildur izan zaite.

Orelako biotz lereari etxako laregi eutsi bear, bestera laster biurtu leiteke-ta.

Eskar-aldian, gogoratu egizu eskar barik zein gaxo ta ezeukia izaten zarean.

Gogo - bizitzearen aurerakuntzea, atsegin-eskara dozunean ez-eze, eskar ori kentzea, apalik, buru-ukaturik eta eroapenez daroazunean be, badago; ori gora-bera, otoitz-ardurean nagitu barik, egunoro egin oi dozuzan egitade onak egin barik izten eztozuzanean.

Zeuk ondoen al dozun eta uste dozun erara, al-dozuna gogo onaz egizu; ta nabaitzen dozun biotzeko beartasuna ta artegatasunagaitik etzaite osoan alpertu.

2. Gauzak euren gogara yazoten etxakiezanean beingoan artegatu ala nagitzen direanak, asko izan oi-dira-ta.

Gizonak eztauko beti bere bidea bere eskuetan; Jaungoikoari dagokiona da berak nai dauanean, nai dauan neur-

ian ta nai dauanari, berak gura dauan lez, emon eta poztutea.

Zentzunbako batzuk eraspen-eskaŕagáitik euren burua galdu eben, al eben baño geyago egin gura ebelako; euren txatxaŕtasun-neuŕia gogoratu barik eta adimen eritxiari baño biotz-zalekeriari geyago yaŕaiturik.

Ta Jaungoikoak gura eban baño aundiagoetara igon gura izan ebelako, agaitik eskaŕa lasteŕ galdu eben.

Eurentzako zeru-goyan abia ipiñi ebenak, txiro ta matxaŕ gelditu zirean; onelan lotsatuta ta ezebe barik gelditurik, neure egapean itxaroten, ez euren egoakaz egaz egiten, ikasi dayen.

Jaungoikoaren bidean asi-baŕiak eta ezyakiñak dira oraindiño, ta eŕez bidegabetu ta ondatu leitekez, zuŕen esanaz zuzentzen ezpadira.

3. Baña yakitunai baño norbere eritxiari yaŕaitu gurago ba-dautse, azkena aŕizkutsua izango yakie, euren eritxitik alde egin gura ezik.

Euren ustez yakitunak direanak, banaka-banaketan eroaten dabe apaltasunaz beste batzuk euren artezkariak izatea.

Apaltasunagaz gitxi yakitea ta adimen uŕia eukitea oba da, aŕokeriaz yakituri ugaria eukitia baño.

Aŕotuko zindukezan asko baño gitxiago eukitea oba dozu.

Lengo ezeukitasuna ta eskiñiko eskaŕa galtzeko bilduŕ dan Jaungoikoaren bildur garbiaz aizturik, oso-osoan atsegiñari bere burua emoten dautsanak, eztiardu beaŕ dan zuŕtasunaz.

Onoimen-gayetan eztaki gauza andirik, edozein naigabe ta neke-aldian ariñegi kikildu, ta neugan beaŕ dan usteaz itxaroten eztauanak.

4. Bake aldian eskieŕegi egon gura dauana, guda aldian luŕa yota bilduŕti egongo da.

Beti zeure burua apaletsi ta gauza txikitzat eukiten, ta zeure burua ezi ta aztertzen bazenki, aŕisku ta obenetan ez zintzakez oŕen arin yausiko.

Gogo-bero aldian burubide ona da, argia aldentzen danean zer yazo leiteken gogoratzea.

Ta au yazo ezkero, argia baŕiro be etoŕi leiketzula gogoratu egikezu; argi ori apuŕ baten, zeure ardurarako eta

neure aintzarako kendu neutzun-eta.

5. Orelako neke-aldia askotan onuratsuago yatzu, gauzak zeure gogara eukiko bazenduz baño.

Iñoren irabazteak, eztira ikuspen nai gogo-atsegin asko eukitetik neurtu bear-ta; ezta deun Idaztiaz yakitunagoa izatetik nai goragoko malan yartetik be.

Baña egiazko apaltasunean sustrayak ipiñita, ta yaungoikozko maitasunez beterik ba-dago, eta gauza guztietan eta bakar-bakarik Jaungoikoaren aintzaren bila ba-dabil; bere burua ezerestzakotzat ba-dauko ta bene-benetan bere burua ezesten ba-dau, ta, besteak be ezetsi ta apaletsi dayela, goratzea baño, gurago ba-dau; orexetan dagoz irabazteak.

## VIII ATZALBURUA

### Jaungoikoaren aurean norbera ezereztzat eukitea.

1. GOGO-ZINTZOAK: *Autsa ta erautsa izan aren be, neure Jauna'ri itz egingo*

*dautsat* (1) zerbait geyago nazalakoan banengo, oŕa oŕ zu nire aurka, ta neure gaiztakeriak diñoe egiazko ziñalpena ta ezin ukatu neike.

Baña neure burua apaletsi ta ezerez-tuko baneu, ta neure andi-ustekeri guz-tiak itxi, ta autsa nazan ezkero, burua austuko baneu, zure eskaŕa neure alde izango da, ta zure argia nire biotzari uŕeratuko yako ta andi-ustekeri dana, txikiena izanda be, neure ezerestasu-nean ito ta betiko ilgo da.

Antxe erakusten daustazu zer nazan, zer izan nintzan eta zetara eldu nazan; ezer enaz eta ezer enenkian-ta.

Neure buru-yaube izten ba-naz, ezer-eza ta makaltasuna berbera naz; baña bat-batean begiratuten ba daustazu, ber-bertatik indaŕtsu egin eta poz baŕ-iaz betetan naz.

Eta ni, neurezko aztuntasunaz beti berantza noan au, zuk oŕen bat-batean eragitea ta oŕen samuŕ laztantzea, guz-tiz aŕigaŕia da.

2. Zure maitasunak egiten dau au,

---

(1) Gen. XVIII, 27.

ni eskaŕ utsez auŕetik gertatzen nauala; ta beaŕ-izan askotan laguntzen daustala, ta aŕisku aundietatik zaintzen nauala; eta egia esateko, ezin esan beste gatxetatik ataraten nauala.

Neure burua okeŕ maitatuaz, ba, galdu naz, eta zeu bakaŕik biĺatu ta maitatuaz, bai neure burua baita zeu be, auŕkitu dodaz, eta maitasunak eraginda, geyago ezereztu naz.

Zuk, biotz bigun-bigun oŕek, nire irabazte guztien ganetik, eta nik itxaron eta eskatzen asaŕtu neitekean baño geyago egiten dozu nigaz.

3. Onetsia izan zaitezala, neure Jauna; ezertxo be aŕtzeko gai izan ez aŕen be ba, zure esku-zabal eta azkenbako ontasunak, eskaŕ-gaiztoko ta zugandik uŕin dagozanai be, eten barik on egiten dautse-ta.

Biuŕtu gagizuz zeugana; eskaŕ oneko, apal eta yaungoiko-zaleak izan gaitezan; gure osasuna, indaŕa ta sendotasuna zeu zara-ta.

---

# IX ATZALBURUA

## Elburua dan Jaungoikoagana gauza guztiak zuzendu beaŕ direala

1. JOSUKISTOK—Ene seme, zure elburu nagusi ta azkenengoa neu izan beaŕ nayatzu, benetan zoriontsua izan gura ba-dozu.

Asmo onegaz garbituko da, zeuganantza ta izakietarantza saŕitan txaŕto makuŕtu oi dan zure biotz-lerea.

Zeure biĺa ezertan ba-zabiz ba, beingoan ebaindu ta legortzen zara-ta.

Onan dan ezkero, guztiak neugana batezbere zuzendu egizuz; guztien emoĺea neu naz-ta.

Onan, dana On-nagusiagandik dariolakotzat euki egizu; ta oŕegaitik, guzti-guztiak, euren jatoŕiari lez, neuri ezaŕi (egotzi) beaŕ yataz.

2. Txikiak eta aundiak, txiroak eta aberatsak, ituŕi bizitik lez, ur bizia neugandik ataraten dabe.

Ta niri berez eta gogo onaz otsein -egiten daustanak, eskaŕ-ordañez eskaŕa aŕtuko dabe.

Baña neugan izan barik, burua goretsi gura dauana, ala beretzako zer onen baten gozaŕtu gura dauana, benetako poztasunean ezta sendotuko, ezta bere biotzean nasaitu be; ostera, askotara eragotzi ta laŕituko da.

Onik ezer be zeuregandikoa danik ez uste, ezta gizakume bateri be ez eyozu onoimenik ezaŕi; guztia, ostera, bera barik gizonak ezebe eztaukan Jaungoikoari emon eyozu.

Neuk emon neban dana, ta baŕiro dana euki gura dot; eta eskaŕak egitea estu-estu agintzen dot.

3. Aŕopuskeria uxatzen dauan egia auxe da.

Ta zeruko eskaŕa ta egiazko maitasuna gogoan saŕtzen ba-da, ezta izango ez bekaizkeririk (envidia) ez biotz esturik, ez norberaganako maitakeririk.

Jaungoiko-maitasunak guztia garaitu (vencer) ta gogoaren indar guztiak zabaltzen ditu-ta.

Zeure senean ba-zagoz, neugan bakaŕik poztuko zara, neugan bakaŕik itxarongo dozu; *Jaungoikoa izan ezik*,

*iñor be ezta ona-ta,* (1) Bera danik goralgaŕiena ta guztietan oneskaŕiena da.

## X ATZALBURUA

### Gizakeria (mundua) ezetsi ezkero Jaungoikoaren moŕoi izatea gozoa dala.

1 Gogo-zintzoak—Orain baŕiro, ene Jauna, itz egingo dot eta enaz ixilduko; neure Jaungoikoaren, neure Jaunaren eta goyan dagoan neure Bakaldunaren (eŕegearen) belaŕietan esango dot:

*Zure bilduŕ diranentzat eskutatu zendun gozotasuna bai ba-da ugaria*, *ene Jauna*. (2)

Baña ¿zer izango ete-zara maite zaituenentzat? Zer biotz-biotzez zeure moŕoitzean daragoyoenentzat?

Zu maite zaituenai emon oi dautsezun zeure sokun-gozotasuna, ezin-esana da benetan.

Onetan, batez be, erakutsi daustazu zure maitasun-gozotasuna, enintzane-

---

(1) Luc. XVIII, 19.

(2) Ps. XXX, 20.

an egin ninduzulako, ta zugandik uŕin deslai nenbiĺela, zeuganatu ninduzulako; zeure moŕoi izan nendin eta zeu maitatzea agindu zeunstalako.

2. Betiko maitasunaren ituŕi ori! ¿zer esango ete-dot zutzaz?

¿Zelan zugaz aiztu ninteke, galdu ta ondatu nintzanean be, nitzaz gomutatzeko aña ona izan bazakidaz?

Uste leitekean baño eŕuki geyago izan dozu zeure moŕoi onentzat; eta irabazi leikean baño adeiago ta baŕukoago agertu zayakoz.

Eskaŕ onen ordez ¿zer biuŕtuko etedautzut? Etxake guztiai emon ba, gauza guztiak itxi ta gizakeriak ukatu ta lekaide-bizikerea aŕtzea.

¿Gauza aundia ete-da-ba, izaki guztiak moŕoi dozuzan oŕen moŕoi izatea?

Eztot aunditzat euki beaŕ zuri otsein egitea; baña onen txiro ta gai-eza nazan-au otseintzat aŕtu ta zeure kutunakaz batzea zuk ontzat eukitea ¡auxe bai badaukat gauza aundi ta aŕigaŕitzat!

3. Ona, daukodazan eta zeuri moŕoi egiteko darabildazan guztiak zeureak dira.

Baña okeŕetara yazo oi-da; ni zure moŕoi baño zu nire moŕoyago zara.

Oŕa oŕ zeruak eta luŕak; gizonaren moŕoi izateko egin zenduzanok gerturik dagoz ta agindu dautsezuena zeatz-zeatz egunoro egiten dabe.

Baña au gitxi da, gotzonak be (aingeruak) gizonen moŕoitzarako izentau zenduzan-eta.

Baña onek gauza guztiok atzean izten dauz, zeu gizonaren moŕoi izan gura izateak eta zeure burua berari emongo zeuntsala agintzeak.

4. Oŕenbeste mil̄aka emayon-ordez zer emon al-daiketzut? ¡Neure bizitzako egun guztiak zeure moŕoitzean emongo al dodaz!

¡Gitxienez eguntxo baten, beaŕ litzaken añako moŕoitzea egiteko gauza izango banintz!

Benetan moŕoitza guztia, dedu guztia ta betiko gorespena zor yatzu zuri.

Zeu zara bene-benetan nire Jauna; ni baŕiz zuri indaŕ guztiekaz otsein egin beaŕ dautzun eta iñoz be zu goresten aspeŕtu bear ez leuken moŕoitxoa.

Auxe nai, ta auxe gura dot, eta nire utsune guztiak zeuk, aŕen, bete egizuz.

5. Zuri otsein-egitea ta guztiak zure ordez ezestea, gorespen eta aintza aundia da.

Egiz eskaŕ ugaria eukiko dabe zure yoputza deun-deunean euren gurariz yaŕten direanak.

Zure maitasunaŕen aragi-atseginkeri guztiak uŕintzen dituenak, Goteunagandiko (Espiritu Santua) atsegin gozo-gozoa idoroko dabe.

Gogo-azkatasun aundia yadetsiko dabe, zure izenagaitik bide estuan saŕtu ta luŕeko gauzen ardurea basteŕtzen dabenak.

6. ¡Benetan, gizona azke ta deuna egiten dauan Jaungoikoaganako yoputzea, bai ba-da atsegingaŕi ta eztitsua!

¡Ene! ¡Lekaideen yoputzea bai bizibide edeŕa! ¡Zuk gizasemea gotzonen antzekoa, Jaungoikoarentzat otzangaŕi ta txeŕenarentzat (diabruarentzat) ikaragaŕi, ta kistaŕ guztientzat yaŕaibide edeŕa egiten dozu!

¡Joputza laztangaŕi ta beti opagaŕia! ¡Zugaz onik gorengoena irabazi, ta

amai barik iraungo dauan poza esku-ratzen da!

## IRUGAŔEN ZATIA

# Gogoaren ondasun gustiak dariozan ituŕia dan Jaungoikoaz

## XI ATZALBURUA

### Biotzeko gurariak azteŕkatu ta ezi beaŕ dira

1. JOSUKISTOK — Ene semea, ondo ikasi eztozuzan asko ikasi beaŕ dozuz oraindanik.

GOGO ZINTZOAK—¿Zeintzuk ete dira ba oŕeik, Jauna?

JOSUKISTOK—Zeure gurariak oso-osorik neure nayagaz bateratzea ta ez zeurekoya, neure nayaren egiĺe zolia baño, izatea.

Gurariak saŕitan berotu ta indaŕtsu eragiten zaitue; baña begiratu ia nire gorespenak ala zeure onureak geyago eragiten dautzun.

Nik eraginda ba-diarduzu, pozik

egongo zara, naita gauzak edozelan atondu (eratu); baña zeure buru-maitakeri apuŕik be ostenduko balitz zeure asmoan, oŕa oŕtxe eragotzi ta aztuntzen zaituana.

2. Begira ba; neuri itandu barik, ez uste laŕegi ezaŕi etoŕi yatzun gurarian; lenengo atsegin emon entzunaz eta obea zalakoan gura izan zenduanaz, damutu ta atsekabetu etzaitezan. Ez beingoan yaŕaitu ona dirudian biotz lereari; ezta mingaŕi dirudianetik iges egin be.

Batzuetan gurari ta lera onak ezitea egoki da, batzuen eta besteen ekiñakaz gogo-biltasuna galdu eztaizun, eta zeure zentzungabekeriakaz iñori yauspiderik emon eztayozun; edo norbaitek auŕka egiten dautzulako, bertatik bildurtu ta yausi etzaitezan.

3. Nozik-bein, aragikeriari, gizon arauz, gogoŕ egin beaŕ yako, ta aragiak zer gura dauan ala zer gura eztauanari etxako yaramonik egin beaŕ; gura ezaŕen be, gogoaren menpean egon daiten ardura geyago aŕtu baño. Ta edozertarako gertuta egon aŕte-

an, eta gitxigaz asetzen eta baldanakaz pozik egoten, eta letoŕkioken edozein neke ixiḷik eroaten ikasi aŕteraño, zigorkadaka ta yoputzean erabiḷi beaŕ daŕ.

## XII ATZALBURUA

### Eroapenaren azikuntzea ta aragi-iŕitsen auŕkako buŕukea

1. Gogo zintzoak — Neure Jaun eta Jaungoikoa, dakustanez eroapena beaŕ-beaŕezkoa yat; bizitza onetan zoritxaŕ asko yazoten dira-ta.

Bakean biziteko edozetara yardun-aŕen, ezin leiteke, ba, neure bizitzea guda ta miñik barik izan.

Josukistok — Olantxe da, ene semea; baña zu ziltzaldi ta atsekabe-bako bakearen biḷa ibilteŕik eztot gura.

Baña askotariko naigabeetan ibiḷi ta zoritxaŕ askotan izanda gero, benetako bakea idoro dozulakoan egon zaite.

3. Ezin asko yasan zeinkela esango ba-zendu ¿zelan garbitokiko sua yasan al-izango dozu?

Gatx biren artean, beti txikiena autu beaŕ da.

Ekin, ba, oraingo nekeak Jaungoikoaŕen, eroapenaz yasaten, gero betiko oñazeak zugandik uŕindu daikezuzan.

Gizakeri-zaleak gitxi edo ezer be eztabela yasaten uste ete-dozu? Guri-gurienak arakatu aŕen be, eztozu olakorik aurkituko.

Baña, diñozu, atsegin asko daukez, eta euren naya neuŕi dabela bizi dira; oŕegaitik naigabeari yaramon gitxi egin oi-dautse.

3. Tira, alan dala emon daigun; nai dabena euki beye; baña ¿noz aŕte iraungo dautsela uste ete-dozu?

Biztoki (mundu) onetako ugaritasun aŕtean dagozanak, kea lez ondatuko dira ta igaro diran pozaldien ezetariko gomutarik be ezta izango.

Baña bizi direan artean be eztira, oŕelakoetan, samintasun eta iguin eta bildur barik etzanda bizi.

Atsegiña saŕtzen yaken berbertatik saŕitan min-nekea be artzen dabe ta. Zuzen yazoten yake ori; atsegin-bila

ta yaŕai, okeŕ dabizanezkero, lotsa ta gaŕastasun barik eztayezala euki.

4. Labuŕagc, guzuŕtiago, okeŕago ta zantaŕago dira atseginkeri guztiak. Baña, ordi ta itsuak, direalako eztabe au uleŕtzen, eta, zentzunbako abereak lez, bizitza ustelkoŕ onen atsegin apuŕ bategaitik, gogoaren eriotzara yoten dabe.

Oŕegaitik zuk, ene seme oŕek, *aragiaren iŕitsari ez yaŕaitu, ta zeure gogotik egotzi (yaurti) egizuz.* (1)

*Jaunaren atsegiña aŕtu egizu, ta zure biotzak eskatzen dauana emongo dautzu berak.* (2)

5. Benetako atsegiña aŕtu ta nik ugariago poztutea gura ba-dozu, ba, ona emen, luŕetiko guztien ezespenean eta atsegin eŕkin guztiak zugandik yaurtitean izango da zure zoriona; ta atsegin yoria emongo yatzu.

Ta izakietatiko atsegin guztietatik uŕintzen zarean neuŕiz, neugan atsegin samuŕ ta indartsuagoak idoroko dozuz.

---

(1) Eccli XVIII, 3.

(2) Ps. XXXVI, 3.

Baña asieran etzara elduko olako atsegiñetara, atsekabe ta buŕuka-neke barik.

Ekandu zaŕa aurka yagiko yatzu; baña ekandu obeagaz aspiratuko da.

Eztau maŕ-maŕka makala erabiliko aragiak; baña gogo gaŕtsuak eziko dau.

Antxiñako sugeak zirikatu ta gaŕaztuko zaitu; baña otoitzak iges eragingo dautso, eta lan onuratsuagaz ate guztiak itxiko yakoz.

## XIII ATZALBURUA

### Josukistoren antzeko azpikoaren men apala

1. JOSUKISTOK—Ene semea, menpetasunetik aldentzeko alegin egin oidauana, baita eskaŕetik be aldentzen da, ta beretzakoak euki gura dauzanak guztienak galdu oi ditu.

Bere nagusiari berez ta gogoz menperatzen etxakanak, bere aragia oraindiño ondo azpiratu barik daukala ta marmarka ta ostikoka dabilela gauza jakiña da.

Burua nagusiari bereala menperatzen ikasi egizu ba, zure aragia menperatu gura ba-dozu.

Gizon-bafua indargetuta ezpadago ba, kanpoko (atetiko) arerioa lasteŕago azpiratzen da-ta.

Eztago gogoarentzat zeu zeuretzako baño arerio gogaikaŕi ta txaŕagorik, gogoagaz ondo alkaŕtzen etzareala.

Zeure burua benetan ezestea beaŕezkoa dozu, aragia ta odola azpiratu gura ba-dozuz.

Oraindiño zeure burua okeŕegi maite dozulako, iñoren agindupean yaŕteko bilduŕ zara.

2. Baña gauza arigaŕia ete-da, zu, autsa ta ezereza izanda, Jaungoikoaŕen, gizonaren agindupean yaŕtea, ni, guztia ezerezetik atara neban algustidun eta Goiko Jauna, zugaitik gizonari menperatu ba-nayako?

Guztien aŕtean apalen eta txikiena egin naz, neure apaltasunaz zeure aŕokeria azpiratu daizun.

Men egiten ikasi egizu, auts oŕek. Ikasi egizu, luŕ ta lupetz oŕek, apala

izaten eta guztien oinpean makuŕtzen. Ikasi egizu zeure gurariak austen eta edozeiñen agindupean yaŕten.

3. Asaŕatu zaite zeure aurka, ta ezeyozu aŕopuzkeriari zugan biziten itxi; ostera, beste guztiak zeure gañetik ibiḺi ta bideetako lupetsa lez zapaltzeko aña menpeko ta txiki agertu zaite.

¿Zer daukazu zergaitik ayeneka ibiḺi, gizon ziztrin oŕek?

¿Zer erantzun zeinkioe zu iraintzen zaituenai, Jaungoikoa ainbeste bidar iraindu ta saŕi askotan gaiztokia irabazi dozun obendi zataŕ oŕek?

Baña zure gogoa begiko yatalako, parkatu dautzu nire begiak, neure maitasuna ezautu daizun eta neure onegitekanako eskaŕ oneko agertu zaitezan.

Ta benetan mendo ta apala izaten beti yardun eta zeure ezezpena eroapenaz eroan daizun.

# XIV ATZALBURUA

## Jaungoikoaren epai estariak auznartu beaŕ dira, ondo egiten doguzanetan aŕotu ezkaitezan

1. Gogo zintzoak -- Zure epayak neure gañean baŕunbaka darabiltzuz, Jauna; ta azuŕ guztiak bilduŕez eta nire gogoa oso izututa gelditzen da. Aŕituta nago ta zerua berbera zure begietan eztala garbia begiratzen dot. *Gotzonetan gaiztakeria auŕkitu bazendun* (1) eta parkatu ezpa-zeuntsen, ¿zer izango ete-da nitzaz?

Zerutiko izaŕak yausi zirean, eta ni. autsa izanik ¿zer nazala uste ete-dot? Euren egiteak, txalogaŕiak zirudienak, be-beraño yausi zirean, eta gotzonen ogia yaten ebenak, txaŕien ezkuŕez poztuten ikusi nebazan.

2. Eztago beraz deuntasunik, zure eskua, Jauna, aldentzen ba-dozu.

---

(1) Job. IV, 18.

Jakituriak onik eztau egiten, zaintzeari izten ba-dautsazu.

Sendotasuna ezta ezetarako, zeuk eusten ezpa-dozu.

Norbere burua zaintzeak onik eztakaŕ, zure zaintze deuna auŕki (bertan) ezpa-dago.

Izten ba-gozuz (itxas) ondora goaz eta ito egiten gara; baña zuk ikeŕtu ezkero, yagi ta biztuten gara.

Egiz, geurez aldakoŕak gara, baña zuk sendotzen gozuz: epelak gara, baña biztuten gozuz.

3. ¡Nik bai ba-daukat zergaitik apal eta ezezkaŕiro neure buruaz eritxi! ¡Ondo ezereztzat euki beaŕ dot bai nigan zerbait onik ba-daukadala ba-dirudi.

Ezereza ta ezereza baño besterik enazala ikusiko dodan zure epai ondaŕ bakoetan nik yatsi beaŕ dodan ondaŕetaraño!

¡Ori bai aztuntasun neuŕibakoa! Ori bai itxaso igaro eziña, nitzaz guztietan ezereza baño enazala idoroten dodana!

Non ete-da ba aŕokeriaren okolua? non norbere onoimenetik soŕturiko ustea?

Aŕokeri utsal osoa zure nitzazko epayen sakontasunean ito da.

4. Aragi guztia ¿zer da zure auŕean? *¿Bustiña, eraltzaleearen auŕka aŕotuko ete-da?* (1).

Biotza bene-benetan Jaungoikoaren azpian yaŕi dauana ¿zelan aŕotu leiteke itz utsakaz?

Egiak beretzat menperatu ebana, eztau ludi osoak eragiko; ta uste osoa Jaungoikoagan sendo ezaŕi ebanari, eztautse zirkiñik eragingo goraka darabilen guztiak.

Itz egiten dabenak ezebe eztirealako, itz-zarateagaz batera ondatuko dira-ta. *Jaungoikoaren egiak, baŕiz, beti iraungo dau* (2).

## XV ATZALBURUA

### Gura leiteken edozertan zelan yardun eta itz egin beaŕ dan

1. Josukistok--Ene semea, gauza guztietan onantxe esan egizu: Jauna,

---

(1) Isai XLV, 9.
(2) Ps. CXVI 2.

zeuk atsegin ba-dozu, olantxe egin bedi au.

Jauna, zure dedurako (onrea) balitz, zure izenean egin bedi au.

Jauna, niretzat egoki ba-deritxazu, ta onuragaŕi ikusten ba-dozu, orduan, au zure aintzarako erabiltea emon egidazu.

Baña neuretzat kaltegaŕi, ta neure gogo-osasunerako eztala ona ezagutzen ba-dozu, kendu nigandik gurari au.

Ezta edozein gurari Goteunagandik (Espiritu Santua) etoŕia, gizonen eritxiz zuzena ta ona izan aŕen be.

Au edo ori gura izatera gogo onak ala txaŕak, ala zeure eritxiak zaroazen zuzen ebastea, gauza zaiḻa da.

Lenengoan gogo onak eragiñak zirudien asko, azkenean iruzuŕ eginda gelditu zirean.

2. Oŕegaitik beti be gogoari yatoŕkon edozein gurari Jaungoikoaren bilduŕez eta biotz apalaz gura ta eskatu beaŕ da; ta batezbere, burua ukaturik, guztia neuri egotzi beaŕ yat esanaz.:

### *Jaungoikoaren naya egiteko otoitza*

«Jauna, zeuk dakizu zelan dan ondoen au edo ori; nai dozun lez egin bedi.

Gura dozuna, gura dozun beste ta gura dozunean emon egizu.

Dakizunez, atsegingarien eta aintzagarien yatzunez egizu nigaz.

Yari nagizu nai dozun tokian, eta guztietan nigaz nai dozunez yardun egizu. Zure eskuetan nago, irauli ta erabili nagizu.

Ara emen, zeure otseña edozetarako gerturik; eztot bizi gura, ba, neuretzako, zuretzako baño ¡ta ondo ta zintso izango al-da!

3. Zeure eskara emon egidazu, Josu samur-samur orek; neugaz izan, neugaz lan-egin eta azkeneraño neugaz iraun dayan.

Beti atsegiñen eta kutunen dozuna gura ta nai-erazo egidazu.

Zure gurea neurea izan bedi, ta nire gureak zureari yaraitu beyo beti, ta beragaz oso-osoan alkartu bedi.

Nai ta nairik-eza berberak izan beki-

FUNDAZIO ... SASIO · VITORIA ·

daz ta zure nai ta nairik-eza baño beste nai ala nairik-ezik euki ez al izatea.

4. Luŕeko gauza guztientzat iltea ta zugaitik ludi onetan ezetsi ta aiztua izatea maitatzea emon egidazu.

Guragaŕi guztien gañetik zeugan atsegintzea ta biotza zeugan baketzea emon egidazu.

Zu zara biotzaren benetako bakea, zu atseden bakaŕa; zu barik guztiak gogoŕak eta urduriak dira: *Bakean beragantxe,* (au da zugan, gorengo betiko ontasun oŕetan) *lo egingo dot eta atsedengo naz* (1). Olantxe.

## XVI ATZALBURUA

### Benetako poza Jaungoikoagan bakaŕik biĺatu beaŕ dala

1. GOGO ZINTZOAK—Neure atsegintzat gura edo asmau neiken edozer emen izango dodan usterik eztaukat, gerokoan baño.

Luŕeko pozkaŕi guztiak neuk bakaŕik baneukoz, eta atsegin guztiak go-

---

(1) Ps. IV, 9.

zaŕtu al ba-neuz be, yakiña da luzaroan ezin iraungo leukiela.

Oŕegaitik, ene gogoa, ezin zeintekez guztiz poztu ez oso-osoan alaitu, txiroen poztzaḹe ta apalen atosle dan Jaungoikoagan baño.

Itxaron apur bat, neure gogoa, itxaron Jaungoikoa'ren agintzean, eta on guztien ugaritasuna eukiko dozu zeruan.

Oraingo gauzok okeŕegi gura ba-dozuz, betikoak eta zerukoak galduko dozuz.

Aldikoak erabiḹi; baña betikoak gura egizuz.

Etzaitekez asetu aldiko edozein onagaz; olakoa gozaŕtzeko egiña etzarealako.

2. Egindako on guztiak ba-zeunkaz be, ezin izango zindekez zorionekoa ta asea: zure on guzti ta zoriontasun osoa, ostera, guztiak egin ebazan Jaungoikoagan dago.

Ez ludi-zale tentelak uste ta goratzen daben antzekoa, Kistoren yaŕaitzaḹe onak itxaroten daben eta zeruetan diarduen gogodi ta biotz garbiak

noizik bein oraindikxe muxtatzen daben antzekoa baño.

Gizonakandiko pozaldi guztiak utsal eta laburrak dira. Zoriongarri ta benetako pozaldia, barruan asmetan dan egitikoa.

Gizon Jaungoiko-zaleak bere poztzale Josu edonun beragaz daroa ta esan oi dautso: lagundu egidazu, Josu Jauna, edonun eta beti.

Auxe izan bekit neure pozaldia: giza-pozaldi barik egotea gogoz gura izatea.

Ta zugandiko pozaldirik ezpa-daukat, pozaldirik aundiena zure gurea ta zuzena izan bekit.

*Etzara ba beti asarre izango, ezta etzara beti zemaka be egongo* (1).

## XVII ATZALBURUA

### Ardura osoa Jaungoikoagan ipiñi bear dala

1. Josukistok—Ene seme, itxi zugaz gura dodana egiten: neuk dakit zer egoki yatzun-ta.

---

(1) Ps. CII, 9,

Giza-zuŕean ebazten dozu zuk; giza-lereak bururatzen dautzuzan langoak dira askotan zure eritxiak.

GOGO ZINTSOAK—Jauna, egia da zuk diñozuna. Ardura andiago daukazu nire alde, nik neure buruaren alde euki neinkenik andiena baño.

Bere ardura osoa zeuri egozten (ezaŕten) eztautzuna ba, yausteko zori-zorian dago-ta.

Jauna, neure gurea zugan zuzen eta sendo dirauan aŕtean, egizu nigaz zeuk nai dozuna.

Nigaz egingo zeunken guztia ona baño ezin leiteke izan-eta.

2. Ni ilunean egotea gura ba-dozu, onetsia izan zaite; ta ni argitan egotea gura ba-dozu be, onetsia izan zaite. Ni atsegintzea ontzat ba-daukazu, onetsia izan zaite; ta ni atsekabetu gura ba-nozu be, onetsia izan zaite beti.

3. JOSUKISTOK—Ene seme ori, oŕelan egon beaŕ dozu, nigaz ibili gura ba-dozu.

Atsegiñerako letxe gerturik egon beaŕ dozu atsekaberako be.

Ezeukia ta txiroa, edo asea ta abe-

ratsa, gogo bardiñaz izan beaŕ dozu.

4. GOGO ZINTSOAK—Jauna, gogoz yasango dot zugaitik, zuk gura-ta etoŕiko litzakidan edozer.

Zure eskutik ona ta txaŕa, gozoa ta gaŕatsa, alaya ta iīuna gogo bardiñaz aŕtu gura dodaz, eta niri yazo leikidazan guztiakaitik eskaŕak egin gura dautzudaz.

Oben guztietatik zaindu nagizu ta enaz ez eriotzearen, ez gaiztokiaren bilduŕ izango.

Baldin zugandik yaurtiten ta bizitzako idaztitik kentzen ezpanozu, etoŕi leikedan edozein loŕek eztaust kalterik egingo.

## XVIII ATZALBURUA

### Bizitzaldiko nekeak, Kistoren antzera, gogo onaz yasan beaŕ direala

1. JOSUKISTOK—Ene seme ori, zerutik zeure osasunagaitik yatsi nintzan; zure makaltasunak neugandu nituan, ez beaŕ izanak eraginda, maitasunak baño; yasaten ikasi zengian eta bizi-

tzako nekeak, asaŕe barik, eroan zengizan.

Jayo nintzanetik gurutzean il aŕterano, enintzan neke-min barik egon-eta. Luŕeko gauzen beaŕ-izan aundia euki neban; nire auŕka zer-esan asko saŕitan entzun nebazan: lotsakizun eta laidoak (irañak) otzan eroan nebazan: on-egiteen ordez, eskartxaŕa; mirarien ordez, biraoak; irakaspenen ordez, agirakak aŕtu nebazan.

1. GOGO ZINTSOAK—Jauna, zeure bizitzan yasanbera (yasankoŕa) izan ziñean ezkero, oŕetan, batezbe, zure Aitaren agindua betetan zendula; ondo da nik be, obendi eŕukaŕi onek, zure gurea dan lez, neure buruan eroapenez yasatea, ta gura dozun aŕtean bizitza ustelkoŕ onen zamea (kargea), neure burua zeruratzeko, eroatea.

Oraingo bizitzea aztuna dala oaŕtu aŕen be, zure eskaŕaren bitartez guztiz irabazkoŕa egin da: ta, zure ereduz eta zure deunen oñatzez, gaxo-makalentzat eroankoŕago ta argitsuago.

Baña alan eta guzti be beñolako legean, zeruko aŕea itxirik egoanean eta

zeruko bidea iľunago agertzen zanean, eta zeruko eŕia biľatzeko ain gitxik ardurea aŕtzen ebenean baño askozaz be atsegingaŕiagoa.

Baña orduan, onak eta gaizkatzekoak (salbetakoak) zireanak be, zure Nekaldia (Pasión) eta zure eriotza gurenaren zoŕa ordaindu baño lenago, zeruan ezin saŕtu eitekezan.

3. ¡Eskaŕetan zoŕ ba-dautzut, zure betiko bakaleŕirako (eŕeñurako) bide arteza ta ona niri ta siñestedun guztiai erakutsi izan dauskuzulako!

Zure bizitzea gure bidea dalako, ta eroapen deunaren bitartez, gure saria zarean oŕegana goazalako.

Gure auŕetik yoan eta irakatsi ezpazeunskun ¿nork yaŕaitzeko ardurea aŕtuko eban?

¡Amaikatxo uŕin eta atzean geratuko litzakez, zure yaŕaibide bikañak ikusiko ezpalebez!

¡Zure ainbeste mirari ta irakaspen entzun aŕen be, epeltzen gareanok; ¿zer egingo ete-geunke, zuri yaŕaitzeko oŕenbeste argi ezpa-geuñko?

# XIX ATZALBURUA

## Irañen eroapena, ta benetako eroapentsu nor agiri dan

1. JOSUKISTOK—¿Zer diñozu, ene seme? Ken intziriok, neure ta beste deunen nekeak begiraturik.

Odola emon arteraño eztozu ondiño gogoŕ egin.

Gitxi da zuk yasaten dozuna, ainbeste ta ain asko yasan ebenen ondoan; ain gogoŕ ziltzalduak, ain aztun loŕpetuak, ainbeste eratara nekatu ta eragiñak izan zireala!

Besteen neke gogoŕagoak gogoratzea egoki yatzu, beraz, zure neke txikiak ariñago eroan al-daizuzan.

Eta zuri neke txikiak direanik ezpaderitxazu, begira ia zeure eroapen-ezagaitik ete-dan.

Baña txikiak nai aundiak izan, eroapenaz eroaten alegin egikezu.

2. Jasateko gertuko zarean neuřiz, zuŕago diarduzu ta geyago irabazten dozu ta, gogoz ta oikuntzaz atarako zoli gertu ezkero, eŕezago eroango dozu·

Ez esan: ezin neike urliagandik onetaikorik yasan eta onangorik eztot nik yasan beaŕ: kalte andia egin eta iñoz gogoratu be etxatazan gauzakaz iraintzen nau-ta; beste iñogandik, ostera, yasan beaŕ dodala deritxadanez, pozik yasango dot.

Tentelkeri utsa da asmo ori; eroapen-onoimena zer dan eta saria nok emongo dautsan be begiratzen eztauana; bai, ostera, irain eta iraintzaleak aztatu eta neurtuten dituana.

3. Norberarí deritxona ta norberak nai dauanagandik izan ezik yasan gura eztauana, ezta benetako eroapentsua.

Benetako eroapentsuak eztau begitzen nork yasan eragiten dautsan: ala nagusiak, ala idekoak, ala menpekoak ala gizon on eta deunak, ala gizon gaizto ta zataŕak.

Bestera; edozein irazakigandik eta edonoz etoŕi leitekion edozein naigabe, guztia bardin, eskaŕ onez, Jaungoikoaren eskutik bailetoŕkion, aŕtzen dau ta irabazte yoritzat dauka.

Jaungoikoaren auŕean, gauza txikia izanda be, Jaungoikoaŕen yasaten ba-

da, irabazte barik ezertxo be ezin gelditu leiteke.

4. Buŕukaldirako gertuta egon zaite ba, gurendea (garaya) yadetsi gura ba-dozu.

Ezin zintekez, buŕuka barik, yasan-sarira eldu.

Jasan gura ezpa-dozu, saririk be eztozu aŕtu gura.

Baña saria aŕtzea gura ba-dozu, ekin buŕuka gizon arauz, yasan eroapenaz.

Atsedenera yasan-bidetik baño ezta yoaten; ezta gurendara be, ezta eltzen buŕuka barik.

5. Gogo zintsoak—Neure indaŕez egin-gaitz yatana, zeure eskaŕagaz egineŕaz biurtu bekit, ene Jauna.

Zuk ba-dakizu, benetan gitxi yasan daikedana eta neke txikien bat yagi ordukoxe, beera noana.

Zure izenagaitik edozein loŕpean erabilia izatea, guragaŕi ta maitegaŕia izan bekit; neke ta atsekabeak zugaitik yasatea, neure gogoari guztiz osasungaŕi yako-ta.

# XX ATZALBURUA

## Norbere makaltasun-autoŕpena ta bizitza onetako zoritxaŕak

1. GOGO ZINTSOAK—Neure gaiztakeria, ene Jauna, neure auŕka autoŕtuko dot, neure argalkeria autoŕtuko dautzut.

Gauza txatxaŕa da saŕitan, kikildu ta ituntzen nauana.

Gogoŕ ekiteko asmoa aŕtzen dot; baña ziltzaldi ariñen bat datoŕkidaneko, laŕi-aldi andia etoŕten yat.

Batzuetan, egiz, gauza ziztrin-ziztriña da ziltzaldi aundia dakaŕstana.

Ta ezer nabaitzen (asmatzen) eztodalako, zeozer eskieŕago nagoala uste dodanean, bultza arin batek iya luŕa yo-eraginda auŕkitzen naz.

2. Begiratu egizu ba, Jauna, nire ezereztasuna ta ondo-ondo dazauzun yauskoŕtasuna.

Eŕuki zakidaz ta lupetsatik atara nagizu, bertan itsatsi ta betiko etzanda gelditu enaiten.

Ni saŕitan eŕeta ta zure auŕean lotsa-

tuta izten nauana, onen yauskoŕa ta giŕinai gogoŕ egiteko (yarkiteko) onen makala izatea da.

Ta bayetzerano ezpa-naroe be, nekegaŕi ta aztuna yat euren eraso-aldia; ta oŕelan egunoro buŕuka bizitea, iguin-iguin dot.

Emetixe ezagutzen dot neure makaltasuna: irudipen iguingaŕiak alde egiten daben bano eŕezago datoŕkidazalako.

3. Begiratu eyozu, aŕen, zeure otseñaren neke ta miñari, gogo zintso-zain zarean Israelgo Jaungoiko oso indartsu oŕek, eta bere egikizun guztietan lagun izan zakioz.

Zeruko indaŕez sendatu egizu, gizon zaŕa, aragi zantaŕa, oraindino gogoari ondo menperatuta eztagoalarik, garaitzale izan eztaiten: oŕen auŕka ekin beaŕko da, bizitza eztun onetan arnasea aŕtzen dan aŕtean.

¡Au da bizitzea! naigabe ta neke barik ezin bizi izatea, ta alde guztietan lakirio ta arerioak daukazana!

Loŕ eta ziltzaldi bat doaneko, beste bat datoŕ; eta oraindino lenengo buŕu-

keak dirauala be, beste asko ta uste barik datoz.

4 ¿Zelan maite izan daiteke onenbeste samintasunez beterik eta onenbeste zoritxaŕ ta nekez yosita dagoan bizitzea?

Ta ¿zelan deritxo bizitzea onenbeste eriotz eta izuŕi (peste) soŕtzen dauzanari?

Ta alan da gusti be, maite oi da ta asko dabiz bizitza oŕegandiko atsegin-bila.

Gizaŕtea (mundua) guzuŕtia ta utsala dala-ta, zer esana ba-dabil; baña etxako eŕez izten, aragi-iŕitsak laŕegi agintzen dabelako.

Baña zerbaitzuk gizartea maitatzera ba-garoez, beste batzuk ezestera garoez.

Aragi-iŕitsak (gura txaŕ-okeŕak) begi iŕitsak, bizitza-aŕokeriak daroe gizakeri-maitasunera; baña onei zuzen yaŕaitu oi dautsen atsekabe ta nekeak, gizakeriaganako goŕotoa ta iguiña soŕtzen dabe.

5. Baña ¡au da samiña! gizakeriari emondako gogoa atsegin zantaŕak az-

piratzen dau, ta gorputzaren mendean egotea atsegintzat dauko: Jaungoikoagandiko gozotasuna ta onoimenagandiko bařutiko yoritasuna eztaualako ez ikusi ez muxtatu.

Baña gizařtea (mundua) ondo-ondo ezesten eta lege-bide deunean Jaungoikoarentzat biziten ekin oi dabenak, oneik benetako buru-ukatzal̄eai eskiñiriko Jaungoikozko ezt'ia ba-dazaue ta gizartea zein okeř dabil̄en eta zeinbatera iruzuř eginda gelditzen dan argiroago ikusten dabe.

## XXI ATZALBURUA

### On eta emai guztien ganetik Jaungoikoagan atseden bear dala

1. Gogo zintsoak—Gauza guztien ganetik eta guztietan, Jaunagan atseden zaite beti, ene gogoa, Deunen betiko atsedena bera da-ta.

Josu laztan-laztan ta maite-maitegařia, izaki guztien ganetik zeugan atsedetea emon egistazu; osasun eta edeřtasun guztiaren ganetik; ospe (onřa)

ta dedu guztien ganetik; yakituri ta adimen - zoŕoztasun guztien ganetik; alaitasun ta pozaldi guztien ganetik; entzute ta gorespen guztien ganetik; gozo ta atsegin-aldi guztien ganetik; itxarokizun eta eskein guztien ganetik; irabazki ta gurari guztien ganetik.

Emon eta ixuri daikezuzan opari ta emai guztien ganetik; gogoak aŕtu ta nabaitu leikean poz ta atsegin guztien ganetik.

Azkenez, aingeru ta goiaingeru guztien eta zeruko gudarozte guztien ganetik; ikuskoŕ ta ikuskaitz guztien ganetik eta zeu, neure Jaungoikoa, etzarean guztien ganetik.

2. Zu, ba, neure Jaun eta Jaungoikoa, danik onena zara; zu bakaŕik gorengoena; zu bakaŕik altsuena; zu bakaŕik naiko ta beteena; zu bakaŕik estitsu ta atsegingaŕiena.

Zu bakaŕik edeŕena ta maitagaŕiena; zu bakaŕik danik argi ta aintzatsuena; zugan on guztiak batera ornidu dagoz, ta beti egon dira ta egongo dira.

Oŕegaitik gitxi ta uŕi da zeu barik emoten daustazun edozer, ta zeutzaz

yakin erazo ta eskeintzen daustazun edozer, zeu ikusi ta osoan yadetsi ezik.

Nire biotza ezin leiteke benetan atseden ezta osoan asetu be, zeugan atseden ezik, ta emai ta irazaki guztiak albo batera itxi-ezik-eta.

3. Ene ezkon laztan-laztan Josukisto, maitatzale garbi-garbia, izaki oroen naguzia; benetako azkatasun-egoak nork emongo al daustaz, zugana egaiz-egin eta zugan yaŕiteko?

¿Noz egongo ete-naz astitsu-astitsu, neure Jaun eta Jaungoiko ori, zein gozo zarean begiratzen yarduteko?

Noz batuko ete-naz oso-osorik zugan, zuganako maitasunez, neu nabaitu barik, zeu bakaŕik zentzun (somabide) ta neuŕi guztien ganetik eta guztiak eztakien eraz nabaitu zaikedazan?

Orain, baŕiz, saŕitan sotinka nago, ta neure zoritxaŕa neke samiñez daroat.

Zoritxaŕ-ibaŕ onetan saŕitan laŕi, itun eta goibeltzen naben gaitz asko yazoten dira-ta; askotan eragotzi, zabaŕtu, zirikatu ta naspiltzen nabe, zuganako atea zabalik euki eztaidan, ta

gogo zoriontsuak beti aukeran daukiezan zure laztan zoragaŕiz poztu enaiten.

4. Neure negar-sotiña ta lüŕeko zoritxaŕ askotarikoak bigundu bezayez.

Ene Yosu, betiko aintzaren argia, ta atzeŕiko gogoaren poza, zure auŕean txitik barik dago nire agoa, ta nire ixiltasunak itz egiten dautzu.

¿Noz-arte luzatuko ete-dau etoŕerea neure Yaunak?

Betoŕ bere eŕukaŕi onegana, ta poztu bei.

Bere eskua luzatu bei, ta gaxo au, laŕialdi guztitik atera bei.

Etoŕi, etoŕi zaite; zu barik ez egun, ez ordu atsegintsurik ezin egon leiteke-ta, nire poza zu zareanezkero; ta zu barik utsik dago nire maya.

Gaxoa naz ta zelanbait espetxeratua (kartzelatua) naz, ta oiñestunakaz (oin-burdiñakaz) lotua, zeure arpegiaren argiz indartu ta yarei (azke) egingo nozun aŕte ta adizkide-begirakunea erakutsiko daustazun aŕte.

5. Bil̄atu beye besteak zure ordez

nai leukien beste zerbait, nik baña eztot, eta eztot izango be besterik atsegin, neure itxarokizuna ta betiko osasuna zarean neure Jaungoiko ori baño.

Nigana zure eskaŕa biuŕtu aŕte ta zuk niri baŕuan itz-egin (erausi) aŕte, enaz ixilduko ta eztautsat deadaŕ egiteari itxiko.

6. Josukistok.—Emen naukazu ba, emen nayatzu, deiḹu egin daustazu-ta. Zure negaŕ malkoak, zure gogoaren gurariak, zure apaltasunak eta biotz-damuak, zugana makuŕtu ta ekaŕi nabe.

7. Gogo zintsoak.—Eta esan neban; Jauna, deitu neutzun, ta zugan poztu gura izan dot, zugaitik guztiak ezesteko gerturik nagoala.

Zuk ba lenago itxaŕtu ninduzun, zure biḹa ibiḹi nendin.

Onetsia izan zaite ba, Jauna, zure eŕuki ugariari dagokionez, zeure yopu oneri oŕen onbera agertu zayakozalako.

Zer ete-dauko zer esan bear geyago, onetzaz gañera, zure yopu onek zure

auŕean, bere gaiztakeri ta txatxaŕkeria beti gogoan dauzala, bere burua zuri osoan apaldu baño?

Ez zeruko ez luŕeko aŕigaŕi guztietan zure antzekorik eztago-ta.

Zure egintzak on-onak dira, zure epayak egizkoak eta zure ardureak zuzentzen dauz guztiak.

Oŕegaitik zuri, Aitaren yakituria zarean oŕeri, gorespena ta aintza: nire aoak, nire gogoak ta gauza guztiak erabatera goretsi ta onetsi bezayez.

## XXII ATZALBURUA

### Jaungoikoagandik arturiko on-egiteen gomutapena

1. Gogo zintsoak.—Jauna, zabaldu egizu nire biotza zeure legean, ta zure aginduetan ibilten irakatsi egidazu.

Emon egidazu zeure gurea igartea, ta zure mesedeak itzal aundiaz ta gogaŕte arduratsuagaz, bai erabatera bai banaka, gogoratzea, emetik atziña, beaŕ dan lez, eskaŕak egin daiketzudazan.

Zeure mesederik kaskaŕenagaitik

be, bear añako eskar-gorespenak egiteko gauza enazana.

Egin dauztazuzan on guztiak baño txikiagoa naz; eta zure esku-zabala begiratzen dodanean, oren andi-andia dala ikusiaz, nire gogoa konkortuta yarten da.

2. Gogoan eta gorputzean daukoguzan guztiak, ta baruan nai azalean, geurez ala goi-eskarez daukaguzan guztiak, zure mesedeak dira ta zu esku-zabal, samur ta ontzat goresten zaitue, on guztiak zugandik artu doguz-ta.

Batek geyago ta besteak gitxiago artu badauz be, guztiak zureak dira, ta zeu barik txikerena be ezin yadetsi leiteke.

Andiagoak artu dauzana be ezin leiteke, berak irabazi dauzalakoan, arotu ez besteak baño gorago yagi, ezta gitxiago artu dauanari isekarik egin be, norberarari gitxien ezarten dautsana ta eskar-egitean apalago ta berotsuago dana, aundiago ta obea dalako.

Ta norbere burua txatxarentzat daukana ta gaiztoena dala deritxona,

aundiagoak a r t z e k o egokiago da.

3. Baña gitxiago artu dauanak ez-tau iĩundu beaŕ, ezta asaŕatu be; ezta geyago daukonaren inartsi izan be; zugana biurtu baño, ta zure ontasuna al-aña goratu, zure on-egiteak ain ugari, ain uŕurik eta gogoz, nor-nor dan begiratu barik, emoten dozuzalako.

Guztiak zugandik datoz; augaitik guztietan goretsia izan beaŕ dozu.

Zeuk dakizu bakotxari zer emon beaŕ yakon, eta onek zergaitik gitxiago ta aek zergaitik geyago daukon ebastea, ezta gure zereginña, bakotxaren irabasteak zeatz-zeatz dakizuzan zeurea baño.

4. Oŕegaitik, Jaun eta Jaungoikoa, azalez eta gizonen eritxiz goretsi ta aintzagaŕi direan asko ez eukitea, mesede aundia dala deritxat; alan, bere txirotasuna ta kaskaŕtasuna begiraturik aztun ala iĩun ala kikilduta gelditu beaŕean, poz eta alaitasun aundia aŕtuko dau.

Zuk, ene Jaungoiko oŕek, zure adiskide ta etxekotzat, txiroak eta apalak,

ta gizakeriarentzat (munduarentzat) ezeskaŕiak autu zenduzan-ta.

Ludi osoko nagusitzat izentau zenduzan zeure Belduak (apostoluak) dira onetan ziñaldari. (1).

Alan eta guzti be, gizonen artean espaka (kexa) barik bizi zirean; zure izenagaitik irañak yasatea be atsegin eben, eta gizakeriak goŕoto dituanak eurak gogoz laztantzen zituen; ain apal, biotz-garbi ta gaiztakeri ta maltzuŕkeri (azerikeri) bakoak zirean.

5. Oŕegaitik maite zaituana ta zure mesedeak dazauzana geyen poztu beaŕ dauana, zure gurea ta zure betiko erabagia beragan betetea da.

Onek bakaŕik asetu ta poztu bear dau; norbaitek aundiena izatea gura dauan aña, berak, pozik, txikiena izan gura izatea.

Ta azkenengo tokian lenengokoan aña baketsu ta pozik egon beaŕ dau, ta besteak baño argiago ta andiago izatea aña pozik, eroan beaŕ dau ezes-

(1) Ps-XLIV, 17.

kaŕi ta basteŕtu ta bape entzute ta ospe bakoa izatea.

Zure gurea ta zure deduaren (onŕearen) maitasuna beste gauza guztiak baño indaŕtsuago izan beaŕ yakozalako, ta eurokaz egin ala egingo yakozan mesede guztiakaz baño geyago poztu ta atsegin beaŕ dalako.

# LAUGAŔEN ZATIA

# Gogoaren bake ta azkatasuna

## XXIII ATZALBURUA

### Bake andia dakaŕen lau gauza

1. JOSUKISTOK. — Ene semea, bake ta benetako azkatasun-bidea orain txe irakatsiko dautzut.

2. GOGO ZINTZOAK.—Egizu diñozun ori, Jauna, au entzutea atsegin yat-eta.

3. JOSUKISTOK.—Alegin egizu, ene semea, zeure naya baño, beste iñorena lenago egiteko.

Ugari eukitea baño uŕi eukitea, autu egikezu beti.

Bil̄atu beti zeuretzat atzenengo tokia ta guztien menpean egotea.

Jaungoikoaren guraria zugan zeatz-zeatz betetea, beti gura izan eta eskatu.

Ara; onan diarduan gizona bake ta atseden-mugetan sartzen da.

4. Gogo zintsoak. — Jauna, zure itzaldi labur au ornitasunez bete-beterik dago.

Itzez labura, baña esan-gurez mamintsua ta igaliz yoria.

Zintzo-zintzo bete al-izanda be, eneuke onen arin laritu bear.

Artega ta astun nagoan bakoitzean ba, ikasbide onetatik urindu nazala oartzen dot-eta.

Baña zuk, dana dagikezun eta gogoaren aurerakuntzea beti gura dozun orek, eskar ugariagoa emon egidazu, zure itzaldi au bete ta neure gaizkapena (salbaziñoa) burutu daikedan.

*Oldozkai-txaren aurkako otoitza*

5. *Ene Jaun eta Jaungoikoa, ez urindu nigandik; neure Jaungoikoa erdu, niri*

*laguntzera* (1); askotariko oldozkayak ta bildur̃-ikara andiak yagi dira nire aurka, nire gogoa atsekabetzen dabela.

¿Zelan igaroko ete-naz kalterik artu barik? ¿zelan bir̃induko ete-dodaz?

6. *Neu*, diño Jaunak, *zure aur̃etik yoango naz eta lur̃eko ar̃oak apalduko dodaz*. (2)

Espetxeko (kartzelako) ateak edegiko dodaz, eta eskutuko gauzak agertuko dautzudaz.

7. Diñozun lez, Jauna, egikezu; ta zure aur̃etik iges-egin beye oldozkun zantar̃ guztiak.

Neure itxaron-bide ta atsegin bakar̃a auxe da: beraldi guztietan zeure magalpera yotea, zugan ustea ipintea, biotz-biotzetik deitzea eta eroapenez zugandiko atsegiñaren begira egotea.

*Adimen argikuntzea eskatzeko otoitza.*

8. Bar̃uko argitasunagaz argitu na-

---

(1) Ps. LXX, 12.

(2) Is. XIV, 1

gizu, Josu ona, ta atera biotz-bafutik iluntasun guztiak.

Neure safitako zabarkeriak eragotzi egidazuz ta suzitu, lafi narabilen ziltzaldiak.

Bufukatu gogof nire alde ta pizti zatafak, au da ifits lizunak uxatu, zure indafa bide dala, bakea nigana etofi daiten ta yauregi deuna dan biotz garbian zure gorespen-durundua efuz entzun daiten.

Agindu aize ta ekaitzari; itxasoari esayozu, geldi aite; eta ipar-aizeari, ez putsik egin, ta barealdi andia izango da.

9. Luf-ganean argi egin dayen, bidali zure argi ta egia. Zuk argitu arte luf soil eta utsa naz-ta.

Izuri egidazu goitik eskafa; buzti egidazu zeruko iñontzaz neure biotza; emon egidazu eraspen-ura, luf azala ezotzeko ta uzta on eta bikaña ekarteko. Oben-piloak zapaldutako gogoa eragi egizu, ta neure gurari guztia zerukoetan ezafi egizu, bein zeruko zoriontasun-eztia muxtatu ezkero, lufekoak gogoratzea iguin izan daidan.

10. Ken ta atara nagizu izaki arteko atsegin igeskor guztietatik; gogoa guztiz asetu ta poztu leiken izaki bat-be eztago-ta.

Lotu nagizu zeugaz, azkatu eziñeko moropil̄oagaz, maitearentzat zeu bakaŕik zarealako naikoa; ta guztiak, zu barik zirtzil̄ak direalako.

## XXIV ATZALBURUA

### Iñoren bizitza-baŕiak yakin-guretik iges egin beaŕ da

1. Josukistok.—Ene semea, etzaite izan begi luze ta etzaite ibil̄i alpeŕiko ardurakaz.

Au nai bestea dala-ta, ¿zer ardura dautzu zuri? Zuk yaŕaitu neuri.

Urlia onangoa nai alangoa dala, ala berendiak onan nai alan iñardu ta itz egiten daula-ta, ¿zer daukozu zuk zer ikusirik?

Eztaukozu zuk iñoren ordez erantzun beaŕik; baña zeutzaz erantzun beaŕko dozu.

¿Zergaitik ba, naspiltzen zara? Ara; nik guztiak ezagutzen dodaz, eta eguz-

kipean yazoten dan guztia ikusten dot, eta badakit bakotxa zelakoa dan, zer, asmau, zer nai dauan eta bere asmoak zetara yoten daben.

Oŕegaitik guztiak neuri egotzi bear yataz; baña zuk bake onean iraun egizu ta itxi artegatzaleari, gura dauan bestean artegatzen.

Esan nai egingo dauan guztia ber-bera etoŕiko yako, niri ezin legisket iñok ziririk sartu-ta.

2. Ez eikezu euki itzal andiko izenaren ardurarik, ezta askoren kutuna izatearen, ala gizonen maitasun bereziarenik be.

Oneik ba, biotzean zabaŕkeri ta il̄untasun andiak sortzen dabez-ta.

Pozik esango neuskizu neure itza ta eskutukoak erakutsi, neure etoŕereareren begira arduraz bazengoz eta biotzeko atea edegiko bazeunskit.

Zoli egon zaite ta otoizketan itxaŕik eta beti ta guztietan apalik.

# XXV ATZALBURUA

## Biotzeko bake sendoa ta benetako auŕerakuntzea zetan dagozan

1. JOSUKISTOK. — Ene semea, nik esan neban: *Bakea izten dautzuet: neure bakea emoten dautzuet; eta eztautzuet emoten gizakeriak (munduak) emon oi dauan lez* (1).

Bakea guztiak nai dabe; baña benetako bakeari dagokiozanen ardura, eztira guztiak.

Nire bakea apal eta biotz otzanakaz dago. Zure bakea eroapen andian dago.

Entzuten banozu ta nire deyari yaŕaitzen badautsazu, bake yorian poztu al zeitekez.

2. GOGO ZINTSOAK—¿Zer egingo dot ba?

JOSUKISTOK.—Edozertan ondo begiratu egizu zer egiten eta zer esaten dozun, eta zure asmo osoak onetarakoxe yo beike: neuretzako bakaŕik atsegin

(1) Joann. XIV, 27.

izatera ta neu izan ezik, ezer ez gura ta ez bilatzera.

Ta besteen esanak nai egiñak be ez ariñegi epaitu, ta zeuri ez leporatuko gauzetan be ez nastu, ta baleiteke olan gitxi ala banaketan baño ez artegatzea.

3. Baña iñoz be keskarik ez nabaitzea, ez biotzeko ala gorputzeko nekerik ez yasatea, ezta oraingo bizitzeari dagokiona, betiko atsedengo izakereari dagokiona baño.

Atsekaberik eztaukozula-ta, ez uste bakea idoro dozunik; ezta guztia ontzat euki-be, areriorik eztaukozunean; ezta guztiak zeure gurearen neuriz yazoten direanean, ondo-ondoen zagozanik-be.

Zeure burua aunditzat ez euki orduan, ala berebiziko maitea zareanik be ez uste, oso eraspentsu ta eztitsu bazagoz-be; onoimenen benetako maitatzalea eztalako onangoetan ezagutzen, eta gizonaren aurerakuntzea ta ornidutasuna be onangoetan eztagoalago.

4. Gogo zintsoak. — ¿Zertan dago ba, Jauna?

Josukistok. —Zeurerik, nai txikian

nai andian, nai aldian nai betikotasunean bilatzeka, Jaungoikoaren gureari, zareanori biotz-biotzetik, eskintzean.

Zorion eta zoritxaŕ-aldian guztiak pixu berberagaz pixaturik, zorion eta zoritxaŕ aldian arpegi bardiñagaz eskaŕak egitean dirauzula.

Baŕuko poz-aldia kenduta be, nekemin astunagoak yasateko zeure biotza gertatzerano besteko indartsu ta sendoa ba'litz zure itxaropena, oneik eta onenbeste eztozula yasan beaŕ-ta, zeure burua zurikatu ordez;

Ta Neure erabagi guztietan neu zuzentzat euki ta deuntzat goresten banozu, orduantxe egiazko ta bide zuzenean zabiz, ta baŕiro nire arpegia atsegin artean ikusteko uste oso-osoa eukizeinke.

Ta zeure burua oso ezesterano eltzen bazara, yakizu, atzeŕi onetan izan leiteken añako bake yoriz poztuko zareala.

## XXVI ATZALBURUA

### Irakuŕteaz baño geyago eske-otoitzaz irabasten dauala gogoak bere askatasuna; ta zein bikaña dan askatasun ori

1. GOGO ZINTSOAK. —Jauna, auxe da gizon orniduaren egikizuna: zerukoetarako asmoetan iñoz ez zabaŕtzea ta ardura askoren artean ardura barik lez igarotea, ez nagiaren antzean, gogo azkearen eskubidez baño, izaki batxori be, lera okeŕez, itsatsi barik.

2. Neure Jaungoiko samuŕ-samuŕa, bizitza onetako arduratatik yagon nagizula eskatzen dautzut, laŕegi naspildu enaiten; gorputzaren bear-izan askotatik, atseginkeriak atzitu (aŕapau) enayan; gogoaren eragozpide guztietatik, loŕez ebainduta kikildu enaiten.

Eztiñotzut gisa-uskeriak biotz-yoran osoaz bilatzen dauzan gauzetatik yagoteko; baña bai, nai leuken guztietan baŕu-azkatasunera saŕtu eztaiten zeure otseñaren gogo au, il beaŕ dogun guztio-

en zoritxaŕez, saminto aztundu ta atzeratzen daben ondikotatik (zoritxaŕetatik).

2. Neure Jaun eta Jaungoikoa, gozotasun esan-eziña, betikoakanako maitasunetik aldendu, ta oingoxe edozein atsegiñen itxaropenez okeŕ beraganatzen nauan aragi-atsegin dana gaŕaztu egidazu.

Ezpenagi azpiratu, ene Jaungoikoa, ezpenagi aragi ta odolak azpiratu, ezpeist gizakeriak (munduak) ta bere aintza labuŕak iruzuŕ-egin; ezpenagi txeŕenak eta bere maltzurkeriak oinperatu.

Emon egidazu yaŕkiteko indaŕa, yasateko eroapena ta irauteko gotoŕtasuna.

Ludiko atsegin guztien ordez zure samuŕaz igoŕtsi nagizu, ta aragi-maitakeriaren ordez, zure izenaganako maitasuna ixuri egidazu.

4. Janaria, edaria, yantzia ta gorputzari eusteko bear direan beste enparauak, gogo gaŕtsuari nekegaŕi yakoz.

Beaŕezkoak beaŕ dan bestean era-

biltea ta lera lařegiz ez naspiltzea, emon egidazu.

Ezta zuzen guztiak iztea, gorputza yanaritu beař da-ta; baña gañezkoak eta atsegingařienak bil̄atzea, lege deunak galazoten dau; osterantzean aragia gogoaren auřka asařtuko (lotsabakotuko) litzake-ta.

Onangoen artean zure eskuak, ařen, ařteztu ta irakatsi benagi, geyegikeririk egin eztaidan.

## XXVII ATZALBURUA

### Norbere-maitasunak onik-onenagandik geyen atzeratzen dauala

1. Josukistok.—Ene seme, danaren ordez, dana emon eta zeurerik ezertantxe be eztozu izan beař. Yakizu, zeure buruaganako maitakeriak luřeko beste edozein gauzak baño kalte geyago egiten dautzula.

Zeuk dautsezun maitasun eta lerearen neuřiz, edozer geyago ala gitxiago itsasten yatzu.

Zure maitasuna garbia, utsa ta zuze-

na balitz, etzindukez ezerk be lotuko.

Eukitea zilegi etxatzunik ez gura izan. Ez gura euki, eragotsi zeinkezan ta baŕuko azkatazuna kendu leizunik.

Aŕitzekoa da, nai ala euki zeinkezan guztiakaz zeure buru ori neuri biotz -baŕu-baŕutik ez egoztea.

2. ¿Zegaitik irotzen zara alpeŕiko muŕiñaz? ¿Zegaitik nekatzen zara gañezko ardurakaz?

Zagoz neure naira, ta eztozu kalterik izango.

Zeu erosoago ta gogarago egoteaŕen, onen edo aren bila bazabiz, ala emen edo an egotea gura ba-dozu, etzara bakean ta ardura barik iñoz be egongo; utsunen bat gauza guztietan dago ta auŕkarien bat edonon auŕkituko dozu-ta.

Eztau on egiten, bada, kanpotik yadetsi ta ugarituriko edozek; ezetsi ta biotzetik sustaŕ-sustaŕetik ataraten danak baño.

Ta ori, diru ta ogasunaz ezeze, aundi-miñaz ta txaloka tentel-leraz be uleŕtu beaŕ da, guztiak ludiagaz igaroten dira-ta.

Gogo-gařik izan ezik, tokiak gitxi zaintzen dau; ta kanpoan biľaturiko bakeak eztau luzaro iraungo, biotzaren benetako euskařirik ezpadauko, au da, neugan yařten ezpazara; ni barik aldatu zeintekez bai, ez baña obetu.

Bein garaya eldu ta ařtu ezkero, iges egin zeuntsana ta geyago aurkitudozu-ta.

*Biotz-garbikuntza ta zerutiko yakituria eskatzeko otoitza*

4. Gogo-zintzoak—Goteunaren (Espiritu Santua'ren) eskařaz, sendatu nagizu, Jauna.

Emon egidazu neure bařuz sendotzeko indařa, ta neure biotza alpeřiko ardura ta laří-aldietatik utsitutekoa, ta, nai ziztriña nai bikaña dala, edozeren zalekeri piľoak eraginda ez beraganatzekoa, bai ostera, gustiak ta neu be eurakaz igarokortzat begiratzekoa.

Dana uskeri ta gogo-atsekabea dan eguski azpian eztago gauza iraunkořik -eta.

Onan deritxona ¡axe bai bada zuřa!

5. Zerutiko yakituria emon egidazu, Jauna, gauza guztien ganetik, zu bil̄atu ta aurkitzen ta zu gozoen ta maiteen izaten, eta enparauak, zure yakituriaren arauz direan letxe ezautzen ikasi daidan.

Emon egidazu labanagandik alde -egiteko zuŕtasuna ta auŕkaria yasateko eroapena.

Edozein itz-aize-boladagaitik zirkiñik ez egitea, ta gaizto-labanari belaŕirik ez ezaŕtea, yakituri andia da-ta; olan aŕtuko bidetik, eskier yaŕaitzen dalako.

## XXVIII ATZALBURUA

### Min aŕze-yaleen auŕka

1. JESUKISTOK – Ene semea, ez asaŕatu norbaitzuk txaŕtzat bazaukez, ta entzun gurako etzeunkena badiñoe.

Zuk zeutzaz oindiño txaŕago eritxi beaŕ dozu, ta ez iñor zu baño makalagotzat euki.

Zeure baŕuan bazabiz, egaz doazan itzai eztotsezu yaramon andirik egingo.

Ezta zurtasun txikia, aro txaŕean

ixil̄ik egotea, nigana biotzez biuŕtzea ta giza-eritxiagaitik ez artegatzea.

2. Zure bakea ezpedi egon gizonen aoetan; nai ontzat nai txartzat emon, etzara oŕegaitik beste bat.

¿Non dago benetako bakea ta benetako aintza? ¿Ez-ete ba, neugan?

Ta gizasemeen begiko izan nai eztauana, ta euren iguin izateko bilduŕ eztana, bake yorian biziko da.

Maitasun, okeŕetik eta alpeŕeko bilduŕetik biotz-kezka ta sentzun zabaŕkeri gustiak saŕtzen dira.

## XXIX ATZALBURUA

### Loŕaldian Jaungoikoari zelan deitu ta onetsi beaŕ dan

1. Gogo-zintzoak—Beti-beti onetsia izan bedi, Jauna, zure izena: ziltzaldi ta loŕau neugana etoŕtea nai izan dozulako.

Ezin neyo iges egin; zugana, ostera, yo beaŕ dot, lagundu daistasun eta neure onerako biurtu dagizun.

Jauna, loŕpean nago orain eta nire

biotza lafi dago; estu-estu narabil min onek.

Ta orain, Aita laztana, zer esango dot? Kezkaz inguratuta nago. Estu-aldi onetatik atara nagizu. Ni oso apalduta gero, zeuk yareiten (libretan) nozunean, zeu goratua izan zaitezan, eldu naz ni estu-aldi onetara.

Atsegin egizu, Jauna, ni azkatzea; nik ba, gixaxo onek, zu barik zer egin nei ta nora yoango naz?

Oraintxe, Jauna, emoidazu eroapena. Lagundu egidazu, ene Jaungoikoa, ta lońez leŕ-egin beańean egonda be, enaz bilduŕtuko.

2. Ba orain onelakoen artean ¿zer esango dot? Jauna, *zure naya egin bedi*. Loŕ ta zoritxańok ondo irabazita daukadaz.

Ondiño ekatxa igaro ta baretu ańte yasan bear dot; eta eroapenaz yasango al dot!

Zure esku aloroduna, baña, ziltzaldi auxe be nigandik kentzeko ta bere indańa gitxiagotzeko, indartsua da, luńa yo eztaidan; orain arte be sańitan

egin daustazunez, neure Jaungoiko eŕukitsu oŕek.

Ta Goikoaren eskumatiko aldakuntzau, niri zal̄ago (gatxago) yatan bestean, eŕezago yatsu zuri.

## XXX ATZALBURUA

### Jaungoikozko laguntasuna eskatu ta eskaŕa baŕiro eukitea itxaron beaŕ dogu

1. Jesukistok—Ene semea, *neu naz loŕ-egunean sendatzen dauan Jauna.* Ondo ez yoatzunean erdu neugana.

Zerutiko atsegiña geyen eragozten dautzuna, otoitzera beranduegi yotea dozu.

Niri gogoz otoitz egin baño lenago, atsegin askoren bil̄a ibil̄i ta atetikoetan (kanpokoetan) poza artu oi dozu-ta.

Oŕegaitik zuri gustiak on gitxi egiten dautzue, nigan itxaroten dabenak zaintzen dodazana neu nazala, ta ni barik, ez gauzazko laguntasunik, ez onu onuratsurik, ez osakai iraunkoŕik eztagoala oaŕtu aŕtean.

Baña bein ekaitz ostean arnasea aŕ-

tu ezkero, sendotu zaite neure eŕuki-argitan, uŕian nago-ta (diño Jaunak) gauza gustiak osorik ezeze, euŕez ta gonburuz lengoratzeko.

2. *Niretzat zala (gatxa) danik ete-dago ba?* (1) ala esan eta egiten eztabenen antzekoa, ete naz-ba?

¿Non dago zure siñismena? Zagoz sendaro ta iraunkoŕ.

Gizon gibel aundiko ta sendoa izan zaite, ta atsegiña bere garayan elduko yatzu.

Itxaron egidazu, itxaron; etoŕiko naz eta osatuko zaitut.

Ziltzaldia da laŕitu zaituana: ta alpeŕik bilduŕ-izutzen zaituana.

Zertarako dozu baleitekezanen ardurea, iluntasunaren ganera iluntasuna eukiteko baño? *Zoritxaŕik naikoa dauko egun bakotxak.* (2)

Tentelkeri ta alpeŕikoa da, beaŕ bada iñoiz yazoko eztireanakaitik laŕitu ala poztutea.

3. Baña onango asmakeriekaz li-

---

(1) Nah. I. 7.
(2) Matth. VI. 34.

īuratzea, gizonari dagokiona; ta adore uŕiaren ezaugaŕia, arerioaren txutxumutxuak ain eŕaz eragitea.

Eztautso ardura ba berari egi ala guzuŕakaz norbait liīuratu ta txulut eginda izten dauan; ezta oraingoen maitasunaz ala gerokoen bilduŕaz luŕa yo eragingo dautsanik-be.

Ezpedi beraz laŕitu, ezta bilduŕtu-be zure biotza.

Siñestu nigan, ta nire eŕukitasunean ustea eukikezu.

Nigandik uŕin zagozalakoan saŕitan uŕago nozu.

Guztia iya galdutzat, daukozunean, orduantxe, saŕitan, ganean dozu irabaste aundiagorako erea.

Ezta dana galdu, zerbaitzuk zeure auŕka yazoten yatzuzanean.

Ez ezer ebatsi oraingo eritxiari yaŕaiturik; edonondik letoŕken loŕari be ez itsatsi ta eldu, bere aspitik urteteko uste osoa galdu bailitzan.

4. Apuŕ baterako loŕen bat bialdu ala gurako atsegiña kentzen badautzut-be, ez uste guztiz itxita zagozanik,

zeruko yaureŕira (eŕeñura) onantxe eltzen da-ta.

Ta benetan zuri ta nire otsein guztiai obeto yatzue naigabeakaz eragiñak izatea, guztiak zeuon gogara eukitea baño.

Oldozkun ostenduak nik badazaudaz, zeure osasunerako oso onuragaŕi yatzula noizik-bein atsekabetuta iztea; etzareana zarealakoan zeure burua edeŕtzat emon eztaizun.

Emon dodana kendu, ta, atsegin dodanean, ostera be emon neike.

5. Emoten dodanean neurea da, baŕiro artzen dodanean eztautzut zurerik kendu; emoniko on guztia ta emai bikain oro, neureak dira-ta.

Ez asaŕatu, ta ezpei zure biotzak luŕa yo, neke edo naigabeen bat bialtzen ba-dautzut.

Nik bereala eragi, ta edozein loŕ, pozera aldatu dagiket.

Baña onelan zugaz diardudanean, zuzena naz eta txalogaŕia.

6. Zuzen ebatsi ta egiaren arauz eristen badozu, eztozu bein be naiga-

beakaitik oŕenbesterano goibeldu beaŕ; bai, ostera, eskaŕ egin.

Ori ez eze, miñez astindurik, eŕuki barik yoten zaitudala, pozkaŕi bakaŕa izan beaŕ yatzu.

*Aitak maite izan nauan lez, neuk be zuok maite zaituet*, (1) esan neutsen neure ikasleai; eurok benetan buŕuka gogoŕetara bialdu nituan ta ez pozaldi aldikoŕetara, ez gorespenetara ezespenetara baño; ez alpeŕkerira, lanera baño, ez atsedenera, eroapenaz arnari (frutu) ugariak ekartera baño.

Gomutau, ene seme, itz oneitzaz.

## XXXI ATZALBURUA

### Izaki guztien ezespena, Irazalea (Egiĺea) auŕkitu al-izateko

1. Gogo zintsoak.—Oindiño ondo beaŕezkoa dot Jauna eskaŕ ugariagoa iñork ez ezerk ezin eragotsi nengiken bezin gora eldu beaŕ ba-dot. Ezerk lotuta naukan artean, zugana azke ezin egaz egin nengike-ta.

---

(1) Joan. XV, 9.

Azke egaz egin nai eban iñoanak: *Usoaren antzeko egoak, nok emongo al-dauztaz, egaz egin eta atseden naiten* (1) ¿Zer, begi xaloa baño nareagorik? ¿Eta zer lurean ezer gura eztauana baño yareyagorik (azkeagorik)?

Oŕegaitik izaki guztien ganera igon, ta norbera osoan itxi, ta gogoa gora eragita egon, ta zuk, guztien Egiĺe oŕek, izakiakaz antzik eztaukazula ikusi beaŕ da.

Ta izaki guztietatik biĺoiztu ezik, ezin lei iñok Jaungoikoarenetan yarei yardun.

¡Onegaitik ba, so-egiĺe gitxi auŕkitzen dira, gitxi direalako igeskoŕ eta izaki guztietatik oso alde egiten dakienak.

2. Gogoa yaso ta bere gañerаño eragiteko, eskaŕ aundia beaŕ da.

Ta gizasemea guztiz goratuta, ta izaki guztietatik azkatuta, ta Jaungoikoari oso batuta ezpadago, dakian baita daukan guztia be ezta gauza aunditzat eukitekoa.

---

(1) Ps. LIV, 7.

Neuŕi ta amaibako on bakaŕa izan ezik, ezer anditzat daukona, luzaro txikia izan ta luŕa yota egongo da.

Ta Jaungoikoa eztana ezebe ezta, ta ezereztzat euki beaŕ da.

Gizon goi-argitu ta Jaungoiko zalearen yakituriaren, ta eleiz-gizon ikastun zoliaren yakituri artean, alde aundia dago.

Ekiñaren-ekiñaz gizonak bere sen--indaŕaz loŕtzen dauan yakituria baño askozaz be bikañagoa da, Jaungoikoak eraginda, goitik dariona.

3. Sokun-zale asko aurkitzen dira, baña atarako beaŕ direanetan yarduteko eztauke yoranik.

Benetako ildurea bazterturik irudi ta agirikoetan gelditzea, eragozpen aundia da.

Eztakit zer ete dan, ez zein asmok garoazan, ez zer gura dogun gogokoyak ei-gareanok; gauza igeskoŕ ta zirtziĺak eskuratzeko ainbeste neke ta ardura geyago aŕtzen dogunok, eta geure baŕutikoetan, gugan oso bildurik, oso meatz auznaŕtzen dogunok.

4. ¡Au da samiña! apuŕtxo bat baŕu-

ratu ordukoxe, ber-bertatik urteten dogu kanpora, ta geure egitadeak ez-toguz zeatz arakatzen.

Eztogu begiratzen non ete-dagozan gure lerok, eta guztiok ain zikiñak direala-ta eztogu negaŕ egiten.

*Aragi osoak bere bidea usteldu eban* (1) eta oŕegaitik uriol aundia etoŕi zan.

Gure baŕuko lerea aŕas usteldula dagoan ezkero, baŕuko indaŕ-ezaren ezaugaŕia diran bertatik soŕtuko egiñenak be usteldnak izan beaŕ.

Biotz garbitik soŕtzen da bizitza on-uztea.

5. Ya zeinbat iñok egin dauan itan-duten da, baña zein besteko onoimen-ez egin dauan ezta ain arduraz begi-ratzen.

Indaŕtsua, aberatsa, idazle ona, abes-lari ona, langiḹe ona iñor ete dan az-tertzen da, baña zein gogo txiroa, zein eroapentsu ta otzana ta zein gogokoi ta baŕukoi dan, askok ixilik itxi daroe.

Gizakeriak gizonaren atetikoetara

---

(1) Gen. IX, 12.

begiratzen dau; eskaŕa, baŕiz, baŕutikoetara biurtzen da.

Ari saŕitan iruzuŕ egiten yako; onek Jaungoikoagan itxaroten dau, iruzur egin ez dakion.

## XXXII ATZALBURUA

### Norbera ta iŕits guztiak ukatu beaŕa

1. Josukistok.—Ene semea, zeure burua oso ukatu ezik, benetako azkatasuna ezin euki ziñei.

Lotuta dagoz yabe ta burukoyak, iŕitsuak, ibilkoyak, beti bigunkerien ta ez Yosukistoren bil̄a dabilzanak ta iraungo eztauana asmatzen ta eratzen saŕitan daragoyoenak.

Jaungoikoagandik eztatoŕen guztia, ondatuko da ba-ta.

Esakun labuŕ ta mamintsu-mamintsu oneri eutsi eyozu; itxi egizuz guztiak eta guztiak aurkituko dozuz; iŕitsa itxi egizu, ta atsedena idoroko dozu.

Auxe gogoan erabilzu ta, beteten dozunean, dana uleŕtuko dozu.

2. GOGO ZINTSOAK.—Jauna, ezta au egun baterako lana; ezta ume-olgetea be, oŕen esakun labuŕean lekaideen oŕnitasun osoa saŕtuta dago-ta.

JOSUKISTOK. — Ene semea, eztozu atzera egin beaŕ ezta kikildu be, deunen bidea zein dan entzunda; goragokoetarantza ekin baño, ala gitxienez, eurakanako gurariz bizi baño.

2. Zeurekoi ez izaterano eldu baziña, ta bakaŕik neure ta zeure naguzi ezaŕi dautzudan abaren naitara osoro bazengoz; orduan neure begikoa izango-zintzakez eta zure bizitza osoa poz eta atsegiñetan igaroko litzake.

Iztekorik asko daukozu oraindiño, ta, oŕek guztiok neuretzat oso-osorik itxi ezik, eskatzen dozuna eztozu yadetsiko.

Aberastu zaitezan, sutan garbituko uŕea niri erosi daiztazula aolkatzen zaitut: au da beko guztiok ostikopetzen dauzan yakituri zerutaŕa.

Luŕeko yakituria ta gizartearen ta norbere edeŕespen guztiak, atzeratu egizuz.

3. Gizonen artekoetan bikain eta

gurenen ordez, zeuretzako zatařenak erosi beař dozuzala esan dot.

Guztiz zirtzil eta txatxařa ta iye aztutakoa dala dirudi zerutiko benetako yakituriak; ařopuztuten ta ludiko andikeri bil̄a ibilten eztakiana; berau asko ta askok agoz irakasten dabe, baña bizikeraz uřin dagoz; bera ořaitio bitxi bikaña, askontzako ostendua da.

## XXXIII ATZALBURUA

### Biotzaren aldakořtasuna ta geure azken asmoa Jaungoikoagana zuzendu beař dala

1. Josukistok.—Ene semea, ez siñestu, ařen, oraingo zure lera oři, lasteř besteratuko yatzu-ta.

Bizi zarean artean, gura ezta-be, aldakořa izango zara; batzuetan pozik, beste batzuetan itun; batean artetsu, bestean artega; oin bero, gero epel; orain langil̄e, gero alpeř; oin aztun, gero arin auřkituko zara.

Baña yakituna ta gogokoetzaz ondo aitua, gora-bera onen goitik dago; bere bařuan zer nabaitzen ta aldakořtasun

-aizeak nondik putz egiten dauan begiratu barik, bere asmo osoa beaŕ ta gurako elbururantza zuzendu dedin ardurea daukala.

Onelan ba, bere asmo xaloa (bakuna) ainbeste yazoeren aŕtean nigana begira beti eukirik, beti bat eta zirkiñik egiteke iraungo dau.

2. Ta asmo-begia garbiago izan, gotoŕikago dirauke (iraun al izango dau) ekatx askoren artean.

Baña askotan asmo garbiaren begia lauzotzen da; datoŕen edozein pozkaŕira arin begiratzen dalako.

Norberekoitasunez kutsutu bakorik gitxitan baño ezta auŕkitzen-eta.

Onelan bein Judeotaŕak Betaniako Marte ta Miren'enera yoan zirean; ez Josusegaitik bakaŕik, bai ta Lazar ikusteaŕen be.

Asmo-begia, berez xaloa ta zuzena izan dedin, garbitu ta bitarteko guztiak itxirik, nigana zuzendu beaŕ da.

# XXXIV ATZALBURUA

## Maitatzaleari guztietan Jaungoikoa yako gozagarriena

1. GOGO ZINTSOAK.—Ona emen neure Jaungoikoa ta gauza guztiak. ¿Zer geyago gura dot, eta zer zoriontasun andiagorik gura al-nengike?

¡Auxe dan iz eztitsu ta samuřa! baña Jauna maite dauanentzat, eta ez ludi ta ludikoak maite dituenentzat.

Neure Jaungoikoa ta gauza guztiak! Ulertzen dauanari, naikoa esan yako, ta saritan esatea gozo yako maitatzaleari.

Zu berton egon ezkero, guztiak atsegingaři; zu uřin egon ezkero bařiz, guztiak gogait-gařiak dira-ta.

Zuk biotz baretsua (artetsua), bake andia ta poz bizia sořtzen dozuz.

Zuk guztiak ontzat euki ta guztietan zeu gorestea egiten dozu, ta ezin leiteke ezer zu barik luzaro atsegingaři izan: ostera, zerbait atsegingaři ta gozogaři izateko, zure eskařa bertan egon

beař da, ta zure yakituri-gozagařiak eztitu beař dau.

2. Zu gozagaři zaituanak, gezarik ¿zer izango dau? Ta zu geza zayakozanari ¿zer izan leikeo gozo?

Baña munduko yakitunak eta aragi zaleak zure yakituria zer dan eztakie; aetan ařopuzkeri aundia, ta oneitan eriotzea auřkitzen da-ta.

Baña luřekoen ezespenez eta aragiaren ilđuraz zuri yařaitzen dautzuenak, ořeik benetako yakitunak direala agiri da, uskeritik egiara ta aragitik gogora igaroten direalako.

Onangoak Jaungoikoa gozo dabe, ta izakietan dagoan on guztia, euren Egiļearen goreskunderako ařtzen dabe.

Bestelangoa, ta oso bestelangoa da ořaitio Irazaleagandiko (Egiļeagandiko) ta izakiagandiko, betikotasunetiko ta alditiko, argiberatiko ta argi-argitutiko gozotasuna.

3. ¡Irazango (egingo) argi oro gaļentzen dozuzan argi ori! yaurti goitik nire biotz bařueneraño sařtuko dan tximista-dizdiratzaļea.

Garbitu, poztu, argitu ta biztu nire gogoa, bere almenakaz, pozaren-pozezko geyegikeriekaz itsatsi nakizun.

¡Ene! ordu zoriontsu ta guragaŕi au ¿noz etoŕiko ete da, zeure arpegiz asetu nagikezun eta guztietan guztia izan zakidazan?

Au emon aŕte, poz osorik be ezta izango.

Baña ¡au da samiña! gizon zaŕa nigan ondiño bizirik dago; eztago ondiño guztiz gurutzean yosita, ezta osoro ilda be.

Ondiño gogoaren aurka gogor yagiten da; baŕuko gudak biztuten ditu, ta gogoaren agintzeari eztautso bakean izten.

4. Baña zu, *itxasoaren indaŕa ezi-ten eta bere uin-asaŕea ibitzen dozun ori,* (1) yagi zaite ta lagundu egidazu. *Eŕi guda-zaleak ondatu egizuz,* (2) eta biŕindu zeure indaŕaz.

Erakutsi, aŕen, zure alatzak (mirariak) ta aintzatua izan bedi zure esku-

---

(1) Ps. LXXXVIII, 10,
(2) Ps. LXVII, 31.

mea; zugan, neure Jaun eta Jaungoiko oŕegan, izan ezik, ez itxaropenik ez eztalperik niretzat eztago-ta.

## XXXV ATZALBURUA

### Bizitza onetan eztagoala ziltzaekazko eskieŕtasunik

1. Josukistok.—Ene seme, bizitza onetan etzagoz bein-be eskier (seguru), eta bizi zarean artean, beti dozuz beaŕekoak gogo-iskiļuak.

Arerioen artean zabiz, eta eskumatik eta eskeŕetik ekiten dautzue.

Beraz, eroapena babeskintzat (eskudotzat) alde guztietan ezpa-darabilzu, etzara luzaroan zauri barik egongo.

Onetzaz gañera, guztiak neure edeŕagaitik egiazko asmoagaz yasateko (sufriduteko) zeure biotza neugan sendoro ezaŕten ezpadozu, buŕuka gogoŕ oŕi ezin eutsi al izango dautsazu; ezta zorionekoen sarirano eldu-be.

Edozer beraz, gizon-antzera, yasan beaŕ dozu, ta yaŕki leiketzuzenen auŕka beso gogoŕa erabiļi.

Garaitzaļeari mana emoten yakola-

ko; ta alpeŕentzat zoritxaŕ andia gelditzen dalako.

2. Bizitza onetan atseden bil̄a bazabiz, zelan gero betiko atsedenera elduko al-zara?

Asko yasateko, ta ez asko atsedeteko, erabagia aŕtuizu.

Benetako bakea zeruan bil̄atu egizu ta ez luŕean; Jaungoikoagan bakaŕik, ta ez gizonetan, ez beste izakietan.

Jaungoikoaren maitasunaŕen guztiak, au da; nekeak eta miñak, ziltzaldiak, loŕaldiak, laŕialdiak, beaŕak, gaxotasunak, iraiñak, esamesak, agirakak, apal aldiak, lotsaldiak, zigoŕ eta ezespenak, pozik yasan beaŕ dozuz. Oneik gauzok onoimenerako laguntzen dabe, oneik Kistoren ikaslea egiztauten dabe, oneik zeruko burestuna (koroia) eyoten dabe.

Nik, neke labuŕen ordez betiko saria, ta lotsa igeskoŕen ordez, amaibako aintza emongo dot.

3. Gogozko atsegiñak beti zeure naitara eukiko dozuzala, uste dozu?

Neure deunak ez eben beti olakorik

euki, neke aztunak, askotariko ziltzaldiak eta atsekabe gořiak baño.

Baña eroapenez yasan ebezan guztiak, eta norberagan baño Jaungoikoagan uste andiagoa eben; *aldi onetako nekeak geroko aintza irabazteko lain eztíreala* (1) yakiñik.

Askok negařen-negařez eta nekearen-nekez oztaz yadetsi ebena, zuk ¿oeingoan euki gura ete dozu?

Jaungoikoagan itxaron egizu, gizon antzera ekin eta sendatu zaite; ez ustea galdu, ez iges egin; Jaungoikoaren aintzarako, aspertu barik, gorputza ta gogoa eskiñi baño.

Nik oso oparo ordainduko dautzut; ni lořaldi guztietan zeugaz egongo naz.

## XXXVI ATZALBURUA

### Gizonen zustař bako eritxien auřka

1. JOSUKISTOK. — Ene seme, zeure biotza Jaunagan sendo ezaři egizu, ta zeure bařuak on ta eřubakoa ebazten

(1) Rom. VIII, 18.

zaitunanean, gizonen eritxiari bildurik ezeyozu izan.

Oŕelan yasatea on eta zorionekoa da, ta etxako gogoŕ biotz apalari ta norberagan baño geyago Jaungoikoagan ustea daukonari.

Askok laŕegi itz egin oi dabe, ta oŕegaitik gitxi siñestu beaŕ yakie.

Baña guztien gogokoa izatea be ezin izan leiteke.

Jaungoikoagan guztiai atsegin izaten ekin-aŕen eta guztientzat guztia egin aŕen, Paul deunak, gizonak epaitu izatea oŕaitio, ezereztzat etsi eban.

2. Beragan egoana ta al-eban guztia egin eban, besteen onbiderako ta osasunerako; baña alan be, ezin itzuri izan ebazan besteen nozean-beingo eritxi ta ezespenak.

Oŕegaitik dana ezagutzen dauan Jaungoikoaren eskuetan itxi eban dana, ta miñ-zitalen auŕka, baita uskeri ta guzuŕak asmatzen ta gura-aña baŕiketan ziarduenen auŕka-be, apaltasunaz eta eroapenaz bere burua zaindu eban.

Baita batzuetan erantzun-be egin

eban, bere ixiltasunetik makalai ez ekioen yauspiderik sortu.

3. ¿Nor zara zu gizon ilkoraren bildur izateko? Gaur bada, baña biar ezta agiri.

Jaungoikoaren bildur izan zaite ta gizonen bilduraz etzara ikaratuko.

Itzez nai irañez gizonak ¿zer egin leizu? Zuri baño bere buruari kalte geyago egingo dautso; ta edozein dala, Jaungoikoaren epaitik ezingo dau igesik egin.

Jaungoikoa gogoan erabilzu, ta itz minberakaz eztabaidaka ez ibili.

Ta oin azpian yausten bazara ta irabazi eztozun lotsea yasaten ba-dozu, ez oregaitik asaratu, ezta, eroapen-ezagaitik, zeruko zure saria gitxiagotu-be.

Nigana zerurantz, ostera, begitu egizu, lotsa ta irain artetik atara ta bakotxari bere egiteen neuriz zor yakona emoteko, altsua naz-ta.

---

# XXXVII ATZALBURUA

## Biotz azkatasuna yadesteko norbere uko utsa ta osoa

1. JOSUKISTOK. — Ene seme, zeure burua itxi egizu, ta aurkituko nozu.

Zagoz ezer autu ta zeuretu barik zai, ta beti irabaziko dozu.

Bein zeure burua itxi ta bariro iñoiz artu ezik, ber-bertatik eskar yoriagoa emongo yatzu-ta.

2. GOGO ZINTSOAK.—Jauna; ¿zenbat bidar burua ukatu ta zeintzuetan itxi bear dot?

3. JOSUKISTOK.—Beti ta edozein ordutan; txikian lez aundian-be.

Ezer-be eztot berezten; ostera, gustietatik biloizik aurkitu nai zaitut.

Bestelan zu nirea ta ni zurea zelan izan gintekez, zeure gure osoa barutik eta azaletik erantsiten ezpadozu?

Erantsite ori ariñago egiten dozun aña, obeto izango yatsu; ta osoago ta biotzetikago egiten dozun aña, atsegingariago izango zakidaz eta geyago irabaziko dozu.

4. Batsuk euren burua ukatu oi dabe; baña zerbait bereziaz: Jaungoikoagan eztabe uste beteaz itxaroten, eta agaitik eurentzako arduraz diardue.

Beste batzuk, bar̃iz, lenengoan dana eskinten dabe, baña gero, ziltzaldiak eraginda, eurenetara itzuliten dira, ta agaitik on-bidean ezebe eztabe aur̃eratzen.

Oneik biotz garbiaren benetako azkatasunera ta neure adizkidetasun eztitsuaren eskar̃erano eztira elduko, uko osoa ta norbere egunoroko eskeintzea lenago egin ezik; ori barik batze pozkor̃ik eztago, ta ezta egongo-be.

5. Sar̃i-sar̃itan esan dautzut eta oin be bar̃iro diñotzut: Burua itxi, burua ukatu egizu ta bar̃uko bake ugaria gozar̃tuko dozu.

Danaren ordez dana emoizu; ez ezer bil̃atu; ez ezer eskatu; zagoz neugan zintso ta ezpai barik, ta eukiko nozu.

Biotza yarei (azke) izango dozu, ta il̃untasunak etzaitu ostikopetuko.

Onetara yo beye zure ekiñak, onetara zure otoitzak, onetara zure gurariak, yabetasun guztia erantzi al-izatera,

ta Josu bil̄oizari bil̄oizik yaŕaitzera; zeuretzako il, ta neuretzako betiko bizitera.

Orduan zuzituko dira irudipen tentel, kezka gaizto, ta alpeŕiko ardurak. Baita orduan bildur laŕegiak-be alde egingo dau, ta maitasun okeŕa ilgo da.

## XXXVIII ATZALBURUA

### Atetikoetan (kanpokoetan) norbera ondo zaindu ta aŕiskuetan Jaungoikuagana yo bear dala

1. JOSUKISTOK—Ene seme, edozein leku ta egitadean, ala edozein atetiko zer egiñean, zeure baŕuz azke ta zeure buruaren yaube izan zaitezan ekin bear dozu beti ta zoli, ta ganera, guztiak zeure azpian euki daizuzan ta ez eurak zeu euren azpian.

Zeure egitadeen yaube ta zuzentzal̄ea izan zaitezan, eta ez otseña ta alogerekoa.

Bai ostera, Jaungoikoaren semeen yarauntsi ta azkatasunera igaroten dan Isŕaeldaŕ benetako te azkatua.

Oŕeik, oraingoen ganean yaŕiṭa, betikoai begira dagoz.

Oŕeik igeskoŕak eskeŕeko begiaz, eta zerutikoak eskumakoaz begiratzen ditue.

Oŕeik estaroez aldikoak eurakana, eurai itsasteko; eurak, ostera, eurakantzen dabez, beaŕ dan lez erabilteko; atarakoxe Jaungoikoak atondu ta bere irazakian okeŕik itxi ezeban egiḻe gurenak yaŕi ebazan-eta.

2. Edozein yazoeran be azalean gelditzen ezpazara, ala ikusi nai entzungoan aragi-begiz arakatzen ezpa-dozuz; bai ostera, edozetan Moise le Jauretxetxora bazoaz, Jaunaren onu-eske, nozbait Jaungoikoaren erantzuna entzungo dozu, ta oraingo ta geroko gauza askotzaz yakitun eginda urtengo dozu.

Moisesek ba, beti yauretxetxora yoten eban ezpai ta auzi guztiak ebazteko: ta aŕisku ta gizonen bidebakokeriak uŕintzeko, otoitz-laguntzaren biḻa yoaten zan.

Onelan zeuk be, zeure biotz baŕura

iges egin beaŕ dozu, Jaungoikoaren laguntża, yoranez, eskatuaz.

Arexegaitik Josue ta Isŕaeldaŕai Gabaondaŕak ziria sartu eutsela irakurten da: lenengo Jaungoikoaren ituna itandu barik, ostera, itz labanai ariñegi siñestu eutselako, eŕuki kirtenak iruzuŕ egin eutsen.

## XXXIX ATZALBURUA

### Gizasemea arazoetan ardurafsuegia eztaitela izan

1. Josukistok—Ene seme, leporatu beti neuri zeure auzia, bere garayan neuk atonduko dautzut-eta.

Zagoz neure erabagiaren zain, ta onurea nabaituko dozu.

2. Gogo zintzoak — Jauna, gauza guztiak ondo pozik leporatzen dautzudaz, nire asmaketak gitxitarako dira -ta.

¡Etoŕteko direan yasoerai asko itsatsiko ezpanintzakioe, ostera neure burua zeure naitara bertatik eskiniko baneu!

3. Jesukistok—Ene seme, gizaseme-

ak iñork gura dauan zerbaitera eltzeaŕen, leŕenak egin daroaz; baña bein beraganatu ezkero, beste erabatera eristen asten da; zerbaitganako gure lerak iraunkoaŕak eztirealako, batetik bestera bultzatzen gaituenak baño.

Ezta ba gauza txikia, zirtzilkerietan izan da be, norbere burua ukatzea.

4. Gizonaren egiazko auŕerakuntzea bere burua ukatzea da, ta burua ukatu dauan gizona oso yarei ta eskieŕ (azke ta seguru) dago.

Baña antxiñako etsayak, on guztien arerioak, zirikatzeari eztautso izten; ostera, egunez ta gabaz maltzuŕkeri aundiak asmatzen diaŕdu, naŕazen bateri iruzur-xedeŕan yausi-erazoteko.

*Ziltzaldian yausi etzaitezen zagoze itxaŕik ta otoitz-egizue*, diño Jaunak (1)

## XL ATZALBURUA

### Gizonak berez ezebe eztaukola, ta zegaitik aŕotu bez

1. Gogo zintzoak—Jauna *zer ete-da gizona, zu beraz gomutatzeko: edo zer*

---

(1) Math. XXVI, 41

*ete-da gizasemea, zuk ikeŕtzeko?* (1)

¿Zer irabazi dau gizonak, zuk berari zeure eskaŕa emoteko?

Jauna, izten banozu be, zer dauket zergaitik eŕemuska ibiĪi? ta eskatzen dautzudana egiten ezpadozu be ¿zelan bidezko ingezarik egin neizu?

Benetan egiz auxe oldoztu ta esan daiket: Jauna, enaz ezer, ezin dot ezer, neurez eztaukot ezer onik; gauza guztietan txulut egiten dot ostera, ta beti ezerezera egiten dot.

Ta zeuk lagundu ta baŕuz irakatsi ezik, oso epel ta zabaŕa egiten naz.

2. Zu, baŕiz, Jauna, beti bat zara ta beti irauten dozu, beti ona, zuzena ta gurena; gauza guztiak ondo, zuzen eta guren egin, ta yakituriaz atontzen dozuzana.

Baña nik, auŕeratzera baño atzeratzera makuŕtuago nagoan onek, eztot beti egoera batean irauten, egunero sazpi gogaldi izaten dodaz-ta.

Oŕaitio, zuk nai dozunean ta zeure esku laguntzaĪea luzatzen daustazune-

---

(1) Ps. VIII, 5.

an, beingoan egiten dot obera; zuk bakaŕik, gizonagandiko laguntasun barik lagundu ta sendatu nengikezulako, neure arpegia geyago askotara ez aldatzeko, ta neure biotza zugana bakaŕik biuŕtu ta zugan atsedeteko giñoan.

3. Onegaitik, nai eraspena yadesteko, nai gizonen aŕtean nok poztu eztaukadalako, zugana yoateko daukadan beaŕez, giza-atsegin guztiak alboratzen ondo banenki: orduan zure eskaŕean bidez itxaron nengike, ta atsegin baŕi emaiagaz poztu.

4. Eskaŕak zuri, Jauna, zugandik datorkidalako yazoten yatan guztia.

Ni, baŕiz, zure auŕean uskeria ta ezereza, gizon aldakoŕ ta makala naz.

Beraz ¿zer dala ta aŕotu nindeke? ala ¿zer dala-ta ospetsua izan nai dot? ¿Ezerezagaitik ala? Tentelkeri itzela litzake orixe.

Benetan aŕopuzkeria izuŕi (peste) txaŕa ta uskeri aundi-aundia da: benetako aintzatik uŕintzen gaitualako ta zeruko eskaŕa kentzen daualako.

Gizonak bere burua atsegin dauanean, zuri iguingaŕi yatzu ta gizonen txa-

lo-gose-gose dan bitartean, benetako onoimenak kenduegiten yakoz.

5. Benetako aintza ta poz deuna zugan kukatzean (gorestean) datza ta ez norberagan; zure izenagaitik poztutean ta ez norbere onoimenakaitik, ta zugaitik izan ezik, izaki batxo be atsegin ez izatean.

Goretsi bedi zure izena ta ez nirea; aundietsi bediz zure egintzak, ez nireak; onetsi bedi zure izena ta ez bekit gorespen izpirik ezaŕi.

Zu nire aintza-bidea, zu nire biotzaren pozkiña, zugan egun osoan kukatu ta poztuko naz; neutzaz, baŕiz, ezetan bez, neure makaltasunetan izan ezik.

6. Bil̄atu beye Judeotaŕak alkaŕegandiko aintza; nik, Jaungoikoagandikoa bakaŕik bil̄atuko dot.

Gizonengandiko edozein aintza, edozein aldiko gorespen, munduko edozein andikeri, zure betiko aintzaren ondoan, uskeri ta tentelkeria dalako.

¡Ene egi, ene eŕuki, ene Jaungoiko ori, Irutasun zoriontsu ori, zuri bakaŕik gorespena, dedua (onŕea), onoimena ta aintza amaibako egunetan.

# XLI ATZALBURUA

## Aldiko dedu guztien ezespena

1. JOSUKISTOK.—Ene seme, etzaite garbai izan besteak txalo ta gorespen artean, zeu, bafiz, ezespen eta apalespen azpian ikusiaren.

Zeure biotza zerurantza yaso egikezu, ta etzaitue lurean gizonen ezespenak ilunduko.

2. GOGO ZINTSOAK.—Jauna, itsukerian gagoz eta uskeriak laster koipetzen gaitu.

Zuzen begiratzen banaz, izaki batek be eztaust iñoz iraňik egin; eta oregaitik eztaukot zegaitik zure aurka eremuskadaka ibili.

Baña, saritan eta aztun iraindu zaitudalako, izaki guztiak nire aurka bidez yagiten dira.

Zuzen ba, lotsa ta ezespena zor yataz; zuri bariz, gorespena, dedua ta aintza.

Edozein izakik ezetsi ta basteŕtu ta ezereztzat eukitea pozik gura izaterano gertuten ezpanaz, ezin neinteke bar-

uz baketu ta sendatu, ez gogoz argitu, ezta zugaz guztiz batu-be.

## XLII ATZALBURUA

### Bakea eztala gizonakan ipiñi beaŕ

1. Josukistok.—Ene seme, zeure gogaide ta seta bateko dozulako, norbaitegan zeure bakea ezarten badozu, urduri ta naspilduta auŕkituko zara. Baña, beti bizi ta dirauan egiagana itzuliten ba-zara, yoan ala ilten dan adizkideagaitik etzara itunduko.

Adizkideaganako maitasuna neugan ezaŕi beaŕ da, ta bizitza onetan on eta laztan-laztan diruditzun edozein, neugaitik maitetu beaŕ da.

Ni barik ezta ezetarako ta eztau iraungo adizkidetasunak, ta nik alkartzen eztodan maitasuna, ezta maitasun benetako ta garbia.

Zure eskuan danez, iñoren ezaupide barik bizitea gura izaterano ilda egon beaŕ dozu, oŕetaiko adizkideekanako lerarentzat.

Gizona luŕeko pozaldietatik uŕintzeñ

dan bestean, Jaungoikoari uŕeratzen yako.

Ta baita, beragan, geyago yatsi ta ezereztu be, Jaungoikoagana gorago igoten dan bestean.

2. Norberari, bańiz, ezer onik ezarten dautsanak, Jaungoikoaren eskaŕari beragana etortea eragozten dautso; Goteunaren eskaŕa beti biotz apalaren biĺa dabil-ta.

Burua osorik ezereztu ta egindako maitakeritik aldentzen ba'zenki, orduan eskaŕ ugaria zuregana isuri beaŕko neuskizu.

Zu izakiai begira yartzen zareanean, egiĺea ikustea kentzen yatzu.

Egiĺeagaitik zeure burua zer guztietan aspiratu egikezu; ta orduan Jaungoikoaren ezaupidera eldu al-izango zara.

Edozek, txatxaŕ-txatxaŕa izanda-be, okeŕ maite ta begiratzen bada, on uts-utsetik uŕindu ta kalte egin daroa.

# XLIII ATZALBURUA

## Gizonen arteko yakituri utsalaren aurka

1. Josukistok.—Ene seme, ezpegiketzue gizonen esate eder eta zorotzak zirkiñik eragin *Jaungoikaaren yaurería (ereiñua) itzetan eztagoalako, onoimenean baño.* (1)

Biotz'ak ixiotu; gogoak argitu, damua biztu ta atsegin asko dakazan neure itzari zagoz adi. Ez bein be itzik irakuri ikastun ta yakitunagotzat agertzearen.

Ekandu txarak ilduratzen ikasi egizu; onek, gai zail asko yakiteak baño on geyago egingo dautzu-ta.

2. Gauza asko irakuri ta ezagutzen dozuzanean, beti sorburu bakarera yo bear dozu.

Neu naz gizonari yakituria irakasten dautsana, ta gizonen batek erakutsi leikean baño umeai adimen argiagoa emoten dautsiena.

---

(1) 1. Cor. IV, 20.

Nik dirautsadana laster̃ yakituna egingo da, ta gogozkoetan asko aur̃eratuko dau.

Nire otsein-bidearen ardura gitxi daukiela, gizonen bar̃ikeriak yakin gura dituenak ¡or̃ek bai ba-direala er̃ukar̃iak!

Garaya etor̃iko da irakasleen Irakasle ta aingeruen Jauna dan Kisto agertzeko, guztioen irakazkizunak entzutera: au da, bakotxaren bar̃ua azter̃tzera.

Orduan Yerusalen zuziakaz azter̃katuko dau, ta il̃unpekoak agirian ipiñiko dira, ta miñ-zurikeriak ixilduko dira.

3. Neu naz adimen apala bat-batean eragiten dodana, betiko egiaren irizpide geyago ulertu dagizan, ikastolan amar urtean ikasten ekinda baño.

Nik itz-zarata barik, eritxi-naste barik, araudi barik, ta erizpide-bur̃uka barik irakasten dot.

Neu naz lur̃ekoak ezesten, oraingoen iguin izaten, betikoak bil̃atu, betikoak muxtatu, dedutik iges egiten, eragozpideak yasaten, uste osoa nigan ezar̃ten, ta neu eztanik ez gura izaten,

eta gauza guztien ganetik, neu, gartsu maitatzen irakasten dodana.

4. Norbaitek ni biotz-biotzez maite ninduala, yaungoikozkoak ikasi ta irakatsi zituan-eta.

Zoŕoskeriak ikasten baño geyago auŕeratzen eban guztiak itxiaz.

Batzuei guztietaikoak irakasten dautsedaz, beste batzuei berebizikoak; batzuei ezaugaŕi ta irudipen aŕtean xamuŕ agertzen nayake, beste batzuei argi-argitan agertzen dautsedaz eskutukiak.

Idaztiak ots-bera dagie; baña ots oŕek eztautse guztiai bardin irakasten, bakotxari, zuzen deristanez, berea emonaz; egiaren baŕuko irakasle, biotz-arakatzal̄e, oldozkun ezaule, egintzarien eragil̄ea neu naz-ta.

## XLIV ATZALBURUA

### Aŕetikoak eztira norberagandu beaŕ

1. JOSUKISTOK.—Ene seme, gauza asko ez yakitea ta zeu luŕ ganean ildakotzat ta ludi osoa zuretzat gurutza aŕiabaŕtzat eriztea beaŕekoa dozu.

Bai ta gauza askorentzat belaŕi-goŕa egin, ta zeure bakerako direanak geyago gogoratu-be, beaŕ dozuz.

Onuragaŕiago da, iguingoŕietatik begiak aldentzea ta bakotxa bere eritxian iztea, eztabaidaka ekitea baño.

Jaungoikoagaz ondo ba-zagoz eta bere eretxiari begiratzen ba-dautzazu, garaitua izatea eŕazago eroango dozu.

2. GOGO ZINTSOAK.—Jauna ¿norano eldu gara? Luŕeko kalteagaitik negaŕ egiten da; irabazte apuŕagaitik lan egin ta ariñ-ariñka ibiĺi oi da; ta gogo-kaltea, baŕiz, aztuta itxi oi da; ta nekez ta berandu datoŕ gogora.

Gitxi edo ezertarako eztanagaitik asko arduratu; ta beaŕik-beaŕena yaramon barik izten da; gizon osoa atetikoetara labantzen dalako ta lasteŕ damutu ezik, atetikoetan pozik datzalako.

# XLV ATZALBURUA

## Guztiai etxakela siñestu beaŕ, ta itzetan arin labantzen dala

1. Gogo zintsoak.—*Jauna, naigabe-aldian lagundu egidazu, gizonakandiko laguntzea alpeŕa da-ta.* (1)

¿Zeinbat bidaŕ zintzotasuna aurkituko nebalakoan, eztot aurkitu?

Baita ¿zeinbat bidaŕ gitxien uste neban lekuan bertan aurkitu dot?

Utsa, beraz, gizonakandiko ustea; zugan, ostera, Jauna, dago zindoen osasuna.

Onetsia izan bezaitez, neure Jaun eta Jaungoiko ori, yazoten yakuzan zer gustietan.

Makalak eta aldakoŕak gara; beingoan ziria sartzen dauskue ta aldatzen gara.

2. ¿Nor ete-da alangoen baten iruzuŕ ala zalantzen baten ez yausteko giñoan arduraz eta maratz bere burua zaintzen dauan gizakumea?

---

(1) Ps. LIX, 13.

Baña zugan, Jauna, itxaroten dauanak eta zure bil̄a biotz-lauz dabil̄anak, eztau ain eŕaz laprast egiten.

Ta loŕen batera yausi ezkero, edozelan naskilduta ba-dago-be, zuk lasteŕ atara edo poztuko dozu, zugan itxaroten dauana betirako eztozu izten -eta.

Banaka banakakoa da, adizkidearen eztu-aldi guztietan, adizkide zintzo irauten dauana.

Zeu, Jauna, zeu bakaŕik guztietan zintso-zintsoa, ta zeu izan ezik eztago olangorik.

3. *Nire gogo au Kistogan sendatuta sustrayak saŕtuta dago* (1) esan eban arako gogo-deunak, bai uleŕtu eban au ondo!

Ni be onan banengo, eninduke gizonen bilduŕak onen eŕaz ikaratuko, ezta itz iraintsuak be eleuskide zirkiñik eragingo.

Nok ikusi leike dana auŕez, ta etoŕteko gaitz gustiai lendanez bidea nok eragotzi ete-leyoe? Auŕez ikusikoak

(1) Agate Deunaren bitzean.

sari askotan kalte egiten ba-dabe, aur-ez ikusi-ezak ¿zer egingo dabe, zauri aundiak baño?

Baña ni, erukari au ¿zegaitik aurez obeto ez ete-nintzan gertatu? Ta zegaitik ain eraz besteai ziñestu ete-neutsen.

Baña gizonak eta gizon auskorak baño ezkara, askoren eritxiz eta esan-ez aingeruak izan aren.

¿Nori siñestuko dautsat Jauna? nori, zuri izan ezik? Zu atzipetzen (engañetan) eztozun eta atzipetu ezin zaitekezan egia zara.

*Gizaki dana, bariz, guzurtia* (1) makala, aldakora, labana, batez bere itzetan; ta alan gitxitan siñistu leiteke azalean zuzena dirudiana.

4. Benetan ederto oartu euskuzun gizonagandik zaintzeko ta *gizonaren arerioak bere etxekoak direalako*, (2) ez siñezteko baten batek *ona emen*, *ara an*, dirauskunean.

Neure lepotik ikasi dot; ta zurago, ez tentelago, yarduteko izango al yat.

---

(1) Ps. CXV, 2.
(2) Matth. X. 36.

Zuŕa izan zaite, diraust uŕliak, zuŕa izan zaite, ta yagon zure baŕuan, dirautzudana. Ta nik ixiḻik daukadala, ta estalita dagoalakoan, berak niri ixiḻik eukiteko eskatu eustana, ixilpean euki eziñik; bai ni, bai bere burua salduta yoan zan.

Olango baŕikeri ta gizon min luzeetatik zaindu nagizu, Jauna; oŕein eskuetan yausi enadin eta olangorik egin eztaidan.

Yasan nai eztodana, ezetara-be eztot egin beaŕ.

5. ¡On eta maitagaŕia bai-dala beste iñorentzaz ixiḻik egotea, itxumustuan edozer ez siñestea, ta buru ariñez itz ez egitea! ¡Gitxiri baŕua zabaltzea, ta zu, biotza ikusten dozun ori, biḻatzea!

Ta edozein itz-axez batera ta bestera ibiltzeka, baŕu ta atetiko guztiak, zeure gurea dan lez, egin daitezala gura izatea.

Gauza eskieŕena baidala zeruko eskaŕari iraun-eragiteko gizonen azalkeritik iges egitea, ta azalez aŕigaŕiak dirudienak gura barik, baŕu beroa

emon ta bizikerea ontzeko direanetan ardura guztiaz ekitea, bai bada gauza eskieŕa.

¡Amaikatxori kalte egin dautso onoimen ezautu ta ariñegi txalokatuak!

Ta ziltza ŕa gudaldia baño eztan bizitza auskoŕ onetan onuratsua bai dala izan, ixilpean zainduko eskaŕa!

## XLVI ATZALBURUA

### Itz mingaŕiak zauritzen gaituenean, Jaungoikoagan itxaron beaŕ da.

1. JESUKISTOK—Ene seme, zagoz sendo ta neugan itxaron egizu.

Itzak zer dira-ba, itzak baño? axea-zear egaska doaz, baña aŕiari eztautse akatzik egiten.

Eŕudun ba-zara, gogoz obetzeko asmoa dozula bururatu egikezu.

Baña zeugan eŕurik oartzen ezpadozu, ori Yaungoikoaŕen gogoz yasan gura dozula, gogoratu egikezu.

Zigorkada gogoŕak aŕtu ezin dozuzan ezkero, naiko gitxi egiten dozu itz mingaŕiak noizpait yasanaz.

Ta zegaitik kimiskeriok biotzeraño

sartzen yatzuz, ondiño aragikoia zarealako ta gizonai yaramon lařegi egiten dautsezulako baño?

Ezespen-bilduř zarealako, zeure okeřeriakaitik agirakarik eztozu nai; ta apuko-legor biLa zoaz.

2. Baña zeure bařua obeto azteřkatu egizu, ta oindiño-be mundua ta gixonai begiko izateko lera alpeřa zugan bizi dala, igeřiko dozu.

Zure okeřakaitik apaldu ta lotsatzetik iges egiten dozunean, argiro ikusten da benetan, etzareala apala, ta munduarentzat etzagozala ilda, ezta gizakeria (mundua) zuretzat gurutzatuta-be.

Baña neure itza entzun egizu, ta gizasemeen itz-urioleari yaramonik eztautsezu egingo.

Ara, asmo okeř-okeřez asmau leitekezan guztiak zure auřka esango balira -be, ¿zer kalte egingo leuskizue, osoan igaroten itxiko ba-zeuskioe, ta galtzu bat baño geyagotzat eukiko ezpa zenduz? Ule bat bakařik atara ete-leizue ba?

3. Baña bere bařuan biotza ta begi-

en auŕean Jaungoikoa eztaukana, irain-itzagaz laster minberatzen da.

Nigan, baŕiz, ustea daukana ta bere eritxian yesaŕi gura eztauana, gizonen bilduŕ-ikara barik egongo da.

3. Ni naz, ba, baŕu-baŕukoen epaikari ta ezagutzal̄ea; nik badakit zer zelan yazo dan; nik iraintzal̄ea ta iraiñ-yasalea ezagutzen dodaz.

Itz onek neugandik urten dau; neuk itxita yazo da au; biotz askoren asmoak agertu daitezan.

Eŕuduna ta eŕubakoa neuk epaituko dodaz; baña epai-ixil̄agaz biak auŕez egiztau gura izan dodaz.

4. Gizonen ziñalpenak saŕitan txulut egiten dau; nire epaya egia da: sendo egongo da ta ezta irauliko.

Geyenetan estalita dago, ta zeatz gitxik ikusi oi dabe; baña okeŕik eztau iñoz egiten, eta ezin egin-be, tentelen begiai okeŕa ba-dirudie-be.

Neugana-ba edozein eritxian etoŕi bear-da, ta ez norberenean ustea ezaŕi.

*Zintsoa ba Jaungoikoaren eskutik le-*

*tořkikeon edozegaitik ezta artegatuko-ta* (1).

Ta bidebakokerien bat bere aurka esaten badabe, eztautso yaramon andirik egingo. Ta beste batzuk bidez bere alde agertuaŕen be, ezta aŕotuko.

Gizonen aŕpegi ta antzaren arauz ebazten eztodan biotz eta kurtsuŕunen arakakatzalea nazana ba-dakielako. Gizon-eritxiz txalogaŕia dana, nire begietan saŕitan eŕudun auŕkitu doa-ta.

5. Gogo-zintzoak—Gizonen auskoŕtasuna ta gaiztakeria ondo ezagutzen dozuzan, Jaungoiko Jauna, epaikari zuzena, sendoa ta eroapentsua, neure indaŕ ta itxaropen osoa izan zakidaz, neure baŕuaren autoŕ ona eztot naikoa -ta.

Nik ez dakidana zuk ba-dakizu; ta augaitik edozein agiraka-aldian burua apaletsi ta otzan yasan izan beaŕ neban.

Baña azketsi (parkatu) egidazu, onan egin eztodan guztia, ta yasateko eskar ugariagoa emon egidazu baŕiro.

---

(1) Prov. XII. 21.

Oba dot azkespena (parkameña) yadesteko zure eŕuki yoria, neure baŕu ostena aldezteko neure zintsotzakotasunak lagundu legiskedan baño-ta.

Neure baŕuan obenik oaŕtu ezaŕen, ezin neinke, ori gora-bera, burua zintsotzat emon, zure eŕukia kendu ezkero, *bizi danik eztalako zeure begietan zintso agertu*. (1)

# BOSGAŔEN ZATIA

## Betiko bizitzea

## XLVII ATZALBURUA

### Betiko-bizitzeagaitik neke guztiak yasan beaŕ direala.

1. JOSUKISTOK—Ene seme, neugaitik leporatu dozuzan nekeak, ezpegitzue luŕa yo eragin; ezta loŕak be oso kikildu: edozein gertaeran ostera, neure agintzak sendatu ta poztu bezayez.

Era nai neuŕi guztien ganetik ordaintzeko neu nozu naikoa.

---

1 Ps. CXLII, 2.

Luzaroan eztozu emen lan egingo; ezta etzara beti minpean be egongo. Piskatxo bat itxaron egizu, ta neke-aldiaren amaya beingoan dakuskezu. Etoŕi da neke ta kezka guztiak gelditzeko ordua.

Aldiagaz igaroten dana, txiki ta laburá da.

2. Zeure zer-egiñari ekin eyozu; neure mastian zintso-zintso lan egizu, zure saria neu izango nayatzu.

Idatzi, irakuŕi, abestu egizu; sotinka, ixilik ta otoitzean eragoyozu; zoritxaŕak, gizon arauz, eroan egizuz, betiko bizitzea onango ta buŕuka andiagoen lain be bada-ta.

Bakea, Jaunak dakian egunean etoŕiko da; ta orduan ezta izango, orain lez, gau-egunik, betiko argia, amaibako dirdirea, bake sendoa ta atseden eskieŕa baño.

Orduan eztozu esango, *nok atarako nau gorputz ilkor onetatik?* (1) Ezta, eztozu deadar be egingo esanaz: *ni bai eŕukaŕia, er beste-aldia luzatu yatalako;*

---

1 Bom. VII. 24.

(2) eriotzea ondatu ta osasun akatz bakoa etoŕiko da-ta; kezka bat be ez, gozotasun zoriontsua, lagundi goxo ta edeŕa baño.

3. Deunak zeruan daukezan burestunak (koroyak) ikusi ba'zenduz! bein munduarentzat ezeskaŕi ta biziteko be ez laingotzat zirudienak, oin zelango aintzagaz poztuten direan ikusiko ba-zendu, benetan luŕeraño apaletsiko zintzakez, eta guragoko zeunke guztien menpean egotea, batxoren nagusi izatea baño.

Ta etzeunkez biztaldi onetako poz-egunak gose-izango; ostera, Jaungoikoagaitik loŕpean izateaz poztuko zintzakez; ta gizonen artean ezereztzat eukitea, irabazterik aundientzat aŕtuko zeunke.

4. Oneik guztiok gozaŕtuko ba-zenduz eta biotz baŕuraño sartuko ba-litzakizuz, ¿zelan, baten baño izan eztabe, asaŕtuko zintzakez eŕemuskadaka asten?

---

2 Ps. CXIX, 5.

Betiko bizitzeagaitik ¿ez ete-dira yasan beaŕ nekegaŕi guztiak?

Ezta gauza txikia, Jaungoikoaren yaureŕia (eŕeñua) galdu ala irabaztea.

Yaso, ba, zerura zeure begiok. Ona emen ni, ta luŕean neugaz buŕukaldi goŕiak euki ebezan deun guztiak; orain eztitan dagoz; orain eskieŕ dagoz; orain atseden dira ta amai barik neure aitaren yaureŕian (eŕeñuan) neugaz iraungo dabe.

## XLVIII ATZALBURUA

### Betiko eguna, ta bizitza onetako laŕialdiak.

1. GOGO ZINTZOAK – ¡Zeruko biztoki zorion-zoriontsua! Betiko egun argi-argia! gabak ilundu ez, eta Egi uts-utsak argitzen dauana, beti egun pozkaŕia, egun baretsua ta iñoz besteratzen eztana.

¡Ene! egun oŕek argitu baleu, ta gauza aldakor oneik amaituko balira!

Deunai benetan betiko argi bizi-biziaz argi egiten dautse; uŕiñetik, ostera,

ta ispiĪu bitartez, luŕeko atzeŕi onetan bizi direanai.

2. Egun ori zein eztitsu dan, zerutaŕak dakie. Eba-ren ume erbestetuak, egun au gaŕatza ta gogaitgaŕia dala-ta, negaŕez dagoz.

Bizitza onetako egunak gitxi ta txaŕak dira, min ta laŕialdiz yosiak, euroetan gizasemea oben askogaz loitu, giriña askogaz lotu, bilduŕ askogaz laŕitu, zeregin askotan arazotu, baŕikeri askogaz zabaŕtu, uskeri askotan naspildu, oker askogaz inguratu, loŕ askogaz ebaindu; ziltzaldiaz azpeŕtu, atseginkeriz indargetu, ta txirotasunez oñazetzen da.

3. ¡Ene! Noz izango ete da gaitx onein atzena? ekandu gaiztoen menpetasunetik ¿noz azkatuko ete-naz?

Zutzaz bakaŕik, ene Jauna, ¿noz gomutauko ete-naz? ¿Noz zugan osoan poztuko ete-naz?

¿Noz egongo ete-naz eragozpen bape barik, benetako yareitasunean (azkatasunean), gogo ta gorputzarekiko aztuntasun barik?

¿Noz izango ete-dot bake sendo, ba-

ke aldatu-eziña ta eskieŕa; bakea baŕutik, bakea kanpotik, bake guztiz iraunkoŕa?

Josu ona, ¿noz yagiko ete-naz zeu ikusteko? zeure yaureŕiko edeŕtasuna ¿noz ikusiko ete dot? ¿Noz izango ete-zara niretzat guztietan guztia?

¿Noz egongo ete-naz zeugaz, zeure maitiai betikotasunetik gertau dautsezun yaureŕian (eŕeñuan)?

Txiro ta aŕotz, egunoroko buŕukak ta zorigaitz latzak dagozan arerio-eŕian, basterturik nago.

4. Eztitu neure aŕoztasun au, ibitu neure miñau, neure gurari osoa zuganako yoranez dago-ta.

Ludiak atsegintzat eskinten daustan guztia nekegaŕi yatalako.

Nire gozagaŕitzat zeu gura zaitut, baña ezin eldu.

Zerukoai itsatsi gurata nabil, baña luŕeko zerok ta giriña ezibakoak aunatzen nabe.

Gogoaz gauza guztien ganetik egon gura dot, aragiaz baña, gura ezta be, azpian egoten beaŕtuta nago.

Ona ni, gizon gaxo au, neugaz buŕu-

ka nabil, eta neure buruarentzat nekegaŕi egiten naz, gogogoak gorantza ta aragiak bekoetarantza egiten daustala.

5. Ene Jauna, ¡benetan nik baŕuan yasaten dodana! zerukoak gogartzen dodazala, bat-batera otoitzaldian aragikeri-piloak gogora yatorkidazanean! Ez nigandik, Jauna, uŕindu; ez zeure yopu onegandik asaŕez aldendu.

Zeure tximisteari txist eragiozu ta suntzitu egizuz odeyok; zeure azkenak erauzi (yaurti) egizuz eta arerioaren irudikeri guztiak laŕitu beitez.

Neure asmamen (sentidu) guztiak zeugan batu egizuz; luŕeko gustiak astu-azo egidazuz, eta irudikeri zantaŕak neugandik ariñ uxatu ta ezesteko indaŕa emon egidazu.

Lagundu egidazu, Betiko egia zarean oŕek, ezertarako zirtzilkerik enayan lokatu.

Etoŕi zakidaz, zeruko samuŕtasuna; ta zikinkeri guztiak zeure auŕetik iges egin beye.

Aztu ta eŕukiz parkatu, zeu etzarean

VITORIA

beste zerbait, otoitz-aldian, darabildan bakotxean.

Gogo zabaŕ-zabaŕ egon oi nazala, benetan autortzen dot-eta.

Askotan nire gorputza zutunik ala yezaŕita daukadan tokian enago, oldozkunak eroaten naben tokian baño-ta.

Nire oldozkuna dagoan tokian nago neu-be. Ta nire oldozkuna saŕitan, maite dodana dagoan tokian dago.

Berez atsegin-emon ala oituraz poztuten nauana datoŕ beingoan gogora.

6. Oŕegaitik, Egia zarean oŕek, argiro esan zendun: *zure ondasuna non, zure biotza-be antxe.* (1)

Ludia maite ba-dot, ludiko zoriontasunez poztu, eta bertoko zoritxaŕakaz ituntzen naz.

Aragia maite ba-dot, aragikeriak irudituten dodaz saŕitan. Gogoa maite ba-dot, gogozkoak asmaketan dago nire atsegiña.

Maite dodan guztiaz pozik itz-egin eta etzun daroat, eta euroen irudiak neugaz etxera dakardaz.

---

1 Matth. VI, 21.

Baña zorionekoa da, Jauna, zure edeŕagaitik gauza guztiai alde egiteko baimena emoten dautsena; norbere buruari gogoŕ egiten dautsana, ta aragi iŕitsak gogo beroaz gurutzatzen dauzana, baŕu baretsuaz otoitz garbia zuri eskiñi daitzun, ta luŕeko guztiak bere baŕu ta atatik uŕinduta, aingeru-talde artean egoteko gai izan daiten.

## XLIX ATZALBURUA

### Betiko bizitzaren guraria, ta buŕukalarientzat eskiñita dagoan ogasun yoria.

1. JOSUKISTOK—Ene seme, betiko-zoriontasunaren guraria izuritzen yatzula, nabaitzen dozunean; ta aldakuntza-ïtzal barik, neure argitasuna ikusi al-izateko, gorputz-baŕutik urten gura dozunean, zeure biotza zabaldu egizu ta biotz-biotzez gogargi deun au aŕtu egizu.

Eskaŕ ugari-ugariak itsuli egiozuz goiko ontasunari, zeure aztaz (pixuz) luŕekoetara labandu etzaitezan, oŕen adeitsu zugaz diaŕdulako, oŕen eŕukiz

ikertu, oŕen gaŕtsu aizkatu, oŕen indartsu eragiten zaitualako.

Au be ba eztozu zeure ardura ta alegiñez aŕtzen, bakaŕik zeruko eskaŕaren ta Jaungoikoaren adeyaren bidez baño; onbidean eta apaltasunean auŕeratu dagizun, eta geroko buŕukaldietarako gerturik egon zaitezan, eta biotz-biotzez niri itsatsi zakidazan eta gogo sutsuaz neure moŕoitzean ekin daizun.

2. Ene seme, saŕitan sua gaŕetan dago, baña ke bar.k eztau gaŕak igoten.

Onan, batzuen gurariak be zerutikoetarako gaŕez dagoz; baña alan-eta guzti be, aragi iŕits-zirika barik eztagoz.

Oŕegaitik, Jaungoikoagandik ain gogotsu eskatzen dabena - be, eztabe Jaungoikoaren edeŕ utsagaitik egiten. Olangoa da saŕitan, beaŕ bada ain era bage agertzen dozun zeure guraria.

Garbi ta bikaña eztalako, norbere onureagaz nastuta dagoana.

3. Niri atsegin eta dedugaŕi yatana eskatu egizu, ta ez zeure atsegin eta

onerako yatzuna; zuzen ebatzi ezkero, neure erabagia zeure gura ta gurari guztiak baño geyago obetsi ta yaŕaitu beaŕ dozu.

Ezagun dot zure gurea, ta zure saŕitako negaŕ-sotiñak entzun dodaz.

Jaungoiko semeen aintzazko azkatasunean egon gura zeunke oraindixe; betiko etxeak, eta atsegiñez beteriko zeruko abeŕiak oraindixe eztitan zaukez, baña ordu ori oraindiño ezta eldu; beste aro bat dozu, baŕiz, oraingoa: guda, neke ta aŕago-aroa (proba-aroa).

Goiko on uts-utsez asetu nai dozu; baña oraiñ ori ezin zeinke yadetsi.

Neu naz; zagoz begira, diño Jaunak, Jaungoikoaren yaureŕia (eŕeñua) eldu arte.

4. Oraindiño luŕean aŕagotu (probau) beaŕ zara ta zer askotan eragiña izan bear zara.

Nozik-bein atsegiña emongo yatzu; baña asetasun yoririk ez.

Bizkoŕtu ta sendotu zaite ba, izatasunaren aurkakoak egin eta yasateko.

Gizon-baŕiz yantzi beaŕ zara, ta beste gizon batera aldatu.

Sařitan nai eztozuna egin beař dozu, ta nai dozuna itxi.

Besteak atsegin dabena, ondo yoango da; zuk atsegin dozunari etxako yaramonik egingo.

Besteak diñoena entzungo da; zuk diñozuna ezereztzat ařtuko da.

Besteak eskatu ta ařtuko dabe; zuk eskatuko dozu, baña eztozu yadetsiko.

5. Besteak gizonen-aoetan aundiak izango dira; zutzaz bařiz, ezta ezer esango.

Besteai onen edo aren ardurea emongo yake; zu bařiz, ezetarakotzat ez zaitue artuko.

Ori dala-ta, izatasuna batzuetan goibelduko yatzu: ta ez da gitxi izango, ixilik badaroazu.

Onango ta antzekoetan ezautzen da Jaungoikoaren otsein zintsoa; ia zelan bere burua ukatu ta gauza guztietan austen dakien.

Nekez egongo da beste gauzen bat, zure gurariaren auřkakoak ikusi ta yasatekoan baño iltea beařago dozunik; batez bere, bidebako ta ez-egoki deritxazuzanak agintzen yatzuzanean.

Ta zu menpean egonik, nagusiari gogoŕ egiten asaŕtzen etzarealako; oŕegaitik, iñoren naitara ibiĺi ta zure eritxia osoan erantsitea gogoŕ deritxazu.

6. Baña auznaŕtu egizu, ene seme, neke oneitatiko uzta, lasteŕeko amaya, ta sari guri-guria; ta etxatzuz aztun egingo, bai ostera zeure eroapenaren pozkaŕi bikañak.

Orain gogoz izten dozun naimen apuŕ onen ordez, zeruan beti zeure naya eukiko dozu-ta.

Antxe-ba, gura dozun guztia ta gura zengiken guztia idoroko dozu-ta.

Antxe ondasun guztia zeure eskuan, galtzeko bilduŕ barik, eukiko dozu.

Antxe zeure naimenak, nireagaz beti bat eginda, ez besterik ez beretzakorik eztau gura izango.

An iñok be eztautzu gogoŕ egingo, iñor be ezta zutzaz eŕemuska ibiĺiko; iñok be etzaitu eragotziko; ezek-be etzaitu arazotuko; gura direan guztiak berton eukiko dozuz; eta zeure gurari osoa gonburuz asetu ta beteko yatzu.

An, yasandako lotsearen ordez, ain-

tza emongo dot; atsekabearen ordez, gorespen - estalgia; azkenengo lekuaren ordez, betiraun guztirako yaureŕiko aulkia.

Antxe agertuko da menpekotasunaren uzta, garbai-nekea poztuko da, ta menpetasun apala aintzaz burestunduko da.

7. Orain, beraz, guztien menpean, apal makuŕtu zaite; ta ez yaramonik egin, au nok esan ala agindu dauan.

Baña onexen ardura andia bai euki beaŕ dozu. Naiñok zerbait eskatu nai adierazoko baleutzu, nai nagusia dala, nai gazteagoa dala, nai idekoa dala, guztia ontzat-aŕtuta, gogo zintsoaz betetako alak egin.

Batak au, besteak ori bil̄atu bei, urlia atan, berendia onetan aŕotu ta mil̄a bidaŕ goretsi bedi; zu, baña, ez onetan ez aetan; poztu zaite, ostera, zeure burua ezetsiaz ta neure gure ta deduaz. Nai bizitzean, nai eriotzean auxe gura beaŕ dozu; zugan Jaungoikoa beti goretsi daitela.

## L ATZALBURUA

### Gizon-atsekabetua zelan Jaungoikoaren eskuetan yaŕi beaŕ dan

1. GOGO ZINTSOAK—Jaun eta Jaungoikoa, Aita deuna, orain eta betiraunean onetsia izan zaitez; gura dozun letxe egin dalako, ta zuk egiten dozuna ona dalako.

Zugan poztu bedi zeure otseñau, ez beragan edo beste iñogan, benetako alaitasuna, Jauna, zeu bakaŕik zara-ta, zu, neure itxaro-bidea ta neure burestuna; zu neure poza ta neure dedua.

¿Zer dauko zure otseñak zugandik aŕtu dauana izan ezik, ta orixe-be irabazi barik?

Emon eta egin daustazun dana zeurea da.

*Txiroa naz eta gaztetandik neke artean azia* (1) ta batzuetan gogoa negaŕ egiterano goibeltzen yat; eta beste ba-

(1 Ps. LXXXVII, 16.)

tzuetan, giriñak yota, ańtega daukat.

2. Bake-poza gura dot; atsegin-argitan yanaritzen dozuzan zeure umeen bakea eskatzen dot.

Bakea emon eta poz deuna izuriten ba-daustazu, zure otseñaren gogoau zure onespenetan abeslari (kantari) ta eraspentsu agertuko da.

Baña sańi-sańitan egin oi dozunez, aldentzen bazara, zure agindu-bidean ezingo da ariñeketan yoan, bere bulańa yoteko belaunbikotu baño; ez yoakolako atzo ta arañegun lez, bere buru ganean zure argiak disdiratzen eutsanean ta zure egoen itzalpean ziltzaldi -uriolatik zaintzen zanean.

3. Aita zuzen eta beti goreskańia, eldu da zure otseñau ańagotzeko (probetako) garaya.

Aita maitagańia, ondo da ordu onetan zugaitik zure otseiñ onek zeozer yasatea.

Aita beti guńgańi ori, zuk betiraun guztidanik ba-zenkian ordua eldu da; apuń baten zure otseñau azalez yausita egon dedin, baña bańuz beti zugan bizi dedin.

Gizonen auŕean apuŕ baten ezereztu, apaletsi ta kikildu bedi, giriñak eta gaxotasunak askatu beye; gero, argi baŕiaren egun sentian, batera biztu, ta zeruan argiztu dedin.

Aita deuna, zuk olantxe erabagi dozu, ta olantxe gura izan dozu; ta zeuk agindu zendun axe egin da.

4. Zure adizkideentzako bezuza auxe dozu-ta, zure edeŕagaitik, zeuk izten dozun edonoz ta edonogandik, ludi onetan min eta loŕak yasatea.

Zure asmo ta erabagi ta ziyo barik, ezertxo be ezta luŕean egiten.

*Neure onerako, Jauna, apaletsi nozu; zure zuzenbideak ikasi dagidazan* (1) eta biotzeko aŕokeri ta ustekeri guztiak yaurti daidazan.

Edeŕto etoŕi yat lotsa goŕiak neure arpegia estaltzea, pozbidetzat gizonak baño geyago zeu bil̄atu zaidazan.

Baita zure ebatzi igaŕi-eziñaren bildur-ikara izaten-be ikasi dot; onetan zindoa gaiztoagaz batera atsekabetzen

---

1 Ps. CXVIII, 71.

dozu, ez baña bide ta zuzentasun barik.

5. Eskarak, Jauna, eztaustazuzalako zoritxarak uritu, ostera, oñazez yosirik ta atatik eta barutik lariz itorik, zigorkada samiñakaz birindu nozulako.

Zerupean dagoan bat-be ezta ni poztu nengikenik, *zauritu ta osatu, ondaretarano eratzi ta bariro eragiten dozun* (2) neure Jaun eta Jaungoiko, gogoen zeruko osagile ori izan ezik.

*Zure ikaspidea neure gain izan bedi, ta zure zigorak berak irakatsiko daust* (3).

6. Ara, Aita maite, zeure eskuetan naukazu, zeure agiraka-zigorpean makurtzen nayatzu.

Astindu neure sorbalda ta lepoau, neure okertasuna zure gurara makurtu daidan.

Egin nagizu ikasle gogotsu ta apala, ederto egin oi dozunez, zure gogora ibili naiten.

Nazan au ta daukadazan guztiak, arteztu dagizuzan, zeuri egozten dautzu-

---

(1) Job. XIII, 2.
(2) Ps. XVII, 36.

daz; gero baño orain zure zigoŕkadak aŕtzea oba da-ta.

Zuk guztiak eta bakotxa be badazauzu, eta giza-baŕuan etxatzu ezer ostentzen.

Etoŕkizunak, yazo baño lenagotik dakizuz; eta luŕean yazoten direanak, eztaukazu inok irakatsi ez oaŕ-erazo beaŕik.

Zuk ba-dakizu, auŕeratzeko zer egoki yatan eta ekandu txaŕen ugeŕa kentzeko loŕa zein bestekoa dan.

Egizu nigan gura ta atsegin dozuna; ta iñok baño obeto ta argiago ezagutzen dozun ezkero, ez ezetsi neure bizitza obentsua.

7. Jakin beaŕ dana, yakin-erazo egidazu, Jauna; maitatu beaŕ danaxe maitatu; zeuk atsegiñen dozunaxe, aintzat artu; ta zure begientan zataŕ danaxe, iguin erazo egidazu.

Ez egidazu itxi aragi-begiok dakusenez ebazten, eta gizon kirtenai entzundakoaren arauz epaitzen-be; bai, baŕiz, ikuskoŕ, ta gogokoŕak alkaŕegandik, egizko epai-bidez, bereztea ta beti, gau-

za guztien ganetik, zeure gurearen biĪa ibiltea.

8. Giza-asmamenak ebazketan sařitan uts egiten dabe; baita mundu-zaleak be, ikuskořak bakařik maitatuaz, ziri edeřak artu daroez.

Gizonak gizona aundietsi ařen, ¿zetan egiten da obea?

Guzurtiak guzuřtiari, ařoak ařoari, makalak makalari iruzuř egiten dautso, goresten dauanean: eta egiz geyago lotsatzen dau, sustař barik goresten dauanean.

Norbait zeure begietan dana, ořexen beste da, ta ez geyago, diño Pantzeska deun apalak (1).

## LI ATZALBURUA

### Egikizun apaletan ekin beař dala aundietarako adorerik eztagoanean.

1. JOSUKISTOK. – Ene seme, ezin egon zindekez beti onoimenen gurari

---

(1) Bonabentur Deunak Pantzeska Deunaren bizitzan 6'n. atzalb.

bizi-biziakaz; ezta ezin iraun zeinke sokun gorengo maĪean-be; ostera, yatoŕizko makaltasuna dala-ta, apalagoetara nozik-bein yatsi ta bizitza uztelkoŕ onen zama, naita engaraz ta iguiñez, eroan beaŕ dozu.

Goŕputz ilkoŕori daroazun aŕtean, iguin ta biotz-keskak izango dozuz.

Aragian bizi zarean aŕtean, aragi-zameagaitik saŕitan negaŕ egin beaŕ dozu; gogo egikizunetan eta yaungoikozko sokunean eten-barik ezin yardun dozulako.

2. Orduan apaletara ta atetikoetara yo, egitade onakaz zeure biotza egurastu, neure etoŕerean ta goitiko ikustaldian uste sendoaz itxaron, ta zure erbestetasuna ta gogo-leoŕtasuna eroapenaz yasan beaŕ dozu; neuk baŕiro ikertu eta keska barik itxiko zaitudan aŕte.

Nik nekea aiztu, ta baŕutiko bake-eztia gozaŕtu eragingo dautzut-eta.

Idazti deuneko zelayak zure auŕean zabalduko dodaz, neure aginduen bideetatik biotz nasayaz ibiĪi zaitezan.

Eta esango dozu: *Guri gero agertu-*

*ko yakun aintzaren ondoan, ezebe ezti-ra oraingo neke-aldiak.* (1)

## LII ATZALBURUA

**Pozaldiak baño zigorkadak irabaziago dabezalakoan egon beaŕ dabela gizasemeak.**

1. GOGO-ZINTZOAK—Jauna, enaz zugandiko atsegin eta gogo-ikeŕtaldirako lain; ta oŕegaitik, zuzen diarduzu nigaz, landeŕ (pobre) ta atsekabeturik izten nozunean.

Itxasoa betetako beste negar-malko izuri al-ba-neuz be, oraindiño enintzake zure pozaldirako lain izango-ta.

Augaitik atsekabe ta zigorkadak baño eztodaz irabazi, aztun eta saŕitan iraindu zaitudalako ta askotan oben andiak egin dodazalako.

Beraz, ondo begiratu ezkero, pozaldirik ñimiñoena be eztot irabazi.

Baña zuk, egindakoen galtzerik gura eztozun Jaungoiko onbera ta eŕuki-

(1) Rom. VIII, 18.

oŕ oŕek, eŕuki ontzietan zeure onberatasun - aberastasunak erakusteko, nai ta berak ezer irabazi ez, zeure otseña poztu gura dozu, giza-neuŕi ganez.

Zugandiko pozaldiak gizonen autuen antzekoak eztira-ta.

2. Zer egin dot, Jauna, niri zeruko atsegiñen bat emoteko?

Nik eztaukat ezer onik egin dodanen gomutarik, beti ekandu txaŕetara etzana, ta onduteko nagia izan nazala baño.

Egia da ta ezin ukatu nengike. Besterik esango baneu, zu neure auŕka egongo zintzakez, eta nire alde egitekorik elitzake izango.

Zer irabazi dot neure obenakaz, gaiztokia ta betiko sua baño?

Egiz iñongo iŕi ta ezespenak zoŕ yatazala ta zure maiteen artean egoterako lain enazala autoŕ dot.

Ta au entzutea samingaŕi ba-yat-be, neure obenak neure buruaren auŕka ta egiaren alde autoŕtuko dodaz, zure eŕukia yadestea eŕazago irabazi daidan.

3. Zer esango dot eŕudun ta lotsaz beteteriko onek? Aoa itz bakaŕ auxe

esateko baño eztaukat: oben egin dot, eŕuki zakidaz, azketsi (parkatu) nagizu. _*Itxi nagizu apuŕtxo baten, luŕalde ilun ta eriotz-iluntasunaz estaldukora yoan orduko neure oñazeagaitik negaŕ egin daidan.* (1)

¿Zer da geyen-geyen eŕudun ta obendi eŕukaŕiari eskatzen dautsazuna, bere obenakaitik damutu ta apaletsi daitela baño?

Azkespen (parkamen) itxaropena egiazko damu ta biotz-apaltasunean soŕtzen da; baŕu artegatua baketzen da, galdutako eskaŕa birartzen da; etoŕkizuneko asaŕetik gizona yaboten da ta bake deunean, Jaungoikoa ta garbaidun gogoa, mun deunaz alkaŕ batzen dira.

4. Obenen garbai apala opari begiko yatzu, Jauna: kedatzen luŕunak baño zure auŕean usain askozaz goxoagoa emoten dauana.

Auxe da zure oin deunai izuritea gura izan zendun, arako iguzki atsegingaŕia: biotz garbatu ta apaletsia iñoz be ezetsi eztozulako.

---

(1) Job. X. 20-21.

Bertan dago arerioakandik iges egiten dabenen legorpea. Beste ainbaten txařto egin eta loitu zana, bertan ondu ta ikuzten da.

# SEIGAŘEN ZATIA

## Eskařa ta izatasuna

## LIII ATZALBURUA

### Lurekoak goxo dabezanakaz eztala Jaungoikoaren eskařa nastuten.

1. JOSUKISTOK.—Ene seme, nire eskařa bikaña da, eztau aitzen beste gauza ta lureko atseginkeriakaz naztuterik. Eskařaren eragozpen guztiak kendu beař dozuz ba, eskař ori zeugan gura ba-dozu.

Zeuretzat toki eskutua bilatu egizu; zeugaz bakařik bizitea maite egikezu; iñogaz yarduterik ez bilatu; Jaungoikoari, ostera, eskari gogotsua egin, biotz damutua ta bařu-garbia euki daikezun.

Ludi osoa ezereztzat eukikezu, ta Jaungoikoaren deya beste guztiak baño obetsi.

Nigaz yardun ta erabatera igeskoŕetan poz artzea, ezin alkaŕtu leitekez-ta.

Ezaun eta adizkideakandik uŕintzea, ondo da; ta aldiko atsegin guztietatik gogoa aldenduta euki beaŕ dozu.

Onantxe eskatzen dau Kepa bidalduak (apostoluak) *aŕotz eta bidazti zuŕian* (1) yarduteko ludi onetan kistaŕak.

2. ¡Ene! Luŕeko ezerganako lerak ezteutsan ilzorikoak izango dauan uste andia! Baña biotza olan aldenduta eukitea zer dan, eztau ondiño uleŕtzen gogo argalak; ezta gizon abere antzekoak be, eztaki gogokoyen azkatasuna.

Baña iñok gogokoya izan gura badau, bai uŕiñekoak bai uŕkoak itxi beaŕ dauz, ta ezta bere buruagandik baño geyago iñogandik zaindu beaŕ.

Zeure burua ondo aspiratzen ba-dozu, besteak eŕazago azpiratuko dozuz.

Norbere burua azpiratzea gurenda (garai) bikaiña da.

Norbere burua bere mendean daukana, aragiak senari ta senak niri guzti-

---

(1) 1. Petr. II, 11.

etan men-egiten daustala, ori benetan bere buruaren garaiḻe ta ludiaren yaube da.

3. Mendi-gaḻuŕ oŕetaraño eldu gura badozu, gizon-arauz asi ta aizkorea sustrayari ezaŕi beaŕ dautsazu, zeureganako ta zeuretzako ta aragiarekiko onureaganako lera okeŕ estaria sustaŕetik atara ta zuzitzeko.

Gaitz onetatik, gizonak norbera okeŕegi maitatzetik, dator iya, sustar-sustaŕetik eyo beaŕ dan guztia; beiñ au azpiratu ta buztaŕpetu ezkero, bake aundia, ta betiko bare aldia izango dira.

Baña norberentzako ilten gitxik ekiten dabelako, ta eurakandik osoan gitxi-gitxi urteten dabelako, eurakan naspilduta gelditzen dira, ta ezin dira euren ganera gogoz yagi.

Baña neugaz azke yardun gura dauanak bere lera zataŕ ta okeŕ guztiak ilduratzea, ta izaki bateri-be biotza, berekoikeriz, ez erantsitea, beaŕa dau.

# LIV ATZALBURUA

## Izatasunaren eta eskarLaren eragikun banak

1. Josukistok.—Ene seme, izatasunaren eta eskaŕaren eragikunak arduraz begiratu egizuz; oso alkaŕen auŕka ta ostenduta dabizalako, ta gizon gogokoi ta baŕuz argitua izan ezik, gatx igarten direalako.

Egiz, guztiak dira on-zaleak, eta euren esan eta egiñetan zerbait onen bila dabiz; oŕegaitik on-antzaz asko atzipetzen dira.

2. Izatasuna azeria da-ta, asko beragandu, naspildu ta atzipetzen ditu, ta elburutzat beti berbera dauka.

Eskaŕa, baŕiz, lau-lau dabil, txaŕ-antz guztitik uŕintzen da, eztau gura maltzuŕkeririk, ta dana bakaŕ-bakaŕik Jaungoikoagaitik egin daroa, ta Beragan atzenez atsedeten da.

3. Izatasunak engaraz baño eztau gura ilterik, ez zapaltzerik, ez azpiratzerik, ez menperatzerik, ez gogoz buztaŕpetzerik.

Eskaŕak, baŕiz, norbere ildurari daragoyo, aragikeriari gogoŕ egiten dautso, menpean egotearen bil̄a dabil, azpiratua izatearen yoranez dago; bere aukeran eztau bizi gura, legepean bizi beaŕa maite dau, ta batxoren be naguzi eztau izan nai; Jaungoikoaren menpean beti bizi, iraun eta egon baño; ta Jaungoikoaren edeŕagaitik edozein izakiri apal-makuŕtzeko, gerturik dago.

4. Izatasunak norbere erosorako direanetan daragoyo lanean, ta besteagandik ze onura datoŕkon begiratzen dau.

Eskaŕak, ostera, ez beretzat zer onuratsu ta eroso dan, askori zek onik geyen dakaŕtsen baño ez dau begiratzen.

5. Izatasunak dedu ta itzala pozik aŕtu daroaz.

Baña eskaŕak, dedu ta aintza dana, zintzo-zintzo Jaungoikoari ezaŕten dautso.

6. Izatasuna lotsa ta ezespenaren bilduŕ da.

Eskaŕa baŕiz, Josuren izenagaitik irañak yasateaz poztu egiten da.

7. Izatasunak opoŕ ta gorputz-atsedena maite ditu; eskaŕa, baŕiz, alpeŕerian ezin da egon, eta lanari gogoz eltzen dautso.

8. Izatasunak txukun ta edeŕak eukitea nai dau, ta zataŕ ta zakaŕak goŕoto dauz.

Eskaŕak, baŕiz zaŕpail ta edozeingoetan dauko bere poza; lotsak eztauz iguin; ta eztau goŕoto oyal zaŕakaz yanztea.

9. Izatasunak aldikoŕak begiratzen dauz, luŕeko irabazteakaz poztuten da, kalteagaz, goibeltzen ta edozein itz iraingaŕiaz asaŕatzen da.

Baña eskaŕa betikoen gosez dabil, aldikoŕai etxake erantsiten, eta gauzak galduaŕen ezta artegatzen, eta itz gogoŕakaz-be ezta samintzen; ezer galtzen eztan zeruan bere ondasun eta poza ipiñi ebalako.

10. Izatasuna zekena da, ta emon baño artu pozago egiten dau, ta beretzako ta bakotxarenak maite ditu.

Eskaŕa, baŕiz, biotz-zabala ta lagun

-zalea da; bakotxenetatik iges egiten dau, gitxigaz ase da, ta *ařtzea baño emotea, zori obetzat dauko* (1).

11. Izatasunak izakietara, norbere aragia, uskeri ta bařiketara makuřtzen dau.

Eskařak, bařiz, Jaungoikoagana ta onoimenetara daroa; izakiai uka egin, gizartetik iges egin, aragi-iřitsak gořotau, sabařkeriak eziten ditu; ta agirian agertzeko lotsořa da.

12. Izatasunak pozik artzen dau atetiko edozein atsegin, bere asmamen -gozagařitzat.

Eskařak, baña, bere poza, beste guztien ganetik Jaungoikoagan bakařik ta on gurenean, bil̄atzen dau.

13. Izatasunak bere irabazte ta onerako egiten dau dana, zeozertxo barik ezin dau ezer egin; on-egiteagaitik ala beste ainbeste ala geyago, ala gorespena nai laguntasuna ařtzeko ustea dauko; ta bere egintza ta emoyak anditzat eukitea, biotzez gura dau.

Eskařak, bařiz, eztau bape igeskořik

---

(1) Act. Apost.

bil̄atzen; ta on-egitearen ordaintzat eztau beste saririk eskatzen Jaungoikoa baño; ta aldikoŕ beaŕekoetatik betikoak loŕtzeko lagundu leyoenak bakaŕik euki gura dauz.

14. Izatasuna adizkide ta senide askogaz poztuten da; bere yayoteŕi ta yatoŕi argiaz aŕotzen da; andikientzat labana, aberatsentzat koipetsua ta bardiñentzat txalokaria da.

Eskaŕak, baŕiz, arerioak be maite ditu, adizkide pil̄oagaitik ezta ol̄aŕtzen; eztitu ezertzat eukiten yayoteŕi ta yatoŕia be, bertan onoimen andiagorik ezpadago.

Aberatsen baño txiroen alde geyago egiten dau; andikiari baño eŕubakoari, eŕuki geyago dautso; egitsuagaz poztuten da, ta ez guzurtiagaz.

Goi-emoi obeak leyatzeko, ta onoimenen bitartez Jaungoiko Semearen antza artzeko, aizkatzen dauz beti onak.

15. Izatasuna, beaŕa ta nekea direala-ta, beingoan dago erostaka.

Eskaŕak txirotasuna gogotsu daroa.

16. Izatasunak dana beretzakotzen

dau ta norbere alde, buŕuka ta ezta-baidaka daragoyo.

Eskaŕak, baŕiz, guztia guztien ituŕ-buru dan Jaungoikoagana itzuliten dau; onik ezertxo be eztautso bere buruari ezaŕten, ezta aŕobidetzat aŕtu be; eztiardu ezta-baidaka, eztauko bere eritxia besteena baño obetzat, eritxi ta yakite orotan, ostera, betiko yakituri ta Jaungoikoaren epaipean yarten da.

17. Izatasunak eskutukoak yakin eta baŕiak entzun gura ditu; besteen auŕean agertu ta asmamen bidez asko oartzea nai dau, ezaguna izatea ta gorespena ta itzala ekaŕi leikiona egiteko gurariz dago.

Eskaŕa, ostera, eztabil baŕi ta zorakeriak yakin gurarik, au danau aspaldiko ustelkeritik sortzen dalako, ta lur ganean ezertxo be eztagolako baŕi ta iraunkoŕik.

Beraz asmamenak biltzen, aŕopuzkeri ta aŕanditik iges egiten, goragaŕi ta aŕigaŕiak apaltasunpean ostentzen, edozetan eta yakituri guztietan onura -igaliak, ta Jaungoikoaren gorespen eta aintza bil̄atzen, irakasten dau.

Eztau ez bera, ez bereak zarataka iragaŕterik gura; ostera, maitasun utsez dana emoten dauan Jaungoikoa, bere emoi guztietan onetsia izan dediĪa opa dau.

17. Eskaŕ au goitiko aŕgia ta Jaungoikoaren bere-biziko emoya da, ta autuen ezaugaŕia ta betiko osasunaren baiturea; luŕekoetatik zerutikoak maitatzera gizasemea eragi, ta aragi-zalea gogo-zale biuŕtzen dauana.

Onan ba, izatasuna geyago sakatu ta azpiratu, eskar yoriagoa izuriten da, ta egunean-egunean ikeŕtaldi baŕiakaz gizon-baŕua Jaungoikoaren antzera baŕiztau doa.

## LV ATZALBURUA

### Izatasunaren usteltasuna ta yaungoikozko eskaŕaren eragimena (eficacia)

1. Gogo zintzoak.—Zeure irudi ta antzeko egin ninduzun neure Jaun eta Jaungoikoa, emoidazu ain aundi ta zeruratzeko ain beaŕezko erakutsi zendun eskar au; obenetara (pekatuetara)

ta gal-bidera naroan neure izatasun zatař au azpiratu daidan.

Oben-legea neure gogo-legearen auŕka buŕuka ta aragiari men-egitera lotuta naroala, neure aragian asmatzen dot-eta, zeure eskar deun-deuna neure biotzean gaŕetan izurita, lagun ezpadot, ezin neinkioe bere giriñai gogoŕ egin.

2. Zure eskaŕa ta eskar ugaria beaŕ da benetan, gaztetan txaŕera makuŕtuta dagoan izatasuna eziteko.

Lenengo gizon Adanen bitartez yausita, ta obenagaz gaiztotuta, orban aren zigoŕa gizaseme guztietara yazten da ta, ori dala-ta, zuk ona ta zuzena egindako izatasuna, orain izatasun uztelaren gaitz ta makaltasuntzat aŕtzen da, berez txaŕera ta bekoetara egiten daualako.

Gelditu yakon indar apuŕa, auspean estalduko txingaŕa langoxea da-ta.

Alangoxea da berez adimena, odei baltzez inguratuta; baña ondiño txaŕa ta ona, egia ta guzuŕa banandu leikez, nai ta ontzat emoten dauan dana bete

ezin, ez egiaren argi osorik, ezta bera zindorik be euki ez.

3. Emetik datorkit, neure Jaungoikoa, *bafuko gizonari dagokionez zure agin-bidea atsegin izatea* (1).

Zure agindua ona, zuzena ta deuna dala, baita edozein gaiztakeriri arerio yakola ta obenetik iges egin bear dala yakiñik.

Baña aragiagaz aragi-legeari geyago otsein-egiten dautsot; aragikeriari, adimenari baño geyago, men - egiten dautsadala.

Onan, *ona gura izatea neugan daukat; baña zelan bete eztot aufkitzen* (1).

Au dala-ta, amaikatxo bidar on egiteko asmoa aŕtzen dot; baña neure makaltasunari laguntzeko eskaŕik eztaukodalako, eragozpen ezerez bategaitik atzera noa ta kikilduta gelditzen naz.

Oŕegaitik oŕni-bidea ezagutzen dot ta zelan yardun beaŕ dodan naiko argiro ikusten dot.

---

(1) Rom. VII, 22.
(1) Rom. VII, 18.

Baña neure usteltasunaren aztuntasunaz zapalduta, eztot igoten onenetara.

4. ¡Benetan, Jauna, zure eskaŕa on-egitean asi, yaŕaitu ta ondo amaitzeko beaŕ-beaŕa dot! Bera barik ezebe ezin dot-eta; baña zugan, zure eskaŕaz sendotuta, dana al-dot.

¡Ene zerutiko eskaŕa, zu barik norbere irabazteak ezebe eztira; ta izatasunaren berezko ontasunak eztira ezertzat euki bear! Eskaŕa barik ezertxobe eztira, Yauna, zure auŕean, ez aintzeak, ez aberastasunak, ez edertasuna nai indaŕa; ez buru-zuŕtasuna, ez itz-etoŕia eztira zuretzako ezer.

Izatasun-emayak on eta gaiztoentzat direalako; baña beragaz apainduak betiko bizitzarako duin egiten dauzan eskaŕ edo maitasuna, bakaŕik autuentzako emaya da.

Eskaŕ au barik ezta ezertzat euki beaŕ ez igerteko emaya, ez mirariak egitekoa, ez yakituri gorengoena izanda-be: ¡ain bikaiña da eskaŕa!

Ezta siñesmena be, ez itxaropena, ez

beste onoimenak-be, etxatzuz gogoko, maitasun eta eskaŕ barik.

5. ¡Ene eskaŕ zorion-zoriongaŕia, gogo txiroa onoimenez aberastuten dozun ori, ta ondasun askodun aberats biotza apalesten dozun ori!

Erdu, yatzi zaite nigana, zeure pozez len bait-len bete nagizu, gogoaren aunoz ta legoŕtasunez nire biotza ito eztaiten.

Zure begietan, aŕen, Jauna, abegi ona eukiko al dot, neure izatasunak gura leukezan enparauak euki ezaŕen be, zure eskaŕa naikoa dot-eta.

Loŕ askogaz zirikatua ta oñazetua ba-naz-be, enaz kaltearen bilduŕ izango, zure eskaŕa neugaz dagoan aŕtean.

Bera da nire indaŕa; berak emoten daust onu (consejo) ta laguntasuna.

Arerio guztiak baño indaŕtsuagoa da, ta yakitun guztiak baño yakitunagoa.

6. Egiaren irakaslea, lege-bidearen erakuslea, biotzaren argia, kezka-aldirako poza, ituntasunaren iges-eragiĺea, bilduŕ-kentzaĺea, eraspenaren ażkaŕtzaĺea, ta negar-eragiĺea da.

Bera barik ¿zer naz, egur̃ iger̃a ta ezetarako eztan mukur̃a baño?

Beraz, Jauna, zure eskar̃a neure aur̃e-atzetik bebil, ta egintza onai beti arduraz eragotea emon beist, zure seme Josukistogaitik. Olantxe.

## LVI ATZALBURUA

### Geure burua ukatu ta gurutzearen bitartez, Kistoren antza ar̃tu bear dogula

1. JOSUKISTOK.—Ene semea, zugandik urten zeinken bestean, nigana etor̃i zindekez.

Atetikoak ez gura izateak bar̃uko bakea dakar̃an lez, norbera bar̃uz izteak Jaungoikoagaz batzen dau.

Ezezko ta ayeneka barik neure naitara zure burua osoan ukatzen ikasi dagizula gura dot.

Jar̃aitu: *Neu naz bidea, egia ta bizitzea.* (1) Bide barik eztago yoaterik, egi barik eztago ezagutzerik, bizitza barik eztago biziterik.

---

(1) Joan. XIV, 6.

Neu naz ibil̃i bear̃ dozun bidea, siñestu bear̃ dozun egia, itxaron bear̃ dozun bizitzea.

Neu naz bide ausi-eziña, egi uts-eziña, bizitza amaitu eziña.

Neu naz biderik zuzenena, egirik gorengoena, egiazko bizitzea, bizitza zoriontsua, irazan bako bizitzea.

Nire bidean badirauzu, egia ezautuko dozu, ta egiak azkatuko zaitu ta betiko bizitzea lor̃tuko dozu.

2. *Bizitzara sar̃tu, gura badozu, aginduak bete egizuz.* (1)

Egia yakin gura badozu, siñestu neuri.

*Ornidua izan nai ba-dozu, saldu guztia* (2).

Nire ikaslea izan gura ba-dozu, zeure burua ukatu.

Zorioneko bizitzea euki gura badozu, oraingo bizitzea ezetsi egizu.

Zeruan goratua izan gura ba-dozu, lur̃ean apaletsi zaite.

---

(1) Matth. XIX, 17.
(2) Matth. XIX, 21.

Neugaz agintza-lagun izan gura badozu, eroan neugaz gurutzea.

Zorioneko ta egiazko argiaren bidea, gurutzearen otseñak bakaŕik aurkitzen dabe-ta.

3. Gogo-zintzoak—Josu Jauna, zure bidea estua ta gizarteak ezetsia dalako, emon egidazu gizartea ezesten zeure antzeko izatea.

*Otseña bere ugazaba baño aundiagoa* (1) *ta ikaslea bere irakaslea baño geyago eztalako.* (2)

Zure otseñak zure bizitzeari beragoyo, nire osasuna ta benetako deuntasuna oŕtxe dago-ta.

Oŕetzaz eztan zerbait irakuŕi nai entzuten dodanak, eztaust ez pozik ez atsegin beterik emoten.

4. Josuƙistok — Ene semea, oneik guztiok yakin eta irakuŕi dozuzan ezkero; eurok egiten ba-dozuz, zorionekoa izango zara.

*Nire aginduak eutsi ta betetan dituana, axe da ni maite nauana, ta neuk*

(1) Joan XIII, 16.
(2) Matth. X, 24.

*be maite izango dot eta berari agertuko nayako*, (1) eta neugaz neure Aitaren yaureŕian (eŕeñuan) yesaŕi eragingo dautsot.

5. GOGO-ZINTSOAK—Josu Jauna, esan eta agindu dozunez egin bedi, ta alantxe irabaztea izan bekit.

Aŕtu dot, aŕtu dot zure eskutik gurutzea; eroan dot eta il arterano, ipiñi daustazun lez, eroango dot.

Egiz, lekaide zintsoaren bizikerea gurutzea da, baña atsedenerako (zerurako) bidea.

Arloa asita dago; atzeratzerik eztago, iztea be ezta egoki.

6. Ia ba, anayok, goazen batera; Josu geugaz izango da.

Gurutz au Josugandik aŕtu dogu, gurutzean Josugaitik iraun daigun.

Gure biderakusle ta auŕelaria dana, geure laguntzalea izango yaku.

Ara, gure auŕetik urten dau gure bakaldunak (eŕegeak) eta gure alde buŕukatuko dau.

Gizon antzera yaŕaitu dayogun; iñor

(1) Joann. XIV, 21.

be ezpedi izu-ikaren bilduŕ izan; gudan kementsu ilteko gertuta egon gaitezan; eztayogun gure aintzari gerenik ezaŕi, gurutzeagandik iges egiñik.

# SASPIGAŔEN ZATIA

## Bide estutik yaŕaitu bear yako Josusi.

## LVII ATZALBURUA

### Iñor eztala laŕegi kikildu beaŕ, utsen batzuetan yausten danean

1. JOSUKISTOK.—Ene seme, zorion-aldian atsegiña ta eraspena baño, naigabe-aldian eroapena ta apaltasuna atsegiñago dodaz.

¿Zergaitik zure aurka zeuzertxo esateak goibeltzen zaitu?

Geyago izan balitz-be, etzintzakez artegatu beaŕ.

Baña orain igaroten itxi eyozu: ez lenengoa, ez baŕia, ezta azkenengoa be ezta izango, luzaroan bizi ba-zara.

Naigaberik yazoten etxatzunean, naikoa adoretsu izaten zara.

Onu (konsejo) onak emoten eta besteak itzez sendatzen badakizu; baña zure atera loŕak yo dauanekoxe, onu ta indaŕ barik gelditzen zara.

Gauza txikietan saŕi askotan nabaitzen dozun zeure makaltasunari begiratu eyozu; oŕaitio oneik eta onangoak yazoten direanean, zeure onerako yazoten dira.

2. Zure biotzetik al-daikezun ondoen kendu egizu; ta ukutu ba-dautzu, ez itxi kikiltzen eta luzaro naspiltzen.

Beintzat pozik ezin ba-dozu, eroapenez yasan egikezu.

Poz - pozik entzuten ezpadozu ta asaŕez irakiten ba-dozu be, ezi zaite; ta umeentzat yauspidea izan leitekenik, ez itxi zure aotik urteten.

Soŕtu yatzun urduri-aldia lasteŕ baretuko yatzu ta baŕuko samiña, eskaŕaren biuŕtzeagaz, eztituko yatzu.

Ondiño bizi naz (diño Jaunak) zuri laguntzeko ta besteetan baño geyago poztuteko gerturik, nigan zure ustea ezaŕi ta eraspenaz neuri dei egiñezkero.

3. Kementsuagotu zaite, ta gertu, geyago yasateko.

Sařitan lořez ta ziltza-latzez itota auřkitzen ba-zarą be, ezta ořegaitik dana galdu.

Gizasemea zara, ta ez Jaungoikoa; aragia zara, ta ez aingerua.

Onoimenean beti bat ¿zelan iraun zengike, zeruan aingeruak ta atsetegian (paradisuan) lenengo gizona ořetarako lain izan ezbaziran?

Neu naz negařtiak yarei (azke) eragiten dodazana, ta euren makaltasuna ezagutzen dabenak neure yaungoitasunera dakařdazana.

4. GOGO ZINTSOAK.—Jauna, onetsi bedi zure itza, nire aoarentzat abaraska ta eztia baño goxoagoa.

¿Zer egingo neunke, neure ainbeste loř ta lařialdi artean, zuk zeure itz deunakaz indařtuko ezpa-ninduzu?

Azkenean zeruko kaira eldu ezkero, ¿zer ardura daust zertzuk eta zeinbat yasan dodazan?

Amai ona emoidazu: ludi onetatik urtekera zoriontsua emoidazu.

Nitzaz gomutau zaite, neure Jaun-

goiko ori, ta bide artezetik zeure yaurerira (eŕeñura) zuzendu nagizu. Olantxe.

## LVIII ATZALBURUA

### Goitiko eta Jaungoikoaren erabagi estariak eztira azteŕkatu beaŕ

1. —Josukistok.—Ene seme, begiratu goitiko gayak eta Jaungoikoaren erabagi estariak eztabaika erabiḻi eztaizuzan; zer dala-ta urlia itxi dan eta sandia ainbesteko eskaŕera eragi dan; baita zer dala-ta au ainbeste atsekabetu, ta bestea ain gora yasoten dan be.

Oneik guztiok gizonen adimena baño goitikoagoak dira; ta Jaungoikoaren erabagia igaŕteko, ezta gauza, ez zuŕtasunik ez eztabaidarik.

Beraz oŕetaikoen bat arerioak belaŕiratzen dautzunean, ala gizon yakinguregien batzuk itanduten dautzuenean, Igarlearen arakoa erantzun eyozu: *Zuzena zara, Jauna, ta zure erabagia arteza da.* (1)

---

(1) Ps. CXVIII.

Baita au besteau be: *Jauna'ren erabagiak egitsuak dira, ta berez zuzenak.* (1)

Nire epayak bilduŕ izatekoak dira, ta ez eztabaidaka erabiltekoak; gizon-adimenentzat uleŕtu-eziñak dira-ta.

2. Etzaite asi deunen irabazteak arakatzen be, ala ezbaidakatzen; ia nor ete dan deunago, ala zeruko yaureŕian nor ete dan andiago.

Oŕetaikoak saŕitan alpeŕiko auzi ta buŕukak soŕtu, aŕokeria ta andipuzkeria azten dabe ta oŕtik bekaizkeri ta asaŕeak ernetan dira; batak deun bata, ta besteak beste bat, aŕokeriz, auŕenetsi gura daualako.

Onango yakin eta arakatu gureak eztakaŕe bape onik, ta deunak iguin dabez; enazalako Jaungoiko liskaŕtia, baketsua baño; ta bake au norbera gorestean baño, benetako apaltasunean geyago dago.

3.—Batzuk maitasun-leraz deun batzuekanako geyago zaletzen dira, besteakanako baño; baña Jaungoikoagan-

---

(1) Ps. XVIII, 10,

dik baño geyago gizonagandik soŕtuko leraz.

Deun guztien egiĺea neu naz; eskaŕa ta aintza neuk emon neutsezan.

Nik bakotxaren irabasteak ba-nenkizan; neure gozotasunaren oneskunakaz neuk auŕez geŕtu nebazan.

Nik, neure maiteak, aldi oro baño lenagotik ezagutu nebazan; neuk autu nebazan gizaŕtetik, ta eninduen eurak lenengo autu.

Neuk eskaŕez deitu, eŕukitasunez neugandu: neuk ziltzaldi askoen artetik igaro-erazo neuntsen.

Neuk atsegin zoragaŕiak izuri neutsiezan, neuk emon neutsen iraupena ta neuk saritu neban euren eroapena.

4. Nik lenengoa ta azkenengoa badazaudaz, ta igaŕi ezin besteko leraz laztantzen dodaz.

Ni neure deun guztietan goretsi beaŕ nabe; ni alik geyen onetsi ta goretsi beaŕ nabe bakotxagan, euren auŕetiko irabazte barik, ainbesteko aintzarako eregi ta autu nebazalako.

Augaitik neure txikienetaikoen bat ezesten dauanak, andia be eztau gor-

esten; *txikia ta andia neuk egin nebazan-eta.* (1)

Ta Deunen bat gitxitzat daukanak, neu be ta zeruko yaureŕian dagozan enparauak be gitxitzat daukaz.

Guztiak bat dira, maitasun korapil̄oz; guztiak eritxi ta nai batekoak dira, ta guztiak batean maite dabe alkaŕ.

5. Ta askozaz-be geyago dana, ni, euren buru ta irabazteak baño be maiteago nabe.

Euren ganera yagi ta euren buruaganako leratik aterata, niganako maitasunera igaro ta antxe goxo-goxo atseden dira-ta.

Andik kendu ala eratsi leikezanik eztago, betiko-egiaz batuta, ta itzali eziñeko maitasunean su-gaŕetan dagoz-ta.

Ixildu beitez, ba, gizon aragikoi ta aberetiak, deunen izakeraz eztabaidaka yardun barik, euren atsegiñak maitatzen baño eztakie-ta. Eurai deritxenez kendu ta ezaŕten dabe, ta ez betiko egiak atsegin dauanez.

---

(1) Sap. VI. 2.

6. Askogan ez-yakitea dago; batez be gogo-maitasun osoagaz norbait nekez maitatzen daben gitxi argituakan.

Oindiño asko, batzuekana edo beste batzuekana, berezko zaletasunak eta gizonegandiko adizkidetasunak darоez; ta zerukoak, luŕekoak deritxoen langoxeak direala uste dabe.

Baña gizon kirtentxoak asmau, ta goitiko agerkundez argituak ikusten dabenen aŕtean, bide andi-andia dago.

7. Begira ba, ene seme, zure yakituriaren ganetikoak yakin guraka ibil̄i etzaitezan; ekin, baŕiz, ta alegin guztia egin, Jaungoikoaren yaureŕian, txikiena zareała-be, egon al-zaitekezan.

Ta baten batek deunago ala zeruko yaureŕian andiago nor dan baleki be, yakite onek ¿zer onik egingo ete-leuskio, ezagutze onen bitartez, nire auŕean apaletsi ta nire izenaren gorespen andiagorako yagiko ezpalitz?

Deunen aŕtean zein dan andiagoa ala txikiagoa yakiteko eztabaidaka dabil̄ena baño, norbere obenen aztuntasunean, onoimen gitxitxo daukazala ta deunen bikaintasunetik uŕin dagoala

gogoratzen dauana, atsegiñago dau Jaungoikoak.

Oba da deunai eraspentsu ta negaŕez otoitz egitea, ta euren bitaŕtekotasun aundiari gogo apalaz deitzea, euren zadoŕak alpeŕiko yakingurez azteŕkatu baño.

8. Deunak ondo ta edeŕto asetuta dagoz, gizonak asetzen ta baŕikeriak eziten balekie.

Euren irabasteakaitik eztira aŕotzen, on bat be euren buruari eztautsielako ezaŕten, dana neuri baño; neuŕi bako maitasunez on guztia neuk emon neutsen-eta.

Jaungoikoaganako maitasunez ta gañezko pozez beterik dagozala, eztauke aintza-izkiren beaŕik, ta zoriontasunerako ezertxoren beaŕik euki be ezin leikie.

Deun guztiak aintzaz gorago, apalago euren eritxiz, ta niretzako uŕago ta maiteago dira.

Oŕegaitik idatzita daukazu: *euren burestunak Jaungoikoaren auŕean kentzen zituela, ta Bildotsaren auŕeau auz-*

*paztu zireala, ta len, orain, ta beti bizi dana yauretsi ebela* (1).

9. Asko dabiz Jaungoikoaren yaureŕian andiena nor dan yakin gurarik; txikienen artera saŕtzeko gai izango ete-direan eztakiela.

Gauza andia da, beintzat, zeruan txikiena izatea be; an guztiak andiak direalako, ta guztiai Jaungoikoaren semeak eritxiko yakelako, ta izango direalako.

Txikiena, mila aŕtean andia izango da, ta eun urtedun obendia ilgo da.

Zeruko yaureŕian andiena zein izango zan ikasleak itandu ebenean, erantzun au aŕtu eben: *Umetxoen antzeko biurtu ta egiten ezpazarie, etzarie zeruko yaureŕian saŕtuko.*

*Beraz umetxo onen antzera bere burua apalesten dauana, zeruko yaureŕian andiena axe izango da.* (1).

10. ¡Eŕukaŕiak, umeakaz apalestea gogoz gura eztabenak! zeruko ate apalak eztautselako sartzen itxiko.

---

(1) Apoc. IV, 10.

(1) Matth. XXVIII, 3-4.

Bai *¡eŕukaŕiak euren atsegiñak emen daukezan aberatzak-be!* (2) txiroak Jaungoikoaren yaureŕian sartu, ta eurak kanpoan uluka egongo direalako. Poztu zaiteze apalok, poz-yauzi txiroak, egi-bidean ba-zabize Jaungoikoaren yaureŕia zuona dozuelako.

## LIX ATZALBURUA

### Jaungoikoagan bakaŕik uste ta itxaropen guztia ezaŕi beaŕ dala

1. GOGO ZINTSOAK.—Jauna ¿zein da nire itxaropena bizitza onetan? Zerupean ikusten direanetatik ¿zein da niretzat atsegingaŕiena?

Ez ete-zara zeu, neuŕi bako eŕukia daukazun neure Jaun eta Jaungoiko ori?

¿Zu barik ¿non yoan yat niri ondo? Ala zu bertan izan ezkero, noz ibiḹi ete-naz txaŕto?

Gurago dot zure edeŕagaitik landeŕ (txiro) izan, zu barik aberatsa baño.

Luŕean zugaz aŕots-zuŕian bizi obe-

(2) Luc. VI. 24.

tzat daukat, zu barik zerua eukitea baño.

Zu non, antxe zerua; ta zu etzagozan tokian, antxe eriotzea ta gaiztokia (inpernua).

Zure gose-egaŕi naz, ta oŕegaitik zure atzean zotin, deadaŕ ta otoitz egin beaŕ dot.

Azkenean, ene Jauna, eztaukat iñortxo be neure beaŕ-izanetan garaizago urgazi legiskedanik, beragan neure uste osoa ezaŕteko, zeu bakaŕik baño.

Zu zara nire itxaropidea; zu nire ustea; zu nire pozkiḹe ta adizkiderik zintzoena.

2. Guztiak norberearen biḹa dabiz; zuk neure osasuna ta auŕerakuntzea bakaŕik gura dozuz, eta dana neure onerako biuŕtzen daustazu.

Askotariko ziltzaldi ta zoritxaŕetan yaŕten nozunean-be, neure onurarako aŕtezten dozu dana; zeure autuak askotara azteŕkatzen dozuz-ta.

Olango azterketean eztozu gitxiago maitatu ta goretsia izan beaŕ, zerutiko atsegiñez beteko ba-ninduzu baño.

3. Zeugan, Jaun eta Jaungoikoa,

neure itxarobide osoa ta legoŕpea ipinten dot-ba; zeure eskuetan yaŕten dodaz neure loŕ ta laŕialdi guztiak; zugandik ataz dakustan dan-dana, makal ta aldakoŕ auŕkitzen dot-eta.

Adizkide askok eztauste onik egingo; ezta laguntzaīe azkaŕak be eztauste urgazi al-izango; ezta aolkari (onulari) zuŕak erantzun egokia emon be; ezta yakitunen idaztiak poztu-be; ezta basteŕ eskutu ta atsegintsuak zaindu-be; zeuk lagundu, urgazi, inđaŕtu, poztu, irakatsi ta zaintzen ezpa-nozu.

4. Bake ta zoriontasunerako dirudien gauzak, eztira ezer, zu ezpazagoz bertan; ta eztakaŕe benetan zorion-pitzik be, zeu uŕin izan ezkero.

Zu zara, ba, on guztien gonburua, bizitzearen gaīuŕa ta itzen zakontasuna; ta gauza guztien ganetik zugan itxarotea, zure otseñentzat atsegin sendo-sendoa da.

Zeuganantza yasoten dodaz neure begiok, zeugan itxaroten dot, ene Jaungoikoa, eŕuki-Aita.

Onetsi ta gurendu (santutu) egizu nire gogoau, zerutiko onespenaz, zeure

biztoki deuna ta zeure betiko aintzearen aulkia izan daiten; ta zeure begiok iguin izan leikien ezer eztaiten aurkitu, Andia zarean oren yauretxe onetan.

Zeure onberatasun-anditasunari ta erukiaren ugaritasunari dagokionez begiratu egidazu; ta iluntasun ta eri-otza-erian, urin erbestetuta dagoan zeure otsein onen otoitza, entzun egizu.

Bizitza ustelkor onen ainbeste gora-beratan, otsein onen gogoa yabon eta zaindu egizu; ta, zeure eskara lagun dala, bake-bidetik betiko argiaren aberirantza zuzendu egikezu. Olantxe.

# LAUGAŔEN IDAZTIA

## Opa-maiko Ikuŕtona

## LENENGO ZATIA

### Jauna-aŕtzeko deia

KISTOREN OTSA.—*Erdue neugana nekatu ta zamatuta zagozen guztiok, ta neuk arinduko zaituet*, diño Jaunak. (1)

*Nik emongo dodan ogia, neure aragia da, ludiaren (munduaren) bizitzarako. (2)*

*Artu ta yan: auxe da zuon alde emongo dan neure gorputza: auxe neure gomutaz egikezue.* (3)

*Nire aragia yan ta nire odola edaten dauana nigan dago, ta ni beragan.* (4)

---

(1) Matth. XI, 28.
(2) Joan VI, 52.
(3) Matth XXVI, 26 — 1. Cor. XI, 24.
(4) Joan VI-57.

*Nik esan dautzuedazan itzok gogo ta bizitzea dira.* (1)

# I ATZALBURUA

## Zelako itzaląz ařtu beař dan Kisto

1. IKASLEAREN OTSA.--Kisto, betiko Egia, oneik zure itzak dira; aldi baten esan ta leku baten idatzi ezpazirean be.

Beraz, zureak eta egizkoak direalako, eskařtsu ta zintzo ařtu beař dodaz.

Zureak dira, zuk esan zinduzalako, baita neureak-be ba-dira, neure osasunerako esan zenduzan-eta.

Zure aotik gogoz ařtzen dodaz, neure biotzari bařurago itsatsi dakiozan.

Ezti ta beraz beteriko ořen itz samuřok adoretzen nabe; baña neure gaiztakeriak bilduř-ikaratzen nabe, ta ořen zadoř (eskuṭuki) andiak ařtzetik, bařu loyak atzeratzen nau.

Zure itz-eztitsuak zirikatzen nabe, baña neure ekandu txař ugariok nagitzen nabe.

(1) Joan VI, 64.

2. Zugana uste osoaz yoateko agintzen daustazu, zure eŕkide izan gura ba-dot, ta ilezkoŕtasun yanaria artzeko, betiko bizitzea ta aintza yadetsi gura ba-dot.

*Erdue* diñozu, *neugana nekatu ta zamatuta zagozen guztiok, ta neuk arinduko zaituet* (1).

¡Onexek bai badira obendiaren (pekatariaren) belaŕientzako itz gozo ta maitagaŕiak! ¡Zuk, neure Jaun eta Jaungoiko oŕek, ezeuki ta txiroari zeure Gorputz deun-deuna yatera deitzea!

Baña ¿nor naz ni zugana eltzen asaŕtzeko?

Ara, zeru zabalak ezin zaituela aŕtu, ta zuk diñozu: *Erdue neugana gustiok.*

3. ¿Zer esan gura dabe oŕen onberatasun samuŕ eta oŕen dei laztan oŕek?

¿Zelan asaŕtuko naz zugana yoaten, ustetsu izateko ezer onik neure baŕuan ezpadakust?

¿Neure etxean zelan saŕtuko zaitut, zure begi samuŕ-samuŕak saŕitan mindu dodazan onek?

---

(1) Matth. XI, 28.

Aingeruak eta Goiaingeruak zure begirunez dagoz, deun ta zindoak zure bilduŕ dira; ta zuk diñozu: *Erdue nigana gustiok.*

Jauna, zeuk ori esango ezpazendu ¿nork sinestuko ete leuke?

Ta zeuk aginduko ezpazendu ¿nor asaŕtuko litzake uŕeratzen?

4. Arako gizon zindo Noek, kutxa egitean eun urte emon ebazan, bertan gitxigaz gaizkatzeko (salbetako); ta ni zelan ordutxo baten gertau nindeke guztien Egiĺea begirunez aŕtzeko?

Zure otsein aundi ta adizkide baŕuko Moises'ek ol ustel-eziñakaz kutxa bat egin ta uŕe uts-utsez estaldu eban, Lege-olak bertan ipinteko; ta ni izaki ustel au, zu, Legearen Egiĺe ta bizitzearen Emoĺe ori, ain eŕaz aŕtzen asaŕtuko ete naz?

Salomon'ek, Israelgo bakaldunik (eŕegerik) yakitunenak, saspi urtean Jauretxe edeŕ-edeŕa egin eban zure izenaren aintzarako.

Ta eskintza-yayak zortzi egunean ospatu ebazan; miĺa bake-opari eskiñi ebazan ta itunben-kutxa, beretzako

atonduta egoan tokian, adaŕ-oska ta ijuika, ospaz yaŕi eban; ta nik, eŕukaŕi ta gizonen aŕtean txiroen onek, ¿zelan neure etxean saŕtuko zaitut, eraspentsu ordu-erditxo nekez igaroten dodan onek? ¡Ta ordu-erdia be iñoiz alosotxo igaroko ba-neu!

5. ¡Ene! neure Jaungoikoa, arek bai egin zituela alegiñak zuri atsegin izateko!

¡Ai ene! ¡nik egiten dodan gitxi! ¡A dan labuŕa, Jaunaŕtzeko gertatzen emoten dodan aldia!

Gitxitan neure baŕuan oso bilduta ta gitxitan bape zabaŕtu barik.

Ta benetan, zure yaungoikozko arpegi onuragaŕiaren auŕean elitzakit burutasun zantaŕik otu beaŕ, ezta izakien bategaz arazotu-be; neure etxean ez aingeruen bat, aingeruen Jauna baño aŕtuko dot-eta.

6. Onetzaz gañera Itunben-kutxatik bere baŕukoakaz, ta zure Gorputz garbi-garbiraño, berari yagokozan onoimen ezin-esanakaz; eta etoŕkizuneko iruditzat ipiñiko beñolako lege-oparietatik, ta antxiñeko opari guztien bete-

tasuna dan zure Gorputzaren benetako opariraño, bitarte luzea baño luzeagoa dago.

7. ¿Zergaitik-ba zure aurean enaz geyago isiotuten?

Antxiñeko Erkaba (Patriarca) ta Igarle, baita Bakaldun (erege) ta Nagusiak-be, euren eri guztiaz yauresku-txarako ain beratsu agertu bazirean, ¿zelan ardura aundiagoagaz enaz gertuten, zu Ikurtonean artzeko?

8. Dabid Bakaldun (Erege) Jaungoiko-zale andiak, asabai egindako mesedeak gogoraturik, indar guztiakaz Jaungoikoaren kutxa - aurean jantzan egin eban: askotariko ereskiñak egin zituan; eresiak (salmos) atara ta pozez abesteko agindu eban, ta berak be, Gogo deunak bultzauta, maniuraz (zitaraz) lagundurik saritan abestu ebazan; ta Israelgo eriari biotz-biotzez Jaungoikoa goretsi ta ao batez egun bakoitzean onetsi ta ospatzen irakatsi eutsan.

Orduan ainbeste eraspen ba-egoan, ta Itunben-kutxa aurean Jaungoikoa goresteko ainbesteko ardurea ba-euken,

¿zelango begirune ta eraspena euki beaŕ ete-dogu, nik eta kistaŕ guztiak, Ikuŕton auŕean, ta Josu-kistoren Goŕputz bikaiñ-bibaña aŕtzean?

9. Asko leku askotara yoan doaz Deunen gorpuzkiñak ikusteaŕen, ta euren egintzak entzunda, aŕituta gelditzen dira; euren eleiz zabalak ondo ikuskatzen dabez; eta aŕeun (seda) ta uŕez estalduta dagozan aen azuŕ gurenai mun egiten dautsie.

Ta ona emen berton, neure auŕeko opal-mayan (aldaran) zagoz zu, neure Jaungoikoa, deunik-deunena, gizonen Egiĺea ta aingeruen Jauna.

Olangoak ikustera gizonak saŕitan yakin-miñak, iñoiz ikusi bakoak ezautu gureak daroaz, ta obetza gitxi atara oi dabe; batez-be batera ta bestera, buru ariñaz, benetako damu barik dabizanean.

Emen, baŕiz, opalmaiko (aldarako) Ikurtonean, neure Josu maite ori, oso-osoan zagoz, Jaungoiko ta gizon; berton, beaŕ dan besteko gertaera ta eraspenaz aŕtzen zarean bakoitzean, betiko osasunerako uzte yoria aŕtzen da.

Ta onetara eztaragi ez arinkeri, ez yakin-min, ez aragikeriak; siñesmen sendo, itxaropen eraspentsu ta maitasun zintzoak baño.

10. ¡Ene Jaungoikoa, ludiaren (munduaren) Egiĺe estaria, zuk bai ařigaři badiarduzu gugaz; zein samuŕ ta esku-zabal erabagi daroazun zeure autuakaz; eurai zeu Ikuŕtonean yanaritzat aŕtu zayezan eskiñirik!

Au adimen guztien ganetikoa da; onek zuganatzen dauz Jaungoiko-zaleen biotzak, ta euroen lerea sutan ipinten dau.

Euren bizikera osoa obetzen diarduen zure yaŕaitzaĺe zintsoak, Ikuŕton guren-guren onetatik eraspen-eskaŕa ta onoimen-maitasuna saŕitan aŕtzen dabe.

11. ¡Zein ařigaři ta estaria dan Kistoren yaŕaitzaĺe zintsoak bakaŕik dazauen Ikuŕton onen eskaŕa ta estaria! Siñeste bakoak ta obenaren otseñak, baŕiz, ezin leye asmau be.

Ikuŕton (sakramentu) onetan gogozko eskaŕa emoten da; ta galduriko indaŕa baŕiro biotzeratzen da, ta obenak

ezainduko ederŕtasuna baŕiro etoŕten da.

Gogoak ez-eze, goŕputz makalakbe, isuri yakon eraspen-betetasunetik indaŕ ugariagoak emon yakozala asmatzerañoko aundia izaten da batzuetan eskaŕ au.

12. Baña tamalgaŕi ta negaŕgaŕi da gure epelkeri ta nagikeria, Josukisto aŕtzera lera aundiagoz ezkaroazalako, zeruratuko direanen itxaropen eta irabazte osoa bera izanda.

Gure donekuntza (santifikaziño) ta zeru-bidea bera dalako; bera bidarien (erbeste onetakoen) pozkiña ta deunen (santuen) betiko atsedena.

Oso negaŕgaŕi da beraz, askok, zerua poztu ta ludiari (munduari) eusten dautson zadoŕ (eskutuki) osasuntsu oneri ain yaramon gitxi egitea.

¡Gizon-biotzaren itxukeri ta gogoŕkeria! ¡ain emoi gurenari yaramon geyago ez egitea, ta, egunoro erabiliagaitik, bera aztuterano eltzea!

13. Ikuŕton deun-deun au toki baten bakaŕik ospatuko ba-litz, eta ludi osoan yaupari (abade) batek bakaŕik eskiñiko

ba'leu, toki oŕetara ta Jaungoikoaren yaupari oŕegana zelango yoranez gizasemeak yoango litzakezala uste dozu, yaungoikozko zadoŕok (eskutukiak) ospatzen ikusteaŕen?

Oiñ, baŕiz, yaupari asko dagoz eta leku askotan eskinten da Kisto, Jaunaŕtze deuna ugariago ludian (munduan) zabaldu dan neuŕiz, eskaŕ ugariagoa ta gizonaganako Jaungoikoaren maitasuna geyago agertu daitezan.

Eskaŕak zuri, Josu on ta betiko artzain oŕi, gu txiro ta aŕotzok (erbestetuok) zeure Goŕputz ta Odol bikañez yanaritzeko ain samuŕa izan zarealako; ta baita zeure aotik urtendako itzakaz zadoŕ (eskutuki) oneik aŕtzera deitu zeunskulako-be, esanaz: *Erdue neugana nekatu ta zamatuta zagozen guztiok, eta neuk arinduko zaituet* (1).

---

(1) Matth. XI. 28.

# II ATZALBURUA

## Ikuŕton onetan gizonari Jaungoikoaren ontasun eta maitasun aundia agertzen yakozala

1. Ikaslearen otsa. — Jauna, zure ontasun ta eŕukitasun aundian ustea daukadala, ni gaxoa, Osagiľeagana, gozez eta egaŕiz bizitza-ituŕira, ezeukia zeruko Bakaldunagana (eŕegeagana), otseña Jaunagana, izakia Egiľeagana, ta atsekabetua neure pozkiľe eŕukitsuagana natoŕkizu.

Baña ¿nondik niri zu nigana etoŕtea? ¿Nor naz ni, zeu zarean ori niri emoteko?

Obendia (pekataria) zelan asaŕtuko da zure auŕean auŕkezten? Ta zu obendiagana etoŕterańo ¿zelan beratzen zara?

Zure otseña ezagutzen dozu zuk, ta mesede au berari egiteko beragan ezer onik eztaukala badakizu.

Neure txatxaŕkeria beraz autoŕtzen dot, zure ontasuna ba-dazaut, zure

eŕukia goratzen dot, ta zure maitasun laŕegiagaitik eskaŕak dagitzudaz.

Au zeugaitik, ez neure irabazteagaitik, egiten daustazu ba-ta; zure ontasuna ezaunago, maitasuna euŕezago isuria. eta apaltasuna bixañago izan dakidazan.

Zuk au atsegin dozulako ta zuk olan egiteko agindu dozulako, neuk be atsegin dot ba, zu oŕen adeitsu izatea: ¡ta nire gaiztakeriak ez al daust eragotsiko!

2. ¡Ene Josu guztiz eztitsu ta biotz bigun ori! Zeinbesteko itzel andi-andia ta zeinbesteko eskaŕ ona, betiko gorespenakaz, zoŕ yatzuzan, bere anditasuna atzaltzekorik auŕkitzen eztan zeure Goŕputz guren-gurena aŕtzeagaitik.

Baña ¿zer oldoztuko (pentzauko) dot oraingo Jaun-aŕtze onetan, neure Jaunagana uŕeratzeaz, bera beaŕ dan bestean guŕtu ezin, ta alan-be eraspenaz aŕtu gura dodala?

¿Zer burubide obe ta onuragaŕiagorik, neure burua zure auŕean apaletsi ta zure niganako neuŕibako onberatasuna goretsi baño?

Onetsi ta beti goresten zaitut, ene Jaungoiko ori; neure burua ezesten dot ta neure txatxaŕkeri-sakontasunean menperatzen nayatsu.

3. Zu, deunik (santurik) deunena zara, ta ni obendi zikiña.

Zugana begiak yasoteko be lain enazan oneganaño makuŕtzen zara zu.

Zu nigana zatoz, zuk nigaz egon gura dozu, zure maira deitzen daustazu.

Zuk niri yateko emon gura daustazu zerutiko Janaria ta *aingeruen ogia*, ez besterik, zeu zerutik yatsi ziñean ta gizaŕteari bizia emoten dautsazun ogi bizi ori baño! (1).

¡Aiko amen, maitasuna nondik soŕtzen dan; zelango adeya (onberatasuna) agiri dan: norañoko gorespen eta eskaŕak zoŕ yatzuzan eurokaitik.

Ikuŕton au irasi (yaŕi) zenduanean, zuk izan zendun asmo osasun ta onuragaŕia! ¡A zan oturuntza eztitsu ta goxoa, zeu yanaritzat emon ziñeana!

¡Zure egintzak direan aŕigaŕiak! ¡Zu-

---

(1) Ps. LXXVII, 26.

re indaŕa dan indaŕtsua! ¡Zure egia dan uts-eziña!

Itz egin zendun eta guztiak egin zirean, eta agindu zendun axe egin zan.

5. Gauza aŕigaŕi ta siñestekoa ta giza-adimen ganetikoa da, zu neure Jaun eta Jaungoiko ori, benetako Jaungoiko ta gizon izanik, ogi ta ardao puska irudipean oso-osorik egotea, ta aŕtzen zaituanak, zeu aitzeka, yatea.

Zuk, gauza guztien Jauna zarean ta ezeren beaŕik eztaukazun oŕek, zeure Ikuŕtonen bitartez gure aŕtean bizi gura izan dozu.

Neure biotza ta neure goŕputza orban barik yagon egikezuz, baŕu alai ta garbiagaz saŕiago zure zadoŕak (eskutukiak) ospatu al dagidazan; eta batez-be zeure gorespen eta betiko gomutakitzat aŕteztu ta yaŕi zendun Ikuŕton (sakramentu) au, neure betiko osasunerako aŕtu dagidan.

6. Poztu zaite neure gogoa ta eskaŕak egin Jaungoikoari, negaŕ-eŕi onetan oŕen emai bikain eta berebiziko atsegiña itxi yatzuzalako.

Zadoŕ (eskutuki) au gogoratu ta

Kistoren Gořputza ařtzen dozun bakotxean, zeure bеřeroskundea bařiztu, ta Kistoren irabaskide egiten zarealako.

Kistoren maitasuna gitxitu ta bere eřuki aunditasuna agořtu, iñoz be eztira egiten-eta.

Augaitik beti gogoa bařizturik, gertu beař dozu ořetarako, ta osakuntza-zadoř aundi au arduraz gogoan erabiľi.

Ain aundi, bařі ta atsegingařia eritxi beař yatzu Mesea emon ala entzuten dozunean; egun atan Kisto lenengoz zerutik Ama Gizkarbiaren (Birjiñaren) sabelera yatsi ta gizon egin bailitzan, ala gurutzetik eskegita, gizonen gaizkakunderako, yasan (sufridu) edo ilgo bailitzan.

## III ATZALBURUA

### Ondo dala sařitan Jauna ařtzea

1. Ikaslearen otsa.—Zugana natoř, Jauna, zure emaiak on egin daistan, ta zuk Jaungoiko ořek, zeure samuřtasunez txiroai atondu zeuntsen zure oturuntza deunean, poztu naiten.

Ořa oř, zugan dago gura daikedan

ta beaŕ dodana; zu nire osasuna ta beŕerospena, zu nire itxaropena ta sendotasuna, zu nire dedu ta aintza.

*Poztu egizu ba gauŕ, zure otseñaren gogo au, Zugana, Josu Jauna, neure gogo au eragi dot-eta.* (1)

Oraintxe eraspentsu ta itzaltsu aŕtu gura zaitut; zu neure etxean aŕtzeko yoranez nago, Zakeok lez; zure onespena (bendiziñoa) ta Abraam-semetzat aŕtua izatea irabazi daidan.

Nire gogoa zure Gorputzaren gose da, nire biotzak zugaz batzea gura dau.

2. Zarean ori emon zakidaz ta naikoa yat; zu barik atsegin asekoŕik eztago-ta.

Zu barik ezin neiteke izan, ta zure ikustaldi barik ezin neiteke bizi.

Oŕegaitik saŕitan zugana eldu ta neure osabidetzat (remedio) artu beaŕ zaitut; bidean yausi enadin, zeruko yanaria kenduko balitzakit.

Zeuk-ba, Josu eŕukitsu oŕek, eŕiari irakasten ta askotariko gatxak osatzen ziñaŕduala esan zendun: *eztodaz*

---

(1) Ps. LXXXV. 1.

*etxera baraurik bialdu gura, bidean aunatu eztaitezan.* (1)

Olantxe, beraz, neugaz be orain egikezu, ziñestedunak pozteaŕen Ikuŕtonean gelditu ziñean oŕek.

Zu zara-ba, gogoaren yanari gozoa: ta beaŕ dan lez yango zaituana, betiko aintzaren erkide ta oñordeko izango da.

Ain saŕitan yausi ta oben egiten dodan onek, ta aiñ eŕaz epeldu ta kikiltzen nazan onek, saŕitako otoitza, autoŕkuntza ta zure Gorputza aŕtzeaz neu baŕiztu, garbitu ta ixiotu beaŕa dot; luzaroan Jauna aŕtu barik egon eskero, asmo deunetik alde egin eztaidan.

3. Gizonaren sentsunak edo asmamenak gazte-gaztetatik gaiztakerira etzanak dagozalako; eta Jaungoikoaren osakaya (remedio) lagun ezpayatoŕko, gizasemea geroago ta txaŕagoetara labantzen dalako.

Beraz, yaunaŕtzeak gatxetik uŕindu ta onean sendotu egiten dau.

Ta orain, Jauna-aŕtu ala Mesea emo-

---

(1) Matth. XV, 32.

ten dodala, onen sařitan nagi ta epel ba-nago, ¿zer izango ete litzake osakaya ařtu ez, ta ain laguntasun aundiaren bil̄a ezpanenbil?

Ta egunoro Mesea emoteko gai ala ondo gertuta izan ezařen be, ořaitio garai egokietan Jaungoikozko zadořak (eskutukiak) ařtzeko eta ořenbesteko eskařaren erkide izateko ekingo dot.

Gogo zintsoaren atsegin nagusiena, gorputz ilkořagaz zugandik uřin bizi dan ařtean, auxe dalako: bere Jaungoikoaz sařitan gomutaurik, biotz eraspentsuaz bere maitea ařtzea.

4. ¡Zure eřukiaren guganako adeya dan ařigařia! ¡Zuk, Jaun eta Jaungoikoa, gogo guztien Egil̄e ta Bizkořtzal̄e ořek, gogo gaxoagana etoři ta bere gosea, zeure Jaungoikotasun ta gizontasun osoaz, asetzea!

¡Zoriontzu ta zorioneko gogoa, zu, bere Jaun eta Jaungoikoa, eraspenez ařtu al-zaituana, ta zu ařtzean, gogozko pozez betetan dana?

¡Benetan Jaun aundia ařtzen dau, ařotz (kanpotař) maitea etxeratzen dau, lagun laztana beragantzen dau,

adizkide zintsoa aŕtzen dau, maitale edeŕ ta gurena laztantzen dau, guztien aŕtean maiteena ta maitagaŕi guztien ganetik maitatzekoa!

Zure auŕean (neure kutun-kutun ori) ixilik begoz zeruak eta luŕak eta euroen apain guztia; goreskaŕi ta edeŕgaŕitzat dauken dana, zure esku zabaletik aŕtu dabe-ta; ta amaibako yakituria daukon zure izenaren aintzaraño iñoz-be eztira elduko-ta.

## IV ATZALBURUA

### Jauna eraspentsu aŕtzen dabenai on asko emoten yakiezala.

1. Ikaslearen otsa. — Neure Jaun eta Jaungoikoa, zeure gozotasunezko onespenez auŕendu zayakoz zure otseñari, zure Ikuŕton altsura beaŕ danez ta eraspenez uŕeratu al naiten.

Nire biotz au zeuganantza bultzau egizu ta lozoŕo gogoŕ onetatik itxaŕtu nagizu, Ikuŕton onetan, ituŕian lez, oso-osorik ostenduta dagoan zure gozotasuna gogoz muxtatu daikedan.

Baita neure begiok-be argitu egista-

zuz onenbesteko zadoŕari (eskutukiari) begiratzeko, ta siñeste sendo-sendoaz siñesteko, sendatu nagizu.

Zuk egiña dalako, ez giza-almenak; zure iraskuna, zuk yaŕikoa, ez gizonen asmakizuna.

Gotzonen adimen zolia goitzen dauan au aitu ta uleŕtu leikeanik eztago-ta.

Ta nik obendi (pekatari) ergel onek, luŕa ta auts onek ¿zer egin ta uleŕtu al neinke zadoŕ oŕen goiko ta deun oŕetzaz?

2. Jauna, biotz zintzoz, ta siñeste on eta sendoz, eta zure aginduz uŕeratzen nayatzu, eta bene-benetan siñezten dot zu emen Ikuŕtonean aurkitzen zareala, Jaungoiko ta gizona.

Beraz aŕtu zaidazala ta zeugaz, maitasun bitaŕtez, bat egin naitela gura dozu.

Oŕegaitik zure biotz eŕukitsuari eskatzen dautsat, ta onetarako berarizko eskaŕa emon dagistazun otoizka (eŕeguka) naukazu, zure maitasunez urtu ta ganez egiteko ta beste iñongo atsegiñen ardurarik ez izateko.

Ikuŕton goi-goiko ta guren-guren au,

gorputzaren eta gogoaren osasuna, gogoaren gatx guztien osakaya da-ta.

Bertan neure ekandu txaŕak osatu, giriñak ezitu, ziltzaldiak azpiratu ala gitxiagotzen dira; eskaŕ ugariagoa izuriten da, ekandu on asi-baŕia geitu, siñismena sendotu, itxaropena indaŕtu ta maitasuna sutu ta zabaltzen da.

3. Eraspenez Jauna aŕtzen daben zure kutunai ogasun asko emon dautsezuz, eta oindiño be saŕitan emoten dautsezuz-ta, Ikuŕtonean, neure Jaungoikoa, neure gogoaren aŕtzal̄ea, giza-makaltasunaren osagil̄e ta baŕuko atsegin guztien emol̄ea.

Askotariko loŕen auŕka atsegin yoria isuriten dautsezu -ba; ta euren kikilkeri sakonetik zeure laguntasuna itxarotera eragi dozuz, ta eskaŕ baŕi bategaz euren baŕuak poztu ta argitzen dozuz; onan lenengo laŕi ta Jauna aŕtu auŕetik epel egozanak, gero zeruko yan-edariz sendatuta, obera aldatuta auŕkitzen dira.

Ta onan diarduzu zeure autuakaz; eurekandik zeinbeste makaltasun dauken eta zugandik zeinbeste on eta es-

kaŕ yadesten daben, benetan ezagutu eta argiro nabaitu (sentidu) dayen.

Berez otzak, gogoŕak eta eraspen bakoak izanik, zuketz sutsu, alai eta eraspentsuak izatea irabasten dabe-ta.

Ezti-ituŕira gogo-apal eldu ezkero, nok atara ez bertotik ezti-tantakadatxu bat?

¿Ala nor, su aundiaren alboan egon ezkero, ezta zeozer berotuko?

Ta zu, ituŕi bete ta yori-yoria zara beti; beti gaŕetan dagoan sua, ta iñozbe itzaliten eztana.

4. Oŕegaitik ituŕi betetik ura aŕtzen izten ezpayat, ezta asetu aŕterano edaten be, oŕaitio zeruko odi (kañu) zuloan neure aoa ipiñiko dot, ango ur tantakadatxo bat beintzat aŕtu dagidan, neure egaŕia asetzeko ta guztiz igaŕtuta ez gelditzeko.

Ta oso zerutikoa ta Yakitun (kerubin) eta Sudunak (serafin) bezain gaŕtsu ezin izan ba-naz be, oŕaitio alegiña egingo dot eraspenari eragoten eta biotza gertuten, Jaungoikoaren sugaŕetatiko txingartxoen bat, Ikuŕton bizigaŕi au apal aŕturik, neuganatzeko.

Baña nik uts dodan edozer, zuk, Josu on eta Gaizkatzale deun-deun oŕek, samuŕ ta uŕurik (debalde) ornidu egikezu, zeugana guztiai deitzeko aña adeitsu izan ziñean ba-ta, esan zenduanean: *nekatu ta zamatuta zagozen guztiok erdue neugana, ta neuk arinduko zaituet.* (1)

5. Nik-ba, arpegi-izerditan beaŕ egiten dot; biotz-miñez oñazetuta nago; obenez zamatuta; ziltzaldiz (tentaziñoz) artegatuta; giriña askogaz naspildu ta laŕituta, ta ez daukot nork lagundu, ezta nork azkatu-be estualdi onetatik, ez nork gaizkatu (salbau), zuk, neure Jaun eta Jaungoiko ta neure Gaizkatzale oŕek, izan ezik; zuri, ba, nazan eta neure gauza guztiak leporatzen dautzudaz, zaindu ta betiko bizitzara eroan nagikezun.

Zeure izenaren gorespen eta aintzarako aŕtu nagizu, zeure Gorputza ta Odola yanari ta edaritzat ipiñi zeunstazan oŕek.

Neure Jaungoiko Jauna ta Gaizka-

---

(1) Matt-XI-28.

tzalea, zure zadoŕara (eskutukira) saŕitan uŕeratuaz, neure eraspen-lerea mardotzea emoistazu.

# BIGAŔEN ZATIA

# Jauna-aŕtzeko gertakuntzak

## V ATZALBURUA

### Ikuŕtonaren aunditasuna ta Jauparien (abade) bikaintasuna

1. MAITEAREN OTSA.—Aingeruen garbitasuna ta Jon Ugutzariaren gurentasuna (santutasuna) ba-zeunkaz be, Ikuŕton au aŕtu, nai erabilteko gai etzintzakez izango.

Gizonak Kistoren Gorputza iskindu (konsagrau) ta erabili ta aingeruen ogia yanaritzat aŕtzea, gizonaren irabazteari zoŕ yakona ezta-ta.

Zadoŕ aundia da au, ta jauparien bikaintasuna gurena; aingeruai emon etxakena, eurai emon yake-ta.

Eleizean arauz yaupalduko Jaupariak bakaŕik mezea emon eta Kistoren

Gorputza iskintzeko (konsagretako) eskubidea daukelako.

Jauparia benetan Jaungoikoaren ordezkoa, Jaungoikoaren erabagiz eta aginduz Jaungoikoaren itzak darabiltzana da; baña ango egiłe nagusi ta estaria, bere menpean dana daukon -eta bere aginduei danak men - egiten dautsen Jaungoikoa da.

2. Beraz Ikuŕton bikain-bikain onetan zure eritxiari ta ezaupide ikusgaŕien bateri baño, guztia al dauan Jaungoikoari geyago ziñestu beaŕ datsazu. Ori dala-ta, zadoŕ onetara bilduŕez eta begirunez uŕeratu beaŕ da.

Ondo auznaŕtu ta begiratu egikezu gotzañen (apezpikoen) eskuak ezaŕtetik zelango eskubidea emon yatzun.

Aiko, jaupari egin zara, ta mesea emoteko yaupaldu zaitue; arduratu zaitez-ba, zintzo eta eraspenez garai egokitan Jaungoikoari opari au eskinteko, ta zeu agirakagaŕi ez agertzeko.

Eztozu zeure zamea (kargea) arindu, korapiło estuagoaz lotu ta gurentasun (santutasun) bikañagora igoteko egin-beaŕa leporatu baño.

Onoimen guztiakaz apainduta egon beaŕ dau jaupariak, eta besteai eredu (ejenplu) onak emon.

Bere yardunbideak eztau izan beaŕ gizabaŕ ta geyentsuen antzekoa, zeruko aingeruen edo luŕeko gizon zindoen idekoa baño.

3. Jauparia, yaupa (mesa)-soñekoz yantzita, Kistoren ordezkoa da, bere buruaren eta eŕi guztiaren alde Jaungoikoari otoitz-eskaria apal egiteko. Bere auŕean eta atzean gurutz-irudia dauko, Kistoren nekaustea (Paziñoa) beti gogoan erabiĺi dayan.

Auŕean, yaupa yanzkian (kasuĺean) gurutzea daroa, Kistoren oñatzak arduraz begiratu ta berari sutsu yaŕaitzeko.

Bere atzean-be gurutzea daroa, lagun-urkoen irañak eroapenez, Jaungoikoagaitik, yasateko.

Bere auŕean gurutzea daroa, bere obenakaitik negaŕ egiteko; bere atzean daroa, besteen obenakaitik negaŕ-egiteko, ta Jaungoikoaren eta obendiaren bitaŕtekotzat ipiñita dagoala yakin dagian.

Ta otoitz egiteari ta oparia eskintzeari eztayon itxi, Jaungoikoagandiko eskaŕ eta eŕukia yadetsi aŕte.

Jaupariak mesea emoten dauanean, Jaungoikoa goretsi, aingeruak poztu, Doibatza (Eleizea) bizkoŕtu, biziai lagundu, ildakoari atsedena emon ta bere burua on guztien erkide (participante) egiten dau.

## VI ATZALBURUA

### Jauna aŕtu baño len zelan yardun beaŕ dan itanduten da

1. IKASLEAREN OTSA. — Jauna, zure bikaintasuna ta neure txatxaŕkeria gogoratzen dodazanean, ikaraz dardaraka ta lotsatuta nago.

Zugana ezpa-noa, bizitzatik iges noa; ta txaŕto auŕkezten banayatzu, irain egiten dautzut.

¿Zer egingo dot, beraz, neure Jaungoikoa, neure urgazlea ta neure laŕialdietarako onularia?

Bide zuzena erakutsi egistazu, Jauna; Jaunaŕtzerako iñaŕkun labuŕ eta egoki bat erakutsi.

Onuragaŕi da ba, zure ikurton au onuraz aŕtzeko, ala onen opari andi ta Jaungoikozko au eskintzeko, neure biotza eraspentsu eta begirunez zelan gertu beaŕ dodan yakitea.

## VII ATZALBURUA

### Norbere baŕua arakatzea ta ontzeko asmoa.

1. MAITEAREN OTSA.—Ikuŕton au eskiñi, erabili ta aŕtzeko biotz apala, itzal eraspentsua, siñesmen osoa ta Jaungoikoa goresteko asmo zintsoa beaŕ-beaŕezkoenak ditu Jaungoikoaren jaupariak.

Zeure baŕua arduraz arakatu egizu, ta benetako damuaz eta autoŕkuntza apalaz, al dozunez, garbitu ta argitu egizu, oben aztunen batek be artegatu etzaizan ta zadoŕ (eskutuki) onetara etoŕera azkea galazo eztaitzun.

Zeure oben guztiai goŕoto izan eyezu, baña batez be, zeure eguneroko utsegiteakaitik damutu ta negaŕ egizu.

Ta astirik ba-daukozu, zeure girin

łotsakeri guztiak biotz-bařuan Jaungoikoari autořtu eyozuz.

2. Negař egin ta samindu zaite, ondiño ořen aragikoi ta mundukoi zareałako; giriñetan ořen gordiña, iřits-eragikunez ořen betea.

Asmamenak (sentsunak) zaintzeko ořen alpeřa; irudikeriz ořen sařitan naspildua.

Atetikoetara ořen etzana, bařutikoetarako ořen nagia.

Ořen eřaza bağe ta ijuijirako; ořen gogořa negař eta damurako:

Nasaikeri ta aragikerietarako ořen zolia, ta ořen alpeřa laztasun ta eraspenerako.

Bařiak entzun eta edeřak ikusteko ořen iřitsua; apal eta zatařak laztantzeko ořen otsa:

Ořen ogasun goseti; emoteko ořen itxikin. Erakusketan ořen txoliña; ixiłaldian ořen ezin-ixiła.

Ořen nasaya ekanduetan; ořen erabakoa egiteetan.

Yateko ořen saloa, ta Jaungoikoaren itzarentzako ořen gořa.

Atsedenerako oŕen zolia, ta lanerako oŕen motela.

Bařiketarako oŕen itzařik; oŕen logura gau-otoitzetan.

Amaitzeko oŕen ariña, adi egoteko oŕen nagia.

Otoitzetan oŕen itxia; oŕen epela mezea emoten; oŕen legoŕa Jauna-aŕtzean.

Oŕen eŕaz baŕayatua, oŕen gitxitan guztiz zeugan bildua.

Oŕen ariña asaŕerako, oŕen eŕaza besteak naigabetzeko.

Ebazteko oŕen etzana, agiraketan oŕen zoŕotza.

Zorionekoetan oŕen pozik, zoritxaŕetan oŕen goibel.

Oŕen saŕitan onak asmatzen; oŕen meatz burutzen.

3. Oneik eta beste zure utsuneak, zeure makaltasunaren buruzko min eta iguin andiagaz autoŕtu ta negaŕ egin ezkero, zure bizikerea beti ondu ta onbidean auŕeratzeko asmo sendoa aŕtu egikezu.

Eta gero, etsipen osoagaz eta gogo beteagaz, neure izenaren aintzarako eskiñi zakidaz, zure biotzeko opa-ma-

yan, betiko oparitzat, zure gorputza ta gogoa zintzo neure ardurapean ezaŕirik.

Onan oparia, beaŕ danez, Jaungoikoari eskintea ta neure Gorputz ikuŕtona onuraz aŕtzea irabazi daizun.

4. Eztago ba eskintza edeŕagorik, ezta obenak kentzeko ordaintza aundiagorik be, norbera utsik eta osorik, jaupean (mesean) eta Jauna-artzean, Kistoren Gorputzagaz Jaungoikoari eskintea baño.

Gizonak bere eskuan dagoana egin eta damutzen baldin ba-da, eskaŕ eta parka-eske datoŕen bakotxean: *Bizi naz*, diño Jaunak, *eztodala gura obendiaren (pekatariaren) eriotzea, nigana biurtu ta bizi daitela baño;* (1) *bere obenaz enazalako gomutauko*; (2) guztiak, ostera parkatuko yakoz-ta.

---

(1) Ezec, XXXIII, 11.
(2) Hebr. X, 17.

# VIII ATZALBURUA

## Kistoren gurutzeko buru-eskintea ta norbere ukoa.

1. MAITEAREN OTSA. —Besoak zabalik eta Gorputza bil̄osik, zure obenen ordañez, Aita Jaungoikoari kurutzean neure burua nik eskin̄i neutson lez, ezertxo be Nigan gelditu barik eskintzeka, Bere asaŕea ibituteko,

Olantxe zeu-be, mezea emotean, egunoro zeure indaŕ eta lera guztiakaz, gogoz eta albait osoen, opari garbi ta deuntzat, eskin̄i beaŕ zayataz.

¿Zer eskatzen dautzut leyazago, zarean guztia osorik neure eskuetan iztea baño?

Zu barik emoten daustazun edozer eztot gura, enabil̄elako zure emoyaren bil̄a, zeure bil̄a baño.

2. Neu barik gauza guztiak eukiaŕen, naikoa izango elitzakizun letxe; alantxe zeu izan ezik eztot atsegin emon dakedazun edozer.

Zeu eskin̄i zakidaz eta Jaungoikoa-

ren ordez osorik emon zakidaz, ta zure oparia begiko izango da.

Aiko, ni Aitari zure alde osorik eskiñi nintzakion, ta baita neure Gorputza ta Odola be jan-edaritzat emon nebazan, ni osorik zurea izan nendin ta zu nigan izan zindezen.

Baña zeugan gelditzen ba-zara, ta neure naitara gogoz eskinten ezpazara, zure oparia ezta osoa, ta gure arteko batasuna ezta batasun osoa, izango.

Ořegaitik azkatasuna ta eskařa yadetsi gura ba-dozuz, zure egikizun oroen auřetik Jaungoikoaren eskuetan zeure burua gogoz eskiñi beař dozu.

Euren bařuz argitu ta azkatuak ain gitxi onexegaitik dira ba; euren burua zeatz ukatzen eztakielako.

Auxe da nire erabagi sendoa: *norbaitek guzti - guztiak izten ezpaditu, neure ikaslea ezin izan leiteke.* (1) Ořegaitik, ba, zuk nire ikaslea izan gura ba-dozu, zeure lera guztiakaz eskiñ zakidaz.

# IX ATZALBURUA

## Geure burua ta geure guztiak Jaungoikoari eskiñi beaŕ dautsaguzala ta guztien alde otoitz egin

1. Ikaslearen otsa.--Jauna, zeruan eta luŕean dagozan guztiak zeureak dira.

Neure burua gogozko oparitzat zuri eskiñi ta beti zurea irautea gura dot.

Jauna, nazan au gauŕ betiko otseintzat, adiguritzat eta betiko gorespen-oparitzat, biotz xaloz, eskinten dautzut.

Ikusi ezaŕen, berton dagozan aingeruen auŕean gauŕ eskinten dautzudan zeure Gorputz bikain-bikañezko opari gurenagaz batera, neu be aŕtu nagizu, neure ta eŕi osoaren onerako izan dedin.

2. Zure eŕuki-opamaian eskinten dautzudaz, Jauna, oben egiten asi nintzan egundanik oraintxeraŕte zure ta aingeruen auŕean egin dodazan oben

eta gaiztakeri guztiak; zure maitasun-gaŕetan guztiak batera eŕe ta kiskaldu daizuzan, eta neure obenen orban guztiak kendu daistazuzan eta neure baŕua gaistokeri guztitik garbitu daizun; eta oben egiñaz galdu neban eskaŕa baŕiro emon daistazun; dan-dana azketsi (parkatu) ta zeure eŕukiz aŕtzen nozula bake-munera.

3. Nik neure obenen ordañez zer egin nengike, apal eta negaŕez autoŕtu ta eten-barik zure eŕukiaren eske egon baño.

Neure Jaungoikoa, zure auŕean nago ta eŕukiz entzun naizula, aŕen, eskatzen dautzut.

Neure oben guztiak goŕoto dodaz; eztodaz baŕiro iñoz be egin gura, damu dot, eta bizi nazan artean damu izango dot, eta oben-nekea bete ta al dodanez ordaintzeko, gerturik nago.

Azketsi (parkatu), ene Jaungoikoa, azketsi neure obenak zeure izen deunagaitik; gaizkatu zeure odol bikañagaz erosi zendun nire gogo au.

Ona emen, zure eŕukipean yaŕten naz; zure eskuetan izten naz.

Egin nigaz zure ontasunari dagokionez, ta ez nire gaiztakeri ta zitalkeriari zoŕ yakonez.

4. Baita neure on guztiak-be, gitxi ta zirtzil̄ak izan aŕen, eskinten dautzudaz, zeuk obetu ta gurendu daizuzan; ontzat aŕtu ta zeuretzako atsegingaŕi egin daizuzan, ta beti obetik obera eroan daizuzan; baita ni gizontxo nagi ta baldres au betiko zoriontasunera eroan nagizun-be.

5. Baita Jaungoiko-zaleen gurari deun guztiak eta neure guraso, adizkide, anai, aŕeba, neure laztan guztien beaŕ-izenak eta zure edeŕagaitik niri nai iñori on-egin dauskuenen beaŕ izenak be eskinten dautzudaz.

Baita nik euren eta euren guztien alde otoitzak eta mezak eskintea gura ta eskatu daustenak be, naiz biziak naiz il̄ak direala.

Guztiak zure eskaŕ-laguntasuna, pozaldi urgazia, aŕiskuetatik ta nekeetatik azkapena datoŕkela oaŕtu dayen ta gatx guztietatik atera ta eskaŕ ugariak zuri pozik egin daitzuezan.

6. Baita otoitzak (orazinoak) eta

eŕukizko opariak be eskinten dautzudaz, batezbe zeozertan kalte, atsekabe nai irain ala ezbeaŕ ala gaitzen bat egin daustenen alde.

Baita neuk iñoz atsekabe, loŕ, neke ta yauspideen bat, itzez ala egitez, yakitez ala ez yakitez, emon neutsenen alde be, guztioi geure obenak eta bata besteaganako bidebakokeriak azketsi dagiskuzuzan.

Kendu egizu, Jauna, gure biotzetatik edozelako susmo, asaŕe, tika-mika ta maitasuna eragotsi ta senitaŕteko lerea gitxiagotu leikean edozer.

Eŕukitu, Jauna, eŕukitu, zure eŕukia eskatzen dabenakaz, emon eskaŕa beaŕ dabenai, ta zure eskaŕa aŕtzeko ta betiko bizitzara yoateko gai egin gaizuz. Olantxe.

# IRUGAŔEN ZATIA
# Saŕitako Jaun-aŕtzea

## X ATZALBURUA

### Jaun-aŕtzea eztala eŕaz itxi beaŕ

1. MAITEAREN OTSA.—Eskaŕ eta Jaungoikozko eŕuki-ituŕira, ondasun eta gaŕbitasun guztiaren ituŕira, saŕitan yoan beaŕ dozu; zeure giriña ta ekandu gaiztoetatik osatu zaitekezan eta txeŕenaren ziriketa ta maltzuŕkeri guztien auŕka egiteko sendoago ta bizkoŕago egotea irabazi daikezun.

Arerioak, igali (frutu) ta osakairik aundiena Jaunaŕtzean dagoala yakiñik, siñistedun eta Jaungoiko-zaleak uŕindu ta eragozten, beti ta al-dauan bestean, ekiten dautso.

2. Ori dala-ta, batzuk Jaunaŕtze deunerako geŕtuten asten direaneko, txeŕenaren ziriketa, len baño txaŕagoak, yasaten ditue.

Gogo-uts gaizto berbera, Job'en idaztiak diñoanez, Jaungoikoaren semeen artera datoŕ, oi dauan zitalkeriz

artegatu ala bildurtiegitu ala laritzeko; onan, euren eraspena epeldu ta gogor -egiñaz, siñesmena kendu gurarik; ia bear bada Jaunartzea guztiz itxi ala epel artzen ete daben.

Baña oren zitalkeri ta irudikerien ardurarik ezta euki bear, izan leikezan zantar ta ikaragarienak izanda be; irudikeri guztiak bere burura yaurti baño.

Zorigaiztoko oneri iri ta bare egin bear yako, ta Jaun-artze deuna ezta itxi bear, berak eragiten dituan zaparada ta ekatxak gora-bera.

3. Baita askotan eragozten dau eraspena, bera lortzeko ardura laregiak eta autortzeko yoran lariak be. Jakitunak dirautzuenez yardun egizu, ta kezka ta engarak alde batera itxi, Jaungoikoaren eskara galazo ta gogoko eraspena kentzen dabe-ta.

Kezka nai nekealdi pitiñen bategaitik Jaunartzea ez itxi; zoaz bai autortzera, ainbat ariñen, eta besteak egin dautzuezan irain guztiak gogoz parkatu eyezuz.

Baña zeuk norbait iraindu ba-dozu,

azkespena (parka) apal eskatu eyozu, ta Jaungoikuak pozik azketsiko dautzu.

4. ¿Zer onik dator̃ autor̃tzea asko belutu ta Jaun-ar̃tzea atzeratzetik?

Ainbat ariñen garbitu zaite, len baitlen edena (berenoa) yaur̃ti egizu, ta beingoan osakaya ar̃tu, ta obetoago aurkituko zara, luzaroan geroratuko ba-zendu baño.

Gaur̃, au ala ori dala-ta izten badozu, bear̃ bada biar̃ko zerbait andiago agertuko da, ta onan Jaun-ar̃tzeko geyago eragotzita ta gertaera gitxiagoaz aur̃kituko zindekez.

Oraingo nagikeri ta lazakeri ori, ainbat bizkor̃en, yaur̃ti egikezuz; kezkaz eta artega luzaroan ibil̃iagaz ezebe eztozulako irabaziko, ezta egunoroko eragozpenakaitik Jaungoikozko ikur̃tonetatik alde egiñaz be.

Jaun-ar̃tzea luzaroan atzeratzeak, bar̃iz, kalte aundia egiten dau; or̃ek nagikeri aundia ekar̃i daroa-ta.

¡Au dan negar̃gar̃ia! Epel eta nasai batzuk autor̃tzea pozik beranduratzen dabe ta, euren gogoa ardura geyago-

gaz zaindu beaŕa ez eukiteaŕen, Jaunaŕtzea luzatu gura dabe.

5. ¡Ain eŕez Jaun-aŕtzea luzatzen dabenak daukeen maitasun uŕia ta eraspen motela!

Benetan zorionekoa ta Jaungoikoarentzat atsegingaŕia da, ziŀegi balitzakio ta zarata barik egin al baleu, egunean-egunean be Jaunaŕtzeko aña gertuta ta leratsu dagoana, oŕetarako bestean ondo bizi ta bere baŕua gaŕbi zaintzen dauala.

Apaltasunez aia bidezko zeren batek eragotzita, Jaunaŕtzea nozik-bein norbaitek izten ba'dau, txalogaŕia da ori, bere begirunagaitik.

Baña apuŕka-apuŕka epeltasuna saŕtu ba'yako, bere burua bizkoŕtu ta berak al dauana egin bear dau; ta asmo onari, batez-be, begiratzen dautson Jaungoikua, bere gurari onari laguntzen etoŕiko yako.

6. Baña bidez eragotzita dagoanean be, Jaunaŕtzeko gogo ona ta asmo zintzoa beuko; ta olan ezta Ikuŕtonaren igali (frutu) barik geldituko.

Edozein Jaungoiko-zale, onauŕkiz ta

VITORIA

gebenik barik gogoz Jaunaŕtzera, egunoro ta ordu guztietan eldu leiteke-ta.

Baña egun batzuetan eta aginduta dagoan garayan, bere Gaizkatzal̄earen Gorputza itzal samuŕaz, ikuŕtonez, aŕtu beaŕ dau, ta norbere atsegiña baño geyago Jaungoikoaren aintza ta dedua (honor) bil̄atu.

Kistoren Gizakunde-zadoŕaz (eskutukiaz) ta nekausteaz gomutau ta bere maitasunean ixiotzen dan bakotxean, gogoz Jaun-aŕtzen dau ta ikusteka alikatzen da.

7. Jai-eguna datoŕenean ala oitureak eraginda baño gertuten eztana, saŕi-askotan aurkituko da gertatzeka.

Zorionekoa Mesa-emote naiz Jaunaŕtze bakotxean norbera Jaungoikuari oparitzat eskinten yakona.

Mesa-emotean etzaite izan ez astiroegi ez ariñegia, zugaz bizi direanen erara egin baño.

Besteentzat eztozu izan beaŕ ez nekegaŕi ez gogaikaŕi; nagusien aginduz guztientzat ipiñita dagoan bideari jaŕaitu baño, ta zure eraspen eta lereari

baño geyago, besteen onerako danari begiratu.

## XI ATZALBURUA

### Kistoren Gorputza ta Idazti deuna gogo zintzoak beaŕ-beaŕak dituala

1. Ikaslearen otsa.—Ene Josu, Jaun guztiz goxoa, zein aundia dan benetan gogo eraspentsuaren gozotasuna, zeugaz zeure mayan bazkaltzen dauanean! An etxako beste yatekorik auŕkezten zeu baño, bere maite bakaŕa, bere biotzak gura leikenik guragaŕiena.

Ta egiz niri goxo izango litzakit zure auŕean biotz-biotzetik negaŕ-malkoak isuritea, ta Matale yaungoikozaleaz zure oñak negaŕ-malkoz bustitea.

Baña ¿olango eraspenik non ete dago? ¿Non negaŕ-malko deunen isuritze ugaria?

Benetan zure ta zure aingeruen auŕean nire biotza ixiotu, ta pozen-pozaz negaŕ egin beaŕ leuke.

Bene-benetan Ikuŕtonean bertan zau-

kadaz-ta, beste zerbaiten antz-azpian estalduta bada be.

2. Zeure Jaungoikozko argitasunean zuri begiratzea ezingo leukielako yasan nire begiak, ezta ludi (mundu) guztiak be ezingo leuke iraun zure aintzazko aunditasunaren disdisera auŕean.

Neure makaltasuna ondo dakizula, beraz, estaltzen zara ikuŕtonean.

Egiz zeruan aingeruak jauresten daben berbera daukot eta yauresten dot; baña nik ondiño siñesmenez; aek, bańiz, ikustez eta estalki barik.

Benetako siñismenaren argitan egon eta beragan ibiltea pozik aŕtu beaŕ dot nik, betiko egunaren aŕgia agertu ta irudien kerispeak iges egin aŕtean.

*Baña on-osoa datoŕkenean* (1), Ikurtonak aituko dira; zeruan zorionekoak eztabelako beaŕ ikuŕtonen osakairik.

Jaungoikoaren auŕean, bere aintza arpegiz-arpegi dakusela, pozez ganezka dagoz-ta, ta Jaungoikotasun-lezean argitatik-argira erabil̄ita, gizatuko (gi-

---

(1) 1.ª Cor. XIII-10.

zon-egingo) Jaungoikoaren Itza, askaldidanik izan zan eta beti izango dan letxe, gozaŕtuko dabe.

3. Ařigaři guztiok gogoraturik, edozein atsegin, gogozkoa izanda be, gogaikaři yat; ludian ikusi ta entzuten dodan edozer ezereztzat daukadalako, neure Jauna, bere aintzan, argiro ikusi arterano.

Zu, ene Jaungoiko ori, yakitun zagoz ezek be ezin poztu, ez izakien batek ezin asetu nengikela, betiraun guztian ikusi gura zaitudan, neure Jaun ořek baño.

Baña au eziña da, aragi ilkoŕ onetan bizi nazan artean.

Ořegaitik gibel-aundia beaŕ dot eta gurari orotan zeure menpean ezaři neure burua.

Jauna, ba, zeruko yaureřian (ešeñuan) zugaz dagozan deunak be, luřean bizi zirean artean, siñesmen eta eroapen aundiaz egon zirean, zure aintzaren etořerearen begira.

Eurak siñestu ebena nik be siñesten dot; eurak itxaron ebena nik be itxaroten dot; eurak eldu direan tokira nik

be, zeure eskafaren bitartez, eltzeko ustea daukat.

Bien bitartean, deunen ereduakaz sendaturik, siñesmen bidetik ibiliko naz.

Idazti deunak be atsegin eta eginbidetzat eukiko dodaz; eta gauza guzti onein ganetik, zure Gorputz guren-gurena berebiziko osakai ta legofpetzat eukiko dot.

4. Gauza bi, batez be, bizitza onetan bear bearak yatazala ba-dakit-eta; eurok barik bizitza negargari au ezin yasango neuke.

Gorputz onetan lotuta nagoala, gauza bien beara daukadala autortzen dot; au da, yanari ta argi-beara.

Zeuk gogo ta gorputz-yanaritzat zeure Gorputz gurena emon zeunstan, beraz, gaxo oneri; eta *neure oñen argitzat, zeure itza ipiñi zendun.* (1)

Oneik biok barik ezingo nintzake ondo bizi, Jaungoikoaren itza nire gogoaren argia dalako, ta zure Ikurtona bizitza-ogia.

---

(1) Ps. CXVIII-105.

Oneik biok Eleiz-deunaren ogasuntegiko alde batean eta bestean ipiñiko mai biak direala be esan leike.

Bata opamai gurena da, ogi gurena, au da, Kistoren Gorputz bikaña daukana: b e s t e a Jaungoikoaren legearen maya da; ikasbide deuna daukana, siñesmen zuzena irakasten dauana, ta gurenik gurenena dagoan estalki-bařu-bařurano eskieř garoazana.

Eskařak, Josu Jauna, betiko argiaren argi oři, zure otsein, Igařle, Bidaldu (Apostolu) ta beste Irakasleen bitartez emon zeunskun ikasbide gurenaren mai onegaitik.

5. Eskařak zuri, gizonen Egiĺe ta Biřerosle oři; ludi (mundu) osoari zure maitasuna adierazoteko, opari aundi bat atondu zendulako ta bertan, ez irudizko bildotsa, zeure Gorputz guren-gurena eta odola baño, yan-edateko ipiñi zenduzalako; atseden-tokiko atsegin guztiak daukazan oturuntza guren onetan kistař guztiak poztu ta ardao osasuntzuaz mozkořtzen dozuzala ta, gozotasun zoriongařiagoagaz bada be, aingeru gurenak geure maikide doguz.

6. ¡Zein guren eta dedugaŕia dan Jauparien egin beaŕa! Goiko Jauna itz gurenakaz izkindu, espanakaz onetsi, eskuetan euki, bere aoan aŕtu ta besteai banantzeko eskubidea eurei emon izan yake-ta!

¡Zein txukun eskuak, ta zein garbi aoa, zein guren gorputza, zein orban barik biotza euki beaŕ dauzan garbitasun - Egil̄ea ainbestetan bere baŕura saŕtzen yakon yaupariak!

Kistoren Goŕputza ain saŕitan aŕtzen daben yaupariaren aotik eztau ezek urten beaŕ, itz deun, garbi ta onuragaŕiak baño.

7. Bere begiak, Kistoren Gorputza ikusten daben ezkero, xalo ta garbiak; bere eskuak, zeru-luŕaren Egil̄ea darabil̄en ezkero, garbi ta zerurontz yasoak.

Yauparieí batez be esaten yake Legean: *Gurenak izan zaiteze, ni zuen Jaun eta Jaungoikoa gurena naz-eta* (1).

8. Zure eskaŕak lagundu bekigu, ene Jaungoiko alguztidun ori, jaupari

---

(1) Lev. XIX-2.

-egintzea leporatu dogunok, beaŕ danez eta eraspenez, biotz garbiz eta baŕu onaz, zure moŕoiketan yardun daigun. Ta beaŕ geunken besteko bizikera eŕubakoan ezin yardun badogu be, egindako gaiztakeriakaitik beaŕ dan beste negaŕ egitea emon eiskuzu, ta gogo apalaz eta asmo onaz, oindik auŕerantzean, zuri gogotsuago otsein-egiteko laguntasuna emon eiskuzu.

# LAUGAŔEN ZATIA

# Jaunártze deunerako gertaera.

## XII ATZALBURUA

### Ardura aundiaz gertu beaŕ dauala Kisto aŕtuko dauanak.

1. MAITEAREN OTSA.—Ni, garbitasun-zale ta gurentasun osoaren emoleа naz.

Ni, biotz garbiaren bila nabil, eta antxe daukat neure atsedentokia.

Apari-gela aundi ta apaindu bat atondu egidazu, ta zugan Igarotza (Paskoa) ospatuko dot neure ikasleakin.

Ni zugana etoŕi ta zugan gelditzea gura badozu, orantz (levadura) zaŕa bota, ta zure biotzeko egotokia garbitu egikezu.

Gizakeri (mundu) ta ekandu txaŕen iskanbil guztia uŕindu zeugandik: txori bakaŕa lez yezaŕi zaite teḹatuan, eta zure geyegikeriak gogo gaŕaztasunean auznartu egikezuz.

Maitatzaḹe edonok bere maite kutunari tokirik onen eta edeŕena gertu oi dautso-ta. Onetan ezagutzen dalako kutuna etxeratzen dauanaren maitasuna.

2. Baña yakin egizu, onango gertaerarik ezin irabazi zeinkela zeure egitadeaz, urte betean gertuten ekinaŕen, besterik gogoan euki ezta be.

Baña bakaŕik neure eskar eta eŕukiagaitik izten yatzu neure maira eltzen; aberatsak eskeko bateri bere maira deituko baileuskion, ta eskekoak mesede au ordaintzeko bere burua apaletsi ta eskaŕak egitea baño ezpaileukan.

Zuk al dozuna ta zoli egizu, ez oituraz, ez beaŕez; bilduŕez, begirunez eta leraz baño aŕtu bear dozu zugana etoŕteko adei dan Kistoren Gorputza.

Neu naz deitu ta etoŕteko agindu neutzuna; zeuk eztaukazuna, neuk emongo dautzut; erdu ta artu nagizu.

3. Eraspen-eskaŕa damotzudanean, zeure Jaungoikoari eskaŕak egiozuz; ez atarako gai zarealako, zutzaz eŕukitu nazalako baño.

Eraspenik ezpadaukazu ta agoŕik aurkitzen ba-zara, otoitzari ekin sendo, negaŕ egizu ta atea yo, ta ez geldi egon, eskar biŕin ala osabiderako tantakaden bat aŕtzea irabazi arte.

Zuk nire beaŕa dozu, ez nik zurerik. Etzatoz zu ni gurentzera be (santu egitera): Ni, ostera, zu gurendu ta ontzera natoŕkitzu.

Nik gurendu ta neugaz batu zagidazan zatoz, eskaŕ baŕia artu daizun ta baŕiro ontzeko ixiotzera.

Ez egikezu eskaŕ au ezetsi, zeure biotza al-dozun ardureagaz gertu ta zure kutuna zeure baŕuan aŕtu baño.

4. Egoki yatzu, ez bakaŕik Jaun-aŕ-

tze aur̃ean eraspentsu izateko gertutea, baita Jaun-ar̃tze ondoren eraspen ori zeugan ardura zoliaz zaintzea-be. Bear̃ezkoa bada gertaera eraspentsua, ezta Jaun-ar̃tze-ondoren bear̃-izan gitxiagokoa; ondorengo ardura ona, eskar̃ ugariagoa yadesteko, gertaerarik onena dalako.

Ta bar̃iz, beingoan atetiko atsegiñetara itsumustuan doana, gertaera bape barik gelditzen da.

Bar̃iketatik ur̃indu zaite, toki ixil̃en batera bazter̃tu ta zeure Jaungoikoaz gozar̃tu zaite; ludi (mundu) guztiak ezin kendu daiketzuna daukozu-ta.

Neuri oso-osorik emon bear̃ zayataz, emendik aur̃erantzean ez zugan, neugan baño ardura barik bizi zaitezan.

## XIII ATZALBURUA

### Gogo Jaungoiko-zaleak Ikur̃tonean Kistogaz batzea biotz-biotzez gura bear̃ dauala

1. Ikaslearen otsa.—¿Nok emongo daust, Jauna, zu bakar̃ean aur̃kitzea, neure biotz osoa zuri zabaltzea ta nire

gogoak nai dauan bestean zugan gozaŕtzea; ta onezkero iñork be ez ezestea, ez izakien batek zirkiñik eragitea nai yaramonik egitea; maitatzaleak maiteagaz itz-egin, ta adizkidea adizkideagaz poztu oi dan lez, zuk niri ta nik zuri bakaŕik itz-egitea baño?

Auxe eskatu ta auxe gura dot, zuri oso-osorik batzea,. ta neure biotza, egindako gauza guztietatik uŕinduta, Jaunaŕtzez ta saŕitan mesea emonaz, zerukoak eta betikoak obeto muxtatzen ikasi daidan.

¡Oi! ene Jaun eta Jaungoikoa ¿noz egongo naz zugaz bat egiñik eta zugan murgildurik eta neutzaz guztiz azturik?

Zu nigan eta ni zugan, eta onan biok bat eginda irautea emon egidazu.

2. Egiz *zeu zara nire kutuna, askoren artean autua* (1) ta zeugaz neure bizitzako egun guztietan bizitea, atsegingaŕi yako neure gogoari.

Egiz, zeu zara nire baketzalea, bakerik aundiena ta benetako atsedena

(1) Cant. V-10.

zeugan dago; zu barik, neke ta miña ta azkenbako zoritxaŕa.

*Egiz, zu zara Jaungoiko ostendua* (1) ta gaiztoakin aŕtu-emonik eztaukazu; apal eta xaloakaz dira zure autuak.

*Ene Jauna, zure gogoa dan estitsua, zeure semeenganako gozotasuna adieɪazoteaŕen zerutık yatsiko ogi gozo-gozoaz eurak yanaritu gura izan dozuz-eta.* (2)

*Egiz, eztago beste eŕi ain aundirik bere Jaungoikoak onenbeste uŕeratzen yakozanik, zu, gure Jaungoiko ori, siñistedun guztiai uŕeratzen zayakozan beste* (3); eurai yanaritzat eta gozogaŕitzat emoten zayakez, egunoroko atsegiña euki dayen eta biotzak zerura yaso dayezan.

¿Non dago ba Kristiñauen eŕia besteko ain eŕi bikañik?

¿Ala zein zerupeko izaki, bere aragi aintzatsuz yanaritzeko Jaungoikoa saŕ-

---

(1) Isai. XLV-15.

(2) Doibatzak Joskoŕputz eguneko aŕendian.

(3) Deut. IV-7

tzen yakon gogo Jaungoikozalea bezain laztanik?

¡Eskaŕ ezin esana! ¡Ontasun aŕigaŕia! ¡Neuŕigabeko maitasuna, gizasemeari berariz emona!

Baña ¿zer emongo dautsat Jaunari, eskaŕ onen ordañez, onenbesteko maitasunaren ordez?

Atsegin izango dauanik ezin emon nengikeo, neure biotza oso-osorik beretzat emon eta berari gogoz batzea baño.

Orduan esango daust: zuk nigaz egon gura ba-dozu, nik zugaz egon gura dot. Ta nik erantungo dautsat: Jauna, aŕen, neugaz gelditu zaite, nik zugaz pozik egon gura dot-eta.

Nire gurari guztia auxe da, nire biotza zuri batuta egon dedila.

# XIV ATZALBURUA

## Jaungoiko-zale batzuen Kistoren Gorputza arítzeko gurari gaŕtsuak

1. Ikaslearen otsa. —*Jauna, zure bilduŕ direanentzat ostendu dozun gozotasuna dan yoria.* (1)

Eraspen ta lera andi-andiaz zure Ikuŕtonera datoŕtzuzan Jaungoiko-zaleak gogoratzen dodazanean, saŕitan, neure baŕuan alke ta lotsatzen naz, zure opamaira (altarara) ta Jaun-aŕtzeko maira aiñ epel eta otz noalako.

Ain legoŕ eta lera barik lotzen nazalako; zure auŕean, Jauna, sugaŕetan enagoalako; eta Jauna-aŕtzeko euren gurari sutsuak ala biotz-maitasun eŕeak eraginda, negaŕa ezin gelditu eben Jaungoiko-zale askoren bezain indartsuak eztirealako nire Jaun-aŕtzerako atsegintasuna ta lerea.

Zugana, ene Jaungoiko ori, ituŕi bizi oŕegana, aoz eta biotzez eltzeko iŕitsetan bizi zirean, zure Gorputza goxota-

---

(1) Ps. XXX, 20.

sun betean eta gogo gosegaŕiaz aŕtu ezik, euren gose-egaŕia ezin ebelako ez gitxitu ez asetu.

2. ¡Aen egiazko siñesmen gartsua bai bada, zu bertan zagozanaren ezaupide argia!

Onexek dira benetan Jauna *ogia ebatean* (1) ezagutzen dabenak; Josu eurekaz dabilelako, euren biotza sugaŕetan dauke.

Saŕi askotan olango lera ta eraspena ta oŕen maitasun indartsu ta gaŕtsua uŕin dago nigandik.

Eŕuki zakidaz, Josu on, biotz-bigun eta eŕukitsu ori; ta zeure eskeko oneri nozipein emoyozu zure maitasun pitin bat, biotz-biotzez, Jauna aŕtzean nabaitzea; nire siñesmena sendatu daiten, nire itxaropena zure ontasunean geitu daiten, eta maitasuna bein ondo ixiotu ta zeruko mana zer dan yakin ezkero, iñozbe eztaiten itzali (amatau).

3. Indaŕtsua da ba, zure eŕukia niri gura dodan eskaŕa emoteko ta go-

---

(1) Luc. XXIV, 35.

go-beroaz zuk gurako eguna datoŕen-ean, ni eŕukiz ikertzeko.

Ta berebiziko zeuretaŕen gurariakaz goriĺuta ezpa-nago-be, zure eskaŕaren bitartez ain gurari berotsuaren guraria badaukat beintzat; olango zure maitatzaĺe berotsuen erkide izan eta euren aŕtekotzat aŕtu nadin gura ta eskatzen dodala.

## XV ATZALBURUA

### Eraspen - eskaŕa apaltasunaz eta norbere-ukoz yadesten dala.

1. Maitearen otsa — Eraspen-eskaŕa ekin eta ekin biĺatu, biotzez eskatu, eroapen eta usteaz itxaron, eskaŕ onez aŕtu, apaltasunaz zaindu, ta bera lagun dala arduraz lan egin bear dozu, Jaungoikoa datoŕen arte, berari goiko ikeŕpen-garai ta erea itxirik.

Batezbe, apaletsi beaŕ dozu, baŕuan eraspen gitxi ala bapez nabaitzen (sentiduten) dozunean; baña ez laŕegi kikildu ala era barik itundu.

Saŕitan, Jaungoikoak luzaroan ukatu ebana, unetxo baten emon daroa.

Baita batzuetan otoitz-asieran ukatu ebana be, atzenean emon daroa.

2. Arin emongo balitz beti eskaŕa, ta norbere gurari-neuŕiz ba'lego, gizaseme makalak ezingo leuke ondo eroan.

Oŕegaitik, uste onaz eta eroapen-apalaz eraspen eskaŕari itxaron beaŕ yako. Ta emon ez, ala igaŕtzeka kentzen ba'yatzu, zeure buruari ta zeure obenari eŕua ezaŕi.

Batzuetan zirtzilkeri bat da, eskaŕa eragotzi ta estaltzen dauana, zirtzilkeri-izena emon al balitzakio, ta ez aundiarena, ain ondasun aundia eragozten dauanari.

Baña zirtzil nai andi ori kendu ta ondo aspiratzen ba'dozu, eskatu dozuna eukiko dozu.

3. Biotz-biotzez Jaungoikoari emoten zayakozanean eta, zeure naya dan lez, onen edo aren bil̄a ibil̄i barik, bere eskuetan izten dozuzanean, gogobildu ta baretuta aurkituko zara; Jaungoikoaren gurea baño beste ezertxorik etxatzulako izango goxo ta atsegin.

Beraz, norbaitek bere asmoa Jaungoikoagana biotz xaloz yaso, ta bere

biotzetik edozertarako maitasun ta iguin oker guztiak kentzen ba'dauz, eskaŕa aŕtzeko ondo gerturik egongo da, ta eraspen-bezuzarako lain izango da.

Utsik auŕkitzen dauzan ontzietara bere oneskuna (bendiziñoa) Jaunak isuri daroa-ta.

Ta norbaitek zirtzilkeriak geyago ukatu ta norberen ezespenez iIagotzat yaŕi, ta lasteŕago datoŕ eskaŕa, ugariago saŕtzen da, ta biotz azkea gorago eragiten dau.

4. Orduan ikusiko dau, ganezka egingo dau, aŕituko da ta zabalduko yako biotza, Jaungoikoaren eskua beragaz dagoalako ta Jaungoikoaren eskuetan betiko yaŕi zalako.

Alantxe onetsiko da, biotz-biotzez Jaungoikoaren biIa dabiIena ta bere gogoa alpeŕik aŕtu eztauana.

Onek, Jauna aŕtzen dauanian, jaungoikozko batasunerako eskaŕ ugaria irabazten dau; bere eraspen eta atsegiñari eztautsolako begiratzen, eraspen eta atsegin oroen ganetik Jaungoikoaren aintza ta deduari (onŕea) baño.

# XVI ATZALBURUA

## Gure beaŕ-izanak Kistori agertu ta berari eskaŕa eskatu beaŕ dautsagula.

1. Ikaslearen otsa.—Ene Jaun guztiz samuŕ eta maitagaŕi ori, oin eraspenez aŕtu gura zaitudana; zuk bai-dakizu nire makaltasuna ta nik daukadan beaŕa; zeinbat gaitz eta ekandu txaŕetan yausita nagoan; zeinbestetan nekatuta, zirikatuta, artegatuta ta orbanduta nagoan.

Osakayaren bil̄a natoŕtzu, atsegiñ eta kemena eskatzen dautzut.

Dana dakianari, neure biotz baŕukoak agirian daukazanari, ta berak bakaŕik ondo poztu ta urgazi neikeanari itz egiten dautsat.

Zeuk bai-dakizu onik beaŕezkoenak zeintzuk yatazan, eta onoimenetan (virtud) zein txiro nagoan.

2. Ona emen, zure auŕean naukazu, txiro ta bil̄osik, eskaŕ-eske ta eŕuki-otoizka.

Yaten emoyozu goseak-il̄ik dagoan

zure eskeko oneri; nire oztasuna zure maitasunean ixiotu, ta zure arpegiko argiz nire itsutasuna argitu egikezu.

Luŕeko guztiak gaŕaztu egidazuz; neke ta naigabe guztiak yasangaŕi egidazuz, ta beko gauza ta izaki guztiak ezetsi ta aztu eragidazuz.

Nire biotza zerura, zeuganantza, eragidazu, ta luŕ gañean oŕa-ara ibilten ezeidazu itxi.

Zu bakaŕik izan zakidaz gozogaŕia beti-betirako; nire yanaria ta edaria, nire maitasuna, nire poza, nire gozotasuna ta nire on guztia zu zara-ta.

3. Zure aurpegiz ixiotu, eŕe ta zeugan aldatuko baninduzu; baŕuko batasun-eskaŕez ta maitasun gartsuaren urtutez zugaz gogo bat egin nadin!

Ez egidazu itxi zugandik baraurik ta legoŕ aldentzen, nigaz eŕukitsu izan baño, saŕitan aŕigaŕiro zeure gurenakin diarduzunez.

¿Nor aŕituko ete-litzake zure maitasunez gori-goritu ta eŕeko banintz, zu, beti gaŕetan eta iñoz be itzaliten (amatetan) ez dan sua eta biotza garbitu

ta adimena argitzen dauan maitasuna izanik?

## XVII ATZALBURUA

### Kisto aŕtzeko maitasun gaŕtsu ta lera bizia.

1. Ikaslearen otsa.—Eraspen aundienagaz eta maitasun gaŕtsuenagaz, biotzeko lera ta bero guztiaz, Jauna, aŕtu gura zaitut, euren bizikeren gurentasunagaz atsegingaŕi izan yatzuzan eta eraspenez eŕeta egozan guren ta Jaungoiko-zale asko Jauna aŕtzean zure gose-egaŕi izan zirean letxe.

Ene Jaungoikoa, betiko maitasuna, neure on guztia, zoriontasun amaitu-eziña, guren batek egundo ez euki ez oaŕtu (sentidu) ezin izan dauan gurariрik adoretsuenagaz eta itzal gorengoenagaz aŕtu gura zaitut.

2. Ta alango eraspen - biozkadak eukiteko gai izan ez aŕen-be, neure biotzeko lera osoa eskiten dautzut, arako gurari atsegingaŕi ta gaŕtsu guztiak neuk bakaŕik baneukoz letxe.

Ta gogo zintzoak asmau ta gura lei-

kean guztia, itzal apalagaz eta biotzetiko eraspenagaz emon eta eskintzen dautzut.

Ezertxo-be eztot niretzat itxi gura, neu ta neure guztiak, gogoz eta pozik, oparitzat zuri eskiñi baño.

Ene Jaun eta Jaungoikoa, neure Egiĩea ta neure Eroslea, Gizakundeko zadoŕa (eskutukia) agertu eutsan aingeruari *ona emen Jaunaren mirabea; zuk diñozunez egin bekit* (1) apal eta zintzo Miren Gizkaŕbi aintzatsuak aŕtu ta gura izan zinduzan besteko lera, itzal, gorespen, dedu, eskaŕ-on, adiguri, zaletasun, siñesmen, itxaromen eta maitasunaz gauŕ aŕtu gura zaitut.

3. Ta deunik aundiena ta zure Auŕelari Jon Ugutzaria (Bautistea), oindiño Amaren sabelean egoala, Gogo Gurenagandiko pozaŕen, zure auŕean yauzi zan lez; eta geroago, Josu Gizonen aŕtean ebiĩela ezaguturik, bere burua apaletsirik, biotz apalagaz esaten eban lez *bere auŕean dagoan eta entzuten dautsan senaŕaren adizkidea, asko poz-*

---

(1) Luc. I.38,

*tuten da senararen abotsa entzunaz,* (1) onantxe nik-be, gurari aundi ta deunez gaŕetan egon gura dot eta zuri auŕkeztu biotz oso osoagaz.

Oŕegaitik neure alde, eta neuri otoitzak eskatu daustezan guztien alde, eskintzen eta opaltzen dautzudaz biotz Jaungoiko-zaleen poz-aldiak, lera gaŕtsuak, gogo-aŕitasun, goi-argikuntzak eta zerutiko ikuspenak, baita zeruan eta luŕean izaki guztiak, euren onoimenez eta gorespenez, emon daben eta emongo daben ospea be, guztiak, dagokitzunez, goretsi ta beti aintzatu zayezen.

4. Aŕtu, ene Jaun eta Jaungoikoa, neure iskiak, neuŕi ta amai barik, zeure aunditasun ugari ta ezin-esanari zoŕ yakon beste, zu goretsi ta onesteko daukodazan gurariak.

Oneik orain eskinten dautzudaz eta egunoro ta une guztietan eskiñi gura neuskizuz; eta zeruko aingeru ta zeure kistaŕ guztiai neugaz batera zuri gorespenak eta eskaŕak egiteko oto-

(1) Joan, III, 23.

itzez ta gurariz deitu ta eskatzen dautset.

5. Goretsi bezayez eŕi, abenda ta mintzo guztiak, eta zure izen deun eta eztitsua, poz aundiaz eta eraspen gaŕtsuaz, aundietsi beye.

Ta zure ikuŕton guren-gurena itzal eta eraspenez ospatu ta siñesmen osoaz aŕtzen daben guztiak, zure begietan eskaŕa ta eŕukia auŕkitzea irabazi ta ni obendi (pekatari) onen alde apal eskatu beye.

Ta gura eben eraspena ta batasun atsegingaŕia yadetsi dagienean, eta zeruko mai deunetik ondo poztuta ta aŕigaŕiz yanarituta urten dagienean, ni, gaxo onetzaz, aŕen, gomutau beitez.

## XVIII ATZALBURUA

### Gizasemeak Ikuŕton onen laŕegi yakin-miñez eztauala ibiĺi beaŕ; bere eretxia siñismen deunaren aspian ezaŕirik, Kistoren antzaŕtzaĺe apala izan baño

1. Maitasunaren otsa.—Ardurea euki beaŕ dozu Ikuŕton sakon au yakin-zale-

keriz eta alpeŕik ez azteŕkatzeko, ezpai sakonetan ondatu gura ezpa-dozu. *Aunditasunaren azteŕkatzalea, aintzeak zapalduko dau.* (1) Gizasemeak ulertu leiken baño geyago dagike Jaungoikoak.

Eztago galazota egiaren azteŕketea, eraspentsu ta apala, irakatsia izateko gerturik eta Elexa-Abaen irakasbidetatik ibilteko alegin egiten bada.

2. Ezta-baidako bide latzak itxita, Jaungoikoaren aginbide leun eta eskieŕetik doan gogo xaloa ¡orixe bai zorionekoa!

Askok galdu eben eraspena, goitikoak azteŕkatu gurarik.

Siñestea eskatzen yatzu ta bizikera zintsoa; ez adimen zolia, ezta Jaungoikoaren zadoŕen (eskutukien) ezaguntza be.

Zeu baño beragokoak ez aitu ez ulertzen ezpa-dozuz ¿zelan uleŕtuko dozuz zeu baño goragokoak?

Jaungoikoari menperatu zakioz eta siñesmenaren aspian apaletsi zeure eri-

---

(1) Prov. XXV, 27.

txia, ta yakituri argia emongo yatzu, onuragaŕi ta beaŕezko yatzun beste.

3. Batzuek gogoŕ zirikatuak dira siñismenaren auŕka, Ikuŕton onetan; baña onen eŕua etxakie eurai ezaŕi beaŕ, areriyoari baño.

Ez yaramonik egin, ez eztabaidan ibil̄i zeure burutasunakaz, ezta txeŕenak dakaŕtzuzan ezbaiai erantzun be; siñestu ordea Jaungoikoaren itzari, siñeztu bere deun eta igarleai, ta areriyo gaiztoak iges egingo dau zugandik.

Saŕitan Jaungoikoaren otseñari onuragaŕia yako onango ziltzaldiak yasatea.

Siñesmen bako ta obendiak eztitu zirikatzen, bere menpean eskieŕ daukazalako; siñesmendun eta Jaungoikozaleak, baŕiz, askotara zirikatu ta kezkatzen dauz.

4. Jaŕaitu ba, siñeste xalo ta eŕotzuaz, ta Ikuŕtonera itzal aundiaz eldu.

Eta uleŕtu ezin dozun guztia, Jaungoiko alguztidunari eskieŕ egotsi eyozu.

Jaungoikoak eztautzu ziririk saŕtzen; norberarari laŕegi siñesten dautsa-

nak, ořexek sařtzen dautso ziri galanta bere buruari.

Jaungoikoa xaloakin dabil; apalai agertzen yake; txikiai adimena damotse; gogo-garbiai yakin-bidea zabaltzen dautse; ta bere eskaŕa, yakin-zale ta aŕoakandik ostendu egiten dau.

Giza-adimena makala da ta txulut egin lei; benetako siñesmenak ostera, ezin lei txulutik egin.

5. Edozein adimen eta berezko yakinbidek siñesmenaren atzetik yoan beař dau, ez auřetik, ta eztau bera auzi be egin beař.

Ikuřton deun eta gorengo onetan siñismen eta maitasunak euren edeřtasuna agertu ta ixil-ixil̃ean diarduelako.

Betiko, azken-bako ta alguztidun Jaungoikoak zeruan eta luřean gauza aundi ta ulertu-eziñak egiten ditu, ta bere egintza ařigařiak ulertzeko biderik eztago.

Jaungoiko-egintzak, gizonen adimenak eřez uleřtzeko bestekoak ba-lira, elitzatekez ařigaři ta esan - eziñak izango.

# BIĪABIDEA

## LENENGO IDAZTIA

### Gogo-bizitzarako oarpen onuratsuak

I. Kistoren antz-bidea ta luŕeko uzkeri guztien ezespena. 5
II. Norberazko eritxi apala. 8
III. Egiaren ikasbidea. 10
IV. Egin beaŕetazko zurtasuna. 15
V. Idazti deunaren irakurpena. 16
VI. Gurari okeŕak. 18
VII. Alpeŕiko itxaropen eta aŕokeritik iges egin bear da. 19
VIII. Adizkidetasun laŕegitik iges egin bear da. 21
IX. Agintza ta menpetasuna. 22
X. Alper-itzak uxatu bear dira. 24
XI. Bake-bidea, ta bide one-

an aureratzeko yorana. 25
XII. Zoritxaren onurea. 28
XIII. Ziltzaldiei gogor egin bear dautsegula. 30
XIV. Eritxi ariñegiak uxatu bear dira. 35
XV. Maitasunetiko egiñenak. 37
XVI. Besteen utsak eroan bearra. 38
XVII. Lekaideen bizitza. 41
XVIII. Asaba-deunen ereduak. 42
XIX. Lekaide zintsoaren iñarkunak. 46
XX. Bakar eta ixiltasun-zaletasuna. 50
XXI. Biotz-garbaya. 56
XXII. Zein gaxo dan gizona. 60
XXIII. Eriotza-gogoratzea. 65
XXIV. Obendien epai ta oñazeak. 70
XXV. Gure bizikera osoaren obekuntza gartsua. 77

## BIGAREN IDAZTIA

### Barru-bizitzarako oarpenak

I. Baruko erauskera (au-

FUNDACION SANCHO EL SABIO • VITORIA •

tua) 85
II. Menpetasun apala. 91
III. Gizon on eta baketsua. 93
IV. Biotz garbi ta asmo laua. 95
V. Norbere sokuna (ezagutzea). 97
VI. Bańu zintsoaren poza. 100
VII. Gauza guztien gañetik Josu'ganako maitasuna. 103
VIII. Josu'gazko bańu-bańuko adizkidetasuna. 105
IX Atsegin-eza. 109
X. Jaungoikoaren eskańari zor yakon eskań ona. 115
XI. Kisto'ren gurutz-zaleak gitxi dira. 119
XII. Gurutz - deunaren bide zabala. 122

## IRUGAŔEN IDAZTIA

### Bańuko atsegiña

I. Kisto'k gogo zintsoari bańuan dirautsana. 133
II. Egiak gogo bańuan itz-

zarata barik itz egiten dauala. 135
III. Gogo apalaz entzun bear dirala Jaungoikoa'ren itzak, eta askok bear dan bestean eztitue-la auznartzen. 138
IV. Jaungoikoa'ren auŕean egiaz eta apalik yardun bear dala. 142
V. Jaungoiko-maitasunaren atze aŕigaŕiak. 146
VI. Benetako maitatzal̄ea-ren ezaubidea. 151
VII. Eskaŕa apaltasunagaz estaldu bear da. 155
VIII. Jaungoikoa'ren auŕean norbera ezereztzat euki-tea. 159
IX. Elburua dan Jaungoiko-agana gauza guztiak zu-zendu bear direala. 162
X. Gizakeria ezetsi ezkero, Jaungoikoaren moŕoi izatea gozoa dala. 164
XI. Biotzeko gurariak azter-katu ta ezi bear dira. 168

XII. Eroapenaren azikuntzea ta aragi-iŕitsen aurkako buŕukea. 170
XIII. Josukistoren antzeko azpikoaren men apala. 173
XIV. Jaungoikoaren epai estariak auznartu bear dira, ondo egiten doguzanetan aŕotu ezkaitezan. 176
XV. Gura leiteken edozertan zelan yardun eta itz egin bear dan. 178
XVI. Benetako poza Jaungoikoagan bakaŕik biĪatu beaŕ dala. 181
XVII. Ardura osoa Jaungoikoagan ipiñi bear dala. 183
XVIII. Bizitzaldiko nekeak, Kistoren antzera, gogo onaz yasan bear direala. 185
XIX. Irañen eroapena, ta benetako eroapentsu nor agiri dan. 188
XX. Norbere makaltasun-autorpena ta bizitza onetako zoritxaŕak. 191
XXI. On eta emai guztien ga-

| | | |
|---|---|---|
| | netik Jaungoikoagan atseden bear dala. | 194 |
| XXII. | Jaungoikoagandik arturiko on egiteen gomutapena. | 199 |
| XXIII. | Bake andia dakaŕen lau gauza. | 203 |
| XXIV. | Iñoren bizitza-baŕiak yakin-guretik iges egin bear da. | 207 |
| XXV. | Biotzeko bake sendoa ta benetako auŕerakuntzea, zetan dagozan. | 209 |
| XXVI. | Irakurteaz baño geyago eske - otoitzaz irabasten dauala gogoak bere azkatasuna; ta zein bikaña dan azkatasun ori. | 212 |
| XXVII. | Norbere maitasunak onik-onenagandik geyen atzeratzen dauala. | 214 |
| XXVIII. | Min atze-yaleen aurka. | 217 |
| XXIX. | Loŕaldian Jaungoikoari zelan deitu ta onetsi bear dan. | 218 |
| XXX. | Jaungoikozko laguntasuna eskatu ta eskaŕa | |

bafiro eukitea itxaron bear dogu. 220
XXXI. Izaki guztien ezespena, Irazalea aurkitu al izateko. 224
XXXII. Norbera ta iŕits guztiak ukatu beaŕa. 228
XXXIII. Biotzaren aldakortasuna; ta geure azken asmoa Jaungoikoagana zuzendu bear dala. 230
XXXIV. Maitatzaleari, guztietan, Jaungoikoa yako gozagaŕiena. 232
XXXV. Bizitza onetan eztagoala ziltzaekazko eskiertasunik. 235
XXXVI. Gizonen zustar bako eritxien aurka. 237
XXXVII. Biotz-azkatasuna yadesteko norbere uko utsa ta osoa. 240
XXXVIII. Atetikoetan norbera ondo zaindu ta aŕiskuetan Jaungoikoagana yo bear dala. 242
XXXIX. Gizasemea arazoetan

arduratsuegia eztaitela izan. 244
XL. Gizonak berez ezebe eztaukola ta zegaitik afotu bez. 245
XLI. Aldiko dedu guztien ezespena. 249
XLII. Bakea eztala gizonakan ipiñi bear. 250
XLIII. Gizonen arteko yakituri utsalaren aurka. 252
XLIV. Atetikoak eztira norberagandu bear. 254
XLV. Guztiai etxakela siñestu bear, ta itzetan arin labantzen dala. 256
XLVI. Itz mingafiak zauritzen gaituenean, Jaungoikoagan itxaron bear da. 260
XLVII. Betiko bizitzeagaitik neke guztiak yasan bear direala. 264
XLVIII. Betiko eguna, ta bizitza onetako lafialdiak. 267
XLIX. Betiko bizitzaren guraria ta bufukalarientzat eskiñita dagoan ogasun

yoria. 272
L. Gizon atsekabetua zelan Jaungoikoaren eskuetan yaŕi bear dan. 278
LI. Egikizun apaletan ekin bear dala, aundietarako adorerik eztagoenean. 283
LII. Pozaldiak baño zigorkadak irabaziago dabezalakoan egon bear dabela gizasemeak. 285
LIII. Luŕekoak goxo dabezanakaz eztala Jaungoikoaren eskaŕa nastuten. 288
LIV. Izatasunaren eta eskaŕaren eragikun banak. 291
LV. Izatasunaren usteltasuna ta Jaungoikozko eskaŕaren eragimena. 297
LVI. Geure burua ukatu ta gurutzearen bitartez Kistoren antza artu bear dogula. 302
LV.I. Iñor eztala laŕegi kikildu bear, utsen batzuetan yausten danean. 306
LVIII. Goitiko eta Jaungoikoa-

ren erabagi estariak eztira azterkatu bear. 309
LIX. Jaungoikoagan bakaŕik uste ta itxaropen guztia ezaŕi bear dala. 316

## LAUGAŔEN IDAZTIA

### Opa-maiko Ikurtona

I. Zelako itzalaz artu bear dan Kisto. 321
II. Ikurton onetan gizonari Jaungoikoaren ontasun eta maitasun aundia agertzen yakozala. 330
III. Ondo dala saŕitan Jauna artzea. 334
IV. Jauna eraspentsu artzen dabenai, on asko emoten yakiezala. 338
V. Ikurtonaren aunditasuna ta Jauparien bikaintasuna. 343
VI. Jauna artu baño len zelan yardun bear dan itanduten da. 346
VII. Norbere baŕua araka-

tzea ta ontzeko asmoa. 347
VIII. Kistoren gurutzeko buru-eskintea ta norbere ukoa. 351
IX. Geure burua ta geure guztiak Jaungoikoari eskiñi bear dautsaguzala ta guztien alde otoitz egin. 353
X. Jauna artzea eztala eŕaz itxi bear. 357
XI. Kisto 'ren gorputza ta Idazti deuna gogo zintzoak beaŕ-beaŕak dituala. 362
XII. Ardura aundiaz gertu bear dauala Kisto artuko dauanak. 368
XIII. Gogo Jaungoiko-Zaleak Ikurtonean Kistogaz batzea biotz-biotzez gura bear dauala. 371
XIV. Jaungoiko-zale batzuen Kisto'ren gorputza artzeko gurari gartsuak. 375
XV. Eraspen-eskaŕa apaltasunaz eta norbere ukoz

yadesten dala. 377

XVI. Gure bear-izanak Kistori agertu ta berari eskaŕa eskatu bear dautsagula. 380

XVII. Kisto artzeko maitasun gartsu ta lera bizia. 382

XVIII. Gizasemeak Ikurton onen laŕegi yakin-miñez eztauala ibil̄i bear; bere eretxia siñismen deunaren azpian ezaŕirik, Kisto'ren antzartzal̄e apala izan baño. 385